# EGAN

JOSEBA GABILONDO:
**Kanonaren sorrera egungo euskal literaturan: *ETIOPIA*-z**

P. XARRITON:
**Klasikoak, bai, bainan...**

XABIER MENDIGUREN:
**Larrialdiak**

**Kritikak eta erreseinak**

**1993-2**

# AURKIBIDEA

## AZTERKETA LITERARIOA


JAVI CILLERO. Errebeldeak eta... ..... 5

J. GABILONDO. Kanonaren sorrera egungo euskal literaturan: *ETIOPIA-Z* ..... 33

B. OYHARÇABAL. Pastoralen jatorriari eta noiz-kotasunari buruzko ikerketak ..... 69

IÑAKI MOZOS. Pastoral zaharren inguruan ..... 85

P. XARRITON. Klasikoak, bai, bainan... ..... 97


## SORKUNTZA

POESIA


IBAIERTZ. Bide larriaren poema ..... 111

K. ZUBELDIA. zuek ez dakizue ezer ..... 115


ANTZERKIA


XABIER MENDIGUREN. Larrialdiak ..... 121


KONTAKIZUNAK


TXOMIN PEILLEN. Monsieur le ministre ..... 149


## AHOZKO TRADIZIOA


XABIER AZURMENDI. Zegamako "Kontuk" ..... 155


## ITZULPENAK


C. BOUSOÑO. Errealitatearen erasoa ..... 175

IGNACIO ALDECOA. Azken agurra ..... 181


## ADABAKIAK


LUR hiztegi enziklopediaz ..... 189

Donostiako Uda Ikastaroak ..... 192

ELHUYAR: Historia eta egitasmoak ..... 195

Alberdaniaren dekalogoa ..... 198

Eusebio Erkiaga (1912-1993) ..... 201

Bost kazetari sarituak ..... 203

Euskaltzaindian ohorezko bost euskaltzain oso berri ..... 205

# EGAN




EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO
"BOLETIN"-AREN EUSKARAZKO GEHIGARRIA

Idazkaritza: Euskalerriaren Adiskideen Elkartea. Gipuzkoako Saila
992 Postakutxatila — DONOSTIA

**II Garaia** **XLV* alea** (zenbaki zuzendua) **1993-2**

*Gipuzkoako Foru Aldundiak*
*eta*
*Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak*
*diruz lagundutako aldizkaria*

*Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak*
ez du derrigorrez bat etorri behar,
*EGAN* aldizkarian agertzen diren edukiekin.

**ERREDAKZIO BATZORDEA**

| | |
|---|---|
| Zuzendaria: | Luis Mari Mujika |
| Zuzendariordea: | Iñaki Zumalde |
| Idazkaria: | Gillermo Etxeberria |
| Administraria: | Jose Antonio Zabala |
| Bokalak: | Jose Mª Urkia |
| | Juan Garmendia Larrañaga |
| | Abel Muniategi |


ISSN: 0422 - 7328. EGAN
Legezko Gordailua: S.S. 289/1958
Inprimategia: IZARBERRI, S.A. - 36. Industri Poligonoa. - USURBIL

# AZTERKETA LITERARIOAK



# Errebeldeak eta...

JAVI CILLERO

Susan E. Hintonek emaitza politak ekarri ditu Estatu Batuetako gazte literaturara azken hogeita bost urteotan. Oklahomako idazle honek The Outsiders bere lehengo nobela 1967an Unibertsitatean sartu aurretik argitaratu zuen eta harrez gero, 10 milioi ale baino gehiago saldu ditu. (Daly, aitzin-solasa) Elaberri hura hamazazpi urte zituela idatzi zuen. Ondoren, beste lau bat nobela idatzi ditu, eta batzuk zinerako bertsioa ezagutu dute. Bestalde, aipatzekoa da nolako begirunea lortu duen idazle goiztiar eta patxadatsu honek gazteen artean bere lanen egiatasunari esker.

S. E. Hintonek benetako kezka azaldu du nobela guztietan gazteriaren egoeragatik, gaztaroko kontuengatik eta gaztetasunaren ajeengatik. 1948an jaioa, Tulsako giroak bultzatuko zuen gazteez idaztera eta The Outsiders lehenengo nobelaren arrakastak betiko finkatuko zuen bidean. Geroago beste ahalegin batzu etorriko ziren, beti ere gazte munduari lotuak, eta gaur egun denek ezagutzen dute Hinton aintzindari izan zela errealismo eta egiantzako lanak taiutzen. Nolabait esateko, zorretan dago berarekin Estatu Batuetako gazte literatura, Hintonek bidea urratzen egindako ahaleginen fruitua bait dira gaur egun plazaratzen diren hainbat eta hainbat liburu alor horretan.

Bada, are aipagarriago dira Hintonen emaitzak kontutan hartzen bada lehen nobela hamasei urtekoa izanik idatzi zuela, eta harraz gero, oso kontu handiz ibili dela ezer argitaratu baino lehen. Hogei urteko epe luzean bost liburu argitaratzeak garbi asko adierazten du lanaren seriotasuna, errazkeria komertzialak alde batera utzita. Benetako idazle ekartsua izatera bultzatu nahi izan zuten hamasei urteko gazte baten haisera arrapaladatsua eta guzti, baina berak be-

reari eutsi zion. Honela, ba, istorioen egiantza eta pertsonaien xarma kontutan hartuta, liburuok hesia apurtu eta helduen kilikagarri bihurtu dira.

Bost liburuotatik, lehenengo hirurak hiriari lotuta daude. Pertsonaien arteko harremanak eta giroa bera ere ezagun egiten zaizkigu liburu batetik bestera. Zinean izan duten islada dela medio, libururik ospetsuenak ditugu, inondik ere. Hori dela eta, aparteko aukera eskaintzen digute analisi berezi bat egiteko. Beste biak, *Tex* eta *Taming the Star Runner*, idazle helduago baten emaitza dira, lehenengo hirukoteak iragartzen zuen ondoren landua.

**The Outsiders**

*The Outsiders* dugu S.E. Hintonen lehen nobela, ezagunena eta maitatuena. Oso gazte bazen ere idatzi zuenean, liburuaren egiantza klitxeen gainetik nagusitzen zen, lehenengo kritikoen eritziz. (Thomas Fleming, 10-12) Liburuaren mezu nagusia idealismo konpromezubakoa da Jay Dalyren ustez, (14) eta beraz, idazleak izenburutik hasita iragarriko digu nortzu dituen gogoan: gizartearen ertz-ertzean bizi diren gazteak, hesi konbentzionanal apurtzeko gauza direnak.

Nobela honek moldeak apurtu zituen Estatu Batuetako gazte literaturan haize freskua sartuz modazalekeriaz eta iruzurrez beterikako literatura klase hartan. Hala ere, ez da pentsatu behar "sex-drugs-rockanrola"ko nobela dugunik. (Seay, 71) Egileak kontu handiz jokatu zuen istorioa kontatzean eta leporatzen zioten gordinkeria egia baino ez zen, berak artikulu argigarri batean azaldu zuenez. (26) Kontua zen, Hintonen ustez, helduek gazteei buruz idaztean beren gaztaroa gogoan zutela, edota orduko gazteria kanpotik ikusten zutela. Indarkeria zela eta, gazte liburuetan nabarmenkeria bihurtzen denean debekatuta egon beharko zela erizten zion, baina kasu horretan baino ez. (29) Baina agian argiena gazteei emandako konfidantza izan zen, izan ere, gazteek gauza asko zekitela baietsi bait zuen Hintonek. Agian helduak epaitzeko beste. Eta horrek amorru eman zion hainbat jenderi.(29).

Gazte batek idatzitako nobela bat ez ezik, gazteei zuzendutako ahots bat ere aurkitu zuten irakurle gazteek. J. T. Gillespieren arabera, adiskidetasuna, familia harremanak eta indarkeriaren ondorioak aztertzen dituen nobela hau ezinbesteko abiapuntua dugu gazte taldeen kulturara hurbiltzean "gangs" eta guzti. (61)

Irakurle gazteak berehala

konturatu ziren liburuaren balioaz eta halaxe adierazi zioten Hintoni eskutiz parrasta baten bidez. Egileak Zena Sutherlandi aitortu zionez, (1968,34) hamar-hamabost urteko jendeak bere bizitza isladatuta ikusten zuen liburuan. Batzu Ponyboy zirela pentsatzeraino iritsi ziren, beste batzu hiriko bizimodua zehatz-mehatz pintatu zuela esaten zioten hurrengo batzuk soc-greaser taldeen arteko lehi egunerokoa zela beren auzoetan, taldeen izenak aldatuta ere.

Era berean, helduen erreakzioa hotzago eta areago, gogorra izan zen eta liburua baztertzen saiatu ziren indarkeriaren aitzakian. Batzuk ezin sinetsi zuten halako liburua gazte batek idatzia zela. Baina liburuak bere bidea egin zuen gazte jendearen artean eta laster helduko zen klasiko izatera.

Bi talde sozial ezberdineko gazteak elkarren aurka ari dira nobelan: greaserrak eta socak, behe maila eta goi mailakoak, hain zuzen ere. Panyboy Curtis mutil greaserra umezuurtz da eta anaia birekin bizi da etxean. Johnny Ponyboyren lagunaren gurasoak beti daude istiluka eta mutikoa jotzen dute. Honela, Ponyboyek eta Cherry neska soc batek elkarrekiko loturaren bat bilatu dute burrukak ekidin nahian. Hala ere, socen eraso batean Johnny gaztetxoak Randy soca hilko du. Ponyboy eta Johyk ihes egin beharko dute baserri aldera. Horretarako, Dallas Winston, beste lagun batek, laguntza emango die. Aldi batez mutiko gazte hauek bakarrik bizi beharko dute eliza huts batean. Bertan gertatuko da sute ikaragarri bat eta eskolume batzu harrapatuta geldituko dira barruan. Orduan, Johnnyk eta Ponyboyek erreskatatuko dituzte, Dallasek lagunduta. Honen ondorioz, egunkarietan azalduko dira heroi bihurtuta, baina Johnny ospitalean hilko da erredurak direla kausa eta Dallas poliziak tiro emanda, Johnny hil dela jakin duenean, bere onetik aterata denda batean pistola (balarik gabe) erakutsi ondoren. Bestalde, soc-greasearren arteko azken borroka izango da eta hartara ez da joango socen buruzagietariko bat, nazkatuta Ponyboy bezala, zentzugaberia hartaz. Guzti hori Ponyboyek kontatuko digu atzera egindako oroitzapenetan, idazle izatea erabaki bait du.

Ponyboy Curtis da nobelaren ardatza. Mutil gazte bat, umezurtza, idealista eta erromantikoa, ilunabarrak gogoko dituena. Era berean, bere auzoko pobreziaz jabetuta, kontzientzia hartuko du nor den eta non bizi den, eta giro bortitz hartatik ez dagoela atarramendurik sinetsiko du. Bideak egingo ditu egoeratik askatzeko, zerbait hobea lortzea-

rren, (Cherryrekin mintzatzea, baserrialdeko bizitza ezagutzea, istorioak kontatzea) eta azkenean lagunen heriotzari aurre eginez, gogoeta egingo du guzti honetaz elaberriaren tankeran. Bere esperientziak zabaltzean, gazte sentimendu zabal bati erantzungo dio. Berak esaten duenez, kontua ez da norberaren arazoa, gazte askorena baizik.

Idazlearen zereginaz jabetzen da Ponyboy, zerbait adierazi beharra sentitzen du eta horrek emango dio pertsonaiari patxada. Ikusle abantailatsu gisa ageri zaigu Ponyboy, lekukotasuna eskaintzeko modurik onenean. Horregatik, ba, hala anaiekin nola lagunekin eta arerioekin gogoetari jokatuko du, batez ere, lehenengo esperientziak ikusita. Izan ere, auzo bazterretik irten nahian dabilen gazte batentzat bestelako munduak oso inportanteak dira, eta literatura, gauzak konprenitzeko modu bat.

Johnny, taldeko mutiko txikia, giro bortitzaren ondorioak pairatu behar izan ditu, bai etxean, bai kalean. Gurasoek ez diote atentziorik ematen, askotan kalean egingo du lo, baina kaleko giroa ere ez da samurra eta sockek jipoitu zutenetik beldur ikaran bizi da Johnny, inortaz fidatzerik ez duela. Hala ere, pertsonaia bilakatu egingo da elaberrian zehar, auzotik kanpora irten eta beste mundu bat dagoela somatzean. Izadia aurkituko du mundu horren euskarri eta gauza onak egiteko kapaza dela konturatuko da, hala nola, haurrak sutetik ateratzea. Prezioa ordainduta, hil egin beharko da balentria burutu ondoren, baina lezio ederra emanda denei.

Dallas dugu agian Ponyboyren kontrapuntua nobelan. Johnnyren bilakaera Dallasen antzekoa izan zitekeen, baina Dallas ez da Johnny bezain sentibera (edo ez du horrela azaldu nahi) eta lehenengo urteko kontuak ondo ikasita dauzka: umezaindegian ibilita, kalera irten eta inork ez diola lagunduko sinetsi nahi du, agian, auzo giroan berriro zanpa ez dezaten. Honenbestez, Dallasek Ponyboy irtenbide bila ibiltzeari alferrik deritzo, ez bait du uste halakorik onartuko dionik gizarteak. Oso pertsonaia konfliktiboa, ideia bakarrekoa, agian, baina leiala lagunekin, auzoak ematen duen loturaren erakusgarri. Gurasoek ahaztuta, gurasoak ahaztu ditu, eta horiekin batera helduen mundua, berarentzat mundua oso erraz banatzen da bi zatitan: maitagarriak eta gorrotagarriak. Tamalez, azken hauek gehiegi dira berarentzat eta akatu egingo dute. Dallasen heriotza suizidio poetikotzat jo daiteke, bere buruaz beste egiteraino bihurtzen bait ditu hariak Johnny hiltzen ikusi duenean.

Ponyboyren anaiak Soda eta

Darrell dira. Darrell anaia nagusia da, aita-amak hil ondoren etxeko ardura hartu duena. Bere gain hartu nahi du anaien heziketa, baina oso eginkizun latza da eta huts egiten duenean arazoak izango ditu Ponyboyrekin. Hala ere, elkar maite dutenez, bat egingo dute azkenean. Soda pertsonaia alaia da, beti ere alde onak ikusten dituena gauzetan. Hori dela eta, Darrell eta Ponyren arteko zubia da.

Beste lagunak, Two-bit, Steve, auzoko lagunak ditugu. Ondo pasatzen dute burrukan, nesken atzetik denbora osoan, telebista ikusten, garagardoa edaten... azpikultura horren mugak ezagutzen dituzte eta badakite horretaz baliatzen aurrera egiteko. Era berean, erraz antzeman daiteke mundu horretan jaio, hazi eta hil egingo direla, ezinbestean.

Cherry neska garrantzitsu bakarra dugu nobelan, eta hori socen taldekoa delako. Izan ere, neska greaserrak ez dira ereduzkoak, Ponyboyren ustez, eta ez dira ageri auzo bizitzan. Cherryren izaera munta handikoa da ulertzeko Ponyboyren asmoak zenbateraino izan daitezkeen zilegi eta bestalde, alferrikoak. Izan ere, Cherryk aitortu bait dio Ponyri bizimodua latza dela edonon, ez dutela haiek ere aberatsak izanagatik, gazte bizimodu ederra, arazoak nonnahi daudela eta agian arazo larriena gazte izatea dela beraien kasuetan, Dalyren arabera. (29) Bada, ikusten denez, Cherry leiala da taldearekiko —Johnnyk hildako socaren alde onak ikusten badaki— baina era berean, ulertzen du Ponyboyren egoera, mundu bortitz horretatik irtetzeko gogoa eta.

Socen artean, beste pertsonaia ulerkor bat Randy dugu. Honenbestez, burrukari uko egitean bere buruzagitzari uko egingo dio, taldeak ez bait du barkatzen, baina horrek balio handiagoa emango dio bere ekintzari, zeren indarkeriazko gurpil zentzugabea eten beharrean bait dago eta beste inor ez da ausartuko bidea erakustera.

Pertsonaia gazte hauen psikologia heldutasunerako bidearen adierazgarri zaigu. Darrell anaia nagusia dateke elaberriko heldu bakarra, hein batean behintzat. Familia lokarriari eusteko rol hori jokatu du eta anaien ardura bere gain hartu. (Seay, 71) Hala ere, ez dago oso zihur bere egoeraz eta burrukatan parte hartzen du, gazteek bezala. Beraz, zerbait falta zaio benetan heldua izateko eta horrek agian zabaltzen du tartea Ponyborekiko. Honek, berriz, eskarmentu ederra izango du bidean, hildakoa, haurrak erreskatatzea, eta burruka onartuko badu, nekez eta ezinbestez onartuko du, ondo jabetuta hori

ez dela bidea, eta areago, badagoela beste biderik nonbait.

Bestelako pertsonaiak ikusita, esan daiteke heldutasunera bidea gai nagusia dela gazteentzako nobela askotan bezala, eta hori hiru mailatan nabari dela: sentimenduetan, gaitasun ekonomikoan eta adimenduan. Batetik, gazteok bakarrik sentitzen dira, etxeko maitasunaren gabezian, eta taldean bilatzen dute indar afektibo hori. Umezurtzen gizartea deritzo horri J. Dalyk. (30-31) Besterik, halako auzoan aurrera egiteko aukerak urrituz doaz, eta lana bilatzea ere ez da erraza, baina oraindik ere zertxobait lortzen da —Darrell, Soda—. Hala ere, mundua deskubritzeko irrikaz edo, beste batzuk ez dute ezer egiten —Two-Bit, adibidez—, edo Dallasek bezala, azpimunduan sartu dute burua, bestelako irtenbiderik ezean. Adimenduari dagokionez, munduan eroso ibiltzeko jarrera bakarra burrukan aurkitu dute, hau da, socen aurka egiteak ematen dien talde kontzientzia jarrera bakarra burrukan aurkitu dute, hau da, socen aurka egiteak ematen dien talde kontzientzia eta segurtasuna, bizitzari aurre egiteko modu bitxia baina zihurra. Bestalde, Ponyboyk, Johnnyk eta Cherryk ematen digute beste irtenbide bat pozik egoteko: liburuak irakurri, izadiaz gozatu, sentimenduak azaldu... mugak gainditzeko daudela adierazten digute. Irakasle amerikar batek esan duenez, gazteen zailtasuna agintea onartzeko eta beren barne gatazka agerian gelditzen dira nobela honetan. (Mills, 644)

Kaleko giroa nagusia da nobelan. Hasieran kalean ikusi ditugu mutilak, batzuk kalean dute aterpe bakarra gauez, beti ere kalean egingo dira burrukak, eta kalean hilko dira hil behar direnak, aukeran parkeetan. Parkean ere bilatuko du aterpe Johnnyk etxerik botatzen dutenean. Nolako kaleak pintatu dizkigu S. E. Hintonek? Bada, funtsean parkeak dira gehien agertzen diren tokiak. Ez da etxe aurreko giroa, ez eta bilar-aretoarena ere. Kasu honetan espaloiak irristatu dira parkeraino eta han elkartuko dira mutilak beren abenturak eta zoritxarrak bizitzeko.

Metafora politak egiten ditu egileak urre kolorearen bitartez: ilunabarrak, egunsentiak, Ponyboyren ilea tindatzeaz... gizakiaren aldaketa eta bilakaera positiboaren erakusgarri ditugu, hala nola, R. Frosten poema. Izan ere, literatura dugu beste erreferentzia nagusi bat nobelan. M. Mitchellen "Haizeak eramana" elaberrira joko dute Johnnyk eta Ponyboyek beren penak arintzeko. Handik sortuko zaie irrika berri bat, gauzak ikusteko modu berri bat, hain zuzen ere.

Narrazioaren denborari dago-

kionez, iraganari egindako begirada nabari da nobelan, iragan hurbileko bat, baina oso bizia, betiko markatzen duena. Pertsonaia nagusiak atzera begiratu du eta horrela hasi zaigu kontu kontari. Narratzaile klabea aukeratu du Hintonek istorioa kontatzeko. Ez du hartu Dallas erakargarria edota mutiko helduago bat, nahiago izan du greaserren ikuspuntua landu, baina benetako greaser izateko arrazoirik aurkitzen ez duen baten begitik eman digu istorioa. Horrela, bi munduen arteko nahastea sortu du egileak.

Eszena nagusiak birpasatuta, -lehenengo burrukak, ihesaldia, baserriko bizimodua, sutearena, azken burrukak eta jazarpena, etab. ekintzak oso markatuta daudela nabaritzen dugu eta badirudi aurkezpena egin ondoren egileak arazoen mamian sartu nahi gaituela. Badirudi egilearen eskua nabarmen aritu dela introspekzio eta ekintzaren arteko oreka lortzeko asmoz, Dalyk dionez. (17)

Bestalde, pertsonaiak bere kabuz bizi dira hasieratik eta ohi ez bezalako kontakizuna osatzen dute. Izan ere, nobela honen erakargarritasuna pertsonaien egiantzan datza. Tradizio amerikarraren ildotik, nobela honetako ekintzak pertsonaiak taiutzen ditu eta egoera bakoitzean nola jokatzen duten, halako bilakatuko dira, Dalyren arabera. (16) Bestalde, Hintonek margoztutako koadroa denboratik kanpo irteten da, Easeyren arabera, (72) denboragabe bihurtu da, eta agian horregatik egunero inguratzen ditu irakurle berriak freskotasuna galdu barik.

**That was then, this is now**

*That was then, this is now* dugu bigarren nobela. Hintoni lanak eman zizkiona idazten. Izan ere, bere idazle zereginaz jabetuta, Ponyboy bezala, gorriak ikusi zituen lehen nobelaren arrakastaren ondoren idazteko ezer ez zeukanean. Egoera gainditzeko, Unibertsitateko irakasle batek bultzatu zuen beste liburu bat idaztera. Honen ondorioa, gogoeta pausatu eta hotzagoa irten zitzaion Hinton gazteari. Bigarren nobela honetan zenbait gai nagusitu ziren. Besteak beste, Dalyren ustez, adiskidetasuna eta denboraren iragatea, traizioa eta jendeaz arduratzea. (37-40) Era berean, Hintonek bere estiloari eutsi zion eta oso nobela zuzena eta egiantzekoa sortu zuen, Zena Sutherlanden eritziz. (1971,8).

Nobelaren haria nahiko xumea da. Bryon eta Mark anaiak bezala dira. Bryonek kontatzen digunez, Marken gurasoek elkarri tiroa eman ziotenetik Mark Bryon

eta honen amarekin bizi da. Itxuraz bezain bestelakoak izakeraz, bi gazteok auzoko munduan murgilduta daude, beti ere elkarrekin. Beste lagun bat M&M gaztetxoa dute, eta istorioa osatzeko neska gazte bat, Cathy M&Mren arreba, etxera itzuli berria. Neskak tartean, azpijokoak nabari dira eta Mark burruka zikinean zaurituko dute Angela Sheparden mendeku erratu batengatik. Neska hori Bryonekin ibiltzen zen eta amorruz gelditu da orain mutilak kasurik egiten ez diolako. Bestalde, Bryon eta Markek bilarrean irabazi dieten galtzaile haserratu batzuk Charlie tabernaria hilko dute, mutikoei gaizkileen hatzaparretatik ihes egiten laguntzen dienean. Bryon lanean hasi eta Cathyrekin elkartzen denetik, anaien arteko tartea zabalduz doa, gero eta era ezberdinagoak bait dituzte mundua ikusteko. Bestalde, Shepardtarrek Bryon jipoituko dute honek eta Markek Angelari ilea moztu ondoren. M&M droga munduan murgilduko da eta egoera larri honen errudun Mark izango da, Bryonen ustez, langabezian egon eta droga saltzaile bihurtu bait da. Honenbestez, Bryonen anaia poliziari salatu eta gazteentzako erakunde batera eramango dute Mark. Bryonek hautsi egingo ditu neskarekikoak eta Mark erabat arrotz eta gorrotagarri bilakatuko zaio azkenengoz elkartzen direnean. Orain Bryon zalantzaz beteta dago, ez da jadanik mutiko hura eta ezin du erantzunik aurkitu galdera larri guztiotarako.

Bryon gazte oldartsua da, eta momentu erabakiorren berri kontatuko digu. Nola aldatu zaion bizimodua tarte labur batean. Aurrerantzean, kontuak azberdinak izango dira eta bidean gauza asko sakrifikatuko ditu: lagunak, maitasuna, bere buruarekiko segurantza... Bada, oraingo honetan Hintonen pertsonaia nagusia ez da heroia, ez eta gurasoek baztertutako mutila. Aitzitik, amarekin oso ondo moldatzen da, elkar maite dute eta arazoa gehien mintzen duen lekutik helduko zaio: anaiatzakoarengandik. Berak esaten duenez, gehien maite duguna gorrotatzea da gauzarik izugarriena. Anaia arteko maitasuna gorroto bilakatuko da Bryon heldutasunera bidean abiatu ondoren. Izan ere, Mark aurrera egiteko gauza ez bait da. Bryonek ez du kode finkorik, ezin du orain dena epaitu eta erabaki ondo ala txarto egin duen, baina egoera berri honetan bestelako begirada egindo dio munduari. Anaia sakrifikatu egingo du heldutasunerako urratsaren truke. Haztea, Millsen eritziz, erabaki latzak hartzea da gauza garrantzitsuen gainean. Alabaina, batek susmoa hartzen du batzutan ez duela pena merezi. (645)

Mark pertsonaia oso erakargarri agertarazten digu egileak,

geroago eta gorrotagarriago izan dakigun. Izan ere, Mark helgabea biktima da neurri batean, egiten dituen gaiztakeriak oso gazte egin dituelako eta horrek markatu egingo du betiko. Familiarik gabe, ezin du koderik finkatu, kasu honetan Bryon anaiantzekoaren laguntzarik jaso ezean, ez zerurako ez lurrerako geratu delako, eta honenbestez, bide errazera labainduko da. Markek oso kode erraza erabiliko du eta aldatzeko garaia heldu ez zaionez, horrela jokatuko du gazteraren oldarpenari jarraikiz, inorengatik konturik egin gabe. Honenbestez, Bryonen bilakaera positiboari kontra egiteko erabilitako pertsonaia da Mark, patu aldaezinari darraikiona.

Cathy eta Angela hobeto markatuta daude istorio honetan beste nobeletako neskak baino. Egia esan, Angela pertsonaia bizia da, gaiztoantzeko neskatoaren kilimak eragiten dituena, eta nobelaren ardatz bihurtuko da zenbait pasartetan, ekintzak nola gertatzen diren eragile garrantzitsua bait da. Bestalde, Cathyren jokaera ere neurri batean aldez aurretik igartzen da, mutilaren mendean bait dago ekintza guztietan. Kontua mutil horien jokaera bait da, ez neskek zer pentsatzen duten.

M&M mutikotxoaren bidez oso era lazgarrian azaldu du S. E. Hintonek drogaren eragina auzoko bizimoduan. Kaleak usteldu eta jendea banantzea lortu duen izurritea da droga nobela honetan. Jadanik ez dago bidaia alegeraren arrastorik. 71ko nobela izaki, azpikultura honen falta nabari da, drogaren arrastoak gaur egungo egoeratik hurbilago bait daude, 67ko uda maitagarri hartatik baino. Hala ere, egileak halako galdera egiten du: eta M&Mek bidaia ona egin balu? Honenbestez, Hintonek ez ditu itxiko droga kontuak direla eta eragindako galderak.

Charlieren heriotza ere gogoan hartzekoa da. Mutilak salbatzeko emango du bere burua gixajoak. Bera oso mutil azkarra izan zitekeen, baina bidean gelditu da. Horrela, bada, benetako indar aurrerakoia dugu nobelan, mutilei aukera bat ematen dakiena eta honenbestez, bere eskuzabaltasunaren adibidea medio Bryoni begiak zabaduko (?) dizkio.

Bestelako gazteak, Shepardtarrak eta P. Curtis, auzoko biztanleak dira. Ponyboy Curtis jadanik ez da outsider bat, hemen nagusi azalduko zaigu, Cathyrekin elkartuko da eta nolabaiteko amaiera zoriontsua bilatuko nobelan. Bide hau aukera zezakeen egileak Bryonentzat, baina errazegia izango zatekeen. Izan ere, galderak egiteko ordua heldu denean, batek ezin du jadanik zoriontasuna errazean sinetsi.

Mikeren kasuaren azpian ere moral kristauaren arrastoak somatzen dira. Begiak begi truk esango du Markek, baina horren ordez, maitasuna bihurtuko du Mikek jendetza haserratuaren jipoia. Honi ikasiko dio Bryonek filosofia hori, baina harrigarri bada ere, ez du horrela jokatuko Markekin.

Arreta berezia merezi du Bryonen amak. Gutxitan ikusiko dugu Hintonen nobeletan hori bezalako pertsonaia heldurik, baikor eta amultsua. Rumble Fishen aita nagusi izango bada ere, oraingo honetan amatasuna da samurtasunaren erresuma. Agian, ama da Bryoni gelditu zaion aterpe bakarra amaieren eta horregatik pentsa daiteke nobela ez dela erabat etsipengarria.

Denbora eta aldaketa derrigorrezkoak dira gizakion bilakaeran eta Hintonek argi ikusi zuen hori bigarren nobela idazterakoan. Horrela somatu dute Dalyk (47) eta bestek (Cart,8). Heldutasunera bidean, pertsonaia hauen ibilbidea ez da batere samurra eta ohi denez, gauza asko utzi beharko dituzte bidean. Oraingo honetan, arazoa ekonomikoa bada ere, ez da premiazko kondizioa aurrera egiteko. Bryon eta Mark ez dira goseak hilik, eta ondorioak beste ildo batetik doaz. Bryonek Cathyrengan bilatuko du nortaz arduratu, haien arteko harremanetan aurkituko bait du hutsuneak betetzeko parada. Baten bati kasua egitea, horretaz sufritzea... Markekiko erlazioa parekoa da, liluratuta egon delako eta orduan hautabidean aurkituko du bere burua Bryonek. Aurrera ateratzen diren neska-mutilak P. Curtis, Cathy eta dira. Bryon kinka larrian geratuko da, oinak erabat finkatu gabe heldutasunean. Mark, berriz, betiko madarikatua. Eta M&M buruan ikutu bat jasota. Zer esanik ez, Angela eta Shepardarrak irin bereko opilak irtengo zaizkigu: auzoan jaio, hazi eta hil egingo diren erdipurdikoak. Nortzu dira onak, nortzu gaiztoak? Jadanik ezin da mugarrik ezarri, nor bere buruari jarraitu behar zaio eta agian hortik irtengo da hala-holako konpromezuren bat, erabat ona izan barik ere, txarra izango ez dena.

Nobela honen egitura makalagoa da, arean. Hasierako eszenak oso motelak dira eta gazteen bizimodua aurkezteko teknika eta betiko estilo arina erabiltzen baditu ere, Hintonek astun samar kontatu digu istorioa. Bestalde, hari nagusiak oso argi daude eta ez dago ustekabe handirik, baina bai amaiera aurrikusitakoaren iragarpena. Nolanahi ere, badira eszena eta zati interesgarriak, betiko S. E. Hinton dakarkigutenak, hala nola, Mikerekiko elka-

rrizketa ospitalean, bilar osteko burruka eta lagunak M&M bila dabiltzanetan. Bestalde, oso pertsonaia arruntak darabiltza Hintonek hemen eta beste nobeletako pertsonaia xarmangarri eta liluratzen gaituzten horien aldean pobre xamar gelditzen dira. Agian, errealismoari lotutako ahalegin bat egiteagatik, zeren nobela honetan ez dago ez poesiarik, ez mitifikaziorik eta hori izan liteke gogorrena irakurlearentzat.

Errealismoaren arazoa deteke, ordea, nobelaren baliorik handiena. Lekuak errazak dira ezagutzen, Estatu Batuetako hirietan halakoxeak bait dira. Hala nola, pertsonaiak. Ekintzak ere ez dira bitxiak eta gazte askoren bizitzatik aterata dirudite. Honenbestez, jakin nahi genuke zein den idazlearen asmoa nobela honetan. Bada, pertsonaiei begirada egin eta ikusiko dugu nola behin eta berriro agertzen zaizkigun honako gaiok: heldutasunera bidea, erroak finkatzea, munduari aurre egiteko zalantzak. Kontu guzti hauek indar handiagoa hartzen dute ingurune errealean, fikzio hutsean baino

Narratzailea aukeratzean, *The Outsiders*en eragina nabari da, baina oraingoan ez da hain zehatza izango. Ponyboy hotzago zen gauzak kontatzen, hemen Bryonek Rusty Jamesen irudia aurrez iragartzen digu alde askotatik begiratuta behintzat. Badirudi egileak pertsonaia justifikatu nahi duela, pertsonaia erabat askatu barik. Izan ere, narratzaileaz mintzo zaigunean, erreferentziak ez dira batere onak: gezurti hutsa, berekoia dugu Bryon, eta kontatzen digunak ez du zertan izan beti egia, Dalyren arabera. (56)

Espazioa antolatzerakoan, puntu zehatzak dira taberna, eskola, etxe, ospitalea, bai eta betiko paseoa hirian zehar, ekintza aurreratzeko eta intermedio trinkoa sortzeko. Hiriari ezartzen zaion begirada ez da izango lehengo modukoa, ez dago elkartasunik, taldeen arteko lokarririk, eta *middle-west* moduko giro arrunta azalduko zaigu begietara. Izan ere, egileak bereriaz pintatu digu hiriko bizimodu hits eta tristea, droga arazoaren paisaia latza laguntzeko.

Aipatzekoa da, dena den, lan honen irudigintza landua. Dalyk ohartarazten digunez, lehoiaren erreferentziak ezinbestekoak dira Mark ateratzen den bakoitzean, (52) eta bestelako jokoak ere atseginak dira, baina egileak baztertu egin ditu erreferentzia literarioak, eta nobela gorako maila batera eraman lezaketen irudiak. Emaitza, begi bistan dago, arrunta baina errealagoa izan zen. Agian horregatik ez zitzaion hainbeste gustatu nobela The Outsidersen irakurlegoari.

**Rumble fish**

*Rumble fish* elaberriaren sorrera oso bitxia izan zen. Antza denez, S. E. Hintonek argazki bat -mutil bat motorra eta guzti- ikusi zuen aldizkari batean, eta gorde egin zuen. Geroago konturatu zen beste pertsona batek ere gordeta zeukala halako argazkia zergatik jakin barik eta ustekabe hark zirrara egin zion. Liburua irakurtzean Dalyk nabarmendu du halabeharraren garrantzia kontutan hartzekoa dela. (64) Hirugarren nobela honek aspaldiko ipuin batetik hartzen du euskarria eta Hinton istorioa garatu eta garatu ibili zen harik eta egiazko ahots narratiboa topatu arte: Rusty Jamesen ahotsa. (Fisher, 2894)

Mutil gazte batek kontatuko digu istorioa berriro. Rusty James, Motorreko Mutila bere anaia nagusiaren tragediaren lekuko eta auzoko talde harremanen adierazgarria dugu. Gazte uzua bait da, Rusty Jamesek Steve gexala hartzen du laguntzailetzat eta honenbestez orratu arin bat emango dio auzoari, honen baitan denetarik aurkituz: talde burrukak, neska pinpirinak, alkohol jaiak, gaueko ibilaldi eta amenazuak, nagusien droga arazoak, eskolako porrota, lapurretak, poliziaren gorrotoa, helduen ezintasuna familian bizitzeko, eta batez ere, heroi zaharren beherakada, anaia kasu.

Eszena nagusiak markatzekotan, har ditzagun honako hauek: lehenengo burruka, auzoa deskribatzeko eta Rusty Jamesen bizimodua deskribatzeko lana, Motorreko Mutilaren agerpen misteriotsua, eta batez ere, gaueko ibilaldia hirian zehar, azken eszena tragikoak irakurrita malenkoniaz beteta azaltzen dena. Orokorrean, oso egitura malgua erabili du egileak, eszena solteak pilatuta, nobelak laxo samar aurrera egin dezan.

Nobela honetako pertsonaia nagusiak Rusty James eta bere anaia dira. Beste guztiek pertsonaia hauek nabartu, goratu edo beheratu egiten dituzte, eta gehienetan osatu ere bai. Honela, Rusty eta Motorreko Mutilaren irudiak handitu egiten zaizkigu besteen aldean.

Rusty James gaztearen prototipoa dugu. Basatia, ankerra, buru arina, lainoa, leiala, bipila, edozein momentutan arazoei aurre egiteko joera dauka. Eta arazoak ez dira, hain zuzen ere, falta dituenak: eskolatik bota aginean daude, aita alkoholzale eta anaia alderrai dauzka, amak etxetik alde egin zuelarik aspaldian. Rusty James —Rusty bakarrik deitzen diotenean amorruz erantzuten bait du— taldeaz kezkatzen da, hobeto esanda, taldearen harremanak galzorian daudelako hartzen du ardura.

Alabaina bera ez da gauza batzeko, beste garai batean Motorreko Mutilak egin zuen lez. Eta hori da Rusty Jamesen tragedia, anaiari jarraiki bizian egon arren, anaia ez bezalakoa irten dela, nahi eta nahi ez. Rusty Jamesen abentura gehienak balentria hutsalak dira, jadanik ez bait dago zeren alde burrukatzerik: auzoa drogak janda dago eta auzoko mutilak ez dira elkartzen lehen bezala. Hori dauka gogoan Rusty Jamesek anaiaren urratsei jarraikitzean. Eta bere egintzak badaezpadakoak badira ere, bere lekukotasunaren bidez ohartzen gara nola bizi duen mutilak hiria eta auzoa eta paisaia istilutsu hori.

Rusty Jamesen begiradak iragan urrun batera garamatza, agian ez hain urruna urteei dagokienean, baina bai pertsonaien gogoan. *The Outsidersen* ez bezala hemen narratzailea oso gazte oldarkorra da, lehenengo pertsonaren kontakizuna guztiz subjektiboa da, baina era berean, askoz ere erakargarriagoa. Batek konfidantza handiagoa har lezake Rusty Jamesen aitorkizunetan, beste inoren kontakizunean baino, Dalyri jarraikiz. (69) Pertsonaia lainoa, oldarkorra den aldetik, kontatzen diguna den bezalakoxea da. Edo behintzat inpresio hori sortzen du S. E. Hintonek gazte horren ahotsaren bitartez. Ironikoa ere bada, agian pertsonaiarik ezegokiena bait da R. James inongo istoriorik txukun kontatzeko, baina hor dago egilearen maitasuna istorioa garatzeko.

Bestalde, Motorreko Mutilaren itzala sentitzen dugu nobelan, benetako pisua duelako bai argudioan, bai Rusty Jamesen bilakaeran. Rusty James hasieran parte hartzaile da, denetarik egin behar du anaiaren itzalari eusteko, baina azkenean ikusle bilakatzen da, ohartuta ezin dela anaia bezala izan, ez dutela elkarren antzik ere, eta ezin du ezer egin anaia heriotzatik begiratzeko. Rusty James zeozer txarto dagoela ulertzera heldu da, anaiak ez duela lekurik mundu horretan eta bera ere alferrik ari izan dela eredu baten ostean. Honenbestez, ahaztea baino ez zaio geratzen.

Motorreko Mutila gazte perfektoa izan zitekeen, baina ez zuen ezer aurkitu bere onenak emateko. Gizarteak onartzen ez dutenen sinbolo bihurtu digu S. E. Hintonek. Eskolatik bota zuten bikaina izanik ere eta azken garaian taldeetatik aparte ibili da. Lagunik ez. Neska ere baztertuta. Bera ez da ezer edo inorena. Auzoan itzala handia zuen, oso gaztea izanarren larderia hotz batez nagusitzen bait zen eta taldeko buruzagia izan zen burrukako garaietan. Baina laster konturatu zen hura ere ezdeus zela, inora ere ez zeramala, eta mun-

duan sekulan ere lekurik egingo ez ziotela. Hori dela eta, moduak egingo ditu bere buruaz beste egiteko, gizarteari bere prezioa ordainduta. Dalyren ustez, tragikotasuna dario pertsonaiari, bai eta determinismoaren tantatxo bat. (71) Era berean, oso abstraktua izatea leporatzen dio. (83)

Aita beste ale eder bat da, oso bitxia. Legegizon izana, mozkorti bihurtu da, agian andreak alde egin zuelako bere ondotik, eta bere "fedeaz" edo bere buruaz batere konfidantzarik gabe gelditu da. Hala ere, argi asko konturatzen da Motorreko Mutilaren ezintasunaz bizimodua egiteko, bai eta Rustyren heldutasun faltaz eta azken finean, oso malenkoniatsu agertuko zaigu, betiko alkoholzalearen irudia baztertuta. Harrigarria da pertsonaia hori, samurra ageri bait da ahaleginak egiten dituenean semeekin komunikatzeko.

Steve, Rusty Jamesen laguna, beste ikuspuntu baten menpe dago. Familiaren larderiaren beldur, behar bezala jokatu behar delako usteaz azalduko zaigu beti, ereduak zalantza ipini barik, itsu-itsuan sisteman sartzeko. Eta horrela ikusiko dugu berak lortu duela arrakasta, beste inork ez bezala, nobelaren azkenean. Agian, Rusty James baino zentzuden eta zuhurragoa delako. Steveren irakaspen nagusia gogoaren azalpena da, hau da, nork bere gogoan bermatuz gero, edozer lor dezakeela... Hori bai, gizartearen legeak bete eta berauen menera etorrita.

Patty, Rusty Jamesen neska, Cassandra, Motorreko Mutilaren neska izan nahi duena, Smoky, beste pertsonaia batzu dira. Patty neska txolina da, nonbait, adinaren ajeak direla medio, eta ez du garrantzia handirik elaberrian, salbu eta Rusty Jamesen hondorapena erabateko bihurtzen laguntzeko. Smoky, taldeko buru azkarra, oso zuhur ibiliko da Rusty Jamesen neskaren atzetik eta azkenean, mutilaren oldarraz baliatuta, segada ederra paratuko dio Pattyren begi ona betiko gal dezan. Honela, bada, behin eta berriro emango zaigu Rusty Jamesen helgabetasunaren berri. Cassandra, berriz, Motorreko Mutila baino zaharragoa izanik, honen atzetik ibiliko da, bere burua drogan hondoratzeraino. Baliteke neskarik sinesgarriena izatea Hintonen nobeletan, bere agerpen laburra gorabehera.

Pertsonaia hauek helduago dira, orokorrean, aurreneko nobelarenak baino. Rusty Jamez, egia da, oso gazte oldarkor eta buru arin ageri zaigu, baina hemengo kontuak larriagoak dira. Heriotzaz aparte, biziaren ezintasunaz mintzatu nahi zaigu S. E. Hinton. Edo behintzat, batzuri ezinezkoa suertatzen zaiela honelako gizartean bizitzea. Rusty Jamesek dioenez bere aitari bu-

ruz, jendeak iragana dauka eta batzutan bati ez zaio bururatzen gurasoek ere iragana izan dutela. Bada, honelako zerbait atera daiteke nobela honetatik: Motorreko Mutilak, aitak, Cassandrak iragana dute eta oraingo egoera ez da iragan horren ondorioa baizik. Rusty James bera eta Steve ere nolabait bilakatuko dira gauza guztion ondorioz. Eta bilakaera hori *The Outsiders*en baino bortitzagoa da. The *Outsiders*en giroa egungoa zen, baina *Rumble Fish*en iraganean murgildu gara, pertsonaien bilakaera azalduta, eta honela adieraziko zaigu bilakaera hori ezinbestekoa dela gizakiontzat.

Hintonen gai kuttuna familia da, besteak beste. Bada, nobela honetan familia apurtuta dago, egon ere, baina senideek elkarren ondoan etsi eta elkar ulertzeko ahaleginak egiten dituzte. Rusty Jamesi, adibidez, ezinezkoa zaio bakarrik egotea. Dalyk (69) puntu hori oso garrantzitsutzat jotzen du eta agian horrek ematen dio egiantza lan honi. S. E. Hintonek asmatu du hiruzpalau xehetasun niminoren bidez giro hori sortzen eta pertsonaiak gorpuzten. Honela, bada, gazteentzako nobela bada ere, pertsonaien eta egoeren benetakotasunak arreta handiagoa eskatzen dute, azalezko begiradaren gainetik.

Bestalde, kalea dugu nagusi nobela nonetan, betiko lez. Baina oraingo honetan ez da izango parkeko burrukarik, baizik ibai ondoko zelai kirastu bateko jukutria, hiriko hondakinen adierazgarri. Gainera, oso jende gutxi ibiliko da burrukan, espazioa txikitu izan balitz bezala, eta gero eta zikinago jokatuko dute. Kalea hiri barnean kokatuta dago, eta gaueko ibilaldian azaltzen den orduan, hiria bestelakotu egin da, uneoro ari da aldatzen, eta arriskutsua da kaletik ibiltzea, bai eta auzo bazterreko gazteentzat ere. Oihaneko legea, azken urteotako pelikuletan ikusi duguna, hain zuzen ere. Paisaia aldatu eta gaueko ekintzak dira inportateenak hemen. Ez dugu honez gero, izadiko fantasiarik, ez kolorerik, gaueko zikinkeria iluna besterik ez, giro bortitza azpimarratzeko. Honen kontrapuntua itxasoaren eredua hasieran, azkenean dugu: naturari ihesa. Izan ere, Hinton ihesaldiaz mintzo zaigu nobela oroitzapenen eremuan kokatuz. Baina kontu larriak nekez ahanzten dira. Eta ihesaldiak ez du dena konponduko.

### Gaiak, pertsonaiak eta beste

Familiaren islada oso garrantzitsua da elaberriotan. Ez dugu familia bakar bat ere osorik ikusten: umezurtzak ugari dira, beste batzutan aita edo ama falta dute, alkoholikoak eta haurren zigorgarri ez badira. Hala ere, Hinton familia harremanak antolatzen

saiatzen da: Curtis anaiek elkarri eusten diote gurasoak hil zitzaizkienetik, Rusty Jamesek behar hori adierazten du anaia nagusi eta aitarekiko, Mark eta Bryon beronen amak babesten ditu, kaleko katu guztiak bezala, nobelako parafrasi polita eginez.

Familiaren hutsune hori taldeak betetzen du, ohi denez. Outsiderrak beti ibiltzen dira elkarrekin, bai eta greaser-soc kontrako harreman horietan ere ikusten da askotan arazoak berdintsuak direla talde batean zein bestean. Rusty Jamesen kexa nagusia, hala ere, horixe da: ez dagoela lehen bezalako girorik talde harremanak sendotzeko. Orduan antzematen du groga dela erruduna.

Bestalde, ospitaleak dira gazte hauen topaguneak sarritan. Mediku zakar eta erizain tentelek inguratuak, mutil zaurituen mitologian ospitalea giltzarria da: jipoiaren ondorengo pausua, beren egiatasuna eta ospea ziurtatzen dituena. Baina honetaz aparte, bada gauza lazgarriagorik. Eritetxean hiltzen dira lagunak, bertan agertzen dira azkeneko aldiz. Eta horrek beti erantsiko dio ezaugarri mingots bat ospitaleari. Ospitalean egingo dute gogoetan gaztetxook zer alferrikakoa den beren ibilbidea, bai eta latza ere beren patua.

Tragikotasuna nabari da liburu guztietan, beti dago errua ordaindu behar duen norbait, dela Johnny outsiderra, dela Mike ebaindua, dela Motorreko Mutila... Eta dinamika horren zentzugaberiaz jabetzen dira pertsonaiak: Ponyboy eta Randy nazkanazka eginda daude borroka egiteaz, Bryonek planto egingo du eta bere lagunik minena sakrifikatuko zikinkeriatik geldierazteko, Motorreko Mutila ere etsiturik dabil inguruko giro bortitzaz...

Horrez gainera, S. E. Hintonek argi asko uzten du bere heroiek ez dutela inolako atarramendurik gizarte honetan: Motorreko Mutilak bere buruaz beste egiten du egintza sinboliko batez, Dallasek bezala, eta Mark drogasaltzaile bihurtu ondoren legenduntzat joko du Bryonek, gizartearen ereduari jarraikiz.

Agian Hintoni lepora lekiokeen akatsa betiko pertsonaia gaztearen prototipo sortzea izango zen. Lehen nobelan Dallas dateke, gero Mark errebeldea eta azkenik Rusty James, inondik ere gehien mitifikatu dutena zinearen bidez. Hala ere pertsonaion paralelismoak onartuta ere, era askotatko gizakiak sortzeko gaitasuna aitortu behar zaio egileari.

Ponyboy eta Bryon dirateke hurbilen daudenak, bai asmoz, bai ekitez, irakurlearen gogoan. Biak aurrera egin nahian, biak nazkatuta inguruko egoera zentzugabeaz, badirudi Bryon Ponyboy helduago bat dela. Alabaina,

egileak keinu bat egin digu bigarren nobelan, pertsonaia biak aurrez aurre jarrita. Artifizio literario horrek banantzen ditu balizko zalantza guztiak: pertsonaiak ezberdinak dira eta baloreek diraute.

Hurbilago ikusten dugu Dallas eta Rusty Jamesen arteko bilakaera. Agian zinearen indarrak elkartzen digu gogoan gazte biak —Matt Dillonen lana dela medio—, baina egia esan, zerbait amankomunik badute, eduki ere. Lehenik eta behin, esan beharra dago biak gazteak direla, oldartsuak, bihoztunak, neskekin arrakasta dutenetakoak, erantzunkizunik hartzen ez dutenak, eskolako arazoekin Rusty James, eskolatik kanpo oso bizimodu gogorra eramanda Dallas. Badirudi Dallasen irudi latz hori leundu duela Hintonek eta horren ondorioa Rusty James sutsu sentibera agertzea izan dela. Izan ere, Dallasenak egin behar bazuen, bigarren aukera bat eman dio gazte modu horri egileak eta balio handiko pertsonaia bat sortu du Rusty James plazaratzean.

Bestalde, Johnnycade, Sodapop, Two-Bit, Motorreko Mutila James anaien aita, Cassandra, Steve, Charlie, M&M, Mike eta halakoak sortzeko gauza den idazleak aski garbi erakusten du bere gaitasuna hezur-haragizko pertsonaiak sortzeko. Gehienak oso momentu jakinetan agertzen dira eta batzuk ez dute pertsonaia nagusien xarma, ez indarra, baina beti uzten dute arrastoren bat irakurlearen gogoan.

Neskak dira txartoen irteten direnak. Tuntunak gehienetan, gaiztoak ez direnean, Angela Curtis bezala, nesken mundua aurkitzeko dauka Hintonek. Baina nobela gehienen helburuari begira, ez dauka zertan ibili neskak gora eta behera dantzarazten. Izan ere, mutilen mundu batean murgilduta bizi dira gazteok.Gizonezkoen ereduei jarraikiz, heldutasuna, familia eta lana dira burua datozkigunak. Eta nesken papera oso laburra da komedia horretan.

S. E. Hintonek mutilen antzeko begirada ezartzen die gauzei, gaztetxoen arteko harremanei batez ere. Batetik, bere berezko lorpena dela esan behar da, hau da, gizonezkoak konprenitzeko ahalegina. Besterik, betiko kontuak esateko arriskua dakarren prozedura. Cherry, Cathy, Angela, Rusty Jamesen neska estereotipoak dira gehienbat. Mutilen itzalpean bizi dira eta nekez igartzen zaie independentziarik. Gaiztoak izanda ere, ez dute bizitza propialik, hain dago konzentraturik egilea gizonezkoetan.

Bestalde, kontrastea agerikoa da pertsonaia nagusi eta besteen artean. Izan ere, pertsonaia nagusiak bilakatu ahala, bestelako pertsonaiak ere aldatuz doaz narratzaileen argitan. Horrela, ba,

familia harremanei, Dallas eta Johnyren arteko ezberdintasunei, eta soc-greaserren arteko gataz-kari ere beste ikuspuntu betetik helduko dio Ponyboyek nobela amaitzerakoan. Zaldiko-maldikoan bezala, pertsonaia nagusiak besteak era kaleidoskopikoan ikusteko gaitasunen jabe bihurtu du egileak.

Helduak ez dira nabaritzen nobelotan. Ez onerako, behintzat. Oso estereotipikoak dira, hala poliziak, nola erizain-medikuak, eta zer esanik ez, gurasoak. Helduentzak lekurik ez dago *The Outsiders*en, helduek mugaz bestaldera bazterturik dauzkatelako gazteak. *That was then...* elaberrian agertzen diren helduak baliagarri samarrak badira ere, gazteen ama eta Charlie, kasu, ez dira betiko helduak. Esan nahi bait da, egileak helduen mundutik at kokatu dituela. Batetik, mutilen ama oso berezia delako, katuak eta kaletik etxera daramatzana, eta Charlie berak ere helduen munduan hanka bat eta bestea gazteen erresuman duelako. Bestelako helduakl, M&Mren gurasoak batez ere, hesi baten ondoan daude, beren buruak piztietarik babesteko. *Rumble Fish*eko jendilajea ezberdina da, dena den. Badira gazte mordoska, baina Motorreko Mutila, bere neska, Steven aita, James anaien aita, polizia, bestelakoak dira. Jokoan dauden pertsonaia garrantzitsuak dira guztiok, gaztetxoen mundutik ihes egindakoak gehienak. Nobela honetan pertsonaiak era guztietakoak ditugu, helduen munduko gauzak eta baloreak itzal antzean badaude ere. Lan egiten duten bakarrak, Cassandra kasu, ez dira nabarmentzen horregatik, beste ezaugarri batzugatik baizik.

Helduen baloreari dagokionez, lana adibidez, ezberdin ageri da nobela hauetan. *The Outsiders*eko Curtis anaiak lanean ari dira, familia harremanei eusteko eta bizimodua ateratzeko. Bryon ere, ildo horretatik doa. Alabaina, bakarrak dira eginkizun horretan. *Rumble Fish*en inork ez du lanik egiten, ez behintzat ohizko moduan. Eta gainerako pertsonaiak ere libre samar dabiltza nobeletan: Steve, Two-Bit, Dallas... tranpeatzen dabiltza, helduen munduan sartzeak dakartzan erantzunkizunei iheska. Izan ere, lana eta familia sortzea dirateke ezaugarri nagusiak helduen munduan eta familia guztiak apurtuta dauden bitartean, lana ez da helburu nagusia pertsonaien gogoan.

Nobela guztiotan dago halako arnasa poetikoa. Honen bidez adierazten zaigu errealitatea ez dela gauza iraunkor, tinko eta modu bakarrekoa, baizik ere kolore anitzeko ilunabar bizia, aldakorra. Hala outsiderren joan-eto-

rriak, nola Rusty Jamesen begirada malenkoniatsua hilzorian dagoen hiriari, ezin adierazgarriago dira alde honetatik. S E. Hintonen mundua kale horietan dago sustraiturik, auzo bazterretan, gazteen erresumetan, non nagusiek enbarazo baino ez bait dute egiten.

Droga kontuak direla eta, gazteen joera ezberdina da. Hasieran, taldeen arteko lokarritzat jotzen bazen ere, socak eta mozkortuta, geroago ikusiko dugu nola bilakatu den asuntuo eta zernolako ondorioak ekarri dituen. M&Mren kasua adibidetzat ekarri digu Hintonek, baina berriz ere ekin dio Cassandraren kontua azalduta. Azken ondorioa, Motorreko Mutilak dakarkigu: ez dago azalpen beharrik, droga hartzeak nortasuna suntsitzen du eta zigortuta dago gazteen pentsamenduan ere. Mozkortzea ere ez du helburutzat hartzen Rusty Jamesek, Steveri aurpegia eman behar dionean, eta azaltzen du pozik egoteko adina baino ez duela edaten.

Etxea, eskola, kaleko topaguneak ezan dira betidanik gazteen ezpaziorik erabakiorrenak. Nobela hauetan ageri denez, etxeak ez dauka aparteko garrantzirik. Ez dago deskribapen luzerik, ez eta ekintza berezirik inongo etxetan. Salbuespena, Curtis anaien etxea da, eta hori erraz azaltzen da, lotzen badugu gai hau heldutasuna gaiekin. Etxea heldutasunari lotuta, ikusiko dugu kalea dela nagusi gaztetasunaren berezko esparrua bait da. Bitartean, eskola, tarte huts bat. Kalean hitz egiten dute, kalean burrukatu, lo egin eta bizi ere neurri handi batean hantxe bizi dira. Kalekumeak dira pertsonaiarik erakargarrienak: R. James, Dallas, Ponyboy, Johnny, Two-bit, Mark... Eta etxekoiak gezalagoak, ordea: Steve, Darrel, Bryon, Charlie (taberba du etxe)...

**Hiru elaberrien bilakaera**

*The Outsiders* elaberri "meliorista"tzat jo badaiteke ere, kontuak zeharo aldatu dira *That was then, this is now* elaberrian. Pertsonaia nagusiek diotenez, jadanik hau beste kontu bat da. Izan ere, *The Outsiders* elaberrian egileak zenbait gauzaren alde egiten zuen apostu, nolabait itxaropentsu jokatzen bait zuen: Jonnyren heriotza gorabehera, bestelako etorkizuna izango zuen Ponyboy Curtisek nobela amaitutakoan. Azken nobela honetan, berriz, pertsonaia guztiak puntu ezin korapilatsuago bateraino heldu dira eta konponbidea, beti bezala, tragikoa izango da. Korapiloa askatu ezinean, zirt edo zart egin eta hariak hautsiko ditu Bryonek, bai adiskidetasunarenak, bai leialtasunarenak. Horren

ordainez, heldutasunera bidean finkatuko ditu oinak prezio ezin garestiagoan.

Azken nobelako zalantzak eta korapiloak aski adierazgarriak dira. Izan ere, egileak ez du soluziobiderik topatzen, ez dago hemen The Outsidersen ilunabar gorrixkarik berataz gozatzeko, eta kaleko legea ez da nahikoa inor zuzen epaitzeko. Hori dela eta, Mark agintarien eskuetan jartzen duenetik. Bryon gizartearen zurrunbiloak hurrupatu ditu, ez bait da gauza arazoa bere kasa konpontzeko. Ezgaitasun horrek erakusten digu arazoaren beste aldea: gizarteak legea ezartzeko indarra badu ere, gizakumeek ezin dute beste horrenbeste egin.

Pertsonaia konnbentzionalak egiteko arriskua ondo gainditu gabe izan du Hintonek elaberri horretan. Bai Bryon, bai Mark, bai eta neskak ere, beste istorio bateko partadide dira, lehen ere ezagunak ditugunak, maskara jantzita berriz agertu zaizkigunak. Baina oraingo honetan ez gaituzte gatibatzen oso momentu jakinetan izan ezik, egilearen harietatik askatzen direnean, hain zuzen ere.

Hortxe dago kakoa. Nobela honek zirkulua ixten du eta Hintonen istorioak beste bide batera abiatuko dira honen ostean. Ulergarria da, zeren auzoko bizitzak dakarren ondorena bere hartan amaitzen bait da, inoiz bukatzen ez den soka bihurtuta: bortizkeria, errepresioa, zapalduen kontraerasoak, baztertuen patua dira S. E. Hintonen arabera. Bakarrik salbatzen dira beste irtenbide bat bilatzen dutenak: liburuetan, Ponyboy bezala, edota lanean, Bryon bezala. Baina hori ez dago guztien esku: Markek ezin du lanik egin polizi fitxa dela kausa; Motorreko Mutila ezin da bizi mito bihurtuta halako mitorik onartzen ez duen gizartean; Dallasek ez du samurtasunik jaso inorengandik eta paranoiko bihurtzen da denak bere kontra daudelakoan; M&Mk bidaia txarra egingo du droga munduan barrena...

Hala-holako kronologia eginez, esan genezake bilakaerarik logikoena hauxe dela: *The Outsiders*en anaiarteko girotik Mark eta Bryonen auzo hautsi eta egungo Ameriketako isladaraino. Bitartean, azken honetatik hurbilago badago ere, Rusty James eta Motorreko Mutilaren parabola. Harritzekoa da hau, kontutan hartuta nobelen kronologia (*The Outsiders*: 1967, *That Was Then, This is Now*: 1971, *Rumble Fish* 1975). Alabaina, ez da ahaztu behar *Rumble Fish*en istorioak S. E. Hintonek idatzitako ipuin bat hartzen duela oinarri. Ipuin hori *The Outsiders*en arrakasta egosi gabe Unibertsitatean sartu eta geroago idatzi zuen lan bakarra izan zen bigarren nobelara arte.

Eta ipuin hartan ageri ziren geroko nobelaren elementu guztiak. Beraz, zilegi da bigarren nobela estilo ariketatzat jotzea.

Hiru nobela, hiru istorio nagusi, baina espazio amankomun bat, lokarri orokor bat irakurlearen gogoan: gazte oldartsuen ahaleginak heldutasunera bidean. Poesia lainotik hasita, errealitate zatarrera iristeko. Bitartean, hainbat istorio, hainbat pasadizo idazkera arin eta freskuaz eginak. Horra hor S. E. Hintonen lehen hiru nobelak, bere hurrengo lanen oinarria, bere urratsen sendogarria gazte literaturaren munduan.

**Erreferentziak**


Cart, Michael. "That was then, this is now" (Liburuaren kritika) *New York Times Book Review*. 1971.eko abuztuak 8, 8 orr.

Daly, Jay. *Presenting Susan E. Hinton*. Boston: Twayne Publishers, 1987, 1-4 kapituluak.

Fisher, Margery. *Growing Point*. 1976.eko maiatza, 2894 orr. (Dalyk aipatua).

Fleming, Thomas. "The Outsiders" (liburuaren kritika). *New York Times Book Review*, 1967.eko maiatzak 7,2. zatia, 10 orr.

Gillespie, John Tomas. *More Junior Plots*. New York & London: R.R. Bowker Company, 1977, 60-63 orr.

Hinton, Susan E. "Teen-agers are for real". *New York Times Book Review*, 1967.eko abuztuak 27, 26 orr.

Mills, Randall K. "The Novels of S. E. Hinton: Springboard to Personal Growth for Adolescents". *Adolescence*, 1987ko udazkena, 641 orr.

Seay, Ellen A. "Opullence to Decadence: *The Outsiders* and *Less Than Zero*" *English Journal*, 1987eko urria, 69 orr.

Sutherland, Zena "That was then, this is now" (Liburuaren kritika). *Saturday Review*, 1971.eko ekainak 19, 27 orr.

———, "The teen ager speaks". *Saturday Review*, 1968.eko urtarrilak 27, 34 orr.


**Susan E. Hintonen lanak**


The Outsiders. New York: Viking Press, 1967. Euskarazko itzulpena: Errebeldeak, Mensajero.

That Was Then, This is Now. New York: Viking Press, 1971.

Rumble Fish. New York: Delakorte Press, 1975. Euskarazko itzukpena: Kakeko legea, Mensajero.

Tex. New York: Delakorre Press, 1979.

Taming the Star Runner. New York: Delakorte Press, 1988.

Rumble Fish (narrazio laburra). Nimrod, University of Tulsa Alumni Magazineren aparteko eraskin literarioa, 1968.eko urria, 4 orr.

Teen-agers are for real (artikulua). New York Times Book Review, 1967.eko abuztuak 27, 26 orr.

**Kronologia**

1948 Uztailak 22. Susan Eloise Hinton Tulsan, Oklahoman jaio da.

1963 Tulsako Will Rogers High Schoolen sartu. *The Outsidersen* agertuko zen institutua.

1964-65 Unibertsitatera sartu aurreko kurtsoa. Aita gaixorik. *The Outsiders* elaberria idatzi

1966 Tulsako Unibertsitatean sartu, kazetaritza aukeratu eta gero hezkuntza lizentziatura nahiago.

1967 Apirialen *The Outsiders* argitaratu. Abuztuan, *Teen-Agers are for Real* artikulua New York Times Book Reviewen.

1968 *Rumble Fish* narrazio laburra argitaratu.

1970 Hezkuntzan lizentziatua Tulsako Unibertsitatean. Udaberri-uda artean *That Was Then, This is Now* idatzi. Irailean David Inhoferekin ezkondu.

1971 *That Was then, this is Now.*

1975 *Rumble Fish.*

1979 *Tex.*

1982 Irailean, *Tex* filmea.

1983 Martxoan, *The Outsiders* filmea. Abuztuan, Nicholas Hintonen semea jaio.Urrian, *Rumble Fish* filmea.

1985 Azaroan, *That Was Then, This is Now* filmea.

1988 American Library Associationek emandako *Yasd/Slj* saria jaso du idazle lorpenengatik. Urrian *Taminng the Star Runner* nobela plazaratu. *Tex*

Indar osoa pertsonaia gazte batengan bildu zuen S. E. Hintonek bere laugarren nobela egiterakoan. Bai eta liburu trinkoa, erakargarria taiutu ere. Idazle helduaren oihartzunak nonnahi ageri dira elaberrian eta pertsonaiak inoiz baino hurbilago sentitzen ditu irakurleak. Batez ere, Tex pertsonaia nagusia. Izan ere, nobelaren lorpen nagusia pertsonaien bilakaera aztertzean datza. Pertsonaia gazteak, beti bezala, baina eguneroko arazoak bizi behar dituztenak, dagoeneko inongo babesik ez bait dute haurtzaroko mundu mitikoan. Eta bizitzari aurre egiterakoan pasarte hunkigarriak biziko dituzte, Hintonen eskuz.

Egiturari erreparatuz, oso nobela konbentzionala dela esan genezke. Ekintzak ez dira lehen bezain garrantzitsuak, egunerokoak dira eta ez dago eszena nagusirik, nola halako klimax sortzen duenik. Ekintzak pertsonaien arreakzioetatik datoz eta pertsonaiek nola jokatzen duten, horixe da garrantzitsuena. Azkenean ere, tragikotasuna leundu eta pertsonaia nagusitik aparte kokatu du Hintonek, batetik, pertsonaia paraleloak sortuz, bestetik,

pertsonaia nagusiari gogoeta eraginez arazo guztien gainean. Zeren Tex hausnartzeko nobela bait da.

Lehenengo kapitulu luzeari begira, erraz antzematen zaio idazkera landu eta egitura trinkoa. Nobelaren pasarte gehienak elkarri lotuta daude. Pertsonaien bizialdiaren zati bat erakusten digu idazleak eta honela, denbora munta handikoa da nobela behar bezala garatzeko. Pertsonaiak eta ekintzak agertu eta itzali egiten dira, egitura ia ziklikoan, eta agerraldi bakoitzean zeozer berri aurkitzen diegu pertsonaiei, egoerei. Progresio honek bizten du nobela eta poliki-poliki darama Tex bere helmugaraino. Puntu berezi bakarra, bat bateko zerbait, autostoparena da, eta nabari da beste zerbait erantsi nahi izan diola egileak nobelari, Mark eta Bryonen aspaldiko istorioaren amaiera, hain zuzen ere.

Giroa ere bestelakoa da. Jadanik hiritik kanpo gaude. Hira ekintzen lekua da, bertan daude droga kontuak, feria, eritetxea... Eta pertsonaiak hiriratu egiten dira arazoak dituztenean. Hintonek pertsonaiak hiritik atera ditu, agian larru gorririk erakusteko paisaia lakar horren aldean. Egileak zaldiei ematen dien garrantzia ere kontutan hartzekoa da urruntasun hori neurtzean. Bestalde, ez dago hiriko taldearen arrastorik eta gazteak bere kabuz ibili behar dira, gehienez ere, senideengana bildurik.

Tex titulua dela medio antzematen zaio elaberriaren nondik norakoari, kasu honetan izenak izana bait dakar berekin. Tex dugu nagusi nobelan, berari gertatzen zaio dena, eta haren ahotsari jarraikiz ohartuko gara nola bilakatzen den pertsonaia gazte hori. Ordura arteko pertsonaiarik helduena da Tex, zalantzarik gabe, Hintonek hurrengo nobelan garatuko zuen bidearen urratzaile. Oldarkorra bada ere, indarkeria alde batera utziko du Texek eta gorrotoa alferrikakoa dela laster ikasiko. Sentibera da Tex, eta horrek salbatzen du bizitzaren korapilotik. Bestalde, badu beste tasun polit bat, hau da, bizitzari aurre egiteko ausardia. Horrek eramango du pertsonaia azken mugaraino, bere buruarekin topo egiteko kapaz dela egiaztatzeraino.

Tex gazteak zaldia/laguna galduko du eta horrekin batera haurtzaroko zati handi bat. Amak jostailuak zaborrara bota dizkion umearen antzera agertuko zaigu Tez nobelaren hasieran. Baina handik aurrera lezioak ikasten ikusiko dugu Tex. Iniziazio prozesu honetan kosta egingo zaio bere burua onartzea eta Mason anaiagandik urruntzea. Texek bere baitara egin behar du bidaia eta egia onartzen ikasi duenean arrakastatsu irten dela onartu be-

harra dago. Izan ere, Hintonek aukera paregabea ematen digu Texen gogoeta guztiak ondo-ondotik entzuteko, nobelari interesa piztuz. Bidaia horrek ez du benetako amaierarik, beste nobela batzutako indarkeriak ez du hain gogor kolpatzen pertsonaia nagusia eta aurrera egingo du, kosta ahala kosta. Hala ere, tragikotasunik badago, eta hori batez ere, Texek egia onartzeko borrokatik etorriko zaio.

Bestelako pertsonaiak ere ondo eginak dira. Mason anaiak oso kinka larria biziko du hasieratik Texen sekretua ezaguturik. Pop edo aitaren agerpenak iragan beltza duen gizonaren xarma dauka. Cole etsaia agertu arren, mutilek hurbil daukate behar denean. Jamie neska erakargarria da, batez, ere, esaten duenagatik. Hintonek pertsonaia femenino horri ekiterakoan beste nobela batzutako ahuleziak ezabatu eta zirt edo zarteko neska sortu du. Lem gixajoaren nekea eta burtzoroa, autostopistaren garraztasuna, eskolako irakasleen itzal garbia ere pasarte azpimarragarriak dira.

Helduen mundua gero eta hurbilago dugu nobela honetan. Hinton ez da erabat murgildu nagusi kontuetan, baina Mason, Lem etabarren istorioak helduen mundutik hurbilago daude gazteen kontuetatik baino. Bestalde, familiaren agerpena ere zehazki marraturik dago. Hiru eredu ditugu: aberatsak (Cole eta), pobreak (McCormikarrak) eta gazte eroriak (Lem). Arretaz ikusi eta ohartuko gara denak antzekoak direla, etorki sozialaz bestelakoak badira ere. Hemen zortea ere kontutan hartu behar da, patua.

Halabeharraz hitz egiten dute kritiko guztiek Hintonen nobela hauek aipatzean, eta hemen ere halako zerbait igartzen zaio idazleari. Aztiaren iragarpenetik hasita, leit-motiv bezala agertzen dira irudiak: doazen lagunak eta bertan gelditzen direnak. Zortearen gurpila dirudi horrek. Eta halabeharrak askotan luzatuko du adarra: motorraren istripua, autostopean jasotako mutila, zaldiaren salerosketa, droga kontuak, aitaren aitorpena... Texen irakaspena, Dalyren ustez, halabeharraren alde txarrekin kontatuz aurrera egitea da. Agian Texek zorte txarra izango du, baina badaki hori az dela oztopo ezinbestekoa bizitzan aurre egiteko. Eta horrek pertsonaia goratzen du.

Horiek horrela, honako hau deteke gai nagusia: gazteen aukerak eta hautabideak bizitzari heltzeko. Masonek kirola hartu du ardatzat. Jamie emakumearen rolaz jabetuta dago eta benetan heldua ageri zaigu. Johnnyk atzerapena erakutsi du hainbat alorretan. Lem alienaturik dago, beste mundu bat sortu du bere

buruan, guztiz faltsua. Autostopistak munduak zapalduta ikusi du bere burua, eta horri aurka egingo dio. Eta Tex? Bada, pertsonaia nagusia izaki, egileak ez dio irtenbide errazik bilatu, eta errekurtso zaharra erabiliz, pentsatzeko astia eskatu du. Denbora behar da gauzak argi ikusteko eta nork bere burua onartzeko, eta hutsarte hori azalduko zaigu nobelaren amaieran itxaropena piztu nahian. Ez dago inongo etsipenik Texen gogoetan, aurrera egin nahi duenaren atsedenaldia ez da eta.

**Taming the star Runner**

Liburuaren azalean S. E. Hinton izena agertuko ez balitz, lasai ezar genezake nobela hau helduentzako bildumaren batean eta erraz igaro lezake ustezko frogaldi hori. Izan ere, bostgarren elaberri honetan egile amerikarrak egiten duen saioa erabat irabazita dauka. Nobela konbentzionalaren alde onak bereganatuz, gazteekiko kezkari eutsi eta sakondu egin du idazkera seguru batez.

Autobiografia tantok han-horhemen zipristindua, nobela honen eremuak ezagunak dira Hintonen irakurleentzat: halabeharra eta gogamennnaren mugak, familiaren babesa eta maitasunaren galera, gazteen bilakaera eta heldutasunera bidea... Guzti hori indarkeria eta alde nabarmenak bazterrean utzita eta pertsonaiak inoiz baino sakonago garatuz.

Tex nobelaren pertsonaiak, estiloa, narrazioa eta idazlearen helburuak ikusita emaitza osatuagoa, jantziagoa dakarkigu S. E. Hintonek laugarren nobelan. Lehengo kontuen arrapalada arina mantsotu egin da, baina pertsonaien gorpuzkera askoz ere sendoagoa ageri zaigu. Nolabait esateko, Hintonek badaki zertaz eta nola idatzi eginkizunaz jabeturik dago eta orain teknika landuagoaren bidez lan bikainak egiteko moduan paratu zaigu.

Egitura inoiz baino argiagoa da. Travis gaztearen urruntasuna famili arazoak direla eta, eta batez ere, idaztearen munta bere bizimoduan dira nobelaren ardatzak. Horiekin batera, osabarekiko harremanak eta helduen munduan murgiltzea. Iniziazio prozesu hori argi eta garbi markatuta dago hiritik kanpoko urruntzearen bidez. Izadiak, animaliek, gizakiak bere burua aurkitzeko behar duen ingurunea erraztuko diote Travisi. Horrek helduen mailara goratuko du, eta hor ikusiko du helduak ere oso mundu korapilatsuan bizi direla, Cherry Valancek esango zuenez, arazoak nonnahi daudela, Ken osabarenak kasu.

Travis eta Kenen arteko harremanak hauskorrak dira, batzutan maitagarriak, batzutan gorrotagarriak, baina bien arteko lokarriak ondo lotuta daude, ez dira erraz askatuko. Batak bestea ulertzeraino iritsiko dira. Eta horrek Travisen heldutasunaren berri ematen badu, areago Ken helduaren eskuzabalaz. Dalyk esan duenez, Ken dugu Hintonen nobeletan ondo osaturik eta nabardura baikorrak dituen lehen heldua. Agian, egileak helduentzako nobelak egiten hasi delako. Agian, gazteen eta helduak hain urruti ez daudelako.

Travis gazteak Texek behar zuen astialdia hartu du, halabeharrez hartu ere. Oso pertsonaia konplexua da Travis, jendakin hutsa, baina idazteko orduan behar den bakardadeak kutsatua. Izakera bortitzekoa bada ere, horrek ez du galbidera eramango. Izan ere, Travis maitatzeko gauza da, eta bizimoduari ekiteko ere, bere erantzunkizuna onartuz. Horrek eta bere zereginaz jabetuta egoteak, hau da, bere burua idazletzat hartzeak, argi asko erakusten digute gaztearen heldutasuna. Lehenengo aldiz, gazte baten bilakaera osoa ikusteko parada dugu Hintonen lanetan eta azken emaitzak adierazten duenez, prozesuak pena merezi izan du.

Honenbestez; Travisek bere burua ezagutu behar du, hori bait da nobelaren ardatza. Travis bezalako gazte oldarkorrak oso momentu latzak bizi beharko ditu toki arrotz horretan eta horri esker bere burua berriro aztertuko du, konturatuko da zeozer aldatu dela eta orain euskarriak errazago topa ditzakeela, hala nola, literatura. Idaztea, Hinton/Travisen grina nagusia, beste ezerekin pareka ezin daitekeena. Familia beste euskarri bat da, maitasuna, maitatua sentitzea erabateko da gaztearentzat, eta Kenek erakusten duenez, baita helduentzat ere. Eta maitasuna bera da beste arlo bat aztertu beharrekoa. Travis maitatzeko gauza bait da, errazago bizi daiteke mundu zital horretan. Betiko gordeko bait du maitearen oraitzapena, maitasuna zapuztuta badago ere.

Casey neska gaztea Jamieren jarraipena da, helduagoa eta munduan hobeto finkatua. Pertsonaia autonomo bilakatu du egileak eta askatasuna horri esker gazteen arteko harremanak benetan isladatzen dira narrazioan. Cherry Valanceren artifizialkeriatik Caseyren naturaltasunera tarte handia dago eta Hintonek ondo ikasita dauka kontua. Orain pertsonaiak orekatuagoak dira aurrez-aurre daudenean. Emakume pertsonaia gehiago espero daitezke S. E. Hintonen hurrengo lanetan.

Bestalde, Star Runner gelditzen zaigu. Zaldia baino areago,

askatasunaren eta indar mugagabearen metafora dugu. Indar menperaezina, izadiarekin bat egitean suntsituko da, ez beste inongo modutan. Eta Travis eta Caseyek, Star Runner menperaezina dela konturatzen direnean, gaztetasunean halako indarrik ere badela ikasiko dute. Hintonek bere gogoko sakrifizioa antolatuko dio zaldiari. Star Runneren ezaugarriak kontutan hartuta, beste nobeletako pertsonaia batzuren irudia datorkigu burura: Dallas Winston, Mark, Rusty James... Guztiak ibili bait dira zaldi putinkari gisa, munduan oinak finkatu ezinik, loka samar, oldarkor eta burgoi.

Ikusi dugunez, S. E. Hintonen bilakaera gorakoa izan da, zenbait estrapozu gorabehera. Egoera egiantzekoak eta pertsonaia sendoak taiutzeko gauza izan bait da beti, aurrera egin du idatz munduan teknika eta helburuak argituz. Hasiera-hasieratik idazlearen zereginaz jabetuta, idazgintzaren nondik norakoak ezagutu eta esperimentuak egiten ibili da, gero eta lan osatuagoak burutu arte. Dagoeneko, idazle trebe eta segurua dugu S. E. Hinton. Zer aukera eta nola adierazi, besterik ez du egin behar. Honenbestez, zain gaude ondorengo urteetan ea zernolako lanak burutzen dituen atseginez irakurtzeko.

*Javi Cillero*

# KANONAREN SORRERA EGUNGO EUSKAL LITERATURAN

# *ETIOPIA*-z

JOSEBA GABILONDO

## 1. Kanona, margina, instituzioa, modernitatea[1]

### 1.1. Kanona

Bernardo Atxagak 1978an idatzi zuen poesi lana *Etiopia* aztertzerakoan, bere literaturgintzak harrez gero jasan duen bilakaeraren argitan aztertu behar da. Egungo autore kontsakratua orain dela zenbait urteko poeta gazte haren bilakaera baita, bilakaera hau aldiz euskal literatura garaikidearen ardatz suertatu delarik. Beraz, *Etiopia*-ren azterketa hau orainalditik lehenaldirantz egin nahi genuke hitzaldi honetan, bilakaera horren zentzu historikoa atzeman nahiz, edo bestela

(1) Arkitu hau Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko doktoradutzako dirulaguntza bat jasotzen ari nintzelarik idatzia izan zen. Nire eskerrak Marijose Olaziregi, Gerardo Markuleta, Iñaki Aldekoa, Luis Madureira, Jessica Rothschild, Masao Miyoshi, Mikel Agirreazkuenaga, Joseba Irazu, Kojin Karatani eta Jon Kortazarri.

Artikulu hau 1990-ko EHU-ko Udako Ikastaroetan Jon Kortazarrek zuzendutako mintegi batean eman nituen bi hitzaldiren bertsio luzeagoa da. Alabaina, artikulua jatorrizko hitzaldi-egituran uztea erabaki dut, geroagoko berridazketa baten zain. Hitzaldiok motz izatea eskatu zitzaidanez, kontzeptu giltzarri asko definitu gabe utzi ditut artikuluan ere, irakurleak jakin edo sikiera inplizitoki ulertuko dituelakoan. Artikulu hau liburu forman argitaratuko den lan zabalago baten abiapuntua da.

Lehen hitzaldia izenburu beraz argitaratuko da laster Etorren, Jon Kortazarren zuzendaritzapean argitaratuko den artikulu bilduma batean. Bildumaren behin-behineko izenburua XX. mendeko euskal narratiba da.

Azkenik argitu nahiko nuke hemen inglesez aipatzen den bibliografiarik gehiena gazteleraz edota frantsesez ere badela. Ingelesez aipatzearen arrazoi bakarra zera da: artikuluak ingurune ingeles batean idatziak izan direla.

esanda, gaurko euskal literaturaren egoera, zeinetan Atxaga erdigune bilakatu baita, analizatu nahiz.

Atxagak 1990. urtean jaso zuen Espainiako literatur sari nazionala 70eko hamarkadaren amaian eta 80koan zehar bilakatu zen euskal kulturazko joera politiko zehatz baten buruketa da literatur arloan. Alegia, autore *ofizialki* saritutako baten aurrean gaude. 'Ofizialki' terminoak erreferentzia egiten dio estatu espainiarrean azken bi hamarkadetan gertatutako gatazka politikoen fruitu izan den sistema autonomistari. Autonomiazko sistema politikoak eta beronek barneratzen dituen hizkuntzen sareak determinatu baitu 'ofizial' terminoaren zentzu eta balio berria.

Sinbolikoki bederen, esango genuke Garaikoetxeak eta Espainiako erregeak poeta euskaldunei —Aresti eta Orixe— egindako erreferentziekin hasi zela prozesu politiko hau. Literatur sari ofizialekin segi den prozezu hau, Atxagaren sariaz urrats bat areago joan da. Urrats garrantzitsua da berau. Orain artean lagun edo euskal idazle soil baino ez zenak lehenaldian utzi du edozein konplizitatetarako aukera, egun pertsonaia ofiziala bihurtu baita. Dagoeneko estatu espainiarrak badaki euskal poeta bat, sikiera, badela eta beronen izena, letra arraro horiek erraz irakurtzen uzten ez badute ere, *Achaga, Ashaga* edo antzeko zerbait dela. Beraz sari honek zerbait adierazi badu Atxagaren kasuan zera izan da, euskal autore ofizialki onartuen eta *euskal literatura ofizialaren* indarketa[2].

Harrez gero egin diren itzulpen ugariren bidez ofizialtasun honek oraindik bigarren hedapen maila bat ezagutu du mendebaldean (Estatu Batuetatik Albaniara). Alabaina bigarren hedapen honen eraginak ez ditugu hemen ikutuko, asti faltaz.

Orain artean "ofizial" hitza aipatu badugu ere, geure artean erabiliagoa delako, "kanoniko" hitza erabiltzea zehatzagoa litzateke; arazoa ez baita politika hutsezkoa baizik eta kulturazkoa, politikazkoa eta ekonomiazkoa era berean, hiruen arteko gurutzaketan —literaturaren instituzioan— suertatzen delarik. "Ofiziala" batzutan ez baita "ekonomikoa" edo "kulturala" eta alderantziz.

"Euskal kanona" diodanean bere zentzu instituzionalean ari naiz

(2) Sari honek, aurrez katalunieraz eta galizieraz idatzen dutenei emandakoekin batera, literatur espainiarraren berregituraketa ekarri du (literatura espainiarra=gaztelaniaz estatuko hizkuntza guztietan). Antologia eta kritika liburu guztietan eraldaketa hau barneratu bada ere, oraindik ere ez da ikerketa seriorik egin aldaketa hau nola gertatu den eta zer adierazten duen aztertzen duenik.

beraz[3]. 'Kanon' kontzeptua hitzaldi honetan giltzarri suertatuko denez, hasteko bederen kanonaren definiziotan sartzea baino, bere ondorio zehatzak aipatzea errazagoa izango dela deritzot. Alegia, autore bat kanoniko bihurtzean, politikoek badakite zein autorerengandik aipu poetikoa egin, ikastetxe eta unibertsitatetako literatur testu liburuetan garaiko literatur *star*-a zein izango den erabakirik geratzen da, gabonetako opariak erosterakoan euskaraz ez dakiten liburusaltzaileek ere asmatzen dute euskarazko liburu "zuzena" gomendatzen, kazeterien literatur diana nagusia zein izango den komunikabideek ziurtatzen dute, telebista eta irratiko edozein kultur programatan literatur eritzi "zuzena" nori eskatu ere azkenean produktoreek badakite, literatur autonomikoetako bilerak daudenean arduradunek badakite nor kontaktatu... eta abar luzea.

Atxagak euskal literaturaren kanonaren bilakaeran hartu duen lekuaren beste froga bat ni-neu naiz, adibidez, EHU-aren Udako Ikastaroen testuinguru honetan. Izan ere, unibertsitatea da kanonizazio honetan parte hartzen duen beste aparatu garrantzitsua. Dagoeneko segur naiz, XX. mendean beste zazpi-zortzi euskal idazleri bakarrik emandako zilegiztapen teorikoa bermatu diola Atxagari euskal unibertsitateak, ihardunaldi hauek barru.

Bestalde, kanonaren eta euskal literaturaren izaera historiko eta politikoa zein zehatza den ulertzeko, nahikoa da konturatzea Ramon Saizarbitoria bezalako idazle batek askozaz ere testu kanonikoagoak idatzi dituela eta bere idazketaren ibilbidea askozaz ere modernoagoa izan dela; "modernoa" zentzu literario historiko estriktoan darabilgu hemen, Alabaina, Ramon Saizarbitoriak bere hiru elaberriak EEA sortu aurretik argitaratu zituen eta EEAren kanonizazio prozesua indartu ahala, Saizarbitoria isildu egin denez eta isiltasunaren margin honetan bizi izan, lehenaldiko literatur irudi bezala, kanonizazio prozesutik kanpo geratu da.

Hitz gutxitan esateko, Atxaga autore kanoniko bihurtu da euskal *literatur instituzioaren erdian* kokatu delako, instituzio hau EEAren abaroan sortu ahala. Era berean, kanona elementu kultural bezain politiko denez, beste alor batzutan ere hedatu dela aipatzea baino ez dugu. Mitxelena, Txillida eta Barandiaran, kasu, zenbait euskal artista eta jakintzazko pertsonek lortu duten kanon estatusaren irudi garbi dira[4]. Izan ere, EEAk bere kultura instituzionala gararazi behar izan du az-

(3) Instituzioen azterketa, eta azterketa honek sortarazi duen kanonarekiko arreta, hein batean Foucaulten ikerketek indartu dute.

(4) Oteiza, Krutwig eta Txillardegi bezalako pertsonaiak berriz marginaltasunarena.

ken hamabost urteotan, eta beraz kultura instituzional honen erdian pertsonaia batzu kanonizatu behar izan ditu erreferentzia eta erdigune gisa.

Kanona, EEAko arlo guztietan batera aztertuz gero, EEAko kulturaren inkontziente politikoaz askoz gehiago jakingo genuke. Zoritxarrez, EEAk bere barnean kontrako kultura sendo bat sortzen ez duen artean, kanon hau indartu baino ez da egingo, eta beraz ez da lekurik izango kanon honen kritika eta azterketentzat.

Kanonizazioak atzean dakarren inkontziente politikoa zein indartsua den iradokitzeko, zera bakarrik adierazi nahiko nuke amaitzeko, ez dela kointzidentzia baldin eta literatur kanonaren erdian emakume bat edo euskaldunberri bat ez badago. Bi kategoria horiek ez dute "balio" egungo euskal kanonaren sistema erdigune eta erreferentzia izateko.

### 1.2. Margina

Kanonizazioaren prozesu honen taiua eta ondorioak argiago ikusten dira baldin eta Atxagaren beste garaikide eta taldekide bat hartzen badugu gonbaraziogai: Joseba Sarrionaindia[5].

Sarrionaindiak berorrek adierazi duenez idazle marginala da. "Marginal" hitza ondo zehaztea garrantzitsua da. Sarrionaindiak bere burua egoera politiko ofizialaren ertzean kokatu du, idazle bezala euskal literatur instituzioaren barnean bizi bada ere - Atxaga bezala[6]. Jokaera politiko honek aldiz literatur kanonetik kanpo utzi du Sarrionaindia. Ondorioz, Sarrionaindia ekonomikoki eta kulturalki arrakastatsu izan badaiteke ere— behintzat irakurle talde handi baten barnean politikoki bere burua marginean ezarri du, eta beraz literatur instituzioaren kanonetik at.

Garai batean unibertsitate ofizialak marginaltasun politiko hau kontutan hartu gabe Sarrionaindiaz hitzegin bazuen ere, literatur kanonean Atxagarekin barneratuz, gaur egun ezinezkoa da Sarrionaindiaz

(5) Biak izan dira Pott literatur talde desagertuaren partaide.

(6) Marginaren ideia hau bere *Marginalia* idazlanean zehar zentzu desberdinetan hedatzen da, beti ere ideia hau liburuaren ardatz zuzendari delarik.

Hala, maila politikoan Sarrionaindia esplizitoki mintzo da: "Literatura *marginala* da egitura edo marko ofizialetatik aparte sortu eta zabalduriko idazlanena". Sarrionaindia, Joseba, *Marginalia*, Donostia, Elkar, 1988, 18.or.

Baieztapen honi ironia argitaldariak ezarri dio liburuaren bigarren orrialdean: "Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du... Lege gordailua: NA. 772- 1988".

hitzegitea kanonaren eta marginaltasunaren artean bereizketa institu-zional zehatzik egin gabe[7].

Sarrionaindiak esplizitoki beste Euskalerri mota baten aldeko aukera politikoa egin du: Euskalerri sozialista eta burujabea. Eta beraz, EEAko kulturaren marku politikotik sahiestu egin du bere burua. Ez du bere langintza literatur sariketa ofizialetara aurkezten, ezta EEAko medien dinamikan (elkarrizketak, argazkiak, mahainguruak...) parte hartzen[8]. Sarrionaindiak kanpora egin du unibertsitatea eta mediak bezalako aparatu ofizialak barneratzen dituen euskal eta espainiar proiektu politiko autonomikotik, eta bere literatura halaber egitura politiko honen marginean kokatu du ondorioz[9].

Marginean diogu zeren oraindik Elkar edo Pamiela bezalako lege barruan geratzen diren argitaletxeetan argitaratzen du Sarrionaindiak eta oraindik edonork irakur lezake debekapen legalik gabe. Alegia, Sarrionaindiaren langintza ez dute inoiz "terrorismoaren apologiaren" legepean isilerazi eta, beraz, EEAn argitaratzea ez zaio debekatu legez. Bestela esateko, Sarrionaindia, idazle bezala, egungo sistema politiko ofizialaren barnean datza, baina bazterrean. Politikoki bazterrean izate honek kultura/ekonomia/politika autonomikoak EEAn eta estatu espainiarrean sortu duen literatur sistema kanonikoaren ertzean ezarri du.

(7) Ikus adibidez Jon Kortazarrek garai desberdinetan idatzi zituen bi artikulu, geroago liburu berean jasoak: "Gaurko euskal poesiaren ikuspegi baterako" eta "Konpromezu poesia Euskadin" in Kortazar, Jon, *Laberintoaren oroimena. Gure garaiko olerkigintzaz*, Donostia, Baroja, 1989, 49-74. eta 75-98. or.

(8) Oharra: bere egoera geografikoa kultur instituzioekin zerikusi zuzenik ez duen beste arazo bat da, biak azkenean lotuta badaude ere.

(9) Literatur marginaltasunaren ondorio etikoez ihardutean berriro ere Sarrionaindia esplizitoki mintzo da: "Etika mailan ere badago eginbide bat, hau da, norbere independentzia eta libertatea gordetzea, boterearen morroi ez bihurtzea. Poetaren lana, beste ofizio publikoena bezala, bere espektakuluan integratu ohi du botereak poetari ospe eta sari emanez. Independentzia pertsonalaren frogetarik bat diruarena da, botereak eskainitako dirurik ez onartzea halegia, morrontzaren ezagugarrietarik bat kobratzea bait da. Hain zuzen, konpromezu politikoa gizarte zanpaketen aurka burrukatzean badago, konpromezu etikoa bere ofiziotik datozkion pribilejioak ez onartzean dago". Sarrionaindia, Joseba, *Ni ez naiz hemengoa*, Iruinea, Pamiela-Soñua, 1985, 188.or.

Maila honetan Atxagaren eta Sarrionaindiaren jokabide etiko eta politikoak literatur espektrumaren bi mutur kontrakoetan ezartzen direla begibistakoa da. Atxaga dukegu Euskalerriko (eta Espainiako) idazlerik sariztatuenetako bat. Aldiz Sarrionaindia marginaren idazlea da, eta are gehiago, bere azken urteotako arrakasta kontutan hartuta, *marginaren kanona* bihurtu dela ere esango nuke, hau beste arazo bat bada ere.

Zentzurik zabal eta literalenean Atxaga kanoniko bihurtu den bezala, Sarrionaindia marginal gertatu da.

Arazoa, puntu honetan, ez da "kalitate" kontua, *leku* kontua baizik —zentru eta margin kanonikoaren aukera. Edo hobe esateko, lekua eta kalitatea batera datoz momentu historiko bakoitzean, geroko errebisioek bateraketa hauek berregituratzen badituzte ere. Eta hitzaldi hau kanonizazioaren politika horren barne ezartzen denez— hain zuzen autore kanonikoak sortzeko ihardun ofizialean lekutze prozezu hau kontutan hartu beharko dugu geure erizpenak ematerakoan. Hitzaldi honen helburua, beraz, lekutze horrekiko kontziente izatea da eta bertatik beronen kritika historikoa egitea, egungo euskal literaturaren egoera argitu nahiz.

Kanonizazioaren prozesu honetan 1989an egin zen Orixekiko birkanonizazioa ere aipatu nahi nuke. Unibertsitatea den beste eleiza honek Orixe kanonizatu nahi izan baitzuen euskal literaturaren izpirituak metafisikoki eta hegeliarki ari naiz izan duen bilakaeraren beste urrats galdu baina berrirabazitzat —EEArentzat berrirabazia—. Egia esan, kanonizazio hegeliar horren ondoan nik-neuk kanonizazio historikoago bat proposatuko nuke, iazko ihardunaldietan salbuespen izan zen Iñaki Aldekoarekin batera, zeinetan Orixe garaiko pieza historiko garrantzitsu bihurtzen den baina era desberdin batean. Alegia, joera abertzale erreakzionario gisa ulertu nahiko nuke Orixe euskal literaturaren historian. Gaur egun zenbait irakasle edo kritikok Orixe literatur idazle garrantzitsutzat birbalioztatu nahi izatea Orixeri buruzko jakintza (botere) espezializatu akademiko erreakzionarioa sortu nahi izatearen ondoriotzat salatu nahiko nuke.

Kanonizazioaren testuinguru honetan, beraz, Atxagaren lan poetikoaren (*Etiopia*) irakurketa bat egingo dut eta geroko narratibaren (*Obabakoak*) irakurketa bat hurrengo hitzaldirako utziko. *Etiopia*-ren irakurketa azaldu ahala, oraingoz extraliterarioa eta zirkunstantziala irudi dezakeen kanonaren auzi honek irakurketa horretan arazo giltzarri ugari argituko ditu.

### 1.3 Instituzioa

*Etiopia* (1978)[10] kontsidera dezakegu Atxagaren lehen idazlan garrantzitsua. Aurrez zenbait lan txikiago idatziak baditu ere, hala nola

(10) Atxaga, Bernardo, *Etiopia*, Bilbo, Pott Liburutegia, 1978, (bigarren artigalpen eraldatua: Donostia, Erein, 1983). Aipamen guztiak lehen argitalpenetik egingo dira. Liburuaren orriak ez daude zenbakiturik.

*Puntua eta borobila* (1972) eta *Ziutateaz* (1976), *Etiopia*-z bihurtzen da Atxaga idazle ezagun eta eraginkor.

Horiek horrela, *Etiopia*-ren jaiotzaren zertzelada historikoak garbiak dira. Liburu poema argitaratu zen garaian. Atxaga Pott literatur taldean aktibo zebilen. Eta hain zuzen, Arestiren hegalpean sortutako literatur talde honen emaitza da *Etiopia* hein handian. 70eko hamarkadaren amaian hedatu zen talde honek eman duen lanik gotorrena da *Etiopia* eta talde honen amaiera bera seinalatzen du. *Etiopia*-ren harrerari dagokionez, 1978-ko Durangoko azokan, edo bestela esanda euskal liburugintza eta musikagintzaren merkatal termometro bakarrean, liburu gehien salduenaren saria eraman zuen liburu honek. Azkenik gogoratu behar dugu euskal literatura postfrankistaren lanik garrantzitsuenetakoa dela era berean.

Atxagaren lehen idazlan nagusi hau Potten testuinguruan kokatuz gero, ikusta dezakegu talde honek bilakarazitako literatur projektu zehatz batek bultzata sortua izan zela: euskal literatura instituzional eta kanoniko bat sortzeko projektua.

'Instituzionala' diogunean zera esan nahi dugu, alegia, Pott taldearen belaunaldiarekin literatura buruaskia bilakarazi nahi dela lehen aldiz euskal kulturan euskal filologiaren ikerketa beharretatik eta euskal abertzaletasunaren helburu politikoetatik berezirik. Beste hitz batzutan esanda, projektu honek bultzatako literaturak berezko izana lortu nahi du euskal kulturan, honetako behar dituen aparatu instituzionalekin lotuz (argitaletxeak, sariak, mediak, unibertsitatea...) ete bere kasako aparatu instituzional bihurtuz.

Era berean, Pott taldearen beste helburua literatur buruaski instituzional honen kanona definitzea zen; literatura instituzio buruaskitzat eraikitzeak instituzio horren egituraketa eta ardatzak zein ziren zehaztea eskatzen baitzuen. Bestela esanda, Pottek lehen munduko literatur tradizio berezi bat (sinbolista eta modernista frantses eta ingelesek bereziki gararazitakoa) eta euskal literatur tradizio berezi bat (Lizardi eta Lauaxeta bai, Aresti soziala ez...) hautatu zuen bere literaturgintzaren oinarri eta abiapuntutzat.

Insituzionalizazio eta kanonizazio proiektu honen ondorioa egun ikus dezakegu: Pottek, eta bereziki Atxagak eta Sarrionaindiak, onartutako literatur tradizioa eta idazkera estiloa bihurtu dira kanona, beraiek sortzen lagundu duten egun euskal literaturaren instituzio gaztean.

### 1.4. Modernitatea

Instituzionalizazioaren eta kanonizazioaren prozesuak batera suartatzen dira Potten. Geroago ikusiko dugunez, bi ekintza hauek eratzen dute halaber literatur modernoaren sorrera eta amaiera lehen munduko nazioetako literatur hegemonikoetan —hala nola ingelesa, frantsesa, italiarra eta frantsesa—. Sorrera eta amaiera hauek erromantizismoak eta abongoardia historikoek markatzen dituzte errespektiboki. Erromantizismoak literatura instituzio moderno bezala kontsagratzen du eta modernismoak eta abangoardiek aitzitik tradizio modernoaren azken errebisio eta balioztaketa dagite. Abongoardiek, hain zuen, erromatizismoaz gero sortuz joan den kanona azken aldiz errebisatzen dute, kontsagratuz, eta, ondoren, literatura instituzio bezala kuestionatu eta suntsitzeari ekiten. Beraz, garrantzitsua da euskal literaturaren kasuan bi prozesu historiko hauek lehenik bakarka aztertzea jarraian testuinguru historiko berean kokatzeko parada izan dezagun.

Aurrerago azalduko dugunez, literatura modernoaren hastapenak erizpide desberdinen arabera bereiz litezke eta definitu, batez ere lehen munduko literatur hegemonikoez ari ez garenean —hala nola euskal literatura. Nik-neuk Lauaxeta, Txillardegi edo Saizarbitoriaren literaturgintzara jotzea onartuko banu ere euskal literatur modernoaren hastapen datak ezartzean, data hauek beti ere testu barneko literatur ezaugarriren bidez definituak izan dira eta, azken batean, autoreagan zentratutako erizpide biobibligrafikoez[11].

Aitzitik, literatura instituzio historiko moderno bezala kontsideratzen badugu, 70eko hamarkadan Pottek inauguratzen du literatura euskalduna lehen munduko kanon hegemoniko modernoen arabera. Alegia, Pott izan zen lehena literatur talde gisa eratzen euskal hizkuntzalaritza eta politika abertzalearen arduretatik kanpo[12]. Oraindik talde

(11) Ikuspuntu desberdin hauek askotan eztabaidatuak izan dira, ikus adibidez: Sarasola, Ibon, ?Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza, Donostia, Krieslu, 1975; Otegi, Karlos, *Pertsonaia euskal nobelagintzan*, Mensajero, Bilbo, 1976; Lasagabaster, Jesus Maria, "Euskal nobelaren gizarte kondairaren oinharriak" in Euskal *Linguistika eta Literatura Bide Berriak*, Bilbo, Deustoko Unibertsitateko Argitarazioak, 1981, 343-368. or.; Kortazar, Jon, *Teoría y práctica poética de Esteban Urquiaga*, Lauxeta, Desclée de Brouwer, Bilbo, 1986.

(12) Alde honetatik Potten argitalpenetan aurki daitezkeen baieztapenak errotikakoak dira.

Literaturaren euskal hizkuntzalaritzarekiko makurpenaz: "Esate baterako: euskara indartu eta zabaldu egin behar da. Konforme. Baina: beste guztia horren serbitsupean [sic] jarri behar da, literatura, zinea edo pedagogia edo kaka zaharra. Bada ez jauna, ez gaude konforme. Bakoitzari berea: literaturan, lehenengo gauza literatura egitea da (jauna jauna, zenbat aldiz)". "Poema liburu batetarako hitzaurregai bat", *Pott bandaren berriemailea*, 7. or. (datarik ez).

honen aurreko idazle gehienek, hala nola Aresti edo Mirande, euskal hizkuntzaren estandarizazioarekin eta euskal proiektu politiko batekin loturik idatzi zuten literatura.[13] Modernista ugariren anparoan (T.S. Eliot, Pound, Pessoa, Rilke...) *l'art pour l'art edo artea arte alderako* teoriak lehen aldiz Pottek zabaldu zituen.[14] Potten lehen helburua literaturaren banaketa eta buruaskitasun modernoa aldarrikatzea izan baitzen[15].

Mendebaldeko literaturari begiratuz, literatura buruaski baten aldarrikapena erromantizismo alemaniarrak ekarri zuela konstatatu behar dugu. Alegia, F. Schlegel-ek eta Jenako taldeak bilakarazi zuten neoklasizizmoan literaturak izan zituen lotura guztietatik aske zatekeen literatura buruaskiaren ideia, filosofia idealistaren eta Goetheren

---

Euskal abertzaletasunarekiko makurpenaz: "Literaturaren arloan azaldu ditudan eritziak ere ideologizazio honen ondorio dira. Don Quijote española da eta ez irakurri, jaunak. Kultura espainolak ez du zer ikusirik gurekin (la hostia da, hau esaten dutenak, askok behintzat, erderaz jaio eta hitzegiten, balsa dantzatu eta futbolean jokatu baizik ez dutela egin kontuan hartuz gero) eta gainera negatiboa da (bada ez, kultura espainolarik gabe ez dago euskaldunen definiziorik, eta eskertzekoak dira La Celestinak, Mistiko kastellanoak eta beste; kultura guztiak dira aberasgarri hauzokoarentzat; eta Nafarroa Euskadi bada, zuek esango didazue zer den probentzia hori kultura espainolik gabe". "Kritiko literarioen aideplano konplexuaz eta beste zenbait arazo xelebrez...", *Pott bandaren braga*, 7.or. (datarik ez).

Nik-neuk Atxagaren eskua ikusten dut bi artikuluotan.

(13) Mikel Lasaren eta Ibon Sarasolaren poemagintzak seguruaski proiektu ideologiko abertzale batetik at eta literatur hutsezko helburuz idatziak izan baziren ere, poemagintzok liburu bakar batean geratu ziren eta ez zuten bilakaerarik izan.

Bestalde Atxaga bera hasieran parte izan zen Ustela taldean ere, literatura hutsezko planteiamentua azaldu zen Pott sortu aurretik, Josu Landak (*Gerraondoko poesiaren historia*, Donostia, Elkar, 1983, 70-71. or.) eta Jon Juaristik (*Literatura Vasca*, Madril, Taurus, 1987, 130-134. or.) onartu duten bezala. Alabaina, Ustelak *euskal* literatura hutsik argitaratzeko jokaera politiko abertzaleari eutsi zioen bitartean, Pottek literatura edozein proiektu abertzaleren gainetik ezarriz, gaztelerazko eta galizierazko literatura ere argitaratzeari ekin zion bere aldizkarian.

Diferentzia hau garrantzitsua da izan ere Ustelan proiektu abertzalea literaturazkoarekin eskuz-esku joan baitzen. Joera honek literaturaren buruaskitasuna baino euskal literatura baten proiektu abertzalea gararazi nahi zela ematen du aditzera. Pott izan zen lehena, beraz, literaturaren defentsa orokor bat egiten.

(14) Sarrionaindiaren kasua ia ironikoa gertatzen da testuinguru honetan. Dena den literaturaren funtzioa Sarrionaindiarenean zailagoa da eztabaidatzen eta azterketa zehatzago bat eskatzen du.

(15) Zentzu honetan Arestik amaitugabea utzi zuen T.S. Elioten poemagintzaren euskal itzulpena Pott taldekoek burutzea adierazgarri da. Pott-en hasierako proiektuetako bat izan bazen ere, taldea desagertu eta gero argitaratu zuten azkenean. Ikus Aresti, Gabriel, Sarrionaindia, Joseba eta Juaristi, Jon, T.S. Eliot euskaraz, Donostia, Hordago, 1983.

anparoan. Madame de Staël- ek Frantziara eta Ingalaterrara erromantizismo alemaniarraren ideiak zabaldu ahala, literatura moderno buruaski baten aldarrikapen erromantikoa Europan zehar barreaitu zen lehen aldiz.[16] Funtzio erromantiko hau Euskalerrian Pott taldeak bete zuen 70 eko hamarkadaren amaian.

Jakina, literaturaren autonomiaren aldarrikapen erromantikoa XIX. mendeko kultur burgesaren garapenarekin bat dator, eta beraz literaturak bere autonomia merkatuaren bidez lortzen du, bere kasako salgai bihurtuz eta literatur autoreak ekonomikoki emantzipatuz.

Merkaturaketa hau literatur moderno europar hegemonikoen sorreraren ezaugarririk nagusienetakoa da. Berriro ere, literaturaren merkaturatzea Europan zehar XIX. mendean zehar (Ingalaterran XVIII.enean) gertatzen da, burgesia indartzen hasten den bezala. Europan zehar merkatu propio gisa egituratzeak literatura modernoa gizarte instituzio bihurtzen du[17]. Erromantizismoaren garaian gertatzen den literaturaren instituzio eraketa Euskalerrian Pott taldeaz gero sortzen hasten da[18].

Potten kasuan ere antzeko bilakaera bat ikusta dezakegu beraz.

(16) Ikus Lacoue-Labarthe, Ph. eta Nancy, J.L., *L'absolu littéraire. Théorie de la littérature du romantisme allemand*, Paris, Seuil, 1978; Benichou, Paul, *La sacré de l'écrivain: 1750-1830*, Paris, José Corti, 1973.

(17) Ikus adibidez Ingalaterrako kasuarentzat, Watt, Ian, *The Rise of the Novel*, Berkeley eta Los Angeles, University of California Press, 1957.

(18) Jon Juaristi, Pott taldeko partaidea bera, eritzi berekoa da goian azaldu ditugun bi fenomenuei buruz: "Pott se disolvió en 1980, cuando sus objetivos fundacionales parecían ya alcanzados. En efecto, la liberación de la literatura euskérica de su secular instrumentalización por instancias ajenas a la misma (Iglesia, fuerzas seculares, etc.) es ya un hecho, como también lo es su relativa autonomía del proceso de normalización del euskera. La literatura vasca está hoy, por primera vez en la historia, en manos de los literatos, y ello se debe, en gran parte, al movimiento iniciado por Saizarbitoria y Sarasola, que llevó a su culminación el grupo Pott. Desde la desaparición de éste, la producción editorial ha aumentado sensiblemente, y se ha consolidado en nuevo público, formado en su mayoría a por lectores jóvenes. Estos son, sin duda, los fenómenos más positivos de los últimos años" (op. cit., 133-134. or.).

Jakina, euskal literaturaren merkataltzea ez zaio Potti bakarrik zor. Alabaina merkataltze joera honen ardatze Pottek, eta bereziago Atxagak eta Sarrionaindiak, hartzen du. Saizarbitoriak ere arrakasta handia izan bazue ere, bere 1976ko azken elaberriaz gero ezer ere idatzi ez duenez, ez da merkatuko dinamika hazkor honetan eragile zuzen bihurtu.

Dena den, maila honetan azterketa soziologiko berriak, *à la Escarpit*, behar ditugu. Eusko Jaurlaritzak eta Aurrezki Kutxeak jokatu duten papera, adibidez, oraindik aztertzeke dago. Marijose Olaziregi egiten ari den ikerketa berriek argi egingo dute arazo honetan, geroaldi ez oso urruna izatea espero dugun batean.

Potten proiektuaren azken emaitza lehen *literatur idazle profesionala*ren sorrera baita. Seguruaski Bernardo Atxaga da Euskalerrian profesionalismoaren aukera hartu eta aukera horretan garaile atera den idazle bakanetakoa. Agian, oraindik bera da idazle bakarra literaturaren instituziotik bizi dena, zeren beste idazle gehienak irakuskuntza bereziki, eta beste zenbait ofiziotan gutxiago, aritzen baitira.

Alegia, Pott taldeaz gero euskal literaturaren instituzioa instituzio bezala biziten hasi da, bere idazle (erdi) profesionalekin, bere merkatal ihardun bereziarekin eta, azkenik, bere literatur kritika unibertsitariarekin.

Kritika unibertsitaria ere barnean sartzen dugu, zeren ez dugu ahantzi behar literatur kritikazko ikastaroak EHU-n eman dituen lehen irakasletakoa Jon Juaristi, Potteko partaidea bera, izan dela eta euskal literaturazko ikastaroak inoiz eman dituen lehen unibertsitate irakaslea Jon Kortazar dela, hots, Pott taldera beranduago elkartu zirenetako bat. Azkenik, literatur kritikan aritzen garen askotxo talde honen semealaba gara edo behintzat beronen eragin handia izan dugu[19].

Bestalde, eta gorago azaldu dugunez, Pottek euskal literatur kanon baten egituraketa dakar. Honetako, XX. mende hasierako abangoardia gehienen antzera, Pott taldea literatur talde militante bezala egituratu zen. Pott taldea lehen euskal literatur abangoardia modura eratzen da beraz: talde bat da, bere partaidetza deklaratuekin, talde bezala bildu eta bizi da, eta taldearen organo ofiziala bihurtzen den aldizkaria, Pott, argitaratzen du non euskal literatur projektu berezi eta zehaztu bat azaltzen baiten[20]. Talde militante honek organo ofizial horren bidez bere literatur doktrina eraiki zuen, zenbait literatur korronte eta autore (modernismo klasiko eta berantiarreko zenbait autore, hala nola T.S. Eliot, Borges, Kafka...) aldarrikatuz, beste batzu errefusatuz (errealismoa, literatura esistentziala eta *nouveau roman*aren antzerako literatura esperimentalak, hain zuzen, Ustela taldeak gogokoago zituen aukerak), euskal kulturaren eta literaturaren kritika zorrotz eta oldarkoi bat eginez, bertatik zenbait literatur joera eta auto-

(19) Ohar bat kazetaritzazko literatur kritikari buruz. Argia, Diario Vasco-ko *Zabalik* eta abar bezalako liburu-erreseinadun sailak dituzten egunkari eta aldizkariek ez dute "literaturarekiko" arreta bereizirik. Euskaraz argitaratutako edozein liburu irazkintzen dute. Beraz kasu honetan literatur instituzioarekin erlazioa konplexuagoa da.

(20) Sei ale atera zituen Pottek 1980. urtera arte: *Pott bandaren berriemailea, Pott bandaren blaga, Pott bandaren braga, Pott bandaren praka, Pott bandaren plaga Pott tropikala.*

Maila honetan, Ustela taldeak ere egitura militantea bera izan zuen, helburuak literatur hutsezkoak ez baziren ere.

re erreskatatuz[21] eta, azkenik, kritikatutakoaren ukazioz geroaldiko proiektu bat inplizitoki adieraziz.

Aldizkariaren jite abangoardista, eta are zehazkiago dadaista ("pott" hitzaren erabilera "dada"-ren parekoa da), nabermena da eta *Etiopia*-n bertan ikusta daiteke. Beste hitz batzutan esanda, Pott taldea abangoardia europar hegemonikoek (dadaismoa, futurismo italiarra, surrealismo frantsesa eta espresionismo alemaniarra) mende hasieran hartu zituzten jokabideak bereganatuz eratu zen. Esan gabe doa, mende hasierako abangoardien testuinguru historikoa erabat desberdina zela, ezen inperialismo kapitalistak metropoli europarretan sortarazitako artearen merkataltze eta de-instituzionalizazioaren prozesuei erantzunez gararazi baitzuten abangoardiek dinamika militante hau[22].

Aitzitik, Potten kasuan egituraketa abangoardista eta militante hau ez zen literaturaren eta artearen merkataltzeari erantzunez paratua izan, ezen oraindik euskal literatura ez baitzen merkatugai bihurtu. Aitzitiik, euskal kulturan faltan zegoen literatur proiektu bat gararazteko helburuz eratu zuen Pottek egitura militante hau. Halaere, militantismo honen funtzioa bera da bi egoeratan abangoardia historikoena eta Pottena. Bi kasuetan literaturaren instituzio buruaskiari (abangoardien kasuan dagoeneko bazen literatura modernoa, Potten kasuan sortu nahi zuen euskal literatura buruaskia) gizarteko beste instantziek (merkataltzea lehen kasuan, politika abertzalea eta euskararen hizkuntz normalizazioaren ihardunak bigarrenean) egindako erasoen aurka sortzen da egitura militante hau.

Potten ihardun abangoardista militante honen emaitzak garbiak dira. Pottek literatura idazteko joera eta estilo bat sortarazi zuen euskal literaturan, hain zuzen, egun nagusi dena. Potten erreakzio zuzenez, aldizkari abangoaardistak modan jarri ziren Euskalerrian

(21) Ikus adibidez *Pott tropikal*-ean (1980) Lauaxetari buruzko analisiak (8-9, 14-16. or.) edo Luis Mari Mujikaren lan bati egindako kritikak (10-13. or.). Barrutiari lan bat inoiz atera ez zen hurrengo Pott batean argitaratzea ere prometatzen zen.

Detaile hutsa bada ere, *Pott bandaren berriemailea*-n, 14. orrialdean, honako hau irakur daiteke: "Ustelas: Morituri te salutam, Pott" Erreferentzia jakina Bernardo Atxagak utzitako Ustela taldeari zuzendua da.

(22) Ikus Williams, Raymond, *The Politics of Modernism*, Londres, Verso, 1989; Bürger, Peter, *Theory of the Avant- Garde*, Minneapolis, University of Minnesota Press, 1984.

II. Mundu Gerra ondoko abangoardiek ere, hala nola situazionistak, taktika berak erabili zituzten baina ordurako taktika hauen indarra joana zen, merkatua militantismoaren dinamika bera merkataltzeko gauza bihurtu baitzen.

belaunaldi gazteagoen artean, dagoeneko diferentzia kualitatibo bat bazegoen ere —beraiek ez zirela lehenak—[23]. Azkeniz unibertsitateak Pott taldeko zenbait partaide barneratuz gainera, Pott taldeko literatur ekoizpena eta ekoizpen hau oinarritzen den literatur tradizioa zilegiztatu ditu kanon bezala[24]. Kanona zilegiztatzeko prozesu honetan, Atxagari emandako Espainiako literatur sari nazionala kanonaren eskaileran azken harmaila baino ez dugu.

## 2. Euskal prometeo moderno baten istorio orojakile baina berantiarra: *Etiopia*

### 2.1. Isiltasunaren euskal profeta gazteak.

Hala *Etiopia testuinguru berezi honetan kokatu nahi genuke Pott taldeak sortu eta argitaratu zuen lan nagusi eta bakartzat. Etiopia* Pottek eragindako kanonizazioaren abiapuntu baita. Eta abiapuntu guztiek bezala, *Etiopia-k argi egin dezake testuinguru hura berrirakurri eta gaur egunerako zenbait gogoeta baliagarri sortzeko.*

Hasteko, esango genuke *Etiopia* lana ez dela poesi liburu huts bat. *Etiopia* ez da poema bat, Poema baizik. Euskal ingurune kritikoan 'metaliteratura' terminoari ematen zaion balio inflazionaria gaitzetsiko bagenu ere. *Etiopia* metapoesia dela esango genuke: Metapoema. *Etiopia*-ren lehen helburua osoa eta orokorra, totala, izatea baita. Bertan, poesia modernoaren gainean egindako balioztapen, kritika eta gogoeta oso bat dago. Eta azken finean, *Etiopia* poesia eta literatur modernoaren azken mugara iristen da halaber: isiltasuna. *Etiopia-k argi uzten du poesia modernoaren telos*-a isiltasuna dela. *Telos honen arrazoi historikoetara aurrerago itzuliko gara.*

Isiltasunaren gaia beste autore euskaldunek erabili badu ere, hala nola Mikel Lasak[25] edo pairaezina bihurtu digun itxoite inplizitoaren

(23) Benetan interesgarria izango litzateke aldizkari abangoardista hauen historia egitea.

(24) Jon Juaristiren zein Jon Kortazarren lanek (op. cit.) 80-ko hamarkadako euskal literaturaren panorama eztabaidatzean, Pott taldea hartzen dute ardatz. Jose Landa-ren lana (op. cit.), nahiz unibertsitatearen aparatoarekin loturik ez egon, ildo berean doa.

(25) Ikus honako poema izengabea: "Egunen batean beharko dugu pausatu/ udarako egun narras luzeren ondoren/ giza errealidade humilaren ohean etzan/ banitate oroetaz bilhustu, marmario guzietaz/ et aazken [sic] finean gure baitara itzuli/ ene buruari so egin, hain bitxia/ estrainioa, birrindua eta madarikatua/ ene burua, eta ene baitara itzuli/ haur baten begiez inguru-muruak begiratu/ Bilhustu, hustu sentipen oro bazter/ ez gorrota, ez ahalegin/ *betierako ixil-aldiaren sabore humila astiro jasta*/ *Ur-lo isilaren sabelera ondora*". Lasa, Mikel eta Lasa, Amaia, *Poema Bilduma*, Donostia, Herri-Gogoa, 1971, 109. or. (neure azpimarkaketa).

bidez Ramon Saizarbitoriak[26], inoiz ez dute isiltasuna adierazi literatur modernoaren azken muga bezala, zentzu orokor batean.

Bada baita Arestik idatzitako lan goiztiarra, *Maldan behera* (1959), zeinetan zentzu orokor honetaz osatutako poesia idatzi baitzen. *Maldan behera*-ren azken ahapaldian bertso bikoitza azaltzen da zeinak giza bidaia metafisikoaren kontaketa poetikoa egitearen alperrikakotasuna aldarrikatzen duen:

Bide honetako amaian,
eztago mugarririk.
Etxe erdi-erori hau,
munduan den guztirik.
Atzena da aurrerantzean,
eztago ezer bizirik.

Argizagiak astiro,
dabiltza izartegian.
Eguzkirik eztenean,
iluminatzen dira.
Gauza misteriotsuak,
gizonaren begian.

Aintzinako gizona,
arranoaren alde.
Gizonak bitinak [biktimak] hiltzen,
eta arranoak jaten.
Entzun ditugun pronuak [sermoiak],
izan dira debalde[27].

Arestiren kezkak nahiz eta poemaren alperrikakotasuna aldarrikatu, eta beraz edozein kontaketa poetikoren alperrikakotasuna, ez du oinarritzen bere nihilismo poetikoa literatura modernoaren bilakaeran, ezen nihilismo europar filosofikoa eta zuzenago Nietzscherena baitu azken erreferentzia. Nietzscheren *Hala mintzatu zen Zaratrusta* poemaren eragina nabaria da, haren supergizonaren etorreraren ondoan Arestik geroaldi ezkor eta ilun bat iradokitzen badigu ere. Beste arra-

(26) Ikus Lasagabasterrek berak, beti Saizarbitoriaren aldeko izan bada ere, azkenean dioena: "La escritura como lugar de transgresión. A propósito de *Ene Jesus*, de R. Saizarbitoria", Lakarra, Joseba (arg.) *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1991, 1231-1240. or.

(27) Landa, Karmelo et al. (arg.) *Gabriel Arestiren Literatur Lanak. I. Lehen poesiak*, Donostia, Susa, 1986, 163-164. or.

zoiren artean, nihilismo honek esplikatuko luke poemaren arrakasta falta euskal literaturan[28]. Alabaina, *Maldan behera* lan goiztiarra izan zen eta Aresti ez zen berriro isiltasun modernoaren kezka honetara itzuli, *Maldan behera*-ren urte berean argitaratu zen, eta Borgiarra dirudien, bere ipuin batean ezik[29].

Beraz isiltasunaren poetika bere bilakaera modernoan Atxagaren *Etiopia-n gauzatzen da lehen aldiz euskal literaturan*[30]. *Zentzu honetan beraz Etiopia* zerbait bada euskal literaturan zera da: mendebaldeko literatur hegemoniko modernoekiko konexioa. *Etiopiaz* gero euskal literaturaren eta mendebaldeko literatura modernoen arteko lotura ukaezina da eta orokorra. Zentzu honetan aurrez poeta gutxik, eta gero ere gutxiagok, izan duten mendebaldeko literatur modernoaren ezagutza orokor eta sakona erakusten du Atxagak, eta bertatik konexioa. Konexio honen funtziorik nagusiena, lehen azaldu duguna da, alegia, euskal literatura literatur autonomo edo buruaski bezala zilegiztatu eta instituzionalizatzea.

Ironikoki, gaztetasunaren kezka dirudi tradizio modernoaren berri emate honek euskal literaturan —gaztetasun probintzialarena ere esango genuke—. Izan ere, gaztetasunak bakarrik onartzen dituen energi gehiegikeriak erabiliz, poetarik gazteenek ekiten diote modernitatearekiko konexio hau egitearen lan prometeikoari hein desbersinetan, Miranda eta Arestirekin hasi eta Atxaga arte.

Egia esan, ez dago ezer berririk zeregin honetan, izan ere modernitatearen mekanismorik zentralenetakoa da: Prometeo baten gisa berritasuna gizonei ekartzea. Alabaina, modernitatearen beti-berri-izanbehar honek, lehen munduko metropoli ez diren leku eta hizkuntzetan hala nola Euskalerria— beste itxura bat hartzen du, Modernitatea bera eta bere berritasuna inportatzen dira metropoli guneetatik periferietara eta, beraz, inportazioak beti norantza bera duenez, periferia beti ere marginal, ez- moderno eta ez-berritzat markatzen du. Azkeniz, inpor-

(28) Aldekoa, Iñaki, "Arestiren Maldan beheraz" (argitaragabea) eta Azurmendi, Joxe, *Schopenhauer Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, Susa, Donostia, 1989 dira lanik garrantzitsuenak arlo honetan, azkenak Mirande aztergai nagusi badu ere.

(29) Landa, Karmelo et al. (arg.), "Olerkaria. Denporatik ateratzen den probetxuaren ipui barregarria", *Gabriel Arestiren Literatur Lanak. VI. Narratiba*, Donostia, Susa, 1986, 13-16. or.

(30) Eskulturan, eta oso ondorio desberdinekin, Oteizak ere modernismoaren poetika nihilista hau bera aldarrikatu zuen, bere eskultura hutsunean amaitu eta gauzatzen zela aldarrikatu zuenean.

tazio kulturalean engaiatzen diren artista prometeiko hauek, leku ezmodernotatik etortzearen ezaugarriaz gainera, beti ere bigarren ezaugarri bat izaten dute: berantiartasuna. Alegia, metropolian momentuan bertan berri zer den jakiteak eta gero beren herri eta hizkuntza periferikoetara inportatzeak atzeratu egiten ditu, modernitatearen prometeo berantiarrak izatera kondenatuz. Aurrerago ikusiko dugunez hauxe da Atxagaren kasua halaber.

### 2.2. Etiopiatik Etiopiara eta buelta jokatzera

Kritika gehienak orain artean *Etiopia*-ren zati bakar bati atxiki zaizkio poemak duen osotasuna enoratuz[31]. Irakurketa hauek azaltzen dute *Etiopia*-ren kontraesana, izan ere oso irakurketa zatikatu eta mugatuak izan ditu kritikoen artean ere. Eta halaere, azken bi hamarkadetako *opus* poetiko garrantzitsuenetako bat dela azpimarkatzen kritikook bat datoz.

Beraz *Etiopia*, bere osotasunean hartzetik abiatuko gara lehen-lehenik. Bere osotasunean aztertuz gero, *Etiopia* lau zati nagusitan bana daiteke, beherago frogatuko dugun bezala. Inork argudia lezake azken hiru parteek beren kasako osotasuna dutela, lehen partetik berezitua. Gure analisirako, ordea, beste banaketa bikoitz honen aukerak ez dio ardura, azkenean frogatzen saiatuko garen bezala.

Lau parteetatik lehena, "Kain, Abel" deritzona, Bibliako pasadizu ezagunaren gainean poetak dagien gogoeta da. Botere jainkotiarraren aurka bortxaz errebelatu den Kainen alde eginez, poetak ibilbide poetikoari ekiten dio, honetako Kainen artasiko Jubal lehen poetaren itzalpea inbokatuz. Bigarren partea Piolet poeta baserritar imajinarioaren biografia da, bere admiratzaile batek idatzia. Hirugarren partea ibilbide metafisiko-metapoetiko bat da, bederatzi zirkuluz osatutako laberinto antzeko desertu batean —hain zuzen—, Etiopiara daraman desertua. Etiopia-Utopia hitz jokoak dagoeneko ikusten uzten digu bai poemaren izaera orokorra zein bere izaera metapoetikoa. Etiopia baita Rimbaud —*le poète modern par excellence*— poesia idazteari utzitakoan bere bidaiarentzat hautatu zuen ezinezko jomuga utopikoa. Laugarren eta azken parteak, "Azken erreflexioa Etiopiarako itzulbidean" deritzonak, poema eta narrazio bana dakar. Poemak iradokitzen du dena esanda dagoela eta gure hizkuntza klitxe antipoetikoz gainezka-

(31) Ikus aurrerago hirugarren partea bezala definitu duguna. Kritika horien artean, ikus hurrengoak: Arana, L. eta Otegi, L., "Atxagaren *Etiopia-z*", *Xaguxarra*, 1, 1980, 123-132. Kortazar, Jon, "Etiopia. Inora ez daraman bidaia", Op. cit., 203-229. or.

turik dagoela. Narrazioak, aldiz, kontatzen du poeta estupido baten asasinaketa bere emazte eta honen maitalearen eskuetan. Azken narrazio honen bidez, poetak poema osoa amaitzen du.

Lau zatiok hala deskribaturik baino lotura handiagoa dute *Etiopia*-n. Dena den eta oraingoz, zation azaleko deskribapen bat nahikoa izango da, lau zation arteko batasun eta zentzua parteon azterketa zehatzaren amaian bakarrik azalduko baita.

*Etiopia*-ren lehen partearen ezaugarri nagusia bere mitikotasuna eta dramatikotasuna da. Izan ere, *Etiopia*-ren poeta prometeikoak lehen-lehenik modernitatearen mitoa zilegiztatzeko bere genealogia poetiko propioa azaltzen digu, historiaz bestalde, mitoen garaira itzuliz. Hala, poetak literatura judu-kristauaren mitologia hartzen du bere genealogia propioaren abiapuntutzat. Eta ezin hobe aukera genealogia, izan ere modernitatea kultura judu-kristauaren ondorio baita. Bere ibilbide poetikoaren genealogia mitikoa ezarriz, beraz, poetak garbi uzten du bere liburuaren gaia historiaz gain mitologiaren denbora eternalean finkatzen dela, eta beraz gaia bera betierekoa dela.

Lehen partea, gainera, mitikoa da bigarren zentzu batean. Halako *mis en abyme poetique* bat ere bai baita. Izan ere, Kain paradisutik jaurtikitakoan desertuan amaitu zuen. Desertu honen izena azkenean poetak iradokitzen du Etiopiako desertua dela. Beraz lehen parte honetan bigarren genelogia bat dugu, genealogia poetiko bat kainekin hasi eta *Etiopia*-ren autorearenganaino hedatzen dena. Eta genealogia bigarren honetan lotura poetikoa espazioa da: Etiopia. Etiopia baita Kain bizi izandako lekunea eta geroago Rimbaud poetak eta *Etiopia*-ren autoreak berak jomuga izango dutena. Hala, liburuaren tituluak lehen partean topatzen duen oihartzuna erabat poetikoa da.

Kainen pasadizoaren aukeraketa, lehen esan bezala, botere jainkotiarraren aurkako errebeldia gizatiarrak markatzen du. *Etiopia*-ko pasarte honetan, poetak Kainen aldea hartzen du eta, Bibliak azaldutako Kainen gaizkile itxura arbuiatuz, egiazki gizatiarra den pertsonaia bezala deskribatzen du. Poetak botere jainkotiarraren aurka altxatzen den beste Kain hau gizadiaren inauguratzailetzat agurtzen du. Poetak, beraz, boterearen aurkako errebeldia goraipatzen du gizatasunaren izate eta hastapen mitikotzat. Poetaren eritziz, botere gorenaren aurkako errebeldia da gizatasunaren oinarrizko izatea inauguratzen duen gertakaria. Gertakari honen izaera absolutoa dela medio, poetak gizatasunaren hasiera ezartzen du historia ororen gainetik datzan eta mendebaldeko pentsamendua egituratu duen mitologia judu-kristau denboragabean.

Beraz hastapenetako errebeldia mitiko eta genealogikoaren gaiak lekutzen du irakurlea poemaren irakurketa hastean. Ondoriz, botereären aurkako borroka errebelde hau bihurtzen da poemaren irakurketan ardatz zuzendari aurrerantzean. Analisi honen amaieran itzuliko gara errebeldiaren eta bere mitikotasunaren garrantzia *Etiopia*-n aztertzera. Dena den, poeta prometeiko moderno orok bezala, bere genealogia mitikoa ezartzean, Atxagak lehenaldiko mitologia ez-moderno bat berridatzi behar izan du moderno bihurtuz. Alegia, gizadiaren errebeldiaren goraipena ez dago Biblian baizik eta modernitatearen hasieran. Izan ere, modernitatea da gizabanakoa erreibindikatzen duena, jainko ororen gainetik, jainkoak hil ondoren.

Analisi estrategiagatik, bigarren partea (Piolet poetaren sasi-biografia) alde batera utziko dugu bertara aurrerago itzultzeko.

Hirugarren partea, beraz, bidaia bat da[32]. Bidaia honek Etiopiako desertura jo nahi du. Hala, berriro ere espazioaren aipamenak liburuko zati desberdinak batzen ditu. Oraingoan ere, bidaia honen azken izaera poetiko bihurtuko da: desertuko bidaia geografikoaren ondoan, bidaia iniziatiko esistentziala garatzen baita. Mendebaldeko tradizio gehientsuenean bezala, bidaia iniziatiko hau infernurako jaitsieraz adierazten da. Zehazkiago, infernu iniziatiko metafisikorako katabasia edo jeitsiera da, Danteri eta Rimbaudi jarraikiz. Izan ere, modernitatean utopia/Etiopien bilaketa beti da infernala eta desertu- itxurakoa.

Jeitsiera hau bederatzi zirkulu konzentrikotan eratzen da[33]. Hala, hirugarren parte honek bederatzi zati edo sailetan banatzen diren poesiak eta narrazioak jasotzen ditu. Sail bakoitzaren lehen orrialdean zirkuluaren izena (lehen zirkulua, bigarren zirkulua...) eta tradizio modernoko autore baten aipu bat edo bestelako pastitxe itxurako testu-

(32) Hain zuzen *Maldan Behera*-k duen ibilbide-egitura bera du *Etiopia*-ren hirugarren parte honek. Maila honetan bi ibilbideetan poetek dagiten mendebaldeko eta euskal literaturaren tradizioen aipamen eta berrirakurketak ihardun prometeiko erabat parekideak dira.

(33) Bederatzi zirkuluen egitura, Dantek erabilia zuen bere *Komedia Jainkotiar*-ean, azken hau astrologia Ptolomearrean oinarritzen zelarik. Infernurako zein zerurako bidea bederatzi zirkulu konzentriko zeharkatuz egiten zen astrologia egipziarrean. Dantenean ez bezala, paradisurik ez duen *Etiopia*-ko jeitsiera berri honen zentzu modernoa aitzitik Rimbauden *Infernuan egonaldia* testutik abiatuta ulertu behar da.

Atxagak *Ziutateaz*-en Hölderlin hartu zuen bere idazgintzaren abiapuntu garrantzitsuenetakotzat. Ez da Hölderlinen aipamenik *Etiopia*-n. Badirudi Hölderlinen aukera -erotasuna- sahiestu nahi duela Atxagak *Etiopia*-n eta, aitzitik, errebeldia aldarrikatu, Rimbauden ildoan.

ren bat ageri da. Jarraian, zirkulua osatzen duten poesiak eta narrazioak datoz.

Zirkulu bakoitza esistentziaren alderdi baten esplorazioa da, hala nola haurtzaroa, memorioa, maitasuna eta abar. Beraz bederatzi zirkuluetan zehar hedatzen den ibilbidea izatearen leizeetara egiten den bidaia iniziatiko eta katabatikoa da. Alabaina, zirkulu guztien aurretik Marcel Schwob-en aipu bat dator zeinetan poetak, eta bere anaia bidaide Ophelionek, Etiopiarako ibilbidea dagoeneko egina dutela adierazten baituen. Beraz Atxagak dagoeneko egina den bidaia baten kontaera ematen digu hirugarren partean. Aurrerago argiago azalduko da dagoeneko egina izan den bidaia honen zentzu denborala.

Ez gara hemen zirkulu hauon deskribapen zehatzetan sartuko[34]. Zirkulu hauon norantza, beren izaera kontzentrikoa dela medio, erdirantz da, azken zirkuluaren barnean gordetzen den leku magiko utopikora. Zirkulu hauek infernu itxura hartzen dute beste irudi baten bidez: laberintoa. Zirkulu hauetan hedatzen den ibilbidea galbidezkoa baita: ez da irteerarik. Poeta barneratzenago den heinean, ihesbiderik ez duen galbide horretan barna, laberintoaren erdigunea jotzen du. Laberintoaren azken irudia aldiz ziutatea da. Bestela esanda, poeta barneratzen den laberinto metafisikoaren itxura historikoa ziutatea da: modernitatea haragitzen den gizarte geografia.

Bidaia guzti hau gainera, Euskalerriko eta mendebaldeko poeten eta tradizio poetikoen aipuz eta erreferentziaz beterik dago (Dante, Shakespeare, Axular, Rimbaud, Etxahun, Lizardi, Lauaxeta, T.S. Eliot, Pound, Rilke, Beckett, Aresti, Mirande, Lasa, Celan, Borges...)[35]. Ibilbide hau, beraz, mendebaldeko literatur modernoaren bilakaera historikoaren ibilbide metapoetikoa bihurtzen da era berean. Hala, poeta desertu- laberinto-ziutate-liburutegi honetan barneratzen denean, bere modernitatearen bidaideekin barneratzen da utopiaren bila.

Jakina ziutatearen erreferentziaren bidez, literaturak modernitatean izandako gatazkarik nagusienaren berri ematen du poetak era

(34) Ikus lehen aipatu ditugun Arana & Otegi eta Kortazarren lanak. Berauon hurbilpena arras desberdina da. Hor nonbait bada nire lan argitaragabe bat zeinetan ia hitzez hitz zirkuluon azterketa erkatu eta arketipologiko (historiko, mitologiko, neurastenikо...) bat egin dudan. Zoritxarrez lanaren teknikotasunak arketipologoak ezik (eta hauen artean Grenobleko eskolakoak bakarrik) beste guztiak heriotzaraino aspertuko dituelakoan, argitaragabe uztea erabaki dut, era irakurgarriago batean berridazteko umorean eta paradan suertatzen naizen arte.

(35) Masa kulturak (zinea, komikoak...) *Etiopia*-n duen garrantziak hitzegiteko ez dugu aukerarik hemen. Ikus aurrerago eztabaida labur bat 3. puntuan: *Le temps retrouvé*.

topologikoan. Ziutatea da modernitateak hartzen duen itxura geografikoa *Etiopoa*-n. Poeta ziutate laberintikoan barneratzenago delarik bere Etiopia-utopiarantz abiatzen da[36].

Bederatzi zirkuluetako poesia hauen estiloa Apollinaire-k hasi baina T.S. Eliot eta Poundek batez ere gararazi zuten estilo eklektikoa dugu[37]. Estilo honek poetaren ahots bakarra (monologikoa) zartatzen du, zatikatu, ziutateak eta modernitateak dakarren ahots ugaritasuna barneratu asmoz. Hala poemaren lerro edo hitz bakoitza hizkuntz modernoak duen edozein erregistrori mailegatutako diskurtsu edo esaldiren batetik dator (mitologia, komikiak, kaleko hizkuntza, beste literatura, zinea, anuntzioak, egunkariak, telebista...). Poemaren zentzua ez da poetaren ahots etengabeak dioenetik sortzen, mailegu heterogeneook elkarren osagarri sortzen dituzten konexiotatik baizik. Maila honetan Atxagaren haustura aurreko euskal poeten estiloarekin erabatekoa da[38].

Estilo eklektiko honek ziutatearen batasun gabezia jaso nahi du, diskurtsu poetikoa zatikatuz. Alabaina, heterogeneitate diskurtsibo moderno hau zentzu berri bat sortu nahi duen poema batean biltzea da poetaren helburua. Hala, poeta modernitatearen zatikakotasunaren aurkako gudu errebeldean engaiatzen da, berriro ere batasun utopiko bat aurkitu nahiz zatikakotasun horretan. Diskurtsu gatazka hau —ziutatearen diskurtsu heterogeneoen eta poesiaren saio bateratzailearen artean— poetaren eta ziutatearen enkontruak sortarazia da; modernitateari poesiak emandako erantzun errebeldea baita.

Halaere, azken eta bederatzigarren zirkuluan, modernitatearekiko

(36) Benjamin eta Raymond Williams izan dira seguruenik modernitatearen eta ziutatearen erlazioa gehien aztertu dutenak. Dena den, eta biek azpimarkatzen duten bezala, ez da ziutatea edo hiria bere hartan modernitatearen zeinu, baizik eta *metropolia*. Alegia, kapitalismo inperialistaren garaian, koloniak, hiria eta landak batzen diren lekune berezia metropolia da. Benjaminek Paris aztertzearen enpeinua honetan datza. Ikus Williams, Raymond, "Metropolitan Perceptions and the Emergence of Modernism" in *The Politics of Modernism*, Londres, Verso, 1989, 37-48. or. eta Benjamin, Walter, "Paris, Capital of the Nineteeth Century" in *Reflections*, New York, Schocken Books, 1986, 146-162. or.

(37) Paz, Octavio, *Los hijos del limo; del romanticismo a la vanguardia*, Bartzelona, Seiz Barral, 1974.

(38) Arestiren *Maldan behera*-ko ahots poetiko monologikoarekin diferentzia errotikakoa da. Arestiren ahotsa mezu bat dakarren profetaren ahots bakarra da.

Oraindik Baudelairek ahots monologikoa erabili zuen bere *Les fleurs du mal*-en, ez alabaina *Spleen de Paris*-en Orokorrago, Rimbaud-ez gero ez da ahots monologikorik poesia modernoan.

gatazka poetiko hau gogorkeriazko borroka bihurtzen da[39]. Poetak ziutatean bere utopia eta utopia horren deseginketa —distopia— topatzen baititu. Ziutatearen borrokarekin amaitzen da bederatzigarren zirkulua, oraingoan poetak Etxahun bidaide eta gogaide duela:

> Ezaren alaba garenoi etor hatzaigu, Etxahun
> .....
> Eta sar hadi orainaren laberintoetatik barrena
> Utzi iraganaren abenidak
> Ez haugu behar gorpuak zitroi urez ihurtzitzeko
> Baizik eta desertuko ihizik eragitearren
> Ziutaterantz.

Ziutatearen eta modernitatearen aurkako borroka poetiko hau, lehen parteko errebeldia mitikoaren ohiartzuna da. Oraingoan baina, errebeldia ez zaio botere jainkotiarrari zuzentzen baizik eta modernitatearen gauzaketa geografiko den hiriari, oraingoan ere, modernitateak itxura mitikoak hartzen baditu ere: laberintoa, desertua, infernua... Beraz poetak jokaera mitiko honen bidez zera adierazi nahi digu, kultura judu-kristauaren hasieratik egun arte gatazka berean bizi izan garela: utopietara iristea debekatzen digun boterearen —jainkoa, modernitatea— aurka gizabanakook daramagun gatazka. Gatazka hain da bera non beti ere leku berean gertatu baita: distopia guztien sinbolo bihurtzen den Etiopian.

Laugarren eta azken parteak, "Azken erreflexioa Etiopiarako itzulbidean" deritzonak, poesia eta narrazio baten bidez, poetak modernitatearen agintearekin —bere forma guztietan— izandako enkontru errebeldeak eragindako erreflexio distopikoa ematen digu: modernitatearen enkontruak poetaren isiltasuna dakar. Isiltasuna bihurtzen da errebeldia guztien eta saio poetiko guztien amaierako puntua. Bidaia poetikoaren bukaeran modernitatearen isiltasuna dago: ez da utopiarik, eta beraz poetak ezer esatekorik aurkitu ez duenez, isildu egin behar du isiltasun honetan bere *telos*-a eta patua kausitzen dituelarik. Modernitateak poesia bere ezerezera eraman duela aditzera ematen digu *Etiopia*-k.

(39) Garaian hain modako zen Bataille-ren (*La littérature et le mal*) eraginpean seguruenik.

Bestalde aipagarria da, Atxagak, Arestik ez bezala, ziutatea edo hiria onartzen duela poetaren medium modernoa bezala, alternatibarik gabe. Izan ere Arestik oraindik ere mendia eta baserria aipatzen zituen ziutatearen aurkako utopia bezala.

Beraz azken parte honen tituluak, "azken erreflexioa *Etiopiarako itzulbidean*", autorea Rimbaud-en jokaera berari datxekiola iradokitzen du. Alegia, hirugarren parteak dagoenako poesia modernoak utopiarantz (Etiopiarantz) egina duen porrotezko bidaia kontatzen bazuen, Etiopiarako itzulbideak adierazten du poeta, halaere, Rimbauden pausoei jarraikitzen zaiola berriro: poesia atzean utzi eta Etiopiara abentura bila itzuli behiala Rimbaudek egin bezala.

Beraz laugarren parte honetan bigarren bidaia bat proposatzen du poetak Etiopiara. Baina bigarren bidaia hau ezeztapenezko bidaia da, isiltasunerantzko bidaia bat, aurrez porrotera kondenaturik dagoen bidai ezinezko eta distopikoa.

Azken parteko lehen lanak, Pound, Picabia, Beckett eta Celan bidaide hartuz, modernitateak hizkuntza masifikatu eta estandarizatu duela aditzera ematen du. Poetak ez du beraz hizkuntza poetikoarentzat lekurik. Eklektizismo poetikoaren bideak ere azkenean porrotera daramala adierazten du poetak. Modernitatearen ahots heterogeneoak poema batean barneratzeko azken borroka errebeldeak ere behea jotzen du.

Poesiaz gainera, bada, azken narrazio bat, laugarren partean, zeinetan dagoeneko bi literatur sariren jabe den poeta afizionatu bat eta bere emaztea lagun batekin nola elkartzen diren kontatzen den. Elkarketa honetan lagunak poetari bere poesiak irakurtzeko eskatzen dio. Hark suizidioari buruzko poema bat irakurtzen dio eta lagunak izugarri gustoko duela esan ondoren poema zinatzeko eskatzen dio. Poetak poema zinatu bezain pronto, lagunak pistola atera eta akatu egiten du. Ironia zera da laguna eta emaztea maitaleak zirela. Azken finean amaierako narrazio honek isiltasunaz harantzago mintzatu nahi den poesia moderno ororen hutsaltasuna aldarrikatzen du. Poeta bere ingurunetik isolaturik bizi den inozoa bihurtu baitu ziutateak.

Poetaren azken hitzak, hiltzear, zerok dira: "Zergatik, baina zergatik... dira ene azken hitzak" ezin hitz poetiko eta tragikoagoak —eta era berean ezin hitz poetikoki klitxetuagoak—. Erantzuna *Etiopia*-ren poetak ematen dio, galdera poetikoaren dramatikotasunari kontrajartzen zaion ironiaz, oinohar batean: "Erantzuna ez da hain zaila. Zergaitia beste galdera honekin konpreni daiteke: nork soporta dezake poeta afizionatu bat egun bakar batez ere?" Beraz oinhoar honek poesiaren hutsaltasuna, alperrikakotasuna eta ezina aldarrikatzen du,

egun poeta guztiak afizionatu inozoak baino ez baitira, ez baitute modernitatearen nihilismoak poesiari dakarkion ezintasuna gainditu.

Mezua erabat autoritaritarioa da: isiltasuna poetak berak lortzen ez badu, lorterazi egin behar zaio asasinaketaren bidez. Azken poesia eta narrazio honen bidez modernitateak dakarren poesia idazteko errotikako ezintasuna aldarrikatzen du *Etiopia*-k. Izan ere, Rimbaudez gero ez dago Etiopiara itzultzerik, ez dago poesiaz harantzago hedatzen den isiltasun horretara berriro itzultzerik, itzulpen hau poesia merke, afizionatu eta klitxetua bihurtzen baita. Beraz poetak edozein utopiarako bidea hertsirik dagoela azpimarkatuz amaitzen du liburua.

Jakina zenbait autorek maila mitikoak eman dizkiote isiltasunaren poetika modernoari, hala nola M. Blanchot, G. Steiner, O. Paz eta abarrek. Dena den, mitikotasun honen aurrean datzan egoera historikoa bestelakoa da, erabat antimitikoa. Eta *Etiopia*-ren bigarren parteko narrazioak dagoeneko emana zuen arrazoia, arrazoi historikoa, beti ere erdi-alegoria ironiko esango geniokeenaren bidez emana izan bada ere, berau baita Atxagaren beste estilo maitatua[40].

Esan bezala, *Etiopia*-ren bigarren partean Piolet deritzon balizkako poeta kontsagratuaren biografia kritiko baten parodia ematen digu autoreak. Piolet poetak, Rimbauden hain antzeko, herri tipi batean jaio -adibidez Asteasu- eta Izambard bezalako maisu onen eta Paris bezalako metropoli handien faltan, beste hiri batera jotzen du —adibidez Bilbo— bere poesia unibertsal bihurtzera. Antza, beste hiri handi honetan ez dago beste Verlainerik zain[41].

Pioletek bere poeia zabaltzeko topatzen duen metodorik errazena ziutateko parkean beren buruak urkatzen dituzten suizida ugarien jantzietan poema tipiak eskegitzea da. Hala hurrengo eguneko egunkarietan milioka aldiz erreproduziturik lortzen du bere poemak azaltzea, suiziden azken nahia Pioleten poemak zirela pentsatzen baita.

(40) Arestiren ipuingintzaren ildoan doa Atxagaren estiloa narrazio honetan, diferentziak diferentzia.

(41) Pena da, Rimbaud ez bezala, Piolet gure poeta heterosexuela izatea. Balizkako beste Verlaine batekin izan zitzakeen erlazioek narrazioa askozaz ere interesgarriagoa egingo zuketeen. Are gehiago, Pioletek nahiko asexuala dirudi.

Dena den, homosexualitatearen eta modernitatearen arteko erlazioa ez du *Etiopia*-ren poetak aztertu eta egia esan, erlazio handia dago Rimbaud eta Verlaine lekuko, Ikus adibidez Butler, *Gender Trouble. Feminism and the Subersion of Identity*, New York, Routledge, 1991.

Teknika honen bidez Pioletek denbora laburrean lortzen du gehien argitaratua eta ezagutua izan den poeta bilakatzea. Alabaina, polizia, suizida guztien grina poetikoari susmo hartuta, Pioleten atzetik abiatzen da, poeta bat suiziden hiltzaile izango den idoro nahiz. Ondoriz, Pioletek kausitzen du bere burua bortxatuta munduaren azken konfinetara ihes egitera. Ihes egin aurretik, baina, gaztetandik entzundako profezia gogoratzen du, alegia, poesiaren gailurrak ezagututakoan munduaren azken mugetara joko zuela. Orduan konturatzen da poesiaren gailurrak jo dituela.

Narrazio honen poeta ororen ametsa ematen zaigu alegorikoki oso tonu ironikoan. Alegia, poeta ziutatearekin enkontru egitean bihurtzen da poeta unibertsal eta hain zuzen, unibertsaltasun hau erarik anti-poetikoenean lortzen du: bere poesia mediatara emanez, eta beraz erreprodukzio huts modura klitxetuz. Mediek bere poesia unibertsal bihurtzeak aitzitik poetaren amaia dakar. Pioletek munduaren konfinetara ihes egin behar du poeta izateari utziz.

Kontraesan honetan Atxagak modernitateak poetari dakarkion gatazka historikoaren klabea ematen digu era alegoriko ironikoan. Hain zuzen, ziutateko modernitatearen ondorio den egunkarien merkataltzean lor dezake bakarrik poetak bere unibertsaltasuna, baina, baita bere amaiera ere. Izan ere, poesiaren unibertsaltasun modernoak klitxetu egiten du poesia eta beraz suntsitzen.

Bestalde, Piolet bezala, merkatalgoaren legeetatik kanpora poesia popular bihurtu nahi duen poeta kriminal bihurtzen da. Izan ere, poesia eta merkatalgoaren gatazka da azken finean poesia modernoaren nihilismoa dakarrena, gero era mitiko batean esplikatu nahi izan dena isiltasunaren poetikaren bidez.

Merkatalgoaren eta poesiaren artean modernitateak hedatzen duen hilbizizko gatazka honetan, poeta errebeldeak beti ere isiltasunean amaitzen diren bi aukera ditu: bere lanaren merkatal zabalpenari uko egin eta anonimatoan amaitu (isiltasun ez-sozialean, Lautremont, Baudelaire, Nerval, Rimbaud...) ala merkataltzeari amore eman eta beraz modernitatearen jokaera ekonomikoari utzi poesia akaba dezan. Amore emateak poeta gizarte barnean idazle afizionatu sarituen bandoan ezartzen du (laugarren parteko narrazioko poeta) ala gizartetik kanpo, gaizkileen bandoan (Piolet). Bi aukerek poesia anulatzen dute *Etiopia*-ren arabera.

*Etiopia*-k berak bigarren aukera hartzen du, modernitatean eta

bere merkatalgoan errebeldeki barneratzekoa, bigarren partean Pioletek dagien bezala. Hirugarren partea, bederatzi zirkuluen ibilbide poetikoa, ziutatea den desertu-laberinto horretan barneratzea baino ez da, modernitatean poeta errebeldea barneratzea. Eta emaitza aurrez hirugarren partean emana bihurtzen da: poeta errebeldearen alperrikako borroka ziutatearekin. Hala laugarren eta azken parteak poesiaren likidazioa aldarrikatzen du. Ondorioz *Etiopia*-ren poetak. Bernardo Atxagak, poesia modernoaren likidazioaren erritualean utzitako leku bakarra hartzen du: poesia modernoaren likidazioaren erritualean utzitako leku bakarra hartzen du: poesia modernoaren heriotzazko ibilbidearen kontaketa distopikoa egitea.

### 2.3. Jainkoaren itzulera

Alabaina, atzekoz aurrera egiten ari garen irakurketa honetan *Etiopia*-ren azken partea, laugarrena, eta lehena lotu nahiko genituzke lanaren osotasunaren irakurketa bat azkenik erdiesteko.

Lehen esan bezala, azken partean galdera batez erantzuten dio *Etiopia*-ren poetak, Atxagak, hilzorian datzan poeta afizionatuaren galderari. Poeta afizionatuak galdetzen duenean "Zergaitk, baina zergatik... dira ene azken hitzak", *Etiopia*-ren poetak zera erantzuten dio: "Erantzuna ez da hain zaila. Zergaitia beste galdera honekin konpreni daiteke: nork soporta dezake poeta afizionatu bat egun bakar batez ere?". Azken galdera honen bidez, Atxagak poemaren instantzia orojakilearen lekua hartzen du, *Etiopia* galdera ironiko batez hertsiz. Alegia, poetak hasieratik modernitatearekin zuen errebeldiazko gatazka tragikomedia bihurtzen du *Etiopia*-ren amaieran. Bestela esateko, autorea da *Etiopia*-ri bere ahots propioaz azken esanahia ematen diona. Bere ahotsaren bidez, autorea *Etiopia*-ren azken instantzia erabakior eta guztiahaldun bihurtzen da. Edota mitikoki esateko, poemaren leku jainkotiarra bereganatzen du autoreak.

Alabaina, *Etiopia*-ren beste parte mitikoa, lehena, Atxagak Kainen alde lekutuz Jainkoaren krudeltasuna salatzen zuen —orojakile eta ahalguztidun zen jainkoaren boterearen krudeltasuna—. Hala lehen eta azken momentu mitiko hauek batera jarriz gero, garbi ikusten dugu Atxagak, Kain errebeldearekin bat eginez hasten bazuen *Etiopia* ere, testuko jainko orojakile bihurtuz amaitzen duela.

Irakurketa hau harantzago eraman daiteke autoreak Jainkoaren aurka lehen partean dagien argudioa irakurtzen badugu. Honela dio lehen parteko testuak:

> beste arrazoigai batzu ere nabaritzen zaizkigu testoen [Duvoisin-en Bibliaren itzulpena]: "eta Kain bortizki sumindu zen, eta erori zen haren begitartea. Eta Jaunak erran zioen: zertako samurtu zare? eta zertako erori da zure begitartea?... Jaunaren baitan galdera horik ez ziren jolasa baino. Kainek koprenitu zuen. Nabarmen azaldu zitzaion boterearen krudeltasun geldoa, zeina gatuarena zirudien eta matoi kutsu hori, mixerablekeria. Horregatik ez dira jasotzen bere erantzunak, ez zirelako behar, soberan zeudekeelako. *Guztia aldez aurretik dakianari ixiltasuna dagokio, ez itauna.* Baina Jaunak jarraitu egin zuen: "Baldin ondo egiten baduzu, ez ote zare sariztatua izanen?... eta gaizki egiten baduzu, zure bekatua ez ote da berehala zure aterako?... Argi dago: Aitak bere kondizioneak imintzen zizkion, parabisuaren prezioa obedientzian zetzala, gatibutasunean. (neure azpimarketa)

Alegia, lehen partean Jainkoari eragotzi dion jokaera bera hartzen du Atxagak berak azken partean: bere sorkuntza den gizakiari (poeta afizionatua) jainko orojakilearen galdera krudela (nork soporta lezake poeta afizionatu bat...?) inposatzen dio. Hemen ez da ironiarik. Atxagak poemaren jainko orojakile guztiahaldunaren lekua hartzen du amaieran. Atxaga-jainkoak aurrez baitaki erantzuna: poeta guztiek isildu egin behar dute azkenean.

Arrazoia, berriz ere, *Etiopia*-ren izaera orokorrean datza: poesia modernoaren ibilbidea kontatu nahi zaigu, ibilbide honetatik kanpo datzan leku jainkotiar orojakiletik. Hau da egiazki *Etiopia*-n Atxagak azkenean hartzen duen lekua. Aurrez erabili dugun terminoa erabiltzeko. Prometeo gisa modernitatearen ezintasuna aldarrikatzera etorri zitzaigun poeta bihurtzen da modernitate horren esanahiaren jainko bakar eta guztiahaldun. Prometeok jainko baitirau, ez da gizon bihurtzen.

Aldiz, leku jainkotiar hau hasieran azaldu dugun arrazoiak esplikatzen du: poesia modernoarekin euskal literatura konektatzeko ahalegin prometeiko eta jainkotiarra da *Etiopia*. Euskal poetak poesia modernoa zertan den erakutsi behar du, prometeo mezulari gisa, poesia modernoa euskal literaturan bere zentzu osoan barnera dadin. Baina azkenean, modernitatearen mezua prometeiko da jainkotian bihurtzen delako. Izan ere, modernitateak bere hartan mezu orokor, guztiahaldun eta kontraesanezina baitakar: nihilismo erabatekoa, isiltasuna. Jainko poetiko berriak beste edozein mezu ez-moderno paradisu nihilista honetatik kanpo jaurtikitzen baitu, behiala beste jainko

judu hark egin zuen bezalaxe. *Etiopia*-k jainkokiro azaltzen du poesia modernoaren jaiotza eta heriotza, bere historia[42].

Are gehiago, hasierako Bibliaren aipu mitikoarekin, autoreak poesia modernoaren gatazkari ere erro mitikoak eman nahi dizkio, mito horren kontaketa egiteko eta kontalari bezala bere burua zilegiztatzeko, modernitatearen jakitun eta jabe jainkotiar bere burua eraikitzeko. Hain zuzen, Atxagak horixe lortu baizuen: modernitatearen ahotsa bihurtzea Euskalerrian. Eta egia esan, premia ere bazegoen norbaitek jainkokiro modernitatearen mitoa euskal poesiara ekar zezan, izan ere mitoek oraindik arrazoiak baino indar handiagoa dute.

Zoriotxarrez azterketa soziologiko faltaz, kritikoak berak bere inpresioak faktu estatusera eraman behar dituela oso kontziente izanik, *Etiopia*-ren arrakasta merkatalariaren gunean mito hau jarriko genuke. Alegia, kritiko honen eritzi subjetiboz. *Etiopia* poema liburua zaila eta ulergaitza bazen ere —eta beraz arrakasta guti izatera deitua— "benetan berria eta oso modernoa" hotsaz saldu zen. Eta poesiak arrakasta merkatalariarekin zuen borroka ondo ezagutzen zuen Atxagak. Alegia, segur naiz liburu hau ez zela poeta afizionatu beldurtiaren inozokeriaz plazaratu. Atxagak ere suizidaren batzu topatuko zitukeen bere poemak ezagun bihur zitezen.

Hain zuzen, dinamika bikoitz hau da modernitatearena, eta bereziki bere adierazle estremoarena, abangoardia: alegia, gizadiak ezagutzen ez duen egia artistiko berria prometeikoki gizadiari ekartzea da abangoardiaren azken helburua. Artista da jainkoaren lekua hartzen duena eta gizadia —burgesia— ez dakiena. Transferentzia beti da prometeikoa eta norantza bakarrekoa artistarengandik burgesiarengana.

Modernitateak gainera transferentzia hori ironiaz egiten du. Alegia, artistak artearen azken zentzua beti ere ironiaren bidez eman eta ezkutatu egiten du era berean. Artista eta artelan moderno arrakasta-

(42) Maila honetan, Sarrionaindiaren *Izuen gordelekuen barna*-k, isiltasunaren kontzientzia beraz idatzia izan bada ere, beste irtenbide ez-jainkotiar bat hartzen du. *Etiopia*-ren eta *Izuen gordelekuan barna*-ren erkaketa benetan interesgarria litzateke. Badirudi, Sarrionaindiarentzat "etxerako itzulera" dela isiltasunetik aterabidea, hain zuzen Arestiren "nire aitaren etxea"-ren genealogian, dagoeneko etxea aldatu bada ere. Ikus *Izuen gordelekuen barna*-ren azken poemaren azken bi bertsoak: "Aintzinako solasen bat atzeman nahiz/itzuli naiz gaztaroko etxera. Erraturik,/ ez gaztarora. Tantoka pareterlojuaren hotsa.// Panpina elbarri bat gela bazterrean. Han/ armiarma bat zanpatzen dut atzamarretan,/ eta aterira abiatzen naiz, atea hersteko". Sarrionaindia, Joseba, *Izuen gordelekuen barna*, Bilbo, *Elkar*, 1981, 142. or.

tua zera baita: gizadia posizioa enorante eta jakinminean ezartzen duena eta posizio horretan eusten dioena, epatatuz, bere mezua garrantziaz eta iluntasunez igorriz ironiaren anbiguitatez.

Espektaziorik handiena sortu eta espektazio horri eusteko gai dena da artista moderno arrakastasua. Mezu garrantzitsu eta ilunez hornituta gizadiaren interesa eta espektazioa zuzpertzea lortzen ez duena artista marginal bihurtzen baita. Aldi berean, mezua igorri bezain pronto bere garrantzia eta iluntasuna galtzen duen artista, artista merkatari eta ez-jenial bihurtzen da.

Atxagak beraz modernitatearen dinamika prometeiko eta jainkotiar hau beste ezein euskal poetak ez bezala ulertu eta burutu zuen. Aurrez, Lizardi, Lauaxeta, Miranda eta Aresti bezalako poetek ere modernitatearen mezua ekarri nahi izan zuten baina ez ziren arrakastatsuak izan gizadiaren -euskal klase ertainaren- enorantzia arrausten eta beraz marginal izaten segi zuten Lizardi, Lauxeta, Mirande. Edota arrakastatsu suertatu ziren - Aresti- baina herrikoi bihurtu zirelako eta beraz arte beherean "erori zirelako" arte ez-modernoa.

### 3. Le temps retrouvé: transizio postfrankista

Irakurketa honetatik uler daiteke *Etiopia*ren, eta zentzu zabalago batean Potten, proiektua. *Etiopia* ordura arte inoiz egin ez zen literatura modernoaren eta euskal literaturaren errebisio eta balioztapen erabatekoa (jainkotiarra) eta sortzailea (poetikoa) izan zen. *Etiopia*-z gero euskal poesiaren horizontea moderno bihurtu da zentzu askotan.

*Etiopia*-k literatur modernoaren tradizioaren ezagutza sakona eskatzen dio harrez gero idatzi eta onartua izatea nahi duen euskal poetari. Gainera, isiltasunaren poetika dela medio, poesia modernoa idazteko ezintasuna aldarrikatu du *Etiopia*-k eta, beraz, ondoren idatzi nahi den edozein poesiak isiltasunaren poetikaz harantzago joan behar du, modernitatearen amaierari aukera alternatibo bat emanez. Azkenik, Atxagak poesia arrakastaz sal daitekeela frogatu du (dagoeneko bigarren argitalpen bat ezagutu du *Etiopia*-k).

Hitz batean, *Etiopia* euskal poesiaren "gailur modernoa" bihurtu dela esango genuke, zentzu historikoan eta ironikoan ere. Beste literatura hegemonikotan halako baieztapenak zentzurik izango ez balu ere, Euskalerriko literatur tradizioaren ahultasunak eta marginaltasunak honelako baieztapenak, edota blagak, egiteko parada ematen digu.

Maila honetan Pott taldearen literaturak erabateko diferentzia suposatzen du 60ko hamarkadan idatzi zen poesia euskaldunarekin. *Novisimo*-ek gaztelerazko literaturan 60ko hamarkadaren amaieran eta 70ekoaren hasieran suposatu zuten haustura bera da Atxagak euskal literaturan egin zuena. *Etiopia*-n *novisimo*-en ezaugarri beretsuak idoro ditzakegu: kezka metapoetikoa literaturaren autonomiaren aldarrikapen bezala, eklektizismoa, kultura modernoaren ahots erregistro desberdinen erabilera, eta abar. Kronologikoki *novisimo*-ak lehenago gertatzen direla jakinaren gainean, haiei Atxagak dien zorra nabarmena dirudi, oraindik azterketa zehatz bat egiteke badago ere[43].

Alabaina, *novisimo*-ek ez bezala, Pottek egoera edo testuinguru desberdin batean egin behar izan zuen aldaketa. Alegia, oraindik ere ondo taiuturik ez zegoen literatur tradizio baten faltaren ondoan idatzi zen *Etiopia*. Eta beraz, gaztelaniazko kasuan aurreko literatur tradizioaren joera politikoetatik askatze bat izan zena, beti ere historikoki ordurako eratuta zegoen gaztelaniazko literatur tradizioaren barruan, Potten kasuan haustura errotikakoagoa suertatu zen. Izan ere eta aurrean definitu dugunaren arabera, ez zen gaztelaniazko tradizioaren pareko literatur tradizio instituzionalizaturik euskal literaturan.

*Etiopia* da, Arestiren *Maldan behera* prezedente bezala hartu behar bada ere tradizio poetiko bat osatu eta defendatu behar izan zuen lehen euskal idazlana, horretako literatura beste eginbehar linguistiko eta abertzaletatik askatu eta ihardun berezitu bezala aldarrikatu zuelarik. Hala, Axular, Lizardi, Lauaxeta, Aresti, Miranda eta azkenik Etxahun Etiopiarako ibilbidean bidaide hartzean, lehenaldiko euskal tradizioaren zentzu bat sortu nahi izan zuen *Etiopia*-k.

Tradizio sortze ihardun honen beste zeinua euskal kulturaren orduko jite herrikoia da. *Novisimo*-ek ez bezala. Pott taldeak topatu zuen 60ko eta 70eko hamarkadan herri literaturan batez ere oinarritzen zen euskal literatura abertzale bat, hala nola hein desberdinetan Lete, Lekuona, Gandiaga, Artze eta Aresti bera. Aurreko belaunaldiaren herrikoitasun errurala proiektu abertzale euskaldunaren barnean ulertu behar da, herri literaturan oinarriturik sortuko zen kultura goi mailako

(43) Ikus Barella, Julia, (arg.), *Después de la modernidad. Poesía española en sus lenguas literarias*, Bartzelona, Anthropos, 1987, García Martín, José Luis, (arg.), *Las voces y los ecos*, Madril, Júcar, 1980 eta *La generación de los ochenta*, Valentzia, Mestral Libros, 1988; Villena, Luis Antonio, *Postnovsimos, Madril, Visor, 1986.*

bat sortzeko prozesuan[44]. *Etiopia*-n, Potten ekoizpen nagusi den aldetik, ez da aurreko belaunaldi honen aipu zuzenik, ezta Arestirenik ere, kritika inplizito moduan ez bada behintzat[45]. Bertsolaritza literatur gisa erabiltzearen aurka Pottek egindako diatribak ezagunak dira, adibidez. Azken finean, Pottek abertzaletasunaren kultur proiektua arbuiatzen zuen eta literatura bestelako aginpiderik gabe defendatzen.

Aurreko belaunaldiak defendatu zuen Euskalerriko herri kultur tradizionalaren birbalioztaketaren aurka, *Etiopia*-n bi joera ikusten ditugu. Alde batetik, *Etiopia*-k euskal tradizio modernista birbalioztatu zuen, hala nola Lizardi eta Lauaxeta -haiek literatura utzitako lekuan berrartu zuen Atxagak. Bestetik, *Etiopia*-k kultur masa amerikarra bereganatu zuen, *novisimo*-ek egin bezala. *Etiopia*- n boxeolariak, prostitutak, zinea, homosexualak, rock kantak eta bestelako masa kultura osatzen duten ahotsen bateraketa eklektiko zabala dago[46]. Masa kulturazko erreferentzia hauek aurreko belaunaldiaren herrikoitasunaren ordain gisa azaltzen dira *Etiopia*-n[47], proiektu abertzalearen agindupetik askatu asmoz[48]. Azkenik, aurreko belaunaldiak kantaldi politikoak erabili bazituen, herriko korronte abertzaleekin batzeko bide nagusi bezala, Pottek literaturari berezko zaizkion bideak erabili zituen bere lana zabaltzeko (aldizkariak, liburu argitalpena, literaturazko hitzaldiak, kritika unibertsitaria, literatur sariketak...).

(44) Maila honetan Ustela eta Saizarbitoria Potten belaunaldi berean barneratu behar ditugu.

(45) Jon Juaristik iradoki duenez, *Etiopia* desertua-harea- ren sinboloetan oinarritzen da eta beraz Arestik finkatu zuen *herria-harria*-ren sinbologiaren kritika bezala irakur daiteke. Ikus ideia honen eztabaida luzeago batentzat, Kortazar, Jon, Op. cit., 71. or.

(46) Aldekoak ere antzeko eritzia jasotzen du: "eta, ez dira, ez falta, Bogarten ahotan entzundako zine munduaren topikoak, edo marketing modernoarenak ("Made in Germany"), komikiaren mundua eta Pop musikarena. Egia esan, ez legoke inkoherentzia itxura eman lezakeen poesia hau zenbait "novisimo"ren mundutik urrun". *Antzarra eta ispilua*, 67. or.

(47) Erkatu baino ez dago Gandiaga baten *Uda bat Madrilen eta Etiopia*. Madril ez da zehazki modernitatearen pausaleku metropolitarra izan sekula.

(48) Susmoa dut halaere *novisimo*-en kasuan ere halako zerbait gertatu zela. Azkenean, herrikoitasunari kontrajartzen zaion modernitate honen beste arrazoi bat frankismoa izan baitzen. Alegia, frankismoak eragindako hertsiera politiko eta kulturalak mugimendu (poetiko) hauetan izan zuen bere lehen kontrajarpena.

Guzti hau egiaztatzeko beste froga 80-ko hamarkadaren amaian populismo frankistak izan duen itzulera berria aipatu behar. Maila honetan, Almodovar zinegilea dugu sinbolo enblematikoa.

Bestela esateko, *Etiopia*k modernitatea bere zentzu betean ekarri zuen. Prousten esaldi hura erabiliz zera esango genuke, poema liburu honek sekula izan ez genuen denbora desiratu hura topatu zigula: modernitatea. Ordura arte, gure desiratan bakarrik bizi izan zen denbora hura *Etiopia*-n topatu genuen berriro euskaraz idatzirik. Ezin momentu modernoagorik euskal literaturan.

Baina denbora birtopatu honek ere zentzu historikogoa du. Hots Potten iharduna frankismoaren amaierako garaian hasi zen. Eta beraz, frankismoak eragindako isolamendu guztietatik ateratzeko joera askatzaileen barnean ulertu behar dugu *Etiopia*. Pornografiarekin hasi eta demokraziarekin amaitu, gauza gehiegi falta ziren estatu espainiarrean eta are gehiago euskal literaturan, euskarak jasandako errepresioa zela medio.

Hala, frankismoak berak eta bere mugaketa guztiek, sekula ez bezala, kanpotik zetorren kultura forma askorentzako egarri berezia sortu zuen. Eta poesiaren barnean, agian egarririk handiena poesia modernoarekikoa izan zen. Zenbait hizkuntza ez zekizkien irakurlearentzat autore asko eta mugimendu asko bere mugapenetatik harantzago zeuden. Baudelaire adibidez Gabriel Celayak argitaratu zuen urte batzu lehenago.

Beraz frankismoan zehar onarpenik izan ez zuen poesia modernoak (Arestiren *Maldan behera*) edota suizidioa irtenbide bakartzat topatu zuenak (Mirande) Potten eta Atxagaren garaian bere irakurlegorik amorratu eta fidelena topatu zuen: frankismoaren mugak gaindituta, gauzarik berrienak dastatzeko prest zegoen irakurlego adia. Izan ere, eta berriro ere hitzaldi hau idazten ari denaren eritzi subjektiboan oinarritzerik ez badago ere, *Etiopia*-ren irakurketa konpetenterik egin zezakeen irakurle urri zegoela Euskalerrian defendatuko genuke: ia batere ez. Beraz, *Etiopia*-ren arrakasta hein batean kanpotik zetorren modernitate poetikoaren ulergaiztasun erakargarri horretan etzan zen. Kanpoko modernitate berri haren lilura ulertezina izan zen *Etiopia*-ren erakargarririk garrantzitsuenetakoa[49].

## 4. Etiopia ete gero: utopiak oraindik

Beraz amaitzeko *Etiopia*-k Pott taldearen proiektua gauzatzen duela esango genuke lehen aipatu dugun zentzu hirukoitz horretan.

Alde batetik Pottek eta *Etiopia*-k literaturaren eremu buruaski bat

(49) Saizarbitoriaren eleberri "ulertezin"-en arrakasta eta porrota ere honetan datza.

aldarrikatu zuen euskal letrek (ez literaturak) ihardun hizkuntzalari eta abertzaleekin ordura arte zituzten lotura hertsiak disolbatuz. Bestetik, literatur tradizio modernoaren berrirakurketa bat egin zuen, berrirakurketa honen bidez tradizio honen izate nihilista, isiltasunera daramana, azalduz eta Euskal literatura postfrankista ekarriz. Azkenik, literatura bere kasako merkatu bihurtzen lagundu zuen. Edota bestela esanda, euskal literaturaren instituzioa eta bere kanona sortzen lagundu zuen, erizpide modernoen arabera.

Goian aipatu dugun bezala, mendebaldeko literatur tradizio hegemonikoetan hiru pauso hauek literatura modernoaren sorrera eta amaiera suposatzen dute eta, tartean, mende t'erdia luzatzen da —erromantizismoaren amaieratik XX. mendeko lehen abangoardia historikoetara—. *Etiopia*-ren irakurketa honen alde ironiko edo ezkorra zera litzateke: euskal literatura modernoa bere zentzu betean liburu bakar batean gauzatzen dela, *Etiopia*-n hain zuzen, eta, beraz, aurreko literatura guztia ez dela modernoa bere zentzu betean. *Etiopia*-n aldarrikatzen da lehen aldiz literaturaren buruaskitasuna eta tradizio honen azken ondorio den isiltasunezko nihilismoa. Baina era berean *Etiopia*-k tradizio modernoaren aukera hertsi egiten du, bere ezinezkotasuna aldarrikatzean. Ezin gehiago eskatu idazlan bakar bati. Irakurketa honen alde baikorra eta historikoa berriz zera litzateke: Potten belaunaldiaz gero, euskal literaturak bere marginalizazio eta morroitza desberdinetatik bere burua askatzen duela, mendebaldeko literatura hegemonikoen tradizio modernoan barneratzeko.

Modernitatearen subjektu egitura osatzen duen Edipo-ren mitora joz zera esango genuke, euskal literaturak baduela dagoneko bere aita ediparra, bere garaian Mitxelena euskal filologian eta hizkuntzalaritzan suertatu zen bezala. Euskal literatura kanonizazioaren barnean sartu da. Dudarik ez, kanonizazio hau onuragarria da beti ere oinaztar eta ganboatarrez osatutako euskal literaturaren familia gatazkati honetan. Adibide bat: poeta gazte askok onartu duen bezala *Etiopia* "gainditzen" benetan "zail" suertatzen den testua bilakatu da. *Etiopia*-ren ondoan ez da adoleszentziazko poemarik edo arrazoi bakartzat proiektu abertzaleari joz salbatuko den poesia merkerik idazterik, oraindik idazten bada ere.

Alabaina, kanonizazio hau erabat kuestionatu beharra dago, botere zapaltzailezko forma moderno bat izatera deitua baita. Adibide bat: *Etiopia*, tradizio modernoaren ezagutzaile den edozein euskal literatur irakasleren testu faborito bihurtuko da, dudarik ez. Alegia, unibertsitateko literatur jakintzak behar duen eremu aberatsa *Etiopia*-n

aurki dezake bere exegesia aplikatzeko. Beste hitz batzutan esanda, maisua dakienaren lekuan zilegiztatuko duen testu paregabea da *Etiopia*, tradizio modernoaren jakitun eta jabe den irakasleak bakarrik interpreta dezakeen testu zail kanonikoa bihurtzera deitua baita[50].

Beraz gure ondorioa zera da: aita ediparra beti ere edan egin behar dela jende heldu osasintsuak bihur gaitezen. *Etiopia*-z beraz baliatuz zera esango genuke, laugarren parteko amorantearekin elkar hartu behar dugula poeta moderno inozoa asasinatzeko. Eta are, Kain errebeldearekin elkar hartu behar dugu Atxaga insituzional kanonikoaren (ez idazle bera jakina) aurka errebelatzeko.

Hasieran ireki dugun gogoetara itzuliz, beraz, zera esango genuke: Pott eta *Etiopia*-rekin literatur modernoa Euskalerrian ezartzeko egin den entsegurik serioena sortu dela. Atxagaren harrezkeroko bilakaerak entsegu haren baizkortasuna azaldu du: euskal poeta bat Espainia mailan saritua izan da, euskal literatura bere kasako instituzio bezala garatzen hasi da, kritika unibertsitaria loratzen hasi da, eta zentzu orokor batean euskal literatur merkatu bat zabaltzen hasi da zeinetan Atxaga dugun lehen idazle profesionala.

Euskal idazleen hurrengo belaunaldiak ez du modernitatearen eta literatura buruaski baten auzietan burrukatu beharrik izango. Ez dago euskal literatura salbatuko duen lan maisua idatzi beharrik jada. Hauxe izan da Atxagaren belaunaldiaren ekarrera eta jarauntsia. Aitzitik belaunaldi berriak, jarauntsi hau —literatur tradizio modernoa— ulertzetik abiatu behar du eta bere aukera propioak egin: euskal literaturaren kultur instituzioa eta beronen kanona indartu ala errefusatu, merkatu dinamikan sartu ala beste bide batzu esploratu, profesionaltasunaren aukera egin ala errefusatu, argitaletxe eta mediekiko jokoan sartu ala at geratu, unibertsitateko kritika ofizialari jarraitu ala erantzun eta abar. Jakina, hemen azaldu baina arazo zehatz eta ugariagoak ditu euskal literatura garaikideak. Alabaina, arazo hauek hitzaldi honetan zabaldu ditugun ildo nagusien inguruan lerratzen dira.

(50) Edizio kritiko bat laister azalduko dela apostu egingo nuke.

Bestela esanda, *Etiopia*-ren botere prometeikoak irakaslearengana iragaten dira, klase mailako irakurketa bat egitean transferentzia prometeikoa.

# Pastoralen jatorriari eta noizkotasunari buruzko ikerketak

B. OYHARÇABAL
(CNRS)

Zuberoko pastoralak noizkoak diren eta nondik heldu diren aspaldiko gaia dugu, 19. mendearen erditsuan hasi baitziren ikerketariak puntu horri buruz hipotesien aurkezten. Chahoren (1836, 1856) ondotik, iparraldean ibilirikako folklore ikertzaile gehienak, mintzatu dira arazo horretaz: Michel (1857), Vinson (1883), Webster (1901), Léon (1909), Decrept (1912), Saroïhandy (1928), eta, bistan dena, Hérelle (1923, 1926) ere. Honen ondotik isilgune luzea izan zen, Lafittek pastoralen historiari zerbait berri ekar ziezaiokeen dokumentu bat argitara eman arte (Oihenarten *Art poétique basque* delakoa, 1967an). Hartaz geroztik, aski berriki, berriz loratu dira zuberotar teatro herrikoiari buruzko estudioak, pastoralek berek ere jendartean arrakasta berri bat bazutelarik. Pastoral tragikoen eremutik atera gabe, haietaz soilik ariko baikara hemen, aurten laugarren doktore-tesia izanen dugu dotzena bat urteren barne pastoralei eskainia (Oyharçabal 1982, Garamendi 1990, Aguergaray 1992, Mozos: aurten aurkeztekoa).

Nahiz lan horietan Hérellek eta haren aitzineko gehienek pastoralen jatorriaz egin azterketak ez diren deusetan gutietsirik gelditu, balitzateke giro berri horrek pentsarazi duen gauzak berrituz zihoazela eta aitzineko erranak berriz ikusiak izan behar zirela. Orain ageriko den bezala, ordean, noizkotasunari buruzko eztabaidak segitzen badu, gaineratiko puntuei dagokienaz lehenagoko azterketak berretsiak izan dira azken urte hauetako ikerketa lanetan.

### Pastoralak tokian-tokikoak ote diren

Komeni da jatorriari buruzko eztabaida ikus dezagun lehenik, zeren maiz noizkotasunaz ematen dena ere hartarik abiatzen baita.

Eman gaitezen pastoralez eginikako ikerketen berri guti izan ez duen baten lekuan. Han eta hemen entzun edo irakurri ahal izan duenaz jabeturik, eta pastoral bat bere begiez ikusirik ere, ez du dudarik egiten ohiz kanpokoa, eta ikusten usatua dena ez bezalakoa dela teatro hori, itxura arkaiko nabarmen batekin zenbait alderditarik. Galde bat jinen zaio halakoari laster burura: pastoral horiek hain bitxiak eta itxura zaharrekoak izanki, ez ote dira tokian berean sortuak, eta teatro horrek, ondotik bestetarik hartu zenbait gauza egokitu baditu ere, gaien aldetik bereziki, ez ote ditu atxiki, jokamoduan bereziki, bere-bereak dituen hastapeneko ezaugarri batzuk?

Egiaren errateko, arras guti dira hipotesi horren alde arrazoinkatuz mintzatu direnak. Izen bat baizik ez dezaket eman hemen, ez baitut besterik aurkitu: Casenave (1983). Autore bakarra da, nik dakidanaz, orain artino pastoralak tokian-tokiko teatro mota bati dagozkiolako ideia defendatuz, bere argumentuak emanik, eta gisa horretan kritikari ere bidea irekirik, idatzi izan duena.

Casenaveren arrazoinak entzun ditzagun, beraz. Bi motatakoak dira: faktuzkoak eta ideologiazkoak.

Faktuei buruzko argumentua lehen urrats batean ematen du Casenavek. Pastoralak frantses misterioetarik ez datozela frogatzeko (laster ikusiko dugun bezala, ikerketari gehienek hala baitiote), gutien-gutienetik 11. mendean jadanik bazirela erakutsi nahi du lehenik. Horretarako Santa Graziko elizako kaperan den harroinburu batean, pastoral baten jokuaren irudi bat agertzen dela baieztatzen du. Hona nola ematen digun harri horren deskripzioa *Antzerti* aldizkarian:

> Sarrerari buruz ezkerretik dagoen kaperan bi harroinburu badaude, jaien erakusgarri. Ezkerrekoa, ospetsuena, "txülüla", txirula jotzailea, korda ttunttuna, kordagaita soinulariak, kantariak, turken antzeko "urdinak", "gaiztoak" eta erditan "süjeta" pertsonaia nagusia ederki jantzia, ezkerreko eskua gerrian, besteaz buru aldegainetik keinu handia eginaz, hots oraingo trajerien gisako bat (1983:10).

Ez da dudarik, Casenaveren errana egia balitz, erran nahi baitu, frogatua balitz garai hartan, erran nahi baitu 11. mendean, pastoralak bazirela jadanik, beren türk eta khirixtiekin (beste deitura batez izendatuak, araiz, lehenbizikoak bederen), eta antzezmoduaren aldetik dituzten ezaugarri handienak ordukotz bazituztela, orain artinoko azterketa eta hipotesi gehienak, Hérellerenak bereziki, berriz ikusteko liratekeela. Alderdi horretarik zuzena da, ene gustuko, Casenaveren arrazoinamendua.

Errana frogatua balitz, erran dut. Gehiegixko dateke froga garbirik eskatzea. Haatik, duda izateko, zerbait seinale klar bederen behar genuke. Agerian ematen duia, beraz, Casenavek horrelako seinalerik? Begi eta irudi irakurketa kontua da dena, baina iruditzen zait eni, poeta baten begiak izan gabe, nekez ezagutuko dituela behatzaile hotz, irudimen urrikoak, Santa Graziko elizan harrian zizelkatuak diren pertsonaia horietan pastoral bateko süjeta eta haren kontrakoak, mila gauza ikus baitaitezke berdin haien gibelean. Oteizari gustatuko litzaioke beharbada Casenaveren irakurketa, baina, ikertzailearentzat arras indar gutikoa agertzen da, ene aburuz, haren baieztapena. Seinala dezadan, ene jakinean, beste ikertzaileen artean inork ez duela geroztik irakurketa hori bere gain hartu; gehienez ere, Casenaveren errana errepikatua izan da.

Lehenbiziko puntuaren ondotik, bigarren urrats batean, honela dio Casenavek, pastoralek antzinateko teatro klasikoarekin zer-ikusirik izan zezaketelako hipotesia baztertuz, gero erranen dugun bezala Chahoren eta beste zenbaiten ideia baitzen hori:

> Zergatik bila kanpoan gure antzertiaren jatorri nagusia, oinarri zaharrak? Hor ere herri handien inperialkeria jasan behar ote dugu, eta Molière-ren itzulpen huts batzu ahozabalik miretsi frantsesez baitirade eta euskaldunei irudimena ukatu?

Casenavek, hitz batean, printzipioz ez du onartzen pastoralen jatorria kanpoan xerkatzea. Alabaina, kultura inperialkeriak sortu aurriritzi baten ondorioa ikusten du jokabide horretan, iduri-eta euskaldunak holako teatrorik edo kultura lanik sortzeko on ez liratekeela.

Banago ni, aurriritzi ideologiazkoak salatu ustez, are ideologiazko zentsura gogorragoa ez ote den egiten horrela. Historian zehar inguruko kulturekin harreman etengabean egon diren gurea bezalako populuen kasuan, zein da teatroa bezalako kulturazko egintza baten sorreraren esplikatzeko hipotesi markatugabea? Kanpotik zerbait gisaz guregana jin izan dela, naski. Bestelakorik gertatzea zinez ustegabekoa eta harrigarri baino harrigarriago litzateke, ez euskaldunek besteek baino irudimen hurriago dutelakotz, baina egoera berean izanik, edozein populurentzat hala gerta litekeelakotz.

Zer ere baiteritzagu, bestalde, Casenaveren ikusmolde horri, eztabaidagarria da, oso, aditzera ematea pastoralen jatorria beste nonbait emanez deusetan laidostatzen edo gutiesten dela euskaldunen eta zuberotarren kultura. Herri bateko kulturaren indarra eta bizitasuna —areago herri tikia denean— hartzen, beretzen eta bere gisaratzen jakitean datza oroz gainetik, eta, behar balitz, euskal kulturan berean aurki genitzake hain zuzen ilustrabiderik garbienak.

Bego, beraz, puntu hau horretan. Gaurko gure jakintzaren arabera, ikertzaileentzat, pastoralak Zuberoan berean sortu antzerki joku bereziak direla pentsatzeak arras oinarri eskasa du.

**Pastoralek antzinateko klasikoan ote duten etorkia?**

Pastoralak, gisa bereko beste kultura ekoizpenak bezala kanpotik etorri zaizkigula onarturik ere, ikerketarien artean bi hipotesi mota eginak izan dira teatro horren jatorriaren finkatzeko: batzuek antzinateko teatro klasikoa aipatu dute, besteek erdi-aroko misterioak.

Derragun, hemen ere, ikerkuntza mailan gauzak aski garbi direla. Arras ikerketari guti mintzatu da garbiki antzinateko hipotesiaren alde, eta bihi bat ere pastoralak funski ikertu dituztenen artean. Bi autore bakarrik aipa daitezke bide horretarik abiatu direnak: Chaho (1836), eta Lekuona (1935); bestalde Webster-ek ere (1899) antzinateko teatroak zeiharkako eragina izan zuela pentsatuz, beste modu batean onartzen zuen hipotesi hori. Gaur egun guziz baztertua den ikusmoldea denarren, ikus dezagun horrela mintzatu diren autoreen argumentuak zein izan diren.

Chaho (1836) lehena izan da euskal estudioetan zuberotar pastoralen interesa, eta berezitasuna, azpimarratu izan duena. Ez da dudarik, bestalde, ongi ezagutzen zituela bizi izan zen garaiko pastoralak, bai eta errejent batzuk ere hain segur, hala nola Saffores atharraztarra, joan den mendean oso famatua izan zena, eta bere liburuetarik batean (1856, 2) aurkezten ere diguna.

Pastoralen iturburua teatro klasikoan finkatzeko, Chahok ematen duen argumentua —argumentu bakarra—[1] aitzin peredikuak kantatuak izatean datza:

> L'auteur de l'Itinéraire [Chaho bera] n'a pas cru pouvoir la faire remonter plus haut que le dixième siècle; mais il est certain que l'art

(1) Pastoral hitzaren etimologia ere aipatzen du liburu horretan. Nahiz ez duen bere hipotesiaren aldeko argumentu gisa aurkezten, holako ondorio bat darraio haren proposamenari, pastoral hitzaren mailegua Erromatarren denborakoa baita Chahoren arabera. Hona zer dioen horretaz, pastoral hitza artzain teatro gisa interpretaturik: "la pastorale, phastorala, mot que les Souletins ont francisé par navarrisme, ne peut se traduire en français que par le mot tragédie: il vient de l'adjectif latin pastoralis, pastoral ou de berger, de pâtre. Ce titre de la tragédie souletine, naïvement adopté par les montagnards, semble avoir été fourni par les Romains: il ne signifie pas que la pièce que l'on jouera, aura pour sujet les scènes de la vie champêtre, mais, simplement, que les acteurs chargés de représenter la pièce de théâtre seront tous des paysans et des bergers de village" (1836, 2:126).

> dramatique, dans la jolie province de Soule, date de beaucoup plus loin. Pour s'en convaincre, il n'y a qu'à faire attention au prologue des pièces souletines. Composé en quatrains de six, sept ou huit syllabes, dont quatre au moins sont rendues brèves par le récitateur, dans une langue qui n'a aucune espèce de prosodie ni de règles de quantité, il est déclamé sur le ton et dans le même goût que la mélopée grecque. Ce prologue fait supposer que la représentation des pièces grecques et latines à Rome, donna aux Vasco-Souletins la première idée de leur tragédie, nous ne dirons pas bourgeoise mais paysanne (Chaho 1836:126-7).

Chahoren ideia sinplea da, beraz: zuberotarrak soldado gisa-edo Erroman gertaturik, han ikusi bide zituzten tragedia klasikoak, eta ondotik herrira itzultzean, eredu dramatiko hori ezagutarazi zieten beren herritarrei.

Hérellek (1926:92) dioen bezala, bi aldetarik ahul da arrazoinbide hori: alde batetik ez daiteke pastoraletan bezalako aitzin pheredikürik aurki teatro klasikoan, eta beraz oso oinarri hertsia du hurbilketa horrek; bestalde, denboraz hain urrun joan gabe ere, erdi aroko teatroari dagokion errepertorioan, pastoraletako aitzin pheredikiei anitzez hurbilago diren ereduak kausi daitezke. Erran gabe doa, azken argumentu hau Chahok nekez kontuan har zezakeela bere garaian, erdi-aroko teatroaren berri guti baitzukeen; (nahiz ideia bederen gogora jin zitzaion, Frantziako misterioak aipatu baitzituen Chahok, bai eta zuberotar pastoralekin kontrastatu ere).

Lekuona gai horretaz mintzatu zenean (1935), aitzitik, Hérellek bere ikerketak argitara emanak zituen jadanik, eta Lekuonak —nola ez— ezagutzen zituen. Erdi aroko misterioekilako erlazioak ukatu gabe, Lekuonak, Chahok bezala, pastoraletako antzezmoduko zenbait gauzak jatorria urrunago zutela pentsatzen zuen:

> Desde luego, historicamente, es cosa sabida que el genero "Pastoral Suletina" entronca con el genero "Misterios" de la Edad Media europea. Pero es que nosotros hallamos en el modo de su representacion en escena, unos detalles cuyo punto de arranque es mucho mas antiguo. Para nosostros la Pastoral tiene detalles que, para hallarlos en otra parte, que sepamos, hay que remontarse al Teatro clasico de los Griegos y Romanos.

Lekuonak, beraz, bai Chahoren eta bai Hérelleren hipotesiak ontzat ematen zituen. Zein dira, bada, hark gogoan zituen xehetasun horiek, pastoralak antzinateko teatroarekin zer-ikusirik zeukatela

pentsarazten ziotenak? Hona: pastoraletan bertseten kantatzerakoan jokalariek egiten dituzten behatzaileen aitzineko ibilaldiak.

Pastoralik ikusi duenak badaki jokalariek zerbait erraten dutenean, aitzinatzen direla bertsetaren lehen bertsuaren denboran, tokiaren gainean itzultzen bigarrenaren ematerakoan, berriz gibelera joaten hirugarrenaren kantatzerakoan, eta azkena, gelditu aitzin, beste itzuli bat eginez kantatzen dutela. Mugimendu berezi horrek Lekuonaren begietan teatro klasikoaren oihartzuna dakar:

> Sabemos que en el teatro Clásico había, además del canto, una danza elemental, consistente en una marcha y una contramarcha de los personajes cuando decían o cantaban su papel; marcha y contramarcha cuya huella ha quedado estereotipada en los nombres de strophe y antistrophe de la orchéstrica griega. Exactamente igual a como en la representación de una Pastoral, el personaje que "dice" (canta) su papel, dice la primera mitad avanzando hacia el proscenio, y la segunda mitad, retrocediendo, sin volver la espalda al público. Es la más espresiva ejecución y puesta en práctica de lo que indican los nombres de strophe y antistrophe, términos cuya misteriosa significación se hace tan fácil de comprender en las Pastorales Suletinas. (Lekuona 1935 [3. arg.:111-112]).

Estrofea-antistrofearen bikotearen ulertzeko pastoraletako mugimenduek argi piska bat nolabait ekar dezaketela onartuz ere, nekez besterik gabe ontzat eman daiteke jokatokiaren gaineko ibilaldi horiek teatro klasikoaren zenbait punturen iraupena ilustratzen dutela. Gauza bat baita bi antzezmoduren artean antzik edo paralelismo zerbaiten aurkitzea, eta beste bat —franko desberdina— paralelismo horrek ondoretasunezko erlazioak adierazten dituela erakustea. Adibidez, Vinsonek ere agerian eman zuen nolabaiteko antzekotasuna zenbait pundutan zuberotar pastoralen eta aitzinateko teatro grekoaren artean, bestelako eta funts gutiko ondoriorik atera gabe, haatik:

> Il y a aussi lieu de conjecturer que, dans les drames grecs, tous les gestes étaient réglés d'après les lois traditionnelles, que tous furent combinés de telle sorte qu'ils exprimaient les anciens rapports entre la musique et le rhythme, aussi bien du geste et du mouvement, de la marche et de la danse, que de la poésie. (...) Ainsi les pieds ou mètres, dans la poésie, n'étaient que le nombre de pas qu'on faisait en marchant ou en dansant à travers la scène; à la fin d'un couplet ou d'unvers, on tournait (version ou strophe) et on revenait à la même place (antistrophe). Dans les pastorales basques, la cadence de la musique coïncide avec celle des vers

> que l'acteur récite au même instant. Le rôle des Satans est tout à fait analogue à celui du chœur dans les drames grecs; seulement, nous ne pouvons nous expliquer pourquoi ce rôle est tout à fait interverti (Vinson 1883:311).[2]

Nola nahi ere, erran behar da pastoraletako antzeztokiaren gaineko joan-etorri horiek ez dutela Lekuonak erakustera ematen duen bezalako antz handirik, antzinateko teatroaren koru-mugimenduekin, eta nekez ondorezko segidarik eman daiteke grekoen teatrotik Zuberoko pastoraletara horrelako argumentuak erabilirik. Antzinateko teatroan, mugimendu horiek ez ziren aktore mugimenduak baina koru mugimenduak, itzulika, eskuinetik ezkerretara (estrofea) lehenik, eta ezkerretik eskuinetara (antistrofea) gero, ematen zirenak, hirugarren parte bat (epodea) tokian berean bazelarik ondotik. Ordean, pastoraletan baliatua den egitura aski desberdina da, laukoitza baita hausturen eta mugimenduen aldetik, edo hobeki errateko bikoiztasun doblekoa: /, //, /, ///. Egituratze horrek antz handia du elizetako salmo zenbaiten egiturarekin, haietan ere, silaben kopurua pastoraletan bezala libroa izanik, musikan markaturikako etendurak kausitzen baitziren; tikienak ziren lehen eta hirugarren hausturei *medianteak* zeritzen, bigarrenari *flexioa*, eta azkenari, berriz, *bukaera*). Ageriko gauza da, gisa horretako etendurak direla pastoraletako bertsetetan kausitzen ditugunak.

### Zuberotar pastoralen jatortasuna eta noizkotasuna

Ikertzaile gehienek onartu duten hipotesiaren arabera (F. Michel, J. Vinson, G. Hérelle, P. Lafitte, M. A. Garamendi) pastoralak ez dira Zuberoan hutsetik sortuak, halaber ez dira antzinateko teatroaren ondarkinak ere, baina erdi-aroko misterioen urruneko jarraipenak dira.

Luzeegi litzateke hemen horretarako eman daitezkeen argumentuen zerrendakatzea. Hérellek arras molde zehatz eta argian bildu zituen ondoretasun hori erakusten zuten punduak: besteak beste, gaien antzekotasuna (erlisionezkoetan oroz gainetik);[3] ikusgarriaren egitura

(2) Hérellek badu, ideia horretan idatzi artikulu polit bat *Pastorales basques et tragédies grecques* (*Gure Herria* 1924). Hartan pastoralak teatro grekoarekin konparatzen ditu, bi teatroek dituzten alde komunak agerian emanez (antzezteko teknika, jokalarien etorkia, antzeztokiaren antolamendua, pertsonaien idealizazioa). Hargatik, Hérellek diferentziak ere agerian ematen ditu, eta ez du inolako ondoretasunezko loturarik onartzen bien artean.

(3) Frantses eta euskal errepertorioak erkatuz honako ondorioak eman zituen Hérellek (1926:106): erlisionezko gaietan zuberotar pastoralek 34 gai zituzten frantses misterioetan ere kausi zitezkeenak, eta 19, berriz, frantses errepertorioan agertzen ez zirenak. Gai profanoentzat, ordean, kontrako emaitzak eman zituen: 4 eta 25.

orokorra, hala nola, bereziki, pastoral aitzinetikako munstra, eta aitzin eta azken pheredikiak; eta errepresentatzeko moduari dagozkion anitz ezaugarri (jokatokiaren ateen arabera egituratzea, denborazko batasunik eza, pertsonaien arketipoak, etab...).

Dena den, jatorri hori onartuz ere, ez da dudarik bere-bereak dituztela zuberotarrek pastoralak. Areago, berriki arte pastoral gaiak beti zenbait liburutarik ateratzen bazituzten ere, aspaldi du zuzenean sortu izan dituztela beren tragediak. Ezen joan den mendeko pastoral idazle edo moldatzaile zenbaitek pastoralak 'itzultzen' zituztela erran badute ere,[4] ez dut uste haien errana hertsikiegi hartu behar den. Egiazko itzulpenik egin gabe, badirudi pastoral ontzaileek erdarazko liburuetan aurkitu ixtorioak edo biziak pastoral moduan emanik libroki euskararatzen zituztela. Datuetan geldituz, nik dakidalarik, zuberotar pastoralik ez da oraino ezagutzen testua zuzenean erdarazko pastoralen moduko lan batetik itzulia duenik. Halaber, tradizioko zaharreko pastoralen artean ez da pastoral testu bakar bat ere ezagutzen, erdal literatura herrikoiari ez dagokion gai original bat duenik. Bi puntu horien arabera izartu behar da ene gustuko itzulpenaren kontu hori.

Arazoa da, orduan, Zuberotarrek noizez gero beretu duten teatro mota hori, eta aitortu behar dugu horretan oso-oso iritzi desberdinekoak direla autoreak. *Egina*[5] izan zen urtea dakarren pastoral testurik zaharrena 1750.ekoa baita (*Sainte Elisabeth de Portugal* ), segur-segura da, 18. mendearen erditsuko zuberotar pastoralak bazirela. Ordean, nola segurki dokumentaturiko beste testu zaharragorik ez baitugu, aurreko garaietako pastoralez mintzatzeko, aieruka eta usteka bezala ari izan behar da, eztabaida zeiharkako argumentuetan oinarrituz.

Labur bilduz, bi iritzi mota bereiz daitezke Zuberoko pastoralen abiaduraren finkatzeko eztabaidetan: alde batetik batzuek, gehienek iraganeko ikertzaileen artean, Zuberoko teatroa aspaldikoa dela pentsatu izan dute, pastoralak 15. mendean edo lehenago, eta berantenaz 16.ean, jadanik bazirela erranez; eta bestetik, beste batzuek, pastoralak aski berriak direla daukate, 17. mendearen bigarren partekoak, edo 18. mendekoak, direla diotelarik. E. Decrept, mende honen

(4) Hala nola Bassagaix, Eskiulako errejentak *Charlemagneren* eskuizkribuan (1835) zioelarik *j'ai traduit vingt pièces*, ez dirudi pastorala bera itzuli zuela erran nahi zuela, baina erdal testu batzuk nobela modukoak pastoral gisa euskaraz moldatu zituela.

(5) *Egin* hitzak pastoral zaharretan ez du *idatzi* erran nahi, baina *errepresentatu* edo orain erranen genukeen bezala *jokatu*. Pastoral eskuizkribu gehienek pastorala noiz eta non emana —*egina*— izan zen agerian uzten dute, eta maiz kopista-errejentaren izen-deiturak ere bai.

hastapenean, lehenbizikoa izan zen, espekulazioetan baino lekukotasun seguretan fidatu nahiagoz, azken bide honetarik jo zuena. Hérellek kritika bortitza egin bazion ere (1926:108-112), argumentabide sendoa erabili zuela ez da dudarik.

16. mendean pastoralak Zuberoan jadanik bazirela diotenek oso argumentu desberdinak eman izan dituzte, teatroaren ezaugarri zenbait baliatuz, edo aipamen batzuk gogoratuz.

Franko ezagunak izanagatik, interesanta da lehen argumentu horietarik batzuen gogoratzea, gai horietan arrazoinamenduak nola bideratzen diren ikus baitezakegu. 19. mendeko eta mende honen lehen parteko autoreek argumentu historikoak baliatu dituzte gehienik. Adibide gisa, Michel, Vinson, Lafitte eta Hérelle aipatuko ditut, bakoitzak erreferentziak historiko desberdinak harturik bere hipotesia egin baitu, beti ere pastoralen aitzinekotasuna onartuz. Batek gaietan, besteek khirixtien eta türken arteko etsaigoan, edo antzerki motaren historian oinarria hartuz, ikerketari horiek zuberotar tradizioaren sortzea 13. eta 15. mendeen artean kokatu izan dute.

Gaien argumentua:

> A quelle époque peuvent remonter ces sortes de représentations? C'est ce qu'il est impossible de déterminer. Les sujets que l'on y traite, presque tous tirés de la vie des saints, de la Bible et des chansons de geste, la fixeraient au XIIIe et au XIVe siècle, temps où la représentation des mystères et la lecture des romans de chevalerie furent le plus en vogue (F. Michel, 1857:52).

Khirixtien eta türken arteko etsaigoaren argumentua:

> Toutefois, ce qui frappe le lecteur, c'est la préoccupation constante de faire tourner la pièce constante de faire tourner la pièce à l'honneur de la religion chrétienne, à la honte des Sarrazins et du Mahométisme. La date de ces compositions est ainsi facile à déterminer: elles remontent évidemment aux dernières phases de ce que les Espagnols appellent la guerre de reconquête, du treizième au quinzième siècle environ (J. Vinson, 1883:XVIII-XIX).

Turkei ematen zaien itxuraren argumentua:[6]

> Ziberon, noiz sartu ziren "mystère" deitu antzerkiak? Iduriz, Lepantoko itsas-gudua baino lehenago. gudu horretan (1571) Turkoak garaituak izan ziren, Europako bidea zerratzen zaielarik. Ordu arte

(6) Argumentu hori Lafittek bere egin bazuen ere, jadanik Hérelleren lanetan agertzen zen (ikus Hérelle 1926:109).

> Turkoen beldurrez ikaran zauden bazterrak (...). Mendebal huntan liburu eta kantuek basa huts, sordeis eta higuingarritzat zauzkaten. (...) Ziberoko pastoraletan Turkak arrunt gaitzetsiak dira, etsai gaixtoenen lerroan ekarriak, aspaldiko denboretan bezala. Horrek, gure ustez, erakusten du Euskaldunek beren lehenbiziko maileguak berantenaz egin zituztela XVIgarren mende erditsutan, non ez ziren geroxeago "mystère" xaharrez baliatu (P. Lafitte 1976 [1990:53]).

Antzerki motaren historiaren argumentua:

> Ce théâtre a été importé vers la fin du XVe siècle dans la Soule, lorsque les représentations de mystères faisaient fureur dans toute la France, et il a conservé jusqu'à nos jours les caractères de ses premiers modèles, parce que les Basques, en cela comme cela en beaucoup d'autres choses, ont l'esprit éminemment conservateur (Hérelle 1926:112).

Argumentu horiek badute elkarrekin puntu komun bat: zuberotar pastoralak zerbait gisaz berpizkundearen ondotik suntsitu zen aitzineko garaiari lotu nahi dute, mundu hura bat-batean orduan orotan itzali izan balitz bezala. Geroztikako sortze bat ezin onartuzkoa iduritzen zitzaien autore horiei, horrek pastoraletako ezaugarriak tokian berean sortuak izan zirela onartzera baitzeramatzan. Ezin onetsitzat zeukaten holako konklusioa. Hérellek aditzera eman du garbienik pundu hau:

> S'il ne datait [zuberotar pastoralgintza] que du XVIIIe siècle, il faudrait admettre que les pastoraliers se sont mis à écrire des mystères à une époque où la technique classique avait depuis longtemps évincé la technique médiévale, ce qui, en soi, est déjà très invraisemblable; mais, de plus, cela est absolument impossible (Hérelle 1926:111).

Lehenik erran behar da, euskarri zehatzik ez duela pastoralak Euskal Herriko misterio zaharrei lotzen dituen hipotesia horrek, ezen ez dugu, 15. mendean edo aurreko garaietan Euskal Herrian izan zirelako misterio horien berririk. Bestalde, arrazoinamenduaren abiada dudazkoa da: alabaina, ez dugu baitezpada uste izan behar, misterioen teknika eta tradizioa teatro klasikoak denbora laburrik barne suntsitu edo galarazi zuela. Aipamen guti izanagatik ondotik, bizirik iraun zuen kanpainetan teatro horrek, eta hedakuntza zerbait ere izan zuela pentsa daiteke. Hitz batez, berantagoko sorrera baten onartzeak ez du misterioen tradizioarekilako lokarria hausten. Luzatzen, bai, baina ez eteten.

Molde berean, Hérelleren ondotik Lafittek aipu duen turken itxura gaitzesgarria ere ez da nahi-ta-ez zahartasunaren marka. Teatro bur-

jesean besterik gertaturik ere, literatura herrikoian luzaz eta luzaz iraun zuen turken eta sarrasien itxuratze beldurgarri, bortxatu hura. Joan den mendean Charlemagneren leiendak kondatuz argitaratzen ziren erdarazko nobeletan molde berean itxuratuak ziren haren etsaiak, batere arazorik gabe turko deitzen zirelarik, pastoraletan bezala.

Erreferentzia historikoez kanpo, pastoralen zeiharkako aipamenak ere baliatuak izan dira haien sorrera aski urrun emateko. Bizpahiru aipamen ditugu hemen kontuan hartzekoak, 16. mendean jadanik Euskal herrian pastoralak bazirela pentsarazi baitute.

Lehena, joan den mendearen lehen partean artxiboetako inspektore zen Buchoni zor diogu. 1839 argitara eman zuen artikulu batean, bazioen Buchon horrek, Saffores, orduko errejent famatuaren etxean izanik, *Clovis* izena zuen pastoral baten eskuizkribua ikusi zuela han; *certainement un manuscrit de 1500, et je le lui ai acheté* erraten du. Zorigaitzez galdu izan da delako eskuizkribua eta beste inor ez da Buchonen lekukotasunaren berme egin; horretaz ikus Hérellek egin artikulua (*RIEV* 1926:17-19). Gogoan har, urtea Buchonek adierazi bezala harturik, ia 14. mendera itzuli behar genukeela. Zenbaitek uste baino atzerago, beraz. Horrengatik hain segur Hérellek eztitu bezala nahi izan zuen Buchonen errana, 1500 zenbakia kasu horretan beharbada 16. mendea adierazteko erabili zuela proposatuz. Nola nahi ere, lekukotasun hori guziz baztertzekoa ez bada ere, aski ahula da haren ondoan zentzu beretik doan besterik ez bada atzematen bereziki.

Bigarren aipamena aurrekoa baino bitxiago da. Dakigun bezala pastoralen eskuizkribu gehienek pastorala jokatua izan zen eguna eta tokia erraten dute ondarrean. Usaia ongi finkatua da, eta kopia berriak egiten direnean ere, jokaldi berrien eguna eta tokia agertzen dira komunzki eskuizkribu berrietan. Orain entzun dezagun zer erraten digun Hérellek:

> La copie de Saint Jacques de la Bibliothèque nationale, n 211, a été faite il y a une centaine d'années seulement, et néanmoins on y lit, après l'épilogue, la date très lisible du "29 août 1634". Comment expliquer cette date qui ne peut être celle de la copie? M. Omont, conservateur des manuscrits, avec l'autorité de sa grande expérience en la matière, estime estime que cette date a dû être reproduite par le copiste d'après une inscription que portait l'ancien cahier sur lequel la copie nouvelle a été faite (Hérelle 1926:110).

Nola hor aipatzen den eskuizkribua duda izpirik gabe J.P. Saforres errejentaren eskutikakoa baita eta, beraz, 19. mendekoa, franko bitxia zitzaion Hérelleri ere, hartan holako urtea irakurtzea. Gauzen ar-

gitzeko aitzinatzen duen esplikabideak arrazoinezkoa dirudienarren, jakin behar da guziz ohiz kanpokoa zela tradizioan kopia berrietan aitzinagoko jokaldien berri ematea. Dakidanaz, ez da holako beste exenplurik ezagutzen ere. Hérelleren irakurketaren onartzeko, beraz, segur-segura izan behar luke. Enetzat, haatik, arras dudazkoa da, 1834 baita ene aburuz irakurtu behar dena. Egia da 6 baten itxura duela 8 zifreak urtea ematen duen zenbakian. Marraren mugimenduari ongi behatzen zaiolarik, ordean, aski garbiki agertzen da, ene ustez, 8 zifrearen grafiatzeko erari hurbilago dela 6 zifrearen marrazbideari baino.

Hirugarren aipamena Oihenarten *Art poétique basque* delako idazlanean aurki daiteke. Aski ezaguna baita, ez dut uste merezi duen berriz hemen hitzez hitz ematea. Oroitaraz dezagun bakarrik, hartan Oihenartek, ehun bat urte lehenago (16. mendearen erditsu horretan, beraz) Donibane Garazin *Artzain gorria* izeneko pastoral bat behin baino gehiagotan emana izan zela erraten duela, haren egilea apez olerkari bat, Jean Etxegarai izenekoa, izan zela gaineratuz. Lafitte, Oihenarten idazlana publikatzean Oihenarten aipu horretan oinarritu zen pastoralak jada ordukotz bazirela baieztazeko.

Hemen ere, badateke anakronismo zerbait gertatzen den. Lehenik seinalatu behar da Oihenartek ematen dizkigun xehetasun guzietan zerbait badela zuberotar pastoral ohikoei ez dagokiena: pastoralak titulu bat bazuen, eta tituli hori euskarazkoa zen; testu egilearen izena ehun bat urte geroago oraino ezaguna zen, eta apeza zen; azkenik Garazin emana izan zen.

Ohiko pastoralek ez dute titulurik eta süjetaren izenaren bidez izendatzen dira, süjet horren izena erdaraz duen itxura duelarik. Bestalde, pastoralen tradizioan autoretasunik edo horrelako noziorik ez baita,[7] guziz bitxia da tradizio horretan egonik idazlearen izena gisa horretan ehun bat urte geroago ezaguna izatea. Are bitxiago da idazle hori apez izatea, ez baita ohiko zuberotar pastoralik ezagutzen molde horretan apez bati zor zaionik. Azkenik gogora dezagun pastoral ohikoen tradizioa Zuberokoa dela oso-osorik: Nafarroa Beherean ere noiz behinka emanak izan badira ere pastoralak, ez baita dudarik zu-

(7) Aski gauza berria da pastoral herrikoietan autorearen izendatzea. Etxahun Irurirekin hasi zen autoretasuna agertzen pastoralen tradizioan, gerlaz geroztik izan den aldakuntzarik handienetarik bat segurenaz ere. Ordu arte errejentak ohi ziren testu emaileak (eta kopien jabeak), eta ez zuen axolarik testu hori errejentak berak ala beste norbaitek idatzia zuen, edo kopiak zer gisaz eskuratu zituen. Kopien arteko nahasketak ere arazorik gabe egiten ziren.

berotarren eraginez gertatu dela horrela (ikus horretaz Hérelle 1926:87).

Horrek dudarazten du, Oihenartek aipu duen pastorala eta guk gaur egun izen horren bidez izendatzen dugun antzerki mota egiazki tradizio berari jarraikitzen zaizkion. Kontu eduki behar da, pastoral hitzak engainabidean ez gaitzan eman. Alde batetik gaur egun pastoral hitzaren bidez ezagutzen dugun teatroak izan du beste izenik ere, hala nola bereziki trajeria. Beste aldetik, badirudi pastoral hitza hitz generikoa ere izan dela denbora batez, edozein drama motarentzat kasik balia zitekeelarik (eskoletako teatroarentzat baliatua zen adibidez Baionan), eta ez baitezpada Zuberoko teatro zaharrarentzat, eta hau bezalakoentzat. Horrengatik, Oihenartek erranak 16. mendean Garaziko aldean teatro landu bat izan zela erakusten badigu ere, nekez teatro hura zuberotar antzerkigintza herrikoiaren tradizioan besterik gabe sarraraz dezakegu.

Ororen buru gorago eman hiru aipuen artean Buchonen lekukotasuna da gelditzen zaigun bakarra, beste biek segurenaz ere ez baitigute erranarazi nahi izan zaiena egiazki erraten. Lekukotasun hura bera ere oso ahula dela ikusia dugu, beste inork ez baitu konfirmatu ahal izan, eta aspaldi galdua baita delako eskuizkribu hura. Beste berririk ez duguno zail izanen da ene aburuz hartan finkatzea pastoralen zahartasunaren mugatzeko.

Gauza horrela izanik, zer erran dezakegu? Isiltasunak frogabiderik eskaintzen ez duenaz gero, duda gelditzen da beti noiz errotu zen Zuberoan pastoralgintza. 18. mendearen erdian egina zela ez da dudarik, eskuizkribuak hor baititugu lekuko. Eskuizkribu zaharragoak gal zitezkeela-eta, tradizioa lehenago ere abiatu zela pentsa dezakegu, nahiz ez dugun zeiharkako aipamenik aurkitzen hipotesi horren indartzeko balia dakigukeenik. Alabaina lehen zeiharkako aipamenak —Egiategirena (1785), frantses iraultzaren denborako debekuak (1796), eta piska bat geroago Humboldten lekukotasuna (1801)— eskuizkribuak berak baino puska bat zaharrago dira.

Horiek hola, nekez mendeen gainetik jauzi egin daiteke izariak galdu gabe eta, beste aurkikuntzarik egiten ez deno, 17. mendearen bigarren erditik 18. mendearen erdia arte doazen urte horietan finka daiteke beharbada zuberotar pastoralen sorrera.

Hain zuzen ere Oihenarten lana gogoan izanik, uste dut 1665. urtea mugarri gisa balia dezakegula, urte hartan zuberotar pastoralen tradizioa oraino sortzekoa zela aitzinatzeko. Alabaina, garai hartan

Zuberoko pastoralen tradizioa finkatua izan balitz, ez ote zuen Oihenartek bere *Notitia*-n edo, bederen, bere *Art poétique basque* delakoan haren berri emanen? Oroit gaitezen azken idazlan horretan euskarazko bertsugintza aurkeztu eta ikertu zuela Oihenartek, probintzia desberdinetako literaturazko autoreak eta, berdin, kantu herrikoiak ere, aipatuz eta kritikatuz. Ez dea doi bat bitxi eta sinesgaitz, jadanik garai hartan, gureak bezalako pastoralak izan balira Zuberoan, Oihenart zuberotarrak haietako bertsu teknikaz —berak gogokoa zuen moldeari hain kontrajarriaz— deusik ez erratea? Oihenarten garaian antzerki tradizio hori egiazki bizi izan balitz Zuberoan, Euskal Herriko errefrauak eta olerkariak, bai eta historia ere, ikertu nahi izan zituen Oihenartek hartaz deusik ere erran gabe utziko ote gintuen? Goraxeago isiltasunean oinarritu frogabideen ahuleziaz mintzatu banaiz ere, gaitz da enetzat holakorik pentsatzea.

**Bibliografia**

Aguergaray, A., 1992, *Etude comparée de "Ximena", pastorale de Pierre Bordaçarre —dit Etxahun Iruri— avec d'autres œuvres de la littérature française*, Doktore tesia, Université de Toulouse-Le Mirail.

Casenave-Harigile, J., 1984, "Zuberotar Antzertiaren sortzeaz eta Iturriez", in *Antzertia*, zenbaki berezia, 4, 4-10.

Chaho, A., 1836, *Voyage en Navarre*, Paris.

————, 1856, *Biarritz entre les Pyrénées et l'Océan*, 2. lib., Bayonne.

Decrept, E., 1912, *Pyrena* aldizkarian (1-4 eta 19-20. zb.) argitara eman artikuluak.

Egiategi, J., 1785 [1983], *Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia*, T. Peillenek prestatu argitarapena, Euskaltzaindia, Bilbo.

Garamendi, M.A., 1990, *El teatro popular vasco (semiotica de la representacion*, *ASJU*, 24, 2-3.

Hérelle, G., 1922, La représentation des pastorales à sujets tragiques, *BSLSAB*; separata 1923, Paris..

————, 1924, "Pastorales et tragédies grecques", in *Gure Herria*.

————, 1926, *Les pastorales à sujets tragiques considérées littérairement*, Paris.

Lafitte, P., 1976, *Santa Grazi* pastoralaren aitzin solasa *Jakin*-ek argitaratua, in *Euskal literaturaz*, 1990, Klasikoak sailean, 35. zb., 50-60.

Lekuona, M. de, 1935, *Literatura oral vasca*, 3. argitarapena, urterik gabe, Kardaberaz bazkuna, Tolosa.

Léon, A., 1909, *Une pastorale basque. Hélène de Constantinople. Etude historique et critique*, Paris.

Michel, F., 1857, *Le Pays Basque*; argitarapen berria, faksim. 1983, Elkar, Donostia-Baiona.

Oihenart, A. 1665 [1967], *L'art poétique basque*, P. Lafittek *Gure Herrian* argitara emana.

Oyharçabal, B.1982 [1991]: *La pastorale souletine. Edition critique de Charlemagne*, Doktore tesia, Université de Bordeaux 3, 1991an argitaratua, *Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, XVI, Donostia.

Saroïhandy, J. 1928: *La pastorale de Roland*, Bayonne.

Vinson, J. 1883: *Le folklore du Pays Basque*, Paris.

Webster, W., 1899, *La tradition au Pays Basque*, Paris.

———, 1901, *Loisirs d'un étranger au Pays Basque*, Châlon sur Marne.

# Pastoral zaharren inguruan

IÑAKI MOZOS

Badakizue pastoralak Zuberoako herri Teatroaren parte nagusia direla, orain arte iraun duena eta, bestalde, Euskal Herriko antzerkiaren emaitzarik behinena. Gai serioetako obrak, aspaldi itzalitako obra barregarrien antzera errepresentatzen ziren fartza komikoen aldean sailkatu ohi dira. Biok osatuko lukete Zuberoako herri teatro moduan ezagutzen duguna.

**Herri teatroa**

Horren definizio azkar baterako, esan genezake mendeetan iraundako gizarte nekazarian landutako komunikabide antzekoa dela, tradizio bidez ikasia eta bizimoduan txertatua, festa edo ospakizun ohitura bezala. Beste bi adjektibo hala ere, gaineratu nahi diogu definizioari: ahozko teatroa da, kantatzeko testuak betiko istorioetatik atereak izanda ere, azken batean gidoi moduko izkribu bakarra erabiltzen baitzen emanaldiko, aktoreek, kantatuz ikasiz norbere rola.

Baina euskal herri jakin bati atxikia ere bada. Horrekin batera, begiak pittin bat altxata, konturatzen gara, gurean irla antzeko zerbait dena, besteetan ere hala dela, Europa mendebaldeari begiratuta. XIX. mende azkenetik aurrera, pastoralekin antz handia zuten errepresentazio asko desagertzen da lurraldean, eta hau garai bateko gizarte nekazari ohiturak mantentzen zituzten herrietan: Bretainian, Flandrian, Italiako iparraldean eta Pirinioetan esate baterako.

Genero serio hau, trajeriak, bitan banatzen dira:

- eskola zaharrekoak alde batetik, Hérelle ikerlari frantses saiatuari esker, besteak beste, ezagutu ahal izan ditugunak: mende honen hasera arteko pastoral izkribuak daude bertan;

- eta eskola berrikoak, Bigarren Mundu Gerra ondoren ematen hasitakoak, Euskal Herriko sujetak edo gaiak sartzen dituztenak, Pierre Bordazaharreganik aurrera. Pierre Bordazaharre, edo Etxahun Irurikoa, Mattin eta Xalbadorren garaikidea izan zen, bi gerra mundialen zarrastadaren ondoren, Iparraldeko bertsolari nagusiak.

**Trajerien ikerbideak**

Hitz saio honetan eskola zaharreko pastoralen berri ematen ahaleginduko gara. Horiek aztertu nahi dituenak bi bideotatik abiatu beharko du: XVIII. mende erditsutik Lehen Mundu gerraren bezperara eman ziren errepresentazioen kahierrak, batetik; eta gaia ikertu duten estudio jendearen lanak, bestetik. Lan horietan ikasi dugu hemen esango direnetatik asko, bihoakie beraz aldez aurretik gure eskerrona.

Beste material batzuk, mende hasera aldeko argazki edo marrazki apur batzuk izan litezke.

**Antzezmodua**

Zer teatro klase, zer antzezmodu erakusten digute horiek?

Zuen arteko askok azken urteotako pastoral emanaldiren batean ikusitakoarekin konparatuta, ez du pastoral zaharren antzezmoduak diferentzia handirik erakusten. Dena dela, lehen begiratu huts batetik aurrera agertzen hasten dira.

Pastoral zaharrak, ez beti, baina bai askotan, teatro irekian ematen ziren, publikoa banatzen zuen pasabidea eta eszena inguruak erabiltzen ziren, zaldi gainetik, aktoreen iristeetan, edo ikusleetatik gertu parte hartuz, hainbat eszena joku emateko. Taula gaina, gaurko emanaldiekin diferentziarik gabea, upelak eta garaiko ahalbideak kenduta, kontuan hartu behar duguna da, inguruko aldea eszenarako erabiltzen zela, obraren ikusgarritasun musikal, plastiko eta dantzaria izanik testua baino inportanteago. *Campagne*-etako, nekazal giroko teatro hau, europar eredu, garai batean oso zabaldutako bati dagokio. Obra horiek, elizetan, antzinako pasio eta nativitateetan jaioak, eliz ataritik herriko plazara pasatuz misterio, mirari eta joku bihurtu ziren. Teatro urbano arrakasta handikoa. Baina XV. mendeaz geroztik, hirietako emanaldiak debekatzen hasi ziren. Handik aurrera eta luzaro, teatro burges edo neoklasikoa etorriko zen.

Herrialde nekazarietan ordea, antzinako errepresentazio erlijiosoetan eta feria teatro edo saio barregarrietan oinarritutako teatro po-

pularra gorde egin zen. Ertarotik aurrera ezagutzen dugun teatroa da eta, bertan, misterioetatik eratorritako komunikabide dramatikoak eboluzionatzen du, gorago esandako Europa mendebaldeko herrietan eta Euskal Herrian partikularki.

Teatro tradizional horien gaiak, bestalde, oso antzeko dira: saindu bizitzak, gesta kantuak, *colportage* bidez herri menditarretara iritsitako istorioak. Espazio eszenikoa, teatro Ertarokoan, gaiari dagokio: munduaren errepresentazioa, mantsio desberdinetan ematen da. Mantsio horiek izango dira eszena tokiak. Teatroa ruralizatzeak sinplifikazioa dakar, eta antzekoa, kasu gertatzen da feria teatroarekin, esaterako, Garamendik erakutsi duenez.

Taula gaineko laukiaren irudira bueltatuz, konpara dezakegu, eskuizkribuetan agertzen zaizkigun antzezoharrekin: Phantzart eta Baküs obretakoekin, adibidez. Pertsonai izenak taula gaineko kokapenaren arabera banatuak daude bertsoen artean. Izkribu hauek errejentek obra entsaiatu, zuzendu eta apuntatzeko tresnak ziren, eta bertan, erabat ahozko gertatzen zen antzezmoduaren arautegiaren aztarnaren bat, oso eskematiko bada ere, azaltzen zaigu.

Bordeleko liburutegian, pastoral izkribuen artean badaude batzuk testurik gabe daudenak, baina emanaldian zehar pertsonaiek hartuko zituzten posizioak deskribatzen dituzten kahierrak dira, "figures" edo irudi eskematikoak, eszena-akotazio edo antzezoharrak eskaintzen dizkigutenak. Esaterako, Mustapha, Charlemagne eta Robert deabrua, besteak beste (Urkizu, P.: Antzerti. 1983ko abuztua, 11-12 orr.).

Astolaster egile batek, J. Bte. Hardoy oihantzainak, bi xaribari fartza antzezteko sei ohar interesgarri utzi zigun genero komiko eta trajikoen obrak antzera ematen zirela erakutsiz. Gero irakurriko dugu horietako bat. (Hérelle, G., "J. Bte. Hardoy-ren Instruccionia" *Gure Herria,* eta Urkizu P.: *Euskal Antzertia,* 65-67 orr.)

**Pastoral errejenta**

Zeregin nagusia, teatro zuzendariarena da. Errejentak testua itzuli, moldatu eta honela gertatzen du errepresentazioa: berak ozenki kantatuaz ikasarazi aktoreei eta obran zehar eszena gainean izango dituzten kokapen nagusiak, eskemetan jarri eta kontuan hartuz.

Eskueran ditugun izkribu horiek beraz, ez dira noski irakurriak izateko idatzi. Errejentak entsaio edo errepetizioneen ardura ez ezik emanaldiena ere badu, eta eszena gainean du jarlekua, bere zuzendari eta apuntatzaile lana egiteko. Guzti honetan nabarmentzekoa da,

dena den, ahozko teatroa zela berez, idatzitako testua zuzendariaren lagungarria besterik ez zen izaten. Garai haietan ohitura hauek zituzten jendeen artean oso bakanak ziren alfabetatuak, eta, noski, frantses alfabetatuak ere bai, ezinbesteko baldintza baitzen hori, istorio frantsesak zuberotar antzerkira moldatzeko. Memoria handia orduko euskaldun haiena, askotan, dantzapausuak eta errezitatuaren erritmoak, testua gogoratzen lagundu arren.

Pastoral gaiak edo sujetak, Europa mendebaldean mendeetan zabaldutakoak dira. Hirurogei bat obraz osatutako errepertorioan beraz, saindu bizitzak, gesta kantuak, errege eta pertsonai historiko edo sasihistorikoen eginak aurkitzen ditugu. Zuberotar pastoralgileak, artean ikusgarri gerta zitekeen frantses obra bat aukeratu eta moldatzen zuen. Prozedura nagusia aurreko baten eskuizkribuaz baliatzea zen, bai kopiatu, berritu eta osatzeko, bai zuzenean erabilita, zenbait ohar edo paper zati erantsiz, emanaldi berria gertatzeko. Horrela, izkribu hauetako asko kopien kopiak gerta daitezke.

Errejenten ofizioa beraz, guzti hori esanda zehaz dezakegu: errepresentamodu tradizional eta jakin baten arabera, istorio bati teatro forma eman. Antzezmodu haren arauak ahozkoak ziren, eta familia barruan edo herri mailan arbasoengandik ikasten ziren. Garaiko bizimodu nekazari arrunta zeramatela, basozain, oskigile, arotz edo laborariak dira, besteak beste; nolabaiteko prestigiodun pertsonak dira, herriaren ohitura gorde eta zuzentzen dutelako, eta herri bakoitzak antzerkia behar bezala emateko gaitasuna, harrotasunez adierazten dutelako. Errejent ezagunen kopura ehundik gorakoa da, izen-datak besterik ematen ez dutela, nahiz eta batzuk, bestak baino gehiago nabarmentzen diren.

Beren lana ordea, mende haserako euskaltzale batzuek gaitzetsi zuten. Intxauspe abadeak, esaterako, bertsolari bapatekoak jotzen zituen benetako herri literaturaren testigantza moduan; pastoralgileak ordea "gens d'une instruction limitée et d'une pédanterie inexprimable" omen ziren. Pastoralen hizkera maileguz jositakoaren aurrean, jokaera garbizalearen defendatzaile sutsu gertatu zen Intxauspe abadea hitz horiek bota zituenean.

Dena dela, badirudi, pastoral izkribuen gai erlijioso kopurua eta errepresentamodu liturgikoa gorabehera, apaizgoari ez zaiola gogozko gertatu teatro modu hau. Hau dela ta, bi pastoralgilek bere buruari buruz esandakoak irakur ditzakegu. Izkribu bukaeretan ematen zituzten ex-librisen ondoan agertutako bi ohar hauek dira:

1836ko Astyage-n: "Ce Cayer vient a Perdre et quelqu'un trouver Il aura la bonté de rendre au sieur J Pre Saffores Cordonnier detardets qui est un brave homme recunnu Par tout son pays. Et un homme comme il faut Pour manger quelques tranches de Jambon Et les Eufs friagit dans lapoiles Pendent toute le temps de l'annee a la place des chardines".

Ikus dezakegu zertan den prestigio popular hori, jende jatun eta festazalea zen, eta ez eliz arauei atxikiegia. Baina bigarren oharrean, prudenteago azaltzen zaigu Bordato pagolarra, garai bertsuan baina euskaraz dioela, Dorimène-ko izkribu batean: "Hau da luburu edera eta unxa esquiribaturiq. Enequi egon da biciqui. Halaco luburueq estie balio deus ere eta niq estut sinhesteriq batere certaco hori, ceren eta arima gal erasten beitu. Ni nusu Juns edo Jan Bordato, Mousie Chabalet de Pagolle".

**Pastoraletako gaiak**

Pastoraletako istorioak iturri anitzetatik heldu dira Zuberoako teatrora. Gaiak, boladetan bezala sartzen dira: Ertaroko misterioetan ematen zirenak, XVII.etik aurrera Europan nagusitzen den liburu banaketa edo *colportage* bidez azaldutako mentura nobelak, Frantziako histori pertsonaiak etab. Hori, iturri narratibo edo dramatikoak aztertzean lagungarri gerta daitekeen arren, kasu batzuetan iturri nahasketa handia da, eta beste batzuetan ez dago argi nondik datozen (Saint Louis eta Saint Jacques, adib.).

Gai-iturri horien artean nabarmentzekoak, *colportage* bidez iritsitako istorioak ditugu. Nekazari bizimoduko beste herri europarretan ere zabaltzen dira. Gauza kuriosoa da inguru honetan, liburu banaketa modu horrek, Kontrarreformaren ideien garraiatzaile denak, frantsesa erabiltzen zen lurraldeetan alfabetatzea bultzatu zuela ikustea. Euskara, bretoia, flandriera edo beste erabiltzen zirenetan, herri teatro tradizionalaren errepertorioetara pasatu ziren istoriook. Hemen ikusten da, beren hizkuntza bidezko teatroa gordetzen duten herriak, nekazal edo artzai komunitate-bizimodukoak, nolabaiteko izakera itxikoak zirela eta boteregune nagusietatik urrun zeudela. Bizimodu honen desagertzea Gerra Mundialekin batera emango da, edo nahi baduzue geroago, TVak nagusitzen direnean. Horrela desagertu ziren herri teatro horietako asko.

Hizkuntza horiek erabiltzen zituzten komunitateotako herri teatroan ordea, garai hauetan edo teatro klasikoan testuak duen adinako

inportantziarik ez zuela ematen du. Errejentek, istorio euskaratzaile eta moldatzaileek testu ulerkorra lortu nahi zuten bereziki. Aukeratutako pertsonaiaren bizitza bertso eredu jakin eta errepikakor batean ematen zuten: asonantzia libre samarra, normalean bertso lerro pareetan, eta neurri mugarik eza dira lege bakarra lau lerrotako kopletan. Testua baino munta handiagokoak ziren errejententzat sujeta, pertsonaia nagusiak ahots ozen oparoa izatea, planta oneko aktore jendea topatzea, dantzari trebeak lortzea. Obrari nekazari festa baten inguruko ikusgarritasuna ematea zen azken batean funtsezko. Gizarte nekazari baten ikuskizuna, Manuel Lekuona zenaren hitzetan "poesia, musika eta dantzaren sintesi" bezala jo genezakeena.

**Antzezpenaren garapena**

Agian orain, guzti hori esanda, gaian aurrera egiteko errepresentazioaren eskema ematea egoki litzateke. Ikus dezagun. Izkribu zaharren araberako antzezpena, pheredikiek eta pastoral emanaldiak berak osaten dute. Azken horretan, aktoreen iriste eta erretiratzeak eta musikak mugatutako eszena joku ohizko batzuk agertzen dira: pertsonaien iristea, bataioak, erronka saioak, batailak, hiri setio eta okupatzeak, ezkontzak, heriotzak, kantu liturgikoak, etab. Izkribuak, azken pheredikiaren ondoren, pertsonai zerrendaz eta kopistaren datu apurrez bukatzen dira. Pastoral zaharren emanaldi eskema beraz, hau izango zen:

Pastoral mustra, haserako herrian zeharreko desfilea. Lehen pheredikia eta aktoreen arribantza. Adibidez: Hardoy-ren oharra, eta Jean de Paris pastoraleko lehen pheredikia. Gero antzezjoku tipikoak, pertsonaiak urdin-gorri, khiristi-türk edo on-gaizto banaturik daudela, ate bana erabiliz.

Pertsonaia nagusiaren heriotzaren ondoren dolu kantua dator, latinez (Te Deum, De Profundis) edo euskaraz. Adibidez: J. de Paris B izkribua, azken kantua, pertsonai zerrenda eta ex-librisa.

Azken pheredikia zetorren gero, entzulegoari dantza gonbitea eginez. Festa beraz, orok parte hartzekoa zen amaierakoan.

Baina guzti honetan saio barregarriak ere ez dira falta. Gainera nabarmendu beharreko gauza ematen du; zeren saio arin horiek pastoralgileek erantsiak baitira, bigarren mailako pertsonaiek parte hartzen duten arren, eta antzezpenari ikusgarritasun handiago bat emate aldera daude eginak.

Jean de Paris pastorala eredu gertatzen da gai horretan ere.

Mende batean zehar emandako errepresentazioen lau eskuizkribu ditugu: A (XVIII. mende hasiera edo erdikoa), B (1760koa), C (1777koa) eta D (1827koa). Barrea edo burruka edo dantza eragiten dituzten pertsonaiak daude bertan:

Alicor mairua eta artxel edo arkulari bakarra An (bigarren mailako pertsonaiak). Lau artxel Bn. Alicor eta Lankhara mairuak, eta lau artxelak (Cn) eta Dn agertzen zaizkigu, beren parte hartzea zerbait gehituz. Bestalde, gaizto-turkuen aldea gehiturik dago izkribu berrienetan eta, azkenik, satanak agertzen dira Dn. Satanen parte hartzea laburra izan arren, beren dantza saio ikusgarriak tartekatzen dituzte errexentek izkribuetan.

Horiek pastoralgileek erantsitakoak dira, herri literatura ez dramatikoan ohizko diren topiko eta errefrau apur batzuk ere sartuta.

Bestalde, hemen ikus dezakegunez, errepresentamoduaren eboluzio modukoa somatzen da, pertsonaiei dagokiela, baina antzera gertatzen da teatro ekintzan bertan: Bn *infantaren* saioa dena Cn eta Dn enamoratu bien (*Jean eta Infantaren*) izkutuko elkarrizketa bihurtzen da. Batailak ere gehitu egiten dira izkribu zaharretatik berriagoetara. Musika aldeko aldaketa tresnetan ikusten da, haizezkoak XIX. mendean eransten direla. Jantzi aldetik ere antzera (uniforme militarrak XIX. mendean, baina XVIII.ean "mozorroa bethi begithartian", J. Egiategi-ren arabera: *Lehen Liburia*, 77 or. Tx. Peillen-en edizioa. Euskaltzaindia, Bilbao, 1983). Satanen dantzak ikusgarritasun gehiago dakar azken izkribuetan.

Trajeria zaharren genero-eboluzio horren gailurra, Oihartzabalek erakutsi zigunez, XIX. mende hàserako pastoraletan ikusten da jadanik. Izkribu zaharretan baino askatasun askoz handiagoa dago istorioarekiko, eta eszena banaketa esplizitorik gabe ere, halako eszena-mota kodetu samarrak ematen dira elkarren ondotik.

Handik aurrera, antzezmodu arloan baino, gaietan emandako aldaketak dira nabarmen. Frantziako historiako sujetak sartuko dituzte: errege jendea, Napoleon, Guillaume le conquerante, lehen mundu gerraren apologia egiten duena, etab.

Eskola zaharreko emanaldiak, dakigunaren arabera, ugari izan ziren. Dokumentatutakoak hauek lirateke: 165 emanaldi gizonek eginak eta 18 emakumezkoek.

Bestalde, Etxahunen ondoko pastoralak, eskola berrikoak, bilakaera horretan gertatutako beste pauso bat besterik ez direla uste dugu. Gaiak berriz ere aldatu egin dira; antzezmoduari dagokionez,

eszena-mota berri zenbait erantsi eta emanaldiak garaiko bizimoduari egokitu besterik ez dute egin zuberotarrek. Beraz, funtsean, antzezmolde bera da.

Europako teatrolari sonatu zenbait interesatu da azken urteetan pastoralaz. Interesgarria da kontu honetan Boadella-k ematen zuen adierazpena: "se trata de una de las poquísimas oportunidades que hay en el mundo de ver un teatro donde se huelen tan claras las reminiscencias del rito teatral" (Antzerti, 13: 3)

Agerikoa da beraz, ohitura eta teatro tradizio hau zaintzea beharrezkoa dela. Zaintze horretan, gure aburuz, sartzeko moduko zereginak hauek lirateke: lehenik eta besteren gainean, oraingo emate-ohitura bultzatu eta landu, zuberotarrek, hizkuntz egoera larrian ere, diharduten moduan.

Bigarren, pastoral izkribu zaharrak aztertu, oso gutxi baitaude publikatuak (hamarrera ere ez dira iristen); honi buruz, txalogarria da izkribuen mikrofilmak Gasteizko Filologi fakultatean biltzeko ekimena.

Azkenik, bi ikerbide aipatu nahi dut: gaurko eta duela gutxiko euskal teatro autore batzuk pastoralen jokamodua, egitura edo testua beren obretan erabili izan dutelarik, uste dut ekin beharko litzaiokeela bide horri. Gero, irakaskuntza arloan ere, euskal eta euskarazko ikasketak zabaltzen ari omen direla-ta, gehiago hartu beharko litzateke kontuan, beste herri kultur adierazpenen testuinguruan behintzat.

## ERASKIN BIBLIOGRAFIKOA
### Zuberoako herri teatroari buruzko lan batzuk

1.- Azterketak:

Hérelle, G.: 1925, *Le théâtre comique des basques*. Paris.

————, 1928, *Le repertoire du théâtre tragique*. Bayonne.

————, 1923, *La representation des Pastorales à sujets tragiques*. Paris.

Askoz lan gehiago ditu, mende hasera aldera argitaratuak. Zerrenda osoa J. Bilbao-ren *Eusko Bibliographian* duzue. Kontsultarako liburutegietara jo behar: Euskaltzaindikoa Bilbon, Gasteizko Fakultatekoa edo Donostiako Aldundikoa.

Fourquet, F.: 1987, *La mascarade d'Ordiarp*, 1 eta 2. Bayonne. Maskaradaz egindako lanik biribilena. Analisi historikoa, testuak (herri desberdinetako aldaerez) eta filme bat ere badago tartean. Eskatzeko, IKERKA, 8 rue Thiers, 64100 Baiona.

Garamendi A.: 1989, *El teatro folklórico vasco: perspectivas de investigación.* II Mundu Biltzarra. Madrid. Zuberoako teatroa aztertzeko egin beharrekoen zerrenda, bibliografia aberatsez.

———, 1990, *El teatro popular vasco: semiótica de la representación.* Anuario del Seminario Julio de Urquijo. Donostia. Azterketa sakona genero desberdinen antzezmoduaz.

Urkizu, P.: 1985, *Euskal Antzertia.* Donostia. Obren katalogo osoa, bai Zuberoako teatroarenak bai besteak. Oinarrizko lana da.

———, 1987, *Zuberoako irri teatroa: astolasterrak.* Zarautz.

Elkar lana: *La Pastorale.* Lauburu arg. Baiona, 1987. Trageriei buruz, pastoralgile eta ikertzaileen artikulu interesgarri asko.

Elkar lana: *Euskal antzerkia/Le Théâtre Basque.* Pabeko Unibertsitateak arg. Baiona 1987.

Oihartzabal, B.: 1985, *Herri teatroa: ohiko pastoralak.* Haranburu arg. Donostia. Labur, irakurterraz eta mamitsua.

Peillen, Tx.: 1981, *Euskal antzerki zaharrenak.* Euskera aldizkarian.

———, 1992, *Zuberotar antzerkiaren Europagandiko eta Europaganako eraginak.* Eusko Ikaskuntzaren XI. kongresoa. Donostia.

*ANTZERTI berezia* izeneko aldizkarian artikulu asko datoz gaiaren alde desberdinez. Interesgarriak dira, bestalde, J. L. Davantenak *ARGIA* astekarian.

Azurmendi, J.: *Bertsolaritzaren estudiorako. JAKIN* aldizkaria, 1980. Teatroa zeharka besterik ez du aipatzen, baina Euskal Herriko herri literatura aztertzeko ideiak eta ikerbideak ematen ditu, hutsuneak eta abiapuntu batzuk nabarmenduz.

2. Testuak:

Pastoralak:

Edizio zaharrak (*Saint Julien d'Antioche*, Bordele 1897, Vinson-ena; *Hélène de Constantinople*, Paris 1909, Léon-ena; eta *Roland*, Bayonne 1928, Saroïhandy-rena) aipatutako liburutegietan kontsulta daitezke.

*La pastorale basque: édition critique de Charlemagne.* B. Oihartzabal. ASJU. Donostia, 1988-90. Oso lan inportantea, eskuizkribu asko aztertuta egina. Ohar mamitsuak antzezmoduaz eta hizkuntzaz.

*Santa Jenebieba.* Marzelin Hegiaphal errejentarena. Antzerti. Donostia, 1984.

Eskola berriko pastoralak, Etxahun-Bordazaharregandik aurrerakoak, errepresentazio egunetan egon ohi dira salgai.

Astolasterrak:

*Kaniko eta Belxitina.* G. Aresti, Lur arg. Donostia 1971. Honen frantsesezko itzulpena Hérelle-k argitaratuta zuen 1908an.

*Chiveroua et Marceline. ASJU*, 1982 Tx. Peillen. Frantsesezko itzulpenaz.

*Aldabak, xikitoak eta erran zaharrak, Xiberoua et Marzelin. Recoquillard et Arieder. ASJU,* 1973. P. Urkizu.

*Astolasterrak.* Antzerti. Donostia, 1984. P. Urkizu. Astolaster labur batzuen bilduma.

Ihauterietako Trajikomeriak:

*Phantzart eta Baküs.* "Ihauteria euskal literatura" izeneko lanean. I. Mozos. Eusko Ikaskuntza, Hizkuntza eta Literatura 6. Donostia, 1986.

3. Zuberoako euskalkiaz:

Aipatutako azterketetan eta, batez ere *Charlemagne*-n, pastoralen hizkera luze tratatzen da. Testuen irakurketarako lagungarri, Inchusperen *Le verbe basque* eta Gèze-ren *Grammaire basque* ditugu (Hordago arg.), besteak beste. Hala ere, bereziki aipatzekoa da K. Zuazoren "Zubereraren sailkapenerako". *ASJU* Donostia, 1989-2. Bestalde, sarrera moduan egokia, *"Euskal Dialektologiaren Hastapenak"* U.E.U. 1987, Txillardegi-ren ardurapean egina, 442-472 orr.





# KLASIKOAK, Bai, bainan...

P. XARRITON

Euskaltzaindiaren bilkura batean,duela zenbait urte, aipatu izan zen, euskarazko obra zenbaiten argitaratzea eta horri buruz liburu bilduma berri baten abiatzea.Zer izen eman ordea liburu sorta berriari? - Ez dakit nork proposatu zuen "Klasikoak" deitzea. Bainan izen hori berehala baztertu zen eta "Lekukoak" izenburua hautatu.

"Lekukoak" saila abiatu zen beraz, 1979. ean, Juan Apecechea Perurenak prestatu Joakin Lizarraga Elkanokoaren *Doctrina Christioarén cathechima*-rekin eta geroztik, 15 bat urtez, aita Villasante,Altuna,Akesolo,Ondarra ,Satrustegi, eta Txomin Peillen, Jean Louis Davant, edo Luis Mari Mugica bezalako langilei esker, eskuratu ahal izan ditugu Bernat Etxepare, Ziburuko Etxeberri, Sebastian Mendiburu,Bernard Gasteluçar, Joanes Haraneder, Athanase Belapeyre, Lavieuxville-Harosteguy, Jusef Egiategi, Joakin Lizarraga,Prai Bartolome,Juan Antonio Moguel,Etienne Lapeyre, Resurreccion Maria Azkue-ren eta ere aspaldiko izengabe batzuen idazkiak, batzuetan inprimitu bagerik, idatziz geroz lo zeudenak; denetara orain artino 17 liburu argitaratu dira, ez baita orohar batere gaizki. Jarraik bedi beraz bere bideari "Lekukoak" saila! Ez da hori gure gaurko solasa.

Joan den urtean bada, Euskal Herriko erakunde indartsu batzu, banko, kutxa eta unibertsitate, euskal kulturari funtsezko laguntza bat ekarri nahiz, elkarretaratu dira, munduko pentsalari nagusien ehun bat obra euskaraz argitaratzeko xedetan. Sail berri horren izena da, hain zuzen, "Klasikoak". Eta horrela, Xabier Mendiguren-en zuzendaritzapean, ari izan gara eta ari gara, frantsesetik, latinetik, ingelesetik, espainoletik, alemanetik edo grekotik, Montaigne, Morus, Nietzsche, Camus, Platon, Berkeley, Hume, Rousseau, Vitoria, Unamuno, Bergson, edo

beste zenbaiten obra ezagunen euskaralatzen. Lehen liburuak argitaratuak dira jadaneko, baina nihaur tartean naizenez gero, "Klasikoak" hauen sailaren aipatzea edo jorratzea utziko diot gogo duenari.

Lehenagotik ordea, eta zehazki 1986 ez geroztik, "Klasikoak" izen berarekin badugu beste liburu sorta bat, Jaurlaritzako Kultura Sailburuak, Luis Maria Bandres-ek abiatu zuena, eta gaurregun Joseba Arregik jarraitzen duena. Azken zazpi urte honetan badira hor 65 liburu agertuak, bakoitza bere aurkezpen eta iruzkinekin. Liburu sorta horretaz banituzke, zenbait ohar egiteko, eta azken argitalpenetan bildumaren arduradun bezala agertzen diren Patxi Altuna,Joseba Lakarra eta Ibon Sarasola adiskidei, adiskide kontu igortzeko, Lapurtar lagun zenbaiten eta nihauren izenean.

Eta lehenik aitortuko dut ontzat hartzen dudala Xabier Kintanak berrikitan egiten zuen ohar hau: "Gure literatura zahar guzia iparraldean sortua da, baina hala ere ez badirudi ere, hegoaldekook izan gara autore klasiko horien berredizioak prestatzen, argitaratzen eta aztertzen gehienik arduratuak." ("*Batasunerako pausoak gogoratuz*", X. Kintana, ELE, 11-12, Bilbo 1993, 39. orr.). Egia da iparralde honetan ez dugula ez euskal unibertsitaterik ez euskal gobernurik, ez eta beraz baliabide anitzik, baina aitzakia guziengatik, aitortu behar dugu handia izan dela gure nagikeria: iparraldeko literaturaren antologia bakarra ez ote diogu LABAYRU-ko Karmelo Etxenagusia bizkaitarrari zor iparraldekook?

Dena dela, KLASIKOAK sail honen 65. alera helduak garelarik, ohartzen gara sail luze eta eder horretarik 22 ale iparraldeko euskalkietarik datozela. Edo beste ikuspegi batetik behatuz, hor agertzen diren 42 idazleetarik, 16 badirela nafar-lapurtarrez edo ziberotarrez dihardutenak: Laphitz, Duvoisin, J.B.Elissamburu, Barbier, J.Etchepare, M.Elissamburu, Archu, P. Lafitte, Dasconaguerre, Manezaundi, Zalduby, Webster, P.Harispe, Larreko, Oxobi, Chaho.

Hautu horretaz ez dugu erraitekorik, nahiz Webster-ek bildu dituen ipuiak, gure ustez, hizkuntza "klasikotik" aski urrun dauden, eta menturaz idazki interesgarri horiek beste sail batean hobeki sartuko ziren. Baina horrela eskutan dauzkagu, aitzinean errauspean zeudelarik, eta ongi da horrela. Gure arrenkurak, egia erran, beste bide batetik doaz: argitaratu diren obrak ez dira denak arta berarekin prestatuak izan, eta kontutan hartuz liburu horiek eskainiak zaizkiela gure euskalkiak ongi ezagutu nahi dituztenei, badirudi batzuetan itsuak jarri direla hor, lotsarik gabe, itsuen argitzaile. Badira zenbait aurkezle zinez eskertzekoak

direnak, egin duten lanari esker, hegoaldeko gure haurrideek eta guhaurk ere, iparraldeko euskaltzaleok asko eta zuzen ikasten baitugu, baina badira ere beste zenbait - gure irakasle xahar baten formula erabiltzeko —*docent quae nesciunt*— "ez dakitena irakatsi nahi baitigute". Goazen bada iturrietara!

**Lehen zerrenda (1. - 10 z.)**

Josu Pikabeak prestatu zuen lehen liburuari behatzen badiogu, aita Laphitz-en "*Bi saindu heskualdunen bizia*"-ri, ikusten dugu Luis Maria Bandres-en xedea zela, euskal idazki bilduma berri "merke eta landu" baten eskaintzea "euskal irakurlegoari" - orain batzuek erraiten duten bezala - edo " euskal irakurleei" - beste anitzek erran ohi dugun bezala. Sailburuak zehazten zuen gainera, "eguneroko" irakurleak zituela gogoan, ez baitezpada "jakintsuak".

Xede horretan EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA bildu omen zuen Luis Mari Bandres-ek eta gero XIX mendeko idazleen artean hamar bat liburuen hautatzeko, batzuen eta besteen iritziak entzun ondoan, Koldo Mitxelenari eskatu zion aurkezpen orokor bat egin zezan, argitalpen bakoitzean errepikatu beharko(?) zena.

Eta hona hautatu ziren idazleak eta idazkiak: J.J.Moguel, "*Eskolia*", G.Arrue, "*Santa Jenobebaren bizitza*", J.P.Duvoisin, "*Laborantzako Liburua*", Bilintx, "*Bertsoak*", F.Arrese Beitia, "*Olerkiak*", Laphitz, "*Bi saindu heskualdunen bizia*", Urruzuno, "*Ipuinak*", R.M.Azkue, "*Bein da betiko*", Kirikino, "*Abarrak*", eta J.B.Elissamburu, "*Piarres Adame*".

Hamar liburu horietarik zazpi argitaratu zituzten euskal editoreek urtea barne, Josu Pikabeak, Patxi Altunak,Ines Pagolak, Ibon Sarasolak,Itziar Lakak, Antonio Zavalak eta Lino Akesolok paraturik. Anjel Zelaietak aurkeztu zuen bestalde LABAYRU argitaletxearekin, J.M.Zabala-ren "*Fabulas en dialecto vizcaino*".

Lehen sail honetan eskaintzen zaizkigun gure Laphitz, Duvoisin eta J.B. Elissamburu-rentzat, Josu Pikabeak, Patxi Altunak eta Ibon Sarasolak egin dituzten aurkezpenak, bederazka eta hurbiletik ikusi eta, ez dugu arrenkuratzekorik: Benat Oihartzabal-ek, lauzpabost hitz gaizki ulertu direnak altxatu ditu, doi doia, "*Piarres Adame*"-ren argitalpenean: "goitatu", "desbistatu" ,"parrapio","erlats" eta "gobernamenduko gizon", besterik ez ("*Elizanburu kondatzailearen euskara*, B. Oihartzabal, EUSKERA, 1992,1, 233. orr.).

Gehiago oraino, atsegin han-

direkin ikusi dut nik segurik, zein poliki badakien sail berriaren lehen alean, aita Frantzizko Lapitzen aurkezpenean, Josu Pikabea adixkideak, gutartean kurri diren datu oker batzuen zuzentzen: Iturrietara joz ohartzen baikara alabaina, 1832 ko irailaren 30 ean jaio zela Arizkunen gure idazle handia —ez 29an, ez eta ere 31an— eta bestalde aita Irisartarra izanagatik, ama ez zela hala, Arizkundarra baizik.(op.cit. 22. orr.). Bi lerro urrunago haatik, ez nuen nik aipatuko "Uztaritzeko Seminarioa"; Lapitzen denboran ez baitzen Seminariorik oraino Uztaritzen, Larresoron baizik.

Dena den, hain ongi abiatu sailari zerbait makur gertatu behar zitzaion laster: 8. liburua argitaratu berri zelarik, L.M.Bandres sailburuak bere kargua utzi zuen alde batetik eta Koldo Mitxelena ustegabean hil zitzaigun bestetik.

**Bigarren zerrenda ( 11 - 65 )**

Kultura sailburu berriak, Joseba Arregik, berretsi zuen bere aitzinekoaren xedea eta Koldo Mitxelenaren oroitzapena gogoratzen zuela, hamahiru ale berriren argitalpena iragarri. Sorta berriarekin, XIX. mendetik XX. eraino aurreratzen ginen eta aitzineko Iturriaga, Soroa, Elissamburu, Arrese Beitia eta beste idazleen zerrendari, Abelino Barriola, Jean Barbier, Jean Etchepare eta Orixe-ren izenak eratxikitzen genizkion. Hitzaurregile berriak, aita Lino Akesolo zenak ohar interesgarri bat ere egiten zuen: hemeretzigarren mendeko euskal idazleek, politikak jarrita dauzkan mugez gainetik begiratzen ikasi zutela eta ondorioz, KLASIKOAK sortak, *Zazpiak-Bat* lemapean egina zirudiela.

Baina orduan nola ote hitzaurregileak berak bazter zezakeen euskararen batasunerako Euskaltzaindiak onartua duen ortografia?

Eta batere beharrik gabe gure ustez, liburu batetik bestera errepikatzen den aitzin solas horrek bazuen beste akatsik, hala nola, Jusef Egiategi XVIII. mendeko ziberotar idazlea, XIX. mendeko lapurtar idazletzat aurkezten delarik; edo —larriago oraino— Jean Etchepare Bidegorry medikua (1877-1935) Argentinako Marchiquitan sortua eta Lapurdiko Kanbon hila, eta Jean Etchepare Landerretche gaztea (1937-1961) Nafarroa Behereko Jatsun sortua eta Lapurdiko Hazparnen hila, nahasten direlarik ( "Euskal Idazleen Sorta Berria", 17-18. orr.).

Alta bada Jon San Martin-ek abisatuak zituen jadanik 1968an, bere irakurleak, "Escritores Euskericos" delakoan zioelarik ongi bereizi behar direla *Buruxkak* eta *Beribilez*-en egilea eta *Mendekoste Gereziak* idatzi duena (op. cit.83. orr.).

Zorigaitzez badirudi gutarik askorentzat, bai Iparraldean bai Hegoaldean, mugaren gainetik emaiten dugun behakoa, gainbegirada bat besterik ez dela. Ez da beraz harritzeko, ildo berari jarraikiz, "Unibertsitateetako irakasle batzuen entseiu" bezala Joseba Arregik iragartzen zizkigun saio zenbait ez baldin bazaizkigu heltzen "Nahikoa"-ren mailara.

Aurkitzen ditugu bai KLASIKOAK sorta berrian aurkezle onak eta bikainak ere, zinez eskertzeko direnak, Josu Pikabearentzat errana dugun bezala: Atseginekin ikusi ditugu, oraingotz 55 liburuki eskaintzen dituen bigarren zerrenda luzean, Koldo Mitxelenaren idazkiekin ontu dizkiguten 10 liburukiak eta Piarres Lafitteerkin Patri Urkizuk borobildu duen ale gotorra.

Asko ikasteko izan eta izanen dukegu Hegoaldeko Txomin Agirre, Mogeldarrak eta beste klasikoentzat, Labayruko adiskideek eta beste zenbaitek prestatu aurkezpenekin, bainan orozgainetik estimatu ditugu, guretzat berriago izanez, Inaki Segurolak antolatu Orixe-ren *Quiton arrebarekin* —nahiz geroztik agertu den Paulo Iztueta-ren lan itzela— eta Andima Ibinagabeitia-rentzat Inigo Ruiz Arzalluzek eskaini edizio bikaina.

Aitortzen dut halere hurbilagotik behatu diegula Iparraldetik, irakurle batzuek, Xarlex Videgainek eta neronek, Iparraldeko idazleentzat egin diren aurkezlanei; eta hortik dator gure kezka eta kexua.

Argi eta garbi hitzeginez, erran dezagun, orain arte agertu diren 16 autoreetarik, gure idurriko, begirune handiz hartu direla - Frantses ortografiako zenbait moldiztegi —huts gora behera— bospasei idazle, hala nola Laphitz (1.z.), Dasconaguerre (39.), Manezaundi (41.), Zalduby (47.), Harispe (60.) Larreko (61 & 62.), edo Chaho (64.).

Beste bizpalau aldiz hainbat ongi erabiliak izan dira, hala nola J.Duvoisin (14.), M. Elissamburu (18. & 58.), J.B. Archu (33.), eta Oxobi 63.).

Baina Jean Barbier (16 & 54.) eta Jean Etchepare (16 & 59.) bederen, menturaz gure bi idazle nagusiak, itsuski purtzupilkatu dizkigute.

Eta zehaztu behar badugu apur bat gure aburua, adibide bat edo beste emanen dugu, onetik bezala txarretik.

**Zorte onekoak: Harispe, Dasconaguerre...**

Zorte ona izan dute gure ustez, Dasconaguerre eta Harispe lapurtarrek, Manezaundi eta Larreko nafartarrek: ezagutzen ditu-

gun euskal literaturaren historia liburuetan nehor gutik aipu dituen arren idazle horiek, Ander Lakarraren, Gurutze Aldabaldetreku eta Amaia Bonetaren ikerlan zehatz eta aberatsei esker badakigu orai hobeki nortsu ziren XIX. mendeko bi idazle lapurtarrak alde batetik, eta bestetik Rosa Miren Pagolaren eta Inaki Caminoren bilketa oparoei esker eskura ditzakegu XX. mendeko bi idazle nafartarren berriak eta idazkiak.

Lapurdiko euskalkiari dagokiola, atsegin dugu ikustea Donibane Ziburun, Camoussarry eta Iratzeder-en arteko hutsarte luze horretan koka dezakegula Jean Pierre Harispe bera (1854-1929) eta haren obra.

Edizio hau agertu arte gure Entziklopedia eta Historia guzietan sakabanaturik eta data okerrez josirik zerabilatena, orai aski ongi ezagut dezakegu bi irakasle gazteen ikerlan serioari esker (Jean Pierre Harispe, *Karmela*, Amaia Boneta eta Gurutze Aldabaldetrekuren edizioa).

Baionan argitaratu diren euskara liburu guzien gatik, eta hiri horretan bizi izan diren euskal idazle guzien gatik, Baionako ume guziak kaskointzat bazauzkaten gaur arte historialari anitzek. Baionan XIX. mendean sortu euskal idazleen zerrendan atseginekin sartuko dugu orai, Pierre Hiriart inspektorearen eta aita Petiri Lhande euskaltzainaren lagun, Jean Baptiste Dasconaguerre; Piarres Lafittek berak ez zekiena, orai Ander Lakarrak ikusi baitigu Baionako artxibategian, hortxe gure auzoan, Prébendés kalonjeen karrikako 10.ean, 1815 eko ekainaren 8 an, goizeko 6 etan, jaio zela delako euskal idazlea (J.B.Dasconaguerre, *Atheka-Gaitzeko Oihartzunak,* Ander Lakarraren edizioa,7. orr.).

**Beste zenbait: Oxobi, Duvoisin...**

Oxobiren *Alegiak eta Poemak* prestatu dituen Ainhoa Beholari ordea ohar bat edo beste egin niezaioke, batere maleziarik gabe.

Lehenik nahi nuke jakin, berak hitzaurrean dioelarik prosa lanak bere lanetik kanpo utzi dituela, "orri kopuru aldetik poesien nahiz alegien antzekoa baita" eta horrela beste lan batetarako gaia gelditzen baitzaio (XII. orr.) —eta hori zuzena iduritzen zait niri— zergatik beraz hemen sartu dituen, 115-132. tartean, prosazko 17 orrialde.

Zergatik bestalde ez dizkigu beren argitaratzeko ordenan aurkeztu, Oxobiren idazlanak, 1913 ko *Boz-oihu! Deiadar! Nigar*-etik, 1944eko *Haur elhe haurrentzat*-arte; alderantziz baizik?

Liburuetarik lekora, *Eskualduna, Gure Herria, Almanaka, Aintzina, Herria, Euskal Erria, La*

*Presse* aldizkarietan —bai eta ere 1920-1923 tartean, J. Elissalde eta J.Saint-Pierre adixkideekin batean, *Euzkadi* Bilboko egunkarian— asko idatzi zuen Oxobik. Eremu zabal horietan egin dituen ikerketei esker, Ainhoa Donostiakoak atera dizkigu 273 orrialdetik 317.era agertzen diren olerkiak. Lan ona hori.

Bizkitartean bilketa horretan *Igela*-ren alegiak ez zuen agertzerik, *Alegiak* liburuan jadanik ikusia baikinuen, bere egitura zuzen edo zuzenduarekin.

Beste olerki ezezagun asko ordea, eskas kausitu dugu edizio berri gotor horretan, *Eskualduna* astekarian Oxobik argitaratu zituenak, 1914eko gerla ondoan: hala nola, *Monge* (1919-IV-25), *Charo apeza* (1919-IX-5), *Behola-ko heriotzea* (sic) (1920-III-12), *Urtearen itzulia* (1926-XI-26), *Sagua eta ilargia* (1927- III- 18). Hasian hasi, hauek behar zizkigun argitaratu Ainhoa Beholak.

Azkenean aitortzen dut Moulier-en hizkuntzari buruz egiten diren oharrak, XIII-XIV. orrialdeetan —orohar liburuan zehar agertzen direnak bezala— zuzenak direla, eta ez da guti, baina esaldi bat maiz ageri da hor, batere gogoko ez dudana: hau da, Behar zen edo Eman beharrean, adierazteko Oxobik darabiltzan forma zenbait ez direla ez euskara batukoak, are gutiago Gipuzkerazkoak, iduri-ta hauek izan zitezkeen, 1958an, (ez Arrangoitzen, hemen gaizki idatzi den bezala), baina Hiriburun zendu eta Itsasun ehortzi zen Iparraldeko idazle handiaren erreferentziak.

Ildo beretik, beste galde bat egin niezaieke, Duvoisin-en *Liburu ederra* paratu diguten hiru lankideei: Baitezpadako ote zen Duvoisin-en lehen argitalpenetik errepikatzea bezperetako salmoek eta himnoek latinez hartzen dituzten hamabi orrialdeak (51-63).

Dena dela aitorturen dut halere latin hori errazkiago jasan dudala, Archu-ren *La Fontainaren alegia berheziak*-en edizio berriaren prestatzaileak, Ricardo Gomez-ek sartu dizkigun frantsesezko oharrak eta eranskinak baino: Latinezko ortografia begirune handirekin zaindu ohi dute alabaina hor gaindiko ikastegi eta moldiztegietan, baina Archuren edizio horretan frantsesezko 83., 130. orrialdeak eta 167. orrialdetik 228.era, orohar 61 orrialde betetzen dituzten hiru eranskinak nahi nuke jakin zergatik argitaratzen diren grafia berri eta mingarri horretan.

Frantsesezko grafia Europa berrian aldatu nahi dutenek abisa gaitzatela arren, frantsesa ahal bezala ikasten urteak iragan ditugunok, ez ditugula behar, orai arte bezala, kontsonante batzuen ondotik H-ak onartu, ez eta ere lerro buruetan bi kontsonante

berdinak elkarretarik bereizi. Eta orduan ulertuko dugu nolaz Euskal Herriko Editoreen Elkarteak idazten duen frantses grafia berrian "L' ortographe" (op.cit. 169. orr.) eta "l' expre-ssion", "correct" (ibid. 168.,169.), orain arte "L' orthographe", "l' expres-sion", "correct" bezala argitaratzen zirenak..

Ez ditut aipatzen jakina, liburuko hitz berri guziak, "laboreur", *laboureur* geneukana edo "laitère", *laitière* zena guretzat; are gutiago beren azentuekin egundainotik frantsesak eta gaztelaniak izan dituzten arazoak.

Ez gaituzte bada asko lagunduko Iparraldeko euskaldunok frantses hizkuntzarekin daramagun gatazka luze honetan, guk euskaraz erran ohi ditugun toki izenak "Euskal Klasikoetan" erdara hotzean sartu dizkiguten Irakasle batzuek: Hor dut adibide tristea, Michel Elissamburu-ren *Lehenagoko Eskualdunak zer ziren* liburuak izan duen edizio berria.

Alta bada idazle beraren beste lan bat *Frantziako hiru Errepubliken ixtorioa laburzki* ohorezki aurkeztua zigun lehenago Gabriel Frailek, I. Olabeagaren erreferentziak emanez (*EGAN* 1959, 142-154. orr.). Baina badirudi aldi honetan Axier Treku eta Inaki Nazabal, edizio berri honen prestatzaileek ez dutela erreferentzia beharrik. Ez dukete ezagutzen, duela aspaldi Euskaltzaindiak argitaratu zuen *Euskal Herriko herri udalen izendegia* (1979). Jakinen zuten bestela frantsesezko Saint-Pierre d'Irube deitzen dugula hemen euskaldun guziek HIRIBURU. Jakin behar lukete ere Dax guretzat AKIZE dela eta Toulouse berriz TOLOSA.

Gehiago oraino bagenuke liburu honen aurkezpenaz erraiteko ez baitezpada gure aurkezleek egin dituzten morfologiari edo sintaxiari buruzko iruzkinez, baina bai liburuan agertzen diren izen batzuez; hala nola, Harispe marexala, Dutey-Harispe haren arreba, Pikasarri-Garat Hazparneko misionesten sortzailea, Alexandre Dumas eta George Sand idazleak beharko ziren, gure iduriko, ohar labur bederaz argitu.

Eta azkenean guretzat etnografiazko dokumentu berezi baten balioa duen idazki honek hartze zuen edizio berriak eskaintzen duen hiztegia berrikus zezan hurbiletik Nafarroa Beherako euskalkia ongi ezagutzen duen batek. Pentsu dut adibidez Emile Larre bezalako batek ez zuela sekulan onartuko idatz zedin 7. orrialdean "etxe aitzinean" = atzean; 9. "Iruten"= ehuten; 12. "Hirritu" = irri; 19. "xokolet prisa"= kikara; edo horrela "souilarda"= landare lur saila; "hobia" = barrunbea; "itxindi"= putzutxo, su geldo; "errefelatu"= errestatu; "eskubila"= eskumutur; eta azkenean "xurikiten egitea", azpiak garbitzea izan zedin egundaino Baigura mendi zolan.

**Alde txar beretik: J.Barbier eta J.Etchepare**

Ez dute zorigaitzez zorte hoberik izan EUSKAL KLASIKOEN sortan Jean Barbier apezak eta Jean Etchepare medikuak.

Jean Barbier-ek, egia erran, izan zuen Eduardo Valencia-ren eskutik maila oneko aurkezpena, *Supazter xokoan* bere liburuarentzat, nahiz estalian berean "sokoan" jarri zioten eta barnean berriz zenbait nahasketa larri sartzen ziren,hala nola "ixkilima" ez dela edozein orratz ahanzten zelarik edo "kabalakina" = artzaina, "xintximariak = estualdia, "liztafinak"= kiskil, zirtzil, "erlastu" = marrantatu eta horrelako ilar zenbait itzurtzera uzten zirenean.

Baina Senpereko erretor zenaren *Piarres* elaberriak ez du zorte bera izan Ramon Sanchezen aurkezpenarekin. Hitzaurreaz ez dugu iruzkin handirik eginen, bizpahiru ohar doi-doia, 21. orrialdean sartzen direnak:

1.ik Gipuzkoarrek darabilaten "-tako" kasu marka, "eliditua dela Iparraldean" idaztea ez zait egoki : araiz beste hitz bat aurki zitekeen.

2.ik Adizkietan, ahalera adierazteko, "-ke" morfemadun adizkiekin batera, "iro" erroa daukaten aditzak erabiltzeko ohitura saltzeko gogorik ez dugula Iparraldean nolazpait jakin-araz nezake, edo niro.

3.ik Grafia kontuan, "frikari eta afrikatu sabaikariak gauzatzeko Iparraldean erabiltzen genituen "ch" eta "tch" aldatzen direlarik —zuzen den bezala— "x" eta tx" ezartzeko Euskaltzaindiaren grafia arauen arabera eta berdin, "p" eta "b" kontsonante aurreko "m" aldatzen delarik, "n" jartzeko, iduritzen zait "h" letraren erabilpenarentzat Euskaltzaindiak eman dituen gomendioak edo arauak ere baliagarri direla Lapurdi eta Nafarroako idazkien argitalpen berri guzientzat. Puntu honetan, ez bakarrik Ramon Sanchez hau baina beste Hegoaldeko aurkezle eta idazle asko herabeegi eta lotsatiegi iduritzen zaizkigu.

Bizkitartean edizio honek dituen akats larrienak hiztegiaren aldetik ditu ene ustez: Badira ezen Barbieren hiztegi aberatsean hitz eta hizkuntza asko beste euskalkientzat arrotz direnak. Horien argitzeko jartzen ohi dira oinazpiko oharrak. Zorigaitzez ohar horiek maizegi edo oker eman dira edo eskas dira: Lehen kapituluan adibidez, (1) "keeta" ez da "adarrez egindako hesia"; (5) "erlastu" ez da "pilatu,nahasi"; (6) "marraka" ez da "animaliek ateratzen duten hotsa"; (12) "beretu" ez da "zorrak ordaindu" . Bigarren kapituluan "Uria jauts ahala" ez da argitzen emanez (1) "uri" = euri eta (2) "jauts" = erori; gero (10) "untzia" nola da "zama" eta (11) "berhoa"

nola ote "ereindako soroa" edo (19) "xipatu", guk "xipa" arraina bezala busti adierazten duena, hemen "urdaiazpikoa" bilakatu? 32. orrialdera helduak baikara honekin, gogoan hartu behar da 190 orrialde badituela argitalpen berri honek salda beretik. Gaizo Piarres! eta gaizo gu irakurleak!

Jean Etchepare medikuari KLASIKOAK sortan gertatu zaion "destorbûa" ziberotarrek dioten bezala, ez da berdina: argitaratu dizkioten bi liburuak *Beribilez* eta *Buruxkak,* 17. eta 59. zenbakiekin, hiztegigintzan ofizioz diharduten bi andereen eskuetara erori direla uste dut: Maria Jose Kerejeta-ren eskuetara lehena eta Isabel Arrigain-enetara bigarrena.

Alde horretatik beraz, egileak berak bere hiztegiaren argitzeko jarriak zituen oharrei eratxiki zaizkienak zuzen emanak dira, gutiz gehienak; nahiz "kukulauka" eta "kukulaukari" hitzek ez duten deus ikustekorik "kukula"-rekin, "kukutu" edo ezkutu hitzarekin baizik; "kukuka" diharduten umeak baitira guretzat "kukulauka jostatzen edo jolasten. Edo oraino "latsarria" ez da edozein " harribil", "harri laban edo leun", errekako edo latsako latsagian latsariek behar duten harri berezia, beren xuriketak egiteko.

*Beribilez*-eko huts horien, eta beste batzuen, errepikatzeak *Buruxkak*-en edizioan ez ditu zuzentzen huts horiek. Bestalde azken liburu honen 42. orrialdean Larresoroko *eskolemaile ohiez* mintzo zelarik jatorrizko testua, ez dut ikusten zergatik aurkezleak "eskolemaile hoier" sartzen duen, batere funtsik gabe.

Dena dela, gure ustez larriago dira prestatzaileek egin dituzten beste huts batzu: egilearen bizitzaz eta idazlanaz emaiten diren datu eta iruzkin okerrak; gezur horiek baitute gero bide eginen ikasleen gogo bihotzetan. Ez nuke ene solasa gehiegi luzatu nahi, bainan ez nagoke hemen —nehork ez baldin badu ene hitza ez sinesten ez entzuten ere— bizpalau pundu zehaztu gabe:

1.ik: Jean Etchepare Bidegorry 1877an sortu zen Argentina-ko Marchiquita hirian ez Buenos Aires-en: nahiz sorterri hori Buenos Aires-eko probintzian izan, hiri nagusitik zenbait ehun kilometrotan aurkitzen da Marchiquita.

2.ik Jean Etchepare medikua Alduden kokatu zen 1905ean, baina Aldudetik Kanbora etorri zen 1930ean, eta 1935ean Kanbon zen hil eta ehortzi; ez Alduden, KLASIKOAK sortan errepikatzen den bezala.

3.ik *Buruxkak*-en artikuluak ESKUALDUNA berrikarian argitaratuak ziren gehienak, egileak berak lehen orrialdean aitortzen duenez , baina ez hogoita seiak, aurkezleak idazten duen bezala (op. cit. VIII). Artikulu batzu osoki

berriak ziren , hala nola "Ameriketako oroitzapenak", "Pilota partida", "Bi gogoeta", " Nor eskola emaile.Zer irakats?", "Amodioa". Eta beste zenbait, astekariaren zuzendariak, Manex Hiriart-Urruty-k berak, komentatuak zituen lehen agertaldian: hala nola "Sainduaren errangurak"; Lekuine-ko berrietan agertua zen lehen aldikotz eta ondotik zetorren KITO sinaturik, apezak medikuari botatzen zion errefera bipila, 1903ko ekainaren 12ko zenbakian.

4.ik *Beribilez* liburua aski hurbiletik irakurtzen delarik eta bereziki VIII. kapitulua LOYOLAN deitzen dena, ez da eskubiderik, argitalpen berri honen paratzaileak idazten duen bezala idazteko: "Idazlan honetan agertzen den ikuspegi pertsonalak nabarmentzen diren zenbait ezaugarri ditu —hainbestetaraino non konbentzionaltasunera iristen baitira— hala nola katolikotasun kutsu ageria, bere gaztaroko artikuluren bateko jarreratik urrun xamar geratzen dena, edota bere abertzaletasun nabarmen eta tradizio zaharren gordetzailea" (op.cit. b23. orr.).

Ez da ezen egia, Etcheparek azken urteetan, hots, *Beribilez*-en, uko egin ziola bere gaztaroko agnostizismoari, ez eta ere egia, abertzale bilakatu zela.

"Aberria" zer zen harentzat badakigu ongi, 1923ko maiatzaren 13an Aldudeko oroitarriaren aitzinean egin mintzaldia irakurriz geroztik: "Arbasoen lurra guretzat lehenik Euskal Herria; bainan Euskal Herria, bere niminoan eratxikia izan denaz geroz eta aspalditik Frantziari, gure aberria hedatzen da Euskal Herriko zedarrietarik, hartzen duela Frantzia garaitikoaren eremua" (P.Charritton, "Jean Etchepare mirikuaren idazlanak" IV, 258. orr.).

Eta sinestezko gai minberetan ikasi baldin bazuen ere gure medikuak bere sakoneko arrengurak poliki beztitzen, ez zituen horrengatik sekula ukatzen. Piarres Lafitten begi zorrotzak bazekien horren berri eta laster ikusi zuen nola euskal idazleak Loiolako jesuita gazte baten aho mihitan jartzen zituen abilki bere duda-muda propioak. Egileak berak idatzi zion bezala, "zaku handia" zuela liburu berriak ikusia zuen Piarres Lafittek. Zaku hori ez du jakin zorigaitzez ontsa miatzen argitalpen berriaren paratzaileak. Eta ez dezala uste izan, Jon Juaristi -ren laguntza baliagarri dukeela lan horrentzat!

Azkenean auzi hau zuritu nahiko duenak irakur bitza, Piarres Lafitte zenaren paperetan aurkiturik orai argitaratuak diren Jean Etcheparek berak Piarres Lafitte-ri idatzi gutunak, eta bereziki 1931-1932koak; hitz hauek adibidez: "Orduko nere ideez bezenbatean halaber (*Buruxkak*-ekoez jakina), nizan adinean (hots, *Beribilez* ar-

gitaratzean) ene liburu hartan ez dut aurkitzen bat higuindu zaitanik" (*Memoriae L.Mitxelena Magistri Sacrum*, G.F.A. Donostia, 1991, 599-602. orr.).

Honetan uzten dut ene bergario luzea, agian hemengo ohar bat edo beste baliagarri dakiokeelakoan sorta honetan agertzen den obra bat edo besteri zuzenketa zerbait egin nahi dionari. Dena den eta beste justifikapenik behar banu, bururatzeko erran niro, —barka ausartzia!—: "Amicus Plato magis amica Veritas", Egia maiteago Platon bera baino.

SORKUNTZA



# OLERKIAK

## BIDE LARRIAREN POEMA

Zein une da, Jauna,
zoli izan zakida,
noraezin honek
nolako segida?

Txirla hondarrean
—hondar bero beltzean—
estalita kiskalbeharrez
dagoen antzean,
nik ere halan fedea
barneko barnean,
hondar ezkutu, ixil,
argigabean.

Zein bidetan zabiltz, Jauna,
zein ilundian,
fedebidez nik aurkitzeko
ez bazara, agian?

Ah, aspaldiko fede,
duda larrien kate,
bide honen joanean,
-ezinbestean-
zurekin nahi hase,
une hobeen zale.

Zein une da, Jauna,
adi izan zakida,
noraezin honek
nolako segida?

Fedearen duda-mailu
Jainkoa non aurkitu,
deusik ez ote den,
ze pentsamendu!
Ezaren oihua
noiz-noiz aitzurka
(dena gezur da)...
Korapiloa nolatan
eskatu.
Ze pentsamendu!

Txirla hondarrean
—hondar bero beltzean—
estalita kiskalbeharrez
dagoen antzean,
nik ere halan fedea
barneko barnean,
hondar ezkutu ixil,
argigabean...

Zergatik dudak
halan nau ukitzen,
zergatik egunak
gau hotzez bildurtzen?
Tamarizen ondoan,
serios eta luze, luze,
—leherbera, argal,
bilutsik eta zapal—
arima dut etzanda
herio eusle
Lurrean ez da mugidarik,
arnasik ez,
hotsik ere ez,
ez kezka
ez dardarrik...
Zergatik nik gaua,
zergatik, esan Jauna?

Zure handitasuna
kezka larritan
nauzu bila,
zure zurearen larria
uki nahiaz nabila.
Ondotik noakizu,
ondotik urduri ta itsu,
oro dut laino,
oro dut lanbro,
nork garbituko
nere naspila?.

Tristura dut eta duda
barneko
ta kanpoko
fede mindura,
non jadanik
lehendiko
argi hura?

Zergatik dudak nau
halan ukitzen,
zergatik eguna
gau hotz bihurtzen...?

Eztabaiden mailua
noiztik dut zanpari,
noiztik galdera
gaiztoen ordua?
Zergatik, zergatik...
(Deus ez dakit)
Fedea istantearen zauri,
egon nadin ixilik...

Bide honen joanean
betirako ote dut
noraezaren samina,
betirako ezjakina...?

Ah, ustegabean,
olatuak desestaliko du
hondarrean txirla,
gauaren estalkia
fede berriak hautsiko!
Jainko handiaren argia
hondar humilean
berriz suspertuko.

Ah, fede, fedea,
lehengo argi
nik ohar gabea,
Olatu garbi, gaztea,
orain iritxia...
Fedea, fedea,
berriz! ernea...!

*Ibaiertz*

## ZUEK EZ DAKIZUE EZER

Zuek ez dakizue poesiarako lehiketako
letretan galduta ibiltzea zer den
egon gelako aulkian eserita ezin egotea
ixilik eta zerbait esan nahi
zuek ez dakizue ezer; gustorik ez duzue; atsedena alferrikako
gauzetarako hartzen duzue.

Antsia
Betiko
Aresia
Gora
Nere
Poesia

### IRAILAK 9

Gaur egin zait ona
bihurtu dut nere ama
izan dezagun
bihar ere elkar eraikitzeko porlana
izan dezagun elkarganatzen lana
horretarako ikusten dut benetako premia
eta daukat hori lortzeko antsia
norbait apurtu dezadan
antsia
antsia dut hitza bera idaztean
eta bustita kopetea
eta izardia besapean

Gorapiloa dut eztarrian
ezin askatu zaidana
hori izango da dana
hortan eta hori suertatzen dut bihar ere lana.

## ARRAZOI HAU ESANIK ERE

Arrazoi hau esanik ere
apur bat ibilka ibilka nabilen bat naizela
nabilelarik
ez dudala:
bide nekagarrirk
baloraziorik balorazio ekiteko
oihuminka ibilia den bat
eta aiezka aitortzen dut

Ezin dezakedela besterik desira
ezin dezaket besterik pentsa
hau bai da azken finean
nere hitza
nere funtsa
nere ekite bortitza
nere lurra
nere gozamenaren galurra.

Gaixorik nago
lotorduak harri bihurtu zaizkit
posible ahal da
hau duk harria
makinea behar eta ezin lortu
zuek ez dakizue ezer

Ondakinak bota
ondakinak egin
makinea falta
lehengo lotorduak faltan bota
burua harri eduki
zuek ez dakizue ezer
pazientzia behar duzue; dugu; dut...

## AITORTZEN DUT

Aitortzen dut gaur ez dudala bide argirik ikusten
aitortzen dut
ene azken bideko helburu deusetatik
banetorkeela goiz asko
aitortzen dut baietan eta ezetan banabilela
beste biderik ezean badudala ezaren zentzu ertsia
aitortu nahi diot nahi duenari jakin
    ez dudala ametsik
    ez dudala letrarik inon aitortzeko
une batzutan ezezik:
    ez dudala izaten inolako ametsik
    ez dudala intentzio txarrik
    ez dudala amesteko leku atseginik
    ez dudala zentzurik aisa galduko

Aitortzen dut:
Dudanaren ondotik nabilen poeta neurri gabe bat naizela
bide nekeza dudanetik ahalegintzen naizela
gaur aitortu dudanaren berri goizean goiz ere berdin eta
[milaka aldiz
gauzatzeko gauza nintzatekeela

*Koldo Zubeldia*

# LARRIALDIAK

## EKITALDI BAKARREKO ANTZERKIA

XABIER MENDIGUREN

*Dramatis personae:* GIZONA
AGUREA
AMA
SEMEA
MEDIKUA
ARIZAINA
GAIXOA
POLIZIAK

Noizik eta behin batetik bestera pasatzen direnak; batzuk eta besteak trukagarri, jantziak aldatuz gero; gutxienez lau

# LARRIALDIAK

*Ilunpean, sirena hotsa entzuten dugu aldi luze samar batez: anbulantziena hasieran, poliziena ostean eta anbulantziena berriz ere. Oihala zabaldu edo taulagaina argitu ahala, obra osoan ikusiko dugun eskenategia ageria zaigu: Ospitale bateko Larrialdi zerbitzuko itxaron gela. Kolore argiak ditu: txuria eta beigea, adibidez; garbi eta aseptiko, baina aldi berean ez da bat ere atsegin: berotasuna falta zaio, eta dekorazioaren biluztasuna aspergarri gertatzen da. Paretetan ez erretzeko, isilik egoteko eta antzekoak aholkatzen dituzten afitxak, eta zenbait gaitzen kontrako prebentzioari buruzkoak ere bai —esate baterako, haurdunentzat, diabetikoentzat, arrabiaren aurkakoak, gripea dutenentzat, transplanteak egin nahi dituztenentzat edo gisa horretakoak—. Erloju haundi bat ere bai, leku nabarmenean. Gela, gustorik gabe atondua. Hiru ate ditu: ezkerrean ospitale barnerakoa, eskuinean kanporakoa —biak ere bi orritakoak, bultzatu ahala zabaltzen direnetakoak—, parean beste bat, komunekoa; ezker-eskuinak, ikuslearenak; hirurak marroiak baina tonu diferentetakoak izan daitezke; eskaizko aulkiak itsusi samarrak eta beste kolore batekoak, ez gogorregi ez erosoegi. Neoizko argi artifizial ahul samarra.*

*Oihala zabaltzean aulki batean eserita AGUREA ageri da: xahar eta argala; egun bateko bixar zuritua; kaleko arroparen gainean pijama bat duela, bufandatan ondo bildua, etxeko zapatilez jantzia. Aulki azpian xorro eta poltsa batzuk. Batetik gauzak atera eta bestean sartu arituko da puska batean, marmar ulerkaitz batean ari den bitartean. Gauza hauek bitxi eta denetarikoak izan behar dute: urdaiazpiko hezurra, bizikletaren manilarra, erregatzeko tramankulua...*

*Dagoen aulkitik altxatu eta tirriki-tarraka erloju pareraino iristen da AGUREA. Hari begira, eskumuturrari eusten dio, eta bere artean bezala baina entzuteko moduan kontatzen hasten da: bat, bi, hiru, lau... Hogei inguruan edo trabatu egiten da, nahastu berriro hasi.*

*Horretan ari dela, kanpoko atetik —eskuinetik—, adoretsu eta ia ia korrika, GIZONA sartzen da: praka bakeroak, kazadora marroia, alkondara berdea, hogeitamar bat urtetakoa. Alde guztietara begira, atzekaldera batipat. Ate kantoian geratzen da, kanpoaldera zelatan, eta gero beste aterantz abiatzen da. Bidean AGUREA ikusten du eta haren alboan geratzen da; hitz egin nahi dio baina haren kontzentrazioa ikusten duenez zalantzan geratzen da. AGUREAk begiratzen duen erlojurantz begiratzen du berak ere, eta ondoren bere eskumuturrekoari.*

GIZONA. - Bi minutu aurreratuta dago.

*(AGUREA, bere kontaketa etenda, izututa geratzen da une batez, ustekabeko oihu bat eginez)*

GIZONA. - Bi minutu aurretatuta dagoela; hor hogeitalau gutxi dira eta nere erlojuan berriz hogeitasei gutxi.

AGUREA. - (*Haserre, besoak, altxatuta*). Kaka zaharra zu eta zure erlojuarentzat.

GIZONA. - Aizu, Zitizen bat da, kuartzozkoa. (*Begiratu egiten dio erlojuari*) Joan den urteko eguberritan oparitu zidaten eta...

AGUREA. - Kaka zaharra! Ni pultsazioak kontatzen ari nintzen.

GIZONA. - A! Ez nekien, barkatu... Bueno, banoa e... (*ezkerreko aterantz erdi zelatan*)

AGUREA. - (*jenio biziz oraindik ere*) Nora zoaz hortik?

GIZONA. - Bueno, ba, nik... zera, ba, bueno... Ea zeratzen didaten zerako zera hau eta...

AGUREA. - Ate horretatik medikuek deitutakoan bakarrik sartu zaitezke.

GIZONA. - A, bai, bueno. Ni ere, ni ere medikuarengana noa, ea nere...

AGUREA. - Eta zer uste duzu: hola, besterik gabe hartuko zaituztela ala?

GIZONA. - Bueno, ez dakit baina, hau zera (*kanpoko aterantz begira*)... larrialdi zerbitzua da, ezta?

AGUREA. - Eta? Ba al dakizu zenbat denbora daramadan nik hemen, medikuak hartu zain? E, ba al dakizu?

GIZONA. - Ez, ez.

AGUREA. - Bada... (*atzamarrez kontaketan hasiz, trabatu eta berriro ekinez*) Esto... bi,... hiru... bost! Hori da: bost!

GIZONA. - Ordu?

AGUREA. - Eez!

GIZONA. - (*gero eta harrituago*) Egun?

AGUREA. - (*gero eta ozenkiago*) Eeeez!

GIZONA. - Aste?

AGUREA. - Ez motell, ez: urteak, urteak! Eta gainera ez dakit beste bost, sei ala zazpi beharko ditudan oraindik ere. (*Bapatean harrotasunetik tristeziara pasatuz*). Nola kalendarioak ere urtebetekoak bakarrik dire... (*Paretan zintzilikatutako Arantzazuko egutegitik orri bat kenduaz*).

GIZONA. - Baina... nola liteke? No-non egiten duzu lo, eta jan, eta...?

AGUREA. - (*berriz ere pozik*) Hementxe, hementxe! Otorduak erizainek ekartzen dizkidate. Ez da oso ugaria gizasemearentzat baina tira, gaixoak gutxi jan behar omen du eta... Lastima ardorik ez digutela ematen... (*Pikardi keinuz*) Ez dakite ordea, nik badudala botila bat gordean... (*arropa artetik ateratzen du erdi betetako botila txikia eta GIZONAri eskaintzen*) Nahi duzu?

GIZONA. - (*aldian aldian kanpoko aterantz begira*) Ez, ez, eskerrik asko... (*zigarro-paketea ateratzen du poltsikotik*)

AGUREA. - Zuretzat kalte! (*zurrutada luzea egiten du*) A! Ederra...!

GIZONA. - (*zigarro bat ahoan, paketea luzatuz*) Nahi duzu?

AGUREA. - (*haserre*) Ez; eta zuk ere ez duzu erreko. (*Zigarraroa kentzen dio ahotik, lurrera bota eta zapaldu*) Ez al duzu ikusten debekatua dagoela? (*Paretakoa seinalatuz*)

GIZONA. - (*harri eta zur*) Ba-barkatu. Nola zuk ere ardoa...

AGUREA. - (*pozik*) Ardoa ez dute debekatzen gizona! Erakutsiko al dizut lo non egiten dudan? (*GIZONAk sorbaldak altxatuz*) Begira (*bainugelako atea zabalduaz*), hementxe. Nahi al duzu ikusi?

GIZONA. - Ez, ez, ez, eskerrik asko...

*(Polizi sirena hotsa aditzen da)*

AGUREA. - Bai, gizona: hortxe, baineran egoten naiz. Orain dauden lore guztiak kenduta noski. Etorri barrura!

GIZONA. - Ez, ez, lasai! (*Sirena aditu duenetik urduri hasi da mugitzen, ate baterantz, besterantz, noraezean... Kanpora begiratu ostean larrituago*) Bai, bai, goazen berehala ikustera.

*(GIZONAK AGUREAri bultz egin eta biak sartzen dira bainugelan atea itxiz)*

AGUREA. - Aizu baina zer zabiltza bultzaka...!?

*(Une horretan, bainugelako atea itxi bezain laster kanpokoa zabaltzen da indarrez eta lau POLIZIA sartzen dira, baten bat estrapuzuka, denak armaz josirik)*

POLIZIA A. - Ziur al zaude honantz zetorrela?

POLIZIA B. - Hala iruditu zait...

POLIZIA C. - Orduan eman egin diogu, zaurituta egongo da.

POLIZIA A. - Hemen ez dago odol-arrastorik ba. Goazen hemendik, bestela ihes egingo digu eta.

POLIZIA D. - Goazen...

*(Sartu diren bezain zalapartatsu irteten dira, eta orduantxe indarka bezala ateratzen da AGUREA bainugelatik; atzetik GIZONA)*

AGUREA. - (*Asaldaturik*) Zoratuta zaude ala?

GIZONA. - Bueno, ni...

AGUREA. - Zergatik itxi didazu ahoa barruan geundela?

GIZONA. - Barkatu... Zera, klaustrofobia pixka bat daukat eta.

AGUREA. - Nola esan duzu? Kalo zer...?

GIZONA. - Klaustrofobia, toki itxian nagoenean halako estualdi bat izaten dut eta...

AGUREA. - (*bere artean*) Klaus-tro-fo-bi-a... Hori ez dut ba nik inoiz izan; (*GIZONAri)* apuntatu egin behar dut, nik ere hurrengo batean akaso...

GIZONA. - Zer? (*kanpoko atera berriro begira joaten dela*)

AGUREA. - Hainbeste gaitz eta arrisku izaten dira hemen...

GIZONA. - (*bere atean, jaramon handirik egin gabe*) Gaitz asko izan al dituzu ba?

AGUREA. - (*gustoko gaia aipatu diotela ezagun duela*) Uiiii! Kontatzen hasi eta ezin bukatu ahalakoak... Eseri, eseri lasai. Edo bestela... (*pentsakor; erlojuari begira*). Bai, hobe izango dut orain landareei ura botatzea. Zatoz, zatoz laguntzera...

*(Bainugelatik itxarongelara lorepoteak ateratzen arituko dira biak, AGUREA buru eta bestea laguntzaile, patxadaz AGUREA, bereak kontatzen dituen bitartean)*

AGUREA. - Lehenengo... Zer izan nuen nik lehenengo? A, bai bihotzekoak jota ekarri ninduten, baina zorionez, hemen zain nengoela pasa egin zitzaidan. Kontuz jeranio horrekin, oso delikatua da eta. Ondoren, etxeko girotik urruntzeak kalte egingo zidan eta, zera, kolitisa izan nuen. Gaizki pasatu nuen gero, ikaragarri gaizki. Egun osoan komunetik atera gabe. Horrela hasi nintzen denbora pasa landareekin-eta; eta, aizu, ongarri espeziala zera zela deskubritu ere bai, zer uste duzu? (*GIZONAK nazka-keinu nabarmena egin eta eskutan duen potea erortzen uzten du ia*). Epa! Argi ibili, nere tulipana bota gabe! Baina, hura ere sendatu zen. Hurrena

berriz, apendizitis punttu bat ote neukan iruditu zitzaidan. Bazkalondoan batez ere, halako ziztada moduko bat sumatzen nuen sabel aldean, hemen; ikutu, ikutu beldurrik gabe. Hor ez, ezkerrarexeago, beheraxeago, hementxe, ikusten? Hor ba, halako min xor bat, handi-handia ere ez baina, halakoei aurretik kontu egitea komeni da, badakizu, bestela gaiztotu, okerragotu eta ez dira sekulan sendatzen eta. Pasaidazu krabelin hori, hementxe jartzeko... eskerrik asko. Gero, zer izar nuen nik gero...? Hepatitisa edo herpesa edo... Denak bata bestearen atzean izan nituen eta. Txarrak, e, txarrak oso. Hepatitisarekin badakizu nola jartzen zaren, dena hori-horia, ezertarako indarrik ez daukazula... Drogazaleren batek pasa zidan neri hura, hemendik hainbeste pasatzen dira eta. Sida ditxosozko hori ere ez dakit nola ez dudan oraindik harrapatu. Beharbada bai, probak egiteko eskatu beharko dut. Zer egiten duzu hor geldirik? Emaidazu arrosa hori erori baino lehen... Zertan ginen? A bai, hepatitisa eta gero herpesa nola izan nuen. Hura berriz, ikaragarria izan zen: bizkarreko azal guztia altxata, zainak bizi-bizian... Mina! ? Hura bai zela mina. Ikutu, ikutu hemen bizkarrean (*GIZONAk ez du nahi baina ikutu egiten du azkenik*). Kontajiatzeko oso erraza gainera (*eskua beldurrez erretiratzen du GIZONAk*). Baina ez izan beldurrik, pasa zitzaidan eta. Dena pasatzen da hemen, eta dena etorri: atzetik ere izan nituen beste batzuk. Kolesterola dela, gripea dela... Bueno, gripea urtero noski, hala behar du eta; baina txertoekin eta antibiotikoekin ederki gobernatzen naiz. Okerragoa izan zen diabetesarekin egon nintzen bolada. Insulina zela, makina zaharrak zirela... Azkar asko ikusi nuen hura ez zela neretzako modukoa. Itxoin, pote hori ez zazu hor jarri, hemen hobeto dago... holaxe. Azken aldian berriz, haginak dauzkat gaizki, eta aho osoan egundoko infekzioa. Pentsa zer den gero, hortz guztiak postizoak ditut eta hala ere hagineko minez. Nahi al duzu ikusi...?

GIZONA. - Ez, ez... eskerrik asko.

AGUREA. - Begira beldurrik gabe (*ahoa zabalik segitzen du*), zauriak agerian, zornea eta guzti.

*(AGUREA ahozabalik geratzen da; une berean kanpoko ateaz bestalde sirena-hotsa edo zer edo zer sumatu duen GIZONA ziztu bizian bainugelan sartu, bata zuri*

*batez jantzita atera eta AGUREAren ahoan miaka hasten da. Orduantxe POLIZIAK sartzen dira berriro, lehen baino iskanbilatsuago)*

POLIZIA A. - Hemen izan behar du.

POLIZIA C. - Kanpoan ez da ageri behintzat.

POLIZIA B. - Bazter guztiak miatu behar ditugu.

POLIZIA D. - Hori, hori... (*Bazter guztiak nahasten hasten direla*) Eta landare horiek, landare horiek... lehen ez zeuden hor...

*(Miaketa lanetan, dena goitik behera behatzen —gehiegi hankazgoratu gabe oraingoz—, hizketan ari diren bitartean:*

— Begira ezak hor.
— Hemen ez zegok ezer.
— Kabroi hori non sartu ote duk.

*e. a. Aulki azpi, txoko, komun eta guzti arakatzen ari direla, GIZONAk ahoa zabalik izatera behartzen du AGUREA, ondo helduta, eta honek besoak eragiten ditu, askatu nahian edo).*

POLIZIA A. - Aizu, doktore, ez zenuen ba hemen gizon gazte bat sartzen ikusiko?

GIZONA. - (*bere lanean murgildurik bezala*) Mmm?

POLIZIA B. - Gizon gazte bat... Praka bakeroak ditu, kazadora marroia eta alkondara berdea...

GIZONA. - Ez, nik ez dut inor sartzen ikusi (*bere lanean beti ere*)

POLIZIA D. - (*denbora osoan lorepoto azpietan miaka aritua*) Eta loreak, e? Nork ekarri ditu hona lore guzti horiek...?

POLIZIA C. - (*bere lankideari kasurik egin gabe, uneoro keinuak egiten bezala ari den AGURE ahozabaldua seinalatuz*) Eta zertan ari da tipo hau?

GIZONA. - (*ahoari eutsita, barrenera miaka*) Zauri gaizto bat du aho barrenean, oso kutsakorra, sida ez ote daukan ari da esaten bera...

*(Hurbildik begira zeuden POLIZIAK baztertu egiten dira, izututa)*

POLIZIA A. - Tira, goazen barrura, hor nonbait ezkutaturik egon behar du eta.

POLIZIA C. - Bai, bai, goazen.

POLIZIA A. - Bakoitza pisu batera, dena azkar miatzeko.

POLIZIA D. - Nik loreen arrastoari segituko diot.

POLIZIA A. - Eta susmagarririk ikusiz gero tiro egin.

POLIZIA B. - Eta gero galdetu.

*(Barruranzko atetik desagertzen dira POLIZIAK eta GIZONAk AGUREAren ahoa askatzen du)*

AGUREA. - (*haserre, itolarrian*) Zoratuta zaude ala? Ia ia ito nauzu!!

GIZONA. - Barkatu... ni ahora begira ari nintzen eta...

AGUREA. - Eta berriro ere kla-kla-klaus... (*Trabatuta geratzen da*)

GIZONA. - Esan dizut sentitzen dudala eta... Beno, ni banoa, agur...

AGUREA. - (*bata muturretik heltzen diola*) Nora hoa gero?

GIZONA. - Banoala! (*Kanporantz, eginahalean*)

AGUREA. - Eta klastro... kostra... Medikuek ez haute ikusi eta! Ba al dakik zer daukaan?

GIZONA. - Beno, nik, zera... Zereko zerean halako zer bat...

AGUREA. - A...! Eta zer hori ea zeretik zertzen diaten etorriko hintzen?

GIZONA. - Bai, baina honez gero zerik ez zait zertzen eta zera... banoala. (*Indarrez askatu da azkenik*)

AGUREA. - (*GIZONA askatzean tiradizoaren indarrez atzerantz erori da eta orduan bapatean gogortuz*) Klaustrofobia! Klaustrofobia! Klaustrofobia!

*(GIZONAk kanpoko atea zabaltzen duenean AMA eta SEMEA hasten dira sartzen eta atean jarrita ez diote utziko irteten. AMA berrogaitamar urte ingurukoa izan liteke. Gizena, zarpaila eta ero samarra, histerikoa. Jazkera eta orrazkera zabarrak, xehetasun barregarriren batekin, eta poltsa haundia besapean. Batetik bestera, trapua bailitzan darabil SEMEA. Hau hogei bat urtekoa izan daiteke, inozo eta gizarajoa, bizkarra okertuta, oinak arrastaka eta begirada galduta dabilena. Atake epileptikoak ditu; ez du hitzik egiten, eztarri-soinuak baizik)*

AMA. - (*arrapaladan hitzeginez*) Ai, doktore, hau zoritxarra, hau bai desgrazi haundia, hau harria zerutik erori zaiguna. Seme hau, seme gizarajo hau, ikusten nere semea? (*SEMEAri bapatean, doinua aldatuz*) Hire aitak egina behar huen hik bai, malapartatu horrek... Zoritxarra eta disgustua besterik ez digu ekartzen seme honek, doktore...

GIZONA. - (*AMAren hitz zaparradaren artean ahoa zabaltzea ozta-ozta*

*lortzen duela*) Barkatu andrea, baina ni ez naiz medikua eta banoa...

AMA. - (*paparretik helduta ez dio GIZONAri joaten uzten*) Ez zarela medikua, ez zarela? Izango ez zara ba... Hau ez al da ba ospitalea?, ez al da hau larrialdietarako gela? ez al zaude zu medikuz jantzita?

GIZONA. - Bai, baina...

AMA. - (*etengabe berean*) Begira ba, nere seme hau, nerea nola den ere ez dakidan hau, gaixoa da, gixaixoa esango nuke eta zera, halako atake batzuk izaten ditu, ikaragarriak gero, e, ikaragarriak, eta nik ez dakit zer egin honez gero. Orain normal xamar dago, (SEMEAri) Hago tente!, baina lehenago, lehentxeago txoro moduan jarri da etxean, platerak, basoak, zirenak eta ez zirenak txikitu beharrean... Eta guztia badakizu zergatik? Kafesne zopak jarri beharrean Colacao eman diodalako gosaltzeko. (SEMEAri) Bai, bai, orain zintzo-aurpegia jar zak, baina alu galanta egina hago hi, lotsagabea! Pixka bat bizkortzen ote zen edo jakin nahi nuen nik. Bere aitak ere kafesne zopak gosaltzen bait ditu eta hura ere, a ze alea. Txorixotarako bai, balioko luke, gerrialdean dituen urdai guztiak aprobetxatuz gero. Harekin ez dago erremediorik ordea, eta apaizak ezkondu gintuenez aurrera segi behar. Baina seme inozo honekin zereginik ote dagoen edo jakitera nator, indizioren batzuk emanda edo (hori entzutean aztoratu den SEMEAri) Hi egon hadi isilik, hire on beharrez ari nauk eta! Ez pentsa lehenengo aldiz gatozenik medikuarenera. Lehen ere izana naiz, majina bat aldiz, eta don Fernandok... ezagutuko duzu don Fernando, gure medikua, kalboxo potzolo bat, ezagutuko ez duzu ba!... Ba, don Fernandok beti esaten zigun ez zegoela zereginik, gauza hauek hala datozela jaiotzetik Jainkoak hala nahi izan duelako eta egonarriz eramatea beste erremediorik ez dagoela. Emango nioke gustora holako bat Jainkoari, ea nolako egonarriz eramaten duen. Eta senarra ere bai, lote berean. A ze trinidadea osatuko luketen. Hori esaten du gure medikuak baina nik ondo ezagutzen dut don Fernando, pieza ederra hori ere, nere senarraren antzeko gibelaundia; dirua izango du, barra-barrra, baina hori ere ez nuke nik hartuko ezta... Ez da harritzekoa mutilzahar geldtzea. Esaten nizun bezala ba, don Fernando hau gibelaundi galanta, pentsa zer gertatu zitzaion behin gure Kristinari, alabari. Joan zen ba alaba, tripako minez zegoela eta don Fernando

honengana eta honek ez zion ba esan pikardiazko irribarrez haurdun ote zegoen. Gure etxean halakorik!? Gure Kristina beti hain neska zintzoa, formala, serioa... nobiorik ere ez du eta! Eta hala, neska gaixoa estu eta larri etorri zen etxera, eta beldurraren beldurrez ez zuen hitzik ere egin nahi. Hobe zuen gainera, jakitera txiki-txiki eginda utziko nuen eta. Baina hark hitzik ere ez, lotsatuta edo, eta minari eutsiz. Eta hurrengo gauean hasi da gaixoa garraxika, oihu batean, eraman dugu ospitalera eta hara: peritonitisa zeukala. Ia ia bidean hil zen, gorriak ikusi eta gero. Gorriak ikusi beharko zituen orduan don Fernandok ere, eta barkatu atrebentzia laguna baldin baduzu, baina senarraren ehizarako eskupeta hartu eta sabel parean tirako nizkion bi tiro: pum pum!

*(AMA ate parean egon da denbora guzti horretan, handik edo hemendik atera nahian ari den GIZONAri zirrikiturik utzi gabe, eta SEMEA eta AGUREA bitartean elkarren ondoan, elkarri begira, keinuka eta halako txorakeriak eginez, batak egiten duena besteak errepikatuz eta abar. AMAk "pum pum" esan bezain laster metraileta hotsa entzuten da rata-ta- ta-ta-ta-ta-ta-ta-ta, ondoren garrasi ugari eta atzetik metrailetakada gehiago. Itxaron-gelakoak geldi eta isilik geratu dira une labur batez eta berehala GIZONA aldegiten saiatzen da, baina tiroen eraginez SEMEAk atake epileptikoa izan du eta AMAk semeagana bultzatzen ditu GIZONA eta AGUREA)*

AMA. - (*oihuka, histeriaz*) Al ene!, Ai ene, nere seme gaixoa, nere seme maitea, zer egin dizute? Senda ezazue, sendatu, askatu alkondara, eutsi besoetatik, jarri zapi bat ahoan, ez utzi mugitzen, nere seme gaixoa, zer egin diozue? Eutsi, ekarri ura, ura, ura!, eutsi gogor. (*GIZONAri*) Baina, ze mediku klase zara zu? Ez al duzu ikusten...?

GIZONA. - (*oihuka hau ere*) Esan ez dizut ba ez naizela medikua?!!

AMA. - Ez zarela...? Eta ser ari zara orduan nere semearekin? Alde, alde hemendik! Mediku bat, mediku bat behar dugu , medikua!!!

*(AMA oihuka altxatu eta barruko aterantz doa; zabaltzekotan dagoenean, bapatean sartzen dira bertatik MEDIKU- ERIZAIN-GAIXOA, ohatilarekin, suero eta odol botilak kableak eta bestelako tramankuluak zintzilik. Talde honen sartu irtenaldi guztiak iskanbilatsuak izango dira beti, denak aldi berean hizketan eta oihuka ari direla:*

— Utzi tokia!
— Kendu paretik!
— Gaixo bat daramagu!
— Kirofanora, kirofanora goaz!

*e. a. Horrekin batera odol-zipriztinak nonnahi, eta pasaeran, gelan zehar jira bat edo beste egiten dutela, gorputz zatiren bat eroriko zaie: heste puska bat dela, besoa dela... Gaixoa agian kexatu eta erizainak makurtu, jaso eta maindirepean sartuko du. Guztia azkar, presaka, zarataka)*

AMA. - (*ERIZAINAri eta Medikuari aldizka besotik, batatik helduz*) Nere semea, seme gaixoa, ikus zazue, atake bat du, lagunduiozue, semea, hiltzen ari dela, nere seme gaixoa!

ERIZAINA. - (*lehen esandako buila guztien artean AMAri*) Ixxxxo! Ez al duzu kartela ikusten? (*ixiltasuna eskatzen duen afitxa erakutsiz*)

*(Ohatilaren taldea kanpoko atetik desagertu da. Bien bitartean, SEMEA bere onera etorri da; AGUREA bainugelatik ekarri duen baldekada-urarekin dago, eta GIZONA berriz, harri eta zur egon dena, aterantz doa erabakitsu)*

GIZONA. - Agur, ni banoa.

POLIZIA B. - (*bapatean barruko atetik metraileta mehatxatuz sartzen da*) Nork egin du tiro? Nor doa? Nora?

*(SEMEAk atake moduko berri bat du, eta POLIZIA hari begira dagoela AGUREAk POLIZIAri botatzen dio baldekada, eta GIZONAk, ikara-une baten ostean, kanpoko atea zabaltzen duenean, Ohatilaren Taldea sartzen da bertatik, lehen bezala. Hauen sarrera abiada dela eta, GIZONA ohatila-izkinan eserita edo geratzen da, oihuka, eta barruko aterantz doazela, gela erdian baldekada-uraren eraginez sorgorturik dagoen POLIZIA danba jotzen dute eta lurrean etzanda utzi. Dena azkar eta denak oihuka: MEDIKU-ERIZAINAK beren jardunean, POLIZIA kolpeaz, GIZONA txundituta, AMA histeriaz, SEMEA eztarri-garrasiz eta AGUREA landareak ez zapaltzeko esanez; Ohatila Taldea barruko atetik sartzean GIZONAk salto egin eta ataburutik zintzilik geratzen da. Bapatean erabateko isiltasuna, aurreko builekin kontraste nabarmena. Denak geldirik. AGUREA da mugitzen lehena: etzanda geratutako POLIZIAri poliki-poliki hurbildu eta pultsoa hartzen dio)*

GIZONA. - Hi-hilda al dago?

AGUREA. - Ez, konortea galdu du.

GIZONA. - Beno, ondo segi, ni banoa (*kanporantz*)

AMA. - (*ate aurrean jarrita*) Zu ez zara inora joango, gizon hori horrela utzita. Saltsa guztia zuk hasi, eta orain ale, ospa!, don Fernandoren larrukoa zara zu ere, ikusten ari naizenez...

GIZONA. - Utziko al didazu joaten mesedez? Nik ezin dezaket ezer egin!

AMA. - Ezer ez? Nola ezer ez? Sendatu, gutxi iruditzen bazaizu.

GIZONA. - Hamaika aldiz esan dizut ez naizela medikua (*asper-asper eginda*)

AMA. - E! Zer? Ez zarela...? Eta orain arte gu engainatzen? Ni esplikazio guztiak ematen eta zu ez zarela...? Denuntziatu egingo zaitut, oraintxe salatuko zaitut poliziaren aurrean. (*Konorterik gabeko POLIZIAren aurrean makurtuta*) Polizia, polizia!

AGUREA. - EZ dizu aditzen (*landareak txukuntzen ari da berriz ere*)

AMA. - Ba deitu medikuari (*GIZONA seinalatuz*). Deitu beste medikuei.

AGUREA. - Ez dira etorriko.

AMA. - Polizia gehiago bilatzera noa ba. Polizia! Polizia! (*barruko aterantz*)

GIZONA. - (*aurrean jarri eta ahoa ixten dio AMAri*) Ixo! Polizia etorriaz gero denok hiltzailetzat hartu eta gartzelara eramango gaituzte eta!

AMA. - (*askatu eta asaldatuta*) Ni gartzelara? Ezta pentsatu ere. Zuk joan beharko duzu, niz ez dut ezer egin eta. Ni hementxe nengoen, ixil-ixilik...

AGUREA. - Zu ixilik... ? Nahiko nuke...

AMA. - Aizu, broma gutxi neri e, muturreko bat ematea nahi ez baduzu, alproja, arlotea...

AGUREA. - Eta zu potzola, berritsua!

AMA. - Zikina!

AGUREA. - Zarpaila!

AMA. - Urdea!

AGUREA. - Nazkagarria!

*(AMA eta AGUREA elkarrengana hurbilduz, ia elkar joka*

*hasteko zorian, eta GIZONA erdian. Biak baretzen saiatzen da)*

GIZONA. - Lasai, lasai, lasai zaitezte, arren! Entzun, mesedez: ezkutatuko al dugu bainugelan?

AGUREA. - Nere etxean?

GIZONA. - Momentu baterako bakarrik, beste poliziek aldegin arte edo...

AGUREA. - Momentu baterako besterik ez?

GIZONA. - Ez.

AGUREA. - Eta gero dena txukuntzen lagunduko didazue?

GIZONA. - Bai.

AGUREA. - Orduan...

GIZONA. - Ea ba; hartu dezagun eta...

AMA. - Ba nik ez dizuet lagunduko. Nik ez dut lagundu nahi halako...

GIZONA. - (*nazkatuta, gogor behingoz*) Ezta nahi ere. (*POLIZIA besoetatik altxatuz*) Ea aitona, altxa hanketatik. Eup! Hori duk eta!

*(AGUREAk eta GIZONAk bainugelarantz daramate POLIZIA, garraio-oharrak eginez.*

— Kontuz hor!
— Holaxe.
— Altxa pixka bat gehiago.
— Ezkerrera, ezkerrera.

*e.a. AMA ere atzetik doakie, ez bait du saltsatik aparte geratu nahi)*

AMA. - Txapela erori zaizue, txapela. Hartu, ez, utzi, nik jarriko diot, burua hoztuko zaio gaixoari bestela. Kontuz, min hartuko du eta,poliki...

*(SEMEA bakarrik dagoela ohartzen denean lurrean geratu den metraileta hartzen du eta jolasean hasi)*

AGUREA. - (*bainugelatik irtenez*) Baina gero zuek lagundu beharko didazue ateratzen e! (*bapatean SEMEA metraileta apuntatzen ikusi eta besoak altxatzen ditu, izututa, mutu*)

GIZONA. - (*irtenez*) Bai, bai, baina barkatuko didazu, nik orain joan beharra daukat eta... (*honek ere SEMEA ikusi eta berdin egiten du*)

AMA. - (*irtenez*) Ezta pentsatu ere, zu denuntziatu egingo zaitut mediku faltsua izateagatik eta neri... (*SEMEA ikusiz, kokildu gabe*) Bai-

na... zer ari haiz jostailu horrekin? (*haserre*) Uztak oraintxe bertan zaplasteko bat ematea nahi ez baduk lotsagabe ho...

*(SEMEAganantz doala hizketan, honek metrailetaz apuntatzen duen bitartean, momentu horretantxe sartzen dira barruko atetik beste hiru POLIZIAK; SEMEAk juxtu juxtuan ezkutatu du metraileta gorputz atzean, AGUREA bainugelako atearen kontra jartzen da eta GIZONAk hizketan hasi nahi duen AMAri ahoa tapatzen dio lehen bezala medikuarenak eginez)*

POLIZIA A. - Ez da ageri...

POLIZIA C. - Hemen nonbait izan behar du ba...

POLIZIA A. - (*itxaron gelakoei*) Ikusi al duzue tipo gazte bat, praka bakero, kazadora marroia eta...?

GIZONA. - (*hitzegitekotan zen AMAri ahoan zerbait sartuz*) Ez (*lan-itxuran*)

POLIZIA A. - Eta polizia bat?

AGUREA. - (*larri*) Ez, ez, ez, inor ez.

POLIZIA C. - Eta zer egiten duk atearen kontra, parrez parrez?

AGUREA. - Zera, komuna okupatuta dago eta, nola txixagurak nagoen, ba...

POLIZIA A. - Zertan ari da emakume hau? (*hots arraroak egiten ditu AMAk*).

GIZONA. - (*buru-belarri lanean*) Hau? Ezer ez. Honi ere kutsatu zaio ahoko gaitz hori... Sida ere bai akaso, eta hementxe, ea tumorea ateratzen diogun...(*indarka, AMAri lepoa estutzen diola*)

POLIZIA A. - (*ikaratu samar edo, atzera eginez*) Beno, guk...badirudi ez dagoela inor eta... joan egin beharko dugu. (*gogor berriz*) Mutilak, goazen!

POLIZIA D. - (*sartu denetik SEMEAri begira, biak keinu arraroak egiten egonak*) Zeri begiratzen diok hik lelo aurpegi horrekin e? (*SEMEA astindu eta jipoitzeko keinua egiten du eta hau ia ia metraileta ateratzeko zorian dagoela ikusten dugu)*

POLIZIA A. - Bagoazela esan dut!

POLIZIA D. - A, bueno, bai, goazen. (*SEMEAri*) Oraingoz salbatu haiz, baina ez zaidak hire aurpegia ahaztuko. Ni ez nau inork tontotzat hartuko.

*(POLIZIEK kanpoko atetik aldegin bezain laster, bainuge-*

*lako atea zabaldu eta POLIZIA B agertzen da, erdi mareatuta eta balantzaka)*

POLIZIA B. - Non nago? Zer da hau?

*(SEMEAk metraileta z apuntatzen du, eta AGUREAk eskura duen balde hutsaz -metalezkoa bada, bestela bere beste tramankulu tzarren batekin- kankarreko galanta buruan eman eta lurrera eror erazten du beste behin) Aldi berean AMAk horzkada ederra egin dio eskuan GIZONAri, hau minez intzirika hasten delarik eta AMA berriz, Poliziei deitzeko garrasitan. AGUREAk orduan beste baldekada batez lurrera botatzen du AMA ere, konorterik gabe utziz)*

GIZONA. - (*oinazez*) Ai, nere eskua! Hau mina, ai! Mesedez, ba al duzu alkoholik edo, hau garbitzeko?

AGUREA. - Bai noski, oraintxe ekarriko dizut. (*bainugelarantz doa, baina bide erdian dagoela erlojua aditzen da, orduren bat joka. Geldirik dago, erne*) Hara! Bostak.

GIZONA. - Eta?

AGUREA. - Bostetan etortzen dela beti erizaina.

GIZONA. - Eta horrek sendatuko al dit eskua...?

AGUREA. - Ez dakit; berari galdetu beharko diozu.

*(AGUREA, besteekiko axolagabezia nabarmenez, bere burua txukuntzen eta apaintzen hasi da: bere xorroetatik gauzok atera ahala orrazeaz orraztu, kapelua jantzi, paparrean plastikozko lore bat ipini, kolonia antzeko zerbait ere bai, arropak ere eskuez nola hala tolestatu eta abar)*

GIZONA. - (*bitartean, eroritakoak seinalatuz*) Eta polizia eta... hola utzi behar al ditugu...?

AGUREA. - (*Mesprezuz begiratzen diela*) Hor kanpon!

*(ERIZAINA sartzen da: neska gazte, alai, txoro samarra)*

ERIZAINA. - Kaixo...

AGUREA. - (*Txolindurik duela ezagun du*) Kaixo maitea...

ERIZAINA. - Bai politak dauzkazula landareak! Eta? Zer moduz dabil gaur nere gaixo guapoena?

AGUREA. - Hola-hola pasatu dut eguna, hagineko minez eta, baina zu etorri zarenetik, ai!, zeruan bezala.

ERIZAINA. - Beno, beno... Hasi al gara? (*besapean edo ahoan termometroa jarriz*)

AGUREA. - Hasi...? Ez nik nahi nukeena egiten (*eskuak luzatuz*)

ERIZAINA. - Et, et, et! Kontuz atzapar horiekin!

AGUREA. - Ikutu ere ez zaitut egin eta!

GIZONA. - (*harri eta zur*) Aizue, mesedez...

AGUREA. - (*GIZONAri zakar antzean*) Itxoin ezak heure txanda! (*ERIZAINAri*). Orain neurea dut oso-osorik (*eskuluze berriz ere*)

ERIZAINA. - Geldirik egoteko, termometroa puskatuko zaizu eta!

AGUREA. - Nik bandeja hartu nahi nizun, pottola, ez nekatzeko...

ERIZAINA. - (*haurrei bezala*) Eta merienda oso-osoa jango al du nere gaixo guapoenak?

AGUREA. - Zer dago?

ERIZAINA. - Kafesnea gailetekin

AGUREA. - (*poz-pozik*) Txokolatezkoak?

ERIZAINA. - Mm... ez. Bainilazkoak.

AGUREA. - (*purrustadaka*) Jo. Ez dut jango ba!

ERIZAINA. - Txorakeria gutxiago eta hasi jaten, benga!

AGUREA. - (*temoso, uzkur*) Ez dut nahi. Gainera, mina ematen didate ahoan.

ERIZAINA. - (*gozo, ezagun du honakoa jolas zaharra dutela*) Kartatan jokatuko dugu? (*bestela, dadotara izan liteke*)

AGUREA. - (*poz-pozik, berriz*) Bale Zazpi t'erdian. (*poltsikotik aterako ditu kartak*)

ERIZAINA. - Irabazten badut dena jan beharko duzu...

AGUREA. - Eta galtzen baduzu muxu bat...

ERIZAINA. - Eta gero dena jango duzu...

AGUREA. - Baina aurrena muxu bat...

GIZONA. - (*gero eta harrituago*) Ez nuke molestatu nahi baina...

AGUREA. - (*zahar*) Ez molestatu orduan! Jesus, hau da jendilajea ospitaletan biltzen dena. Ea, has gaitezen. Tori karta, hau neretzat!

ERIZAINA. - Horrek ez du balio, beti zurea da banka!

AGUREA. - Kartak nik ekarri ditut eta! Etxearen arauak dira. Kartarik nahi duzu?

*(Zazpi t'erdian hasten dira jokoan, ohizkoak esanez:*

— emaidazu beste bat,
— planto,
— pasatu egin naiz,

*e.a. Dadotan ere joka dezakete, esan bezala. Nolanahi ere, azkenean AGUREAk irabaziko du)*

AGUREA. - Galdu egin duzu! Galdu egin duzu! Orain muxu bat eman behar didazu!

ERIZAINA. - Bale ba! Tori, pa! (*masailetan ematen dio*)

AGUREA. - Horrek ez du balio: ezpainetan eman behar didazu, ezpainetan!

ERIZAINA. - Muxu bat besterik ez dugu esan, eta kitto. Eta orain dena jango duzu, hoztu baino lehen.

*(Azpila aurrean duela, eginahala guztian hasten da jaten AGUREA. ERIZAINAk bitartean, termometroa kentzen dio)*

ERIZAINA. - Holaxe, den-dena jan behar duzu, gizon haundia egin eta azkar sendatzeko... Ikusten? Gainera ez daukazu kalenturarik. Pasatu zaizu gripea.

AGUREA. - (*ahoa beteta*) Ez dudala griperik! Ahoko infekzio bat dela!

ERIZAINA. - Beno, beno, ez haserretu (*lurrean daudenak orduantxe ikusi balitu bezala*). Eta hauek, zer dute? (*lasai-lasai*)

AGUREA. - (*axolagabe*) Ez dakit. Erori egingo ziren edo. Hainbeste jende arraro dabil ospitaletan.

GIZONA. - Barkatu baina... nik uste dut... e, mediku bat behar dutela.

ERIZAINA. - (*harrituta*) Mediku bat? Hemen? Uiii, hori oso zaila da. Aizu eta, nor zara zu?

GIZONA. - Ni...? Ba, zera... hemendik pasatzean, ba, zereko zerean zera nuela eta...

AGUREA. - (*oraindik ahoa beteta*) Eta zer hori zeretik zertzen ote dioten etorri da.

GIZONA. - Baina honez gero zerik ez zait zertzen eta berehalaxe noa (*aterantz*)

ERIZAINA. - (*haserretzen*) Eta zertan ari zara mediku-bata horrekin?

GIZONA. - (*gero eta urduriago*) E? A, zera, bata... Ba, hortxe zegoen eta, momentu horretan, ba... baina berehalaxe kenduko dut... (*erantziz*)

ERIZAINA. - Beharko kendu! Lotsagabe galantak zarete zuek (*eskuetan hartzen du bata*). Gaixo zaudetelako aitzakiarekin edozein txorakeria esanaz etorri, eta ahal duzuenean, to, lapurreta edo beste edozein txarkeria egingo duzue. (*AGUREAri, baiespen bila*) Ez al da ala?

AGUREA. - Bai horixe. Antzeman diot nik ere, hau ez zela parte onekoa.

GIZONA. - Baina nik...

ERIZAINA. - Eskerrak umore onez nagoen. Bestela poliziari deitu eta gartzelara eramango zintuzten. Zer uste duzu ba? Gaurkoa bere horretan utziko dugu, baina ez zazula berriz holakorik egin, bestela... Tira, banoa, oraindik ere lan pila daukat eta.

AGUREA. - Ez zaitez joan, pottola...

ERIZAINA. - Ezin naiz geratu, baina bihar bueltatuko naiz. Zaindu landareak, pottoko.

AGUREA. - Bihar arte, moñoña.

GIZONA. - (*herabe*) Alzu baina...

ERIZAINA. - (*zakar*) Zer?

GIZONA. - Nere eskua... Ez, bueno... Zer egin behar dugu bi hauekin?

ERIZAINA. - Ez dakit. Hor behintzat enbarazo besterik ez dute egiten. Eramaitzazue bazter batera, larrialdiren bat etorriz gero pasatzeko arazorik ez izateko.

*(Berriz ere barruko aterantz doa ERIZAINA, eta tarte guzti horretan inork jaramonik egiteke metrailetaz tximukeriak eta mehatxuak egiten aritu den SEMEA aurrez-aurre jartzen zaio metraileta eta guzti)*

ERIZAINA. - Ken hadi hortik, mutiko. Atetik kentzeko! Zer uste duk: jostailu batekin izutuko naizela ala? (*Atzaparkada batez metraileta kentzen dio*) Gezurra ematen dik: hain haundia eta oraindik ume-jostailuekin. Pediatriakoei eraman beharko diet. Agur...

*(SEMEA ate-kantoian negar-intzirika utzirik desagartzen da ERIZAINA)*

GIZONA. - (*Kanporanzko atetik begira aritu ostean*) Beno, orain bai, banoa...

AGUREA. - Aizu baina...

GIZONA. - (*atean*) Zer?

AGUREA. - Aditu duzu zer esan duen erizainak... Bi hauek hemendik baztertu beharko genituzke...

GIZONA. - Egizu bakarrik, ni presaka nabil.

AGUREA. - (*negar-xotinka hasteko moduan*) Nik bakarrik ezin dut, zaharra naiz eta ez dut indarrik... Nahiko nuke nik bakarrik ahalko banu baina...

GIZONA. - (*etsita*) Ondo da. Ez egin negarrik. Komunean sartuko ditugu eta gero banoa.

AGUREA. - Nere etxean?

GIZONA. - Non nahi duzu sartzea bestela?

AGUREA. - (*pentsaka eta hazka aritu ondoren, gogo txarrez bezala*). Tira ba... Baina azkenengo aldia izango da.

*(GIZONAk sorbaldetatik eutsi, AGUREAk hanketatik eta POLIZIA eramaten dute, elkarri eupaka. Ondoren AMA hasiko dira altxatzen baina askoz nekezagoa zaie, zabalago eta astunago delako, eta bainugelarako bide erdian direla, elkar animatuz:*

— ea ba,
— eutsi hortik,
— altxa

*e.a., barruko atetik MEDIKU- ERIZAIN-GAIXO Ohatilaren Taldea dator berriro martxa bizian, eta beren bultzadaz bertan behera botatzen dituzte GIZONA, AGUREA eta AMA -esku odoldu bat ere erori eta berriro jasoko dute-, SEMEA barre algara zorotan jauzika dagoela)*

AMA. - (*oihu, buila eta kolpeen eraginez bere onera etorririk*) Ai ene, ai ene, ai ene! Ai, nere giltzurrunak, ai nere bizkarrezurra, nere saihetsak, nere lepoa, ai nere burua, ai! (*kexuka aritu ostean SEMEA ikusi eta doinua bapatean aldatuz*) Hi... Zer? Hemen utzi nahi nauk ala? Ez al duk mugitu behar? Hator ama laguntzera! Etortzeko, kabroi hori! (*SEMEAk ezetz buruaz, gelako beste alderantz urruntzeaz batera*) Seme malapartatu zerri hori, ikusiko duk altxatzen naizenean... Begiak aterako dizkiat nere atzaparrez, ileak tiraka kendu, lepoa oiloari bezala bihurritu... (*bere kasa altxatu ezinik*)

GIZONA. - (*Altxatuta*) Lasai, andrea, geuk lagunduko dizugu eta.

AGUREA. - (*altxatu berria, eginkizun horretarako gogo handirik gabe*) Ez dakit ba e, behar hainbat indar izango ote dugun...

AMA. - (*haserre*) Gizena deitu nahi al didazu? Gizena ni? Ni? Emango dizut zuri ere altxatzen naizenean, burutik beherako ederra emango dizut, agure txatxu lotsagabe hori... (*marmarka segituko du puska batean, besteak hizketan ari direla ere*)

GIZONA. - Lasai, andrea, ez zuen horrelakorik esan nahi eta. Oraintxe altxatuko zaitugu, lasai. Ea ba, eup!

*(GIZONA eta AGUREAren artean AMA altxatzen saiatzen dira, eta ia ia jasota dutenean, Ohatilaren Taldea dator berriro betiko zarata eta mugimenduekin, hankaz gora botatzen dituzte berriz ere AGUREA, GIZONA eta AMA, eta aldegin behar dutela, AMAren garrasi ozena entzuten da)*

AMA. - Nere lentilla!

*(Bapatean denak geldi, eta nahas-mahas denak batera hasten dira hizketan:*

— lentilla,
— lentilla?,
— lentilla!
— noren lentilla?
— nere lentilla?,
— ez, bere lentilla, e.a.)

AMA. - (*denen zarataren artean ozenago*) Nere lentilla! Non da nere lentilla? Lagundu bilatzen!

*(Berriro ere mediku, erizain eta guztiak makurtu eta lurrean hasten dira bila, aldi berean hizketan segitzen dutela:*

— erori egin zaiola lentilla,
— non?
— hemen!,
— nolako da?
— borobila izango da,
— transparente, e.a.)

GAIXOA. - (*ohatilatik, pixka bat altxatuta, larri eta izututa*) Eta nere operazioa? Hanka bat mozturik dudala!!!

MEDIKUA. - (*makurtuta*) Zure hanka ezin dizu inork itzuli, eta andre honi lentilla bai ordea.

GAIXOA. - (*jabeturik, etsita*) A (*Ondoren bera ere laguntzen saiatzuko*

*da, bilalekuak erakutsiaz*) Hor begiratu, aulkipean, hortxe, hortxe...

*(Horretan ari direla, GIZONAk kanpoko aterantz egiten du, aldegiteko asmotan, baina atea zabaldu bezain laster izutu eta beste aldera doa; zalapartaren erdian, ohatilaren enbarazoaz-eta, ezin du barruko atetik sartu, ezta bainugelara ere; larri-larri dagoela eragingailu moduko zerbait ikusten du paretan eta haruntz doala POLIZIA D sartzen da)*

POLIZIA D. - Geldi guztiakl! Polizia!

*(Une horretan, batzuk garrasika hasi eta AGUREA baldea altxatzen ikusten dugula, GIZONAk klis!, itzali egiten du argia. Dena ilun geratzen da eta egundoko iskanbila entzuten da aldi batez, denak batera hizketan eta oihuka:*

— polizia dela,
— zer gertatzen da?
— polizia,
— lentillaren bila?,
— lagundu!
— bortxatu egingo naute,
— eta lentilla?,

*e.a. Handik puska batera norbaitek berriro pizten du argia eta kaos itxura ikaragarria ageri du eskenategiak: ena hankaz gora, jendea arropak nahastuta, lurrean arrastaka, lorepotoak botata... Plxkanaka, mozkorraldi batetik esnatu berriak balira bezala altxatzen hasten dira, beren buruei galdeazka:*

— non nago?
— nere landareak?
— zer da hau?,
— zer gertatu da?, e.a.)

ERIZAINA. - Polizia etorri da eta bapatean argia itzali da.

MEDIKUA. - Eta polizia? Non dago polizia?

AMA. - Hemen, hemen dago! Begira! (*ate ondoan, zoruan erorita, konorterik gabe*)

MEDIKUA. - (*begira geratzen da, mugitu gabe*) Gizarajoa.

AMA. - Baina etorri, lagundiozu, zertan ari zara hor geldirik?, mugi, ez zara zu ere gezurrezko medikua izango?, benga, azkar!

MEDIKUA. - *(urduri hasi, gero harro)* NI... bai, beno... bai baina... zera, itxoin, gainera, hemen ere beste gaixo bat dugu, hanka moztuta, eta honek presa du eta... Eta non da zure lentilla, e?

AMA. - *(orain larri)* E, lentilla? Ba... *(begiak ikutuz eta)* etxean utziko nuen edo... ez dakit...

ERIZAINA. - Doktore jauna, gaixo hau hil egin da *(Ohatilakoa, itxura xelebrea duela orain)*.

MEDIKUA. - Gizarajoa...!

ERIZAINA. - Zer egingo dugu orain...?

AMA. - Hemendik eraman, aidean! Ze kuxidade da hau, hildakoak itxaron-gelan, edozein gaitz harrapatzeko ere? Ospa, alde hemendik, eramazue nahi duzuen tokira...

AGUREA. - *(orain artean sakabanatutako lorepotoak txukuntzen aritua, haserre bizian)* Ezta pentsatu ere! Kristaua nola bidaliko dugu ba hola, otoitz koxkor bat egin gabe? Hori nahi al zenuke zuretzat, edo zure semearentzat? Ni hemen nagoen artean behintzat, hildako guztiek izango dute beren agurra. Belauniko denok! *(bere poltsetako batetik gurutzea eta errosarioa ateratzen ditu, batzuk belauniko jartzen diren bitartean)* Denok esan dut! *(gogor)*

*(Denak belauniko daudela, AGUREAk GAIXOAren inguruan lore batzuk eta gainean gurutzea ipintzen dizkio. Ondoren bera ere belauniko jarri eta errosarioa eskuan "gure aita", "agur maria" eta holakoak errezatuko ditu, beste guztiek marmar batean bezala erantzuten diotela. Puska batean hola aritu eta gero "Ora pro nobis"ak eta halakoak ere esango dituzte eta ondoren AGUREA altxatu, otoitza bukatutzat ondoren AGUREA altxatu, otoitza bukatutzat emanda)*

AGUREA. - *(Botila atera eta trago bat eginda. Besteei pasatuz)* Orain gutxienez beste itxura batez bidaliko dugu bestaldera... *(malko bat xukatuz)*

ERIZAINA. - *(herabe, AGUREAri eta MEDIKUAri begira)* E-eraman dezakegu? Tanatoriora edo...?

MEDIKUA. - Beno, bai baina...ohatila hori ez da hildakoentzat eta... hemen utzi beharko dugu. Ale, goazen!

ERIZAINA. - Eta hildakoa?

MEDIKUA. - A bai noski! Hildakoa... Ba eraman egin beharko dugu, besotan hartuta besterik ez bada... *(besotan hartzen dute MEDIKUAk eta ERIZAINAk eta barruko aterantz doaz, beti*

*bezala iskanbilatsu*) Benga, bidea egin, pi pi, aurretik kendu mesedez! (*kantari ere soma ditzakegu desagertzen ari direla*) Lepoan hartu ta segi aurrera...

AMA. - (*bitartean oihuka*) Eta polizia hau? Eta polizia?...

GIZONA. - (*ahoa tapatu nahi diola AMAri*) Ixo, entzun egingo dizute eta!

AMA. - Eta neri zer? Nik ez dut ezer egin, eta gizon hau ezin dugu hemen utzi, horrela, etzanda...

GIZONA. - Eta zer nahi duzu guk egitea?

AMA. - Zerbait...

GIZONA. - Zer?

AGUREA. - Hor dagoen bere lagunarekin sartu genezake...

GIZONA. - Bai, bai, oso ondo, oso ideia ona. Neri ordea berandu egin zait eta joan beharra dut eta... Beno, agur.

*(Atea zabaltzea lortzen du baina AMAk ixten dio indarrez)*

AMA. - Hemendik ez da inor joango gizon hau hola utzita!

GIZONA. - (*AMA indarrez baztertzen saiatzen dela*) Joan egin behar dudala!

AMA. - (*berean tinko*) Ez zarela joango!

GIZONA. - (*etsita*) Beno, beno... Eramango dugu ba bere lagunarekin... Ea, aitona, heldu hanketatik...

*(Lehengo komeria bera hasten da POLIZIA hau eramateko ere. Orain berriz okerrago, AMA tartean dela lagundu ez baina aholkuak zenbatnahi ematen dituela, denak hizketan:*

— eutsi hortik,
— ez, hemendik,
— altxa orain,- eup!,
— hola ez, bota egingo duzue eta,

*e.a.SEMEA berriz, botila bere eskuetara iritsi denetik bertatik edaten eta txorakeriak egiten aritua. POLIZIA D bainugelarantz daramatela, honen metraileta lurrean gelditu dela ikusita hartu eta berriz ere honekin jolasten hasten da, pozak txoratzen, bazterrak apuntatuz eta. AGUREAk eta GIZONAk POLIZIA D bainugelan sarturik dutela, non kokatu eztabaidatzen ohi bezala, AMA kanpoan gelditu*

*da denak sartu ezinda, eta SEMEA aurrean ikusi duenean honen aurka oldartzen da, suminduta)*

AMA. - Seme kabroi hori, putasemea, barre egin didak, hik neri, heure amari barre! Ikusiko duk orain, harrapatzen haudanean, ikusiko duanez! Ez haiz erraz libratuko ez. Begiak aterako dizkiat, ileak tiraka kendu, lepoa oiloari bezala bihurritu...

*(Hori esaten ari den bitarte guztian SEMEA harrapatu nahian dihardu eta azkenean lortu egiten du. Orduan lepotik heltzen dio, burrukan hasten dira, irainka segitzen duen bitartean)*

AMA. - Akabatu egingo haut, zerria, kabroia, putasemea! Akabatu egingo behingoz pakean egoteko, nazkagarri zerri zikin hori...

*(SEMEAk epilepsi atakea du bapatean, bihurritzen hasten da eta metraileta rekin tiroka, zoro moduan, oharkabe, rata-ta-ta-ta-ta-ta-ta-ta-ta... GIZONA eta AGUREAk berriz, estintorea hartu eta goitik behera blaitzen du SEMEA haren apar zuriaz. Hau ere lurrean geratzen da orduan, dardarka baina ez lehen bezain bortitz)*

AMA. - (*belauniko SEMEAgana doala, histeriaz oihuka*) Ai! Ai nere semea! Zer gertatu zaizu? Zer egin dizute? Zer egin diote nere seme maiteari? Blai eginda utzi zaituzte eta! Blai! Eta orain... orain katarroa, kalentura, pulmonia, neumonia... (*besteei*) Egizue zerbait! Ez al zarate konturatzen hil egingo dela? Mugi! Ai nere umetxo laztana... Zer egin dizute gizon gaiztoek, zer? Lasai, maitea, hemen dago-eta zure ama, zure amatxo maitea... (*besteei*) Baina, zertan zarete?

GIZONA. - (*kanpora aldegin edo ez zalantzan ibili eta gero, kazadora kentzen hasita*) Bai, bai, barkatu... Tapa ezazu honekin, ea lehortzen den...

AMA. - (*kazadora hartuta*) Hau? Zer egin behar dut nik honekin bakarrik? Eta hankak zer? Hankak hozten bazaizkio...

GIZONA. - (*noragabeturik*) Baina... Zer nahi duzu nik egitea?

AMA. - Prakak... Ken itzazu prakak... Eta alkondara ere bai... Azkar, semea izoztu baino lehen... Benga!

GIZONA. - (*erazten hasita*) Bai, bai, ari naiz.

*(GIZONAK presaka erazten ditu prakak eta alkondara, eta AMAk SEMEAri jazten dizkio arropa hauek, bustiak kenduta. GIZONA elastiko eta galtzontzilloz geratzen da eta une horretan sartzen dira POLIZIA A eta C, metraile-*

*tak aurrean. Oso bizkor hitz egingo dute, batak besteaen atzetik)*

POLIZIA A. - Geldi denak hor!

POLIZIA C. - Polizia!

POLIZIA A. - Altxa besoak!

*(GIZONAk, besoaz altxatzeaz bat, bere jazkeraz ohartu eta ohatilan eserita gimnasia itxurak egiten ditu)*

POLIZIA C. - Hemen izan al da tiroketa?

POLIZIA A. - Nork egin du tiro?

POLIZIA C. - Hara: begira hor: metraileta!

POLIZIA A. - Geldirik denak! Eta altxa besoak (*nekeaz jaitsiak zituen AGUREAri*)

POLIZIA C. - (*GIZONAri*) Eta zertan ari haiz hi?

GIZONA. - Zera... operatu egin behar naute eta... aurretik gimnasia pixka bat egiteko nola esan didaten, ba...

POLIZIA A. - Ixo! Norena da metraileta hau?

POLIZIA C. - E, begira tipo horri (*SEMEA sainalatuz*)

POLIZIA A. - Hara! bera da eta!

POLIZIA C. - Praka bakeroak...

POLIZIA A. - Kazadora marroia...

POLIZIAA C. - Eta alkondara berdea...

AMA. - EZ baina... (*ez diote uzten segitzen*)

POLIZIA A. - Zu ixo!

POLIZIA C. - Nor zara zu?

POLIZIA A. - Zu ere atxilotzea nahi al duzu?

AMA. - Baina nire semea...

POLIZIA C. - A, semea duzu orduan, e?

POLIZIA A. - Eta horrela erakusten al diezu seme-alabei?

POLIZIA C. - Zu bezalako amak sartu beharko lituzkete gartzelan.

POLIZIA A. - Nazka ematen diguzu.

POLIZIA C. - Benetako nazka

AMA. - Baina utzidazue esaten...

POLIZIA A. - Zer esan nahi duzu? Zer?

POLIZIA C. - Noiz hasi zen zure semea okerreko bidean?

POLIZIA A. - Lagunak zein dituen?

POLIZIA C. - Non egin dituen bere azioak?

POLIZIA A. - Guzti hori badakigu.

AMA. - Nire semea...

POLIZIA C. - Semea, bai, semea da guri interesatzen zaiguna.

POLIZIA A. - Aber, mutiko, hitz egin dezagun...

POLIZIA C. - Kontaiguk non ibili haizen.

POLIZIA A. - Non gordetzen dituan dirua eta armak.

AMA. - Ez dizue ezer esango...

POLIZIA C. - Ez e?

AMA. - Ezin du.

POLIZIA A. - Guk erakutsiko diogu ba.

POLIZIA C. - (*SEMEAri*) Ez al da egia, gurekin ikasiko duela...?

AMA. - Baina utzidazue esaten...

POLIZIA A. - Zer? zer? zer? zer? zer? Isildu ere ez zara egiten eta zer nahi duzu esan, zer?

AMA. - Ba, gizon hori... (*GIZONA seinalatuz*)

POLIZIA C. - (*GIZONAri*) Segi gimnasia egiten!

POLIZIA A. - (*AGUREAri*) eta hik ez jaitsi besoak! Gizon hori zer? Esan!

AMA. - Gizon hori dela...

*(bainugelako atea kolpez zabaldu eta POLIZIA B eta D erori egiten dira ia ia)*

POLIZIA C. - Hara!

POLIZIA A. - Non zineten?

POLIZIA B. - Ba, hauek...

POLIZIA D. - Horrek... (*SEMEA sainalatuz*)

POLIZIA C. - Ikusten? Zer duzu orain esateko? (*AMAri*)

AMA. - Oker zaudete, nire semea...

POLIZIA A. - Zure semeak oraintxe esan behar digu dakien guztia. (*GIZONAri*) Ken hadi hortik!

*(GIZONA aldendu egiten da ohatilatik gimnasia egiteari utzi gabe, eta bertan etzanarazten dute SEMEA A eta C POLIZIEK aidean eramanda, hizketan segitzen duten bitartean)*

POLIZIA C. - Ospitalean ezkutatu nahi huen, e?

POLIZIA A. - Orain ikusiko duk ba zein ondo pasatzen den ospitaletan.

AMA. - (*arropetatik tiraka eta*) Nere semea... Utzi, uztazue, nere seme gaixoa...

POLIZIA C. - Kendu atzapar horiek!

POLIZIA A. - (*B eta Dri*) Aizue, eutsiozue txoro honi eta tapaiozue ahoa.

*(B eta Dk AMA hartu eta indarka isilerazten dute, ondo kostata baina. AMA builaka ahoa zapi batez tapatzen dioten arte, eta hortik aurrera txilioak eta eztarri-hotsak egingo ditu etengabe; B eta Dk ohizkoak esanaz:*

— zaude geldi, atsomotza,
— ez zara askatuko horratik,
— behiak baino gehiago pisatzen du,

*e.a. ari diren bitartean, Ak eta Ck gero eta harrituago eta izutuago begiratzen dien SEMEA ohatilan lotu eta ohizko galdeketari ekingo diote, gorputza bihurrituz, kolpatuz, txikituz... Gero eta bizkorrago hitzeginez eta joz, erantzun gisa aldian behingo eztarri-soinuren bat baino jasotzen ez dutela)*

POLIZIA C. - Kontaiguk den-dena.

POLIZIA A. - Esan, non duzue zuloa?

POLIZIA C. - Non dituk hire lagunak?

POLIZIA A. - Hobe duk orain hitz egitea. Lehenago edo beranduago hitz egingo duk, eta hobe hiretzat orain egitea, ez duk uste?

POLIZIA C. - Gure mututxoak ez al du hitz egin nahi? Ez al du kuku egingo mutuak?

POLIZIA D. - Utzi neri, nik aterako dizkiot horri direnak eta ez direnak.

POLIZIA A. - Hik segi ezak heurearekin.

*(GIZONA ere gimnasia ariketak gero eta azkarrago ari da egiten, oso urduri, beldurrez edo nazkaz edo burua tapatzen duela)*

POLIZIA C. - (GIZONAri) Zertan ari haiz hi

GIZONA. - Ni? Gimnasia egiten... Operaziorako... Me-medikuak esan dit eta...

POLIZIA A. - Hoa ba operatzera! Hemen ez diagu ikuslerik behar.

GIZONA. - Benetan?

POLIZIA A. - Bai.

GIZONA. - Benetan joan naiteke?

POLIZIA A. - Baietz. Eta zahar hori ere bai. Ospa biok!

AGUREA. - (*herabe*) Ne-nere gauzak hartu nahi nituzke eta...

POLIZIA A. - (*haserre bizian*) Aldegiteko nere bistatik (*ostiko bat emanez AGUREAri*)

*(GIZONAk eta AGUREAk -gimnasia egiten bata, besoak altxata bestea-, kanporanzko atetik doaz, eta aldi berean SEMEAren atake epileptiko bat hasten da, AMAren txilioak ozendu, eta oihala jaitsi edo taulagaina iluntzen doan eran POLIZIEN ahotsak entzungo ditugu:*

*— larritzen ari haiz e?*
*— esaiguk ba norekin hintzen,*
*— esazak eta dena errazagoa izango zaik,*
*— ez hadi tontoa izan,*

*e.a. Aldi berean, aurrena emeki baina gero eta indartsuago sirena hotsak adituko dira, beste ahots guztiak estali eta ilunean ozenegi, antzerkiaren amaiera bera bezain desatsegin bihurtu arte)*

AMAIERA

# KONTAKIZUNAK

## MONSIEUR LE MINISTRE
## (Laugarren argidazkia)

TXOMIN PEILLEN

Jauzi arin batean CX 2000-etik jaitsi natzaizue. Bizitza lorez betetako zelaia zait. Minixteritzatik lana utzita, pozik etxera sartzen natzaizue, emaztearengana banoazue. Denak dauzkatzat: gorputzeko atseginak oro, ohore guztiak. Gaur, ordea etxeratzean anderea aurpegi beltz topatzen dut.

— Zer duzu Chantal? Gaizki al zaude?

— Ez, osasunez ez.

— Zer ba. Norbaitek gaizkiren bat egin dizu?

— Michel, azkenean gure bake ederra hautsiko digute.

— Zer esan gura duzu? argi hitzegin otoi!

— Zera, aspaldiko hura... badakizu... gogoratzen zara... ezkonberrian ta abokatu zinenean gertatu lege ta ezlege jokutruaz oroitzen zara, ez?

— Ba, zoritxarrezko legehauste hura... egin nuen hura ezin ahaztu, baina gure artean dago. Gutaz kanpo iñork eztaki haren berri... eta orduan gaizki ibili nintzela ere.

— Honek, behintzat, ja badaki.

Andereak gutun itxurako paper txuria luzatzen dit... idazkinaz egina da, eta izenpetu gabekoa eskutitza, hona zer dion:

*"Duela hamar urte, egin duzunaz argazki probak eta benetakoak baditut. Zure kargua, desohorean, galdu nahi ez baduzu,*

*diruz lagundu behar nauzu. Telefonuz deituko zaitut "sosa" non ezarri behar duzun jakinarazteko"*

E'huen beste beharrik, minixtro sartu berri eta jadanik eskandaluaren itzalak hire potere eguzkiaren estaltzeko.

— Nork deabruk? Nork arraio idazten dit. Trufaz, bai txantxetan izan behar du.

— Ez dut uste, ez Michel. Jadanik telefonu dei bat eduki dut, eta beste batek baieztatuko digu, zorigaitzez.

— Nor diteke, Chantal?

— Zuk baino lehen eskutitz hau irakurririk gogoeta batzu eginik nago.

—Ja, erran!

— Azken hamar urteetan gure etxetik hainbeste enplegatu igaro da ta.

— Arrazoin duzu, gelatrukean neskatilak, neskameak, garbitzaileak, auto-gidariak. Nor ote? Ziurrago gizonezkoren bat?

— Lauzpazortzi jende horien artean ez da erraz izango asmatzea zein, Michel?

— Aspaldiko norbait izatekotan...

— Michel, hirizaiñak abisatu behar dituzu, ez?

— Ez erran holakorik. Horiek sudurra hortan sartzen badute usaineraino joango dira, arrapatuko gaituzte.

— Beraz ordainduko duzu?

— Eta besterik zer egin, txuri ta garbi banintz? baina nola demontre jakin dute?

— Eztakit, ba... bakarrik uste' ta, norbait horrek entzuteko neurrian hortaz, noizbait, hitzegin dugulako. Eta probaren bila ikertu zukean... eta gero entzutea...

— Entzutea ez da proba. Agian ez du argazkirik... Chantal, ez?

— Zergatik ez dituzu probak erre?

— Nola behar nituen, maitea: gogo onez obligazioak sura jaurtiki?

— Eta zergatik ez?... Horiez kanpo aski diru geneukan ordukoz, eta orain nahikoa ote txantaia horri ihardokitzeko, izengabe horren asetzeko?

Telefonu deia eduki dukala emazteari esan diokanean ez duk batere larritu.

— Banekien, bai hala gertatuko zela eta nola ordainduko duzu, ba?

— Hilabetero, bai hilero, seinalatu gutun kaxa batera hilabete saria, billete zaharretan ordaindu beharko diot.

— Zorionez txantaia egileak ez badizu, geroago ta gehiago eskatzen?

— Ez dut uste, aski argi bada, ez du iturria agortu nahi izango. (Zer ziurtasunez ari haizen, kontuz)

— Ez zaitela siniskorregi izan... ez dizu betirako bakerik utziko... nekez... zenbat nahi diru eskainirik ere.

— Ez naiz behin betirako ordaintzen saiatuko, proben trukean... beste kopiak eduki baitzetzakean.

— Bai, gizona arrazoin duzu, gure bikotea, gure etxea dena desegin baidezake holakoren baten lanak, eta ez dut uste euren bihotzberatasunari dei egin behar zaiokela.

Anderea, apur bat etsitua, jadanik bizi berri horri buru egitera prestik dagoela dirudi.

Egun —ohiko moduan— hara hoa. Diru emaitza hori ohitura bat egin zaik, bihotza bero, gogoa alai bahoa. Erraz izan duk: dirua ohiko ate misteriosean dagoen gutun kaxara bota duk. Oiñez sartuko haiz... Atx! kontuz, auzoko karrikan hire automobila espaloin ertzean aparkatua dakusak. Atari baten gerizapean izkutatzen haiz eta hortik Rue de Richelieu-ko hire diru-atea zelatatzen. Bai, hortxe zegok hire anderea zain.

Orain eztuk etxerako presarik. Telefonura hoak, handik telefonuz Patricia hire maite ixilari dei egiteko:

— Ez zaitela Rue de Richelieutik igaro... Emaztea hor dago zain. Lekuz aldatu behar dugu lasterren, edota gauaz etorri behar duzu, diruaren biltzera.

Bai, telefonu adarra utzita... bultzako bat ateari... ta etxera: hi haizelako txantaiaren iturria... hire buruari egilea.... hik eskutitzak idaten, maite ixilaren, ohaidearen gorputz-sariaren ordaintzeko: bai, andereak diru kontuak hurbilegitik ikertzen baitizkik... bakoitzak bere segeretua eduki dezan... kutunak ere ez daki guztiaren berri.



# AHOZKO TRADIZIOA

# ZEGAMAKO "KONTUK"

XABIER AZURMENDI

**San Adrian, ipuin eta kondairen lurraldea**

Lehen aldiz San Adrianen izena, Orsio Baionako Gotzaiaren ageri batetan dakusagu, 980 urtean hain zuzen.

Nafarroako Santxo Handiak, San Adrian darabilki 1027ko urtean, Iruinako Gotzaitegiaren mugatzat.

Nafarroako Santxo VIIIgarrenak eta Kastillako Alfontso Xgarrenak, 1207an pakearen seinaletzat, Irureta eta San Adrian elkarri eskaini zizkieten.

**Bidazti ospetsuak XV-XVI gizaldietan**

Joan Padilla Kartujano (olerkaria) pasa zen San Adriandik 1490 urtean.

Arnald von Haffek, 1499an San Adriandik pasa zeneko kontuak aipatzen ditu.

Felipe el Hermoso eta Juana la Loca egon ziren bertan 1502ko urtean. Lazkaoko Jaunaren seme bat bataiatu zuten ermitatxoan, Printzeak izan ziren Aita eta Ama ponteko.

Andres Navajero, Veneziako enbaxadoreak konta zizkigun San Adriango eta Gipuzkoako zenbait gauza bitxi, 1528ko urtean.

Palatinadoko Federiko IIgarrena, 1538ko negute gorrian, San Adriandik pasa zen Kastillara, sekulako jendetza batekin.

Karlos Vgarrenak, San Adriandik pasa zen Frantziara, 1539ko urtean.

Joan Bautista Benturino berriz Alejandriako Patriarkarekin 1572an pasa zen San Adriandik.

Joan Vasaenek bide berdina egin zuen 1599ko urtean.

"Utrunque mare, Oceanum et Mediterraneum videns."

Kantauri eta Mediterraneoa San Adriandik ikusten ziren hotsa zabaldua zegon garai hartan.

Larramendik "Gipuzkoako Ko-

rografian" uste berdina azaltzen digu.

Gizaldiak zehar milaka eta milaka pelegrino, ikazkin, jauntxo eta abenturero pasa dira mendi eder honetatik eta sarri askotan, mando urrez zamatuak, jende aberatsa edo politiko entzute haundikoak.

Arrazoi hauek direla eta mendi hauek zenbait lapur ezagutu ote zituzten!

Horra bada batzuen ipuinak.

**Barriola (I)**

Barriola izeneko ikazkin bat San Adrianen bizitze mentzan bê koadrillêkiñ, batzutan ikazkintzan da beste 'atzutan lapurretan.

Ataungoa zala re esaten tzuen, Urtsoangoa zala re bai.

Zeukenai kendu ta etzeukenai ematen tzekiña mentzan.

Zeamako zârrak gogon dauku oaindio bê izena.

Bê kontuk oain 200 bat urtekok izan leizke.

*Jesus Mazkiarani*
*1975-9-9an jasoa.*

**Barriola (II)**

Barriolak bê motillai ola aintze mentzien.

Alakok eta alakok alako lekutan utzi dezatela dirue.

Ezetz esaten ba due, esan gañen geala.

Bein pâtzen tzuenak paken uzten tzitun.

*Roman Otaegiri*
*1975-8-7an jasoa.*

**Barriola (III)**

Bein Barriolai motiko 'at etor mentzikon San Adriana lapurretan ikas nai zokela ta.

Barriolak iru ogi ekartzea biali zon Zeamâ.

Motikoa ogi bê etor tzikon, diruik bê Zeaman ogik etzuela ematen da.

Urrengo eunen motikoi Barriolak esa mentzion. Goazeak Zeamâ ogie ekar bear diau.

Erria alliautakon denda 'aten sartu zien. Dendarik ogik etzien eman diruik etzeuken da.

Etxaola alliau zienen, Barriolak iru ogi etâ zitun kapusaien azpiti, iñor akordau bê dendariri arrapau zionak.

Motikoi esa mentzion. Ikustek iru ogi nola ekar dituan nik diruik bê?

–Ik lapurre izateko eztek balio ta jun ai emendi. Ikas tzak beste ofizio 'at.

*Roman Otaegiri*
*1990-5-7an jasoa.*

**Barriola (IV)**

Joan txiki Goienekok Arabako Salbatierran tzeuken etxenausie ta eun baten autza zijon errentea

pâtzea. (Garai artan Ladron de Zegama Salbatierran bizi zan)

Eun jakiñe izan oi zan errentak pâtzekoa.

Joan txiki Salbatierrâ errenta dirukin nausiña zijola, San Adriango tabernan sartu ta jokun errenta diruk galdu zitun.

Joan txikik nausiña jun da esplikau mentzion pasaizoa.

Nausie asarrau mentzan da demandan asi mentzikon: Olakoik etzala ein bear, ori al tzan familiko guraso 'aten formalidadea ta beste milla kontsiderazion ondoren, berai errentea pâtzeko nundi atea bear tzon dirue galdetu mentzion.

Joan txikik beste amabost eun barru ziur errentea pâtzea aindu mentzion nausiri, ala beintzet promes ori ein da Zeamâ etor mentzan gue gizona.

Amabost eun barru, jokun beiz e dirue irâzi ta Joan txiki errentea pâtzea zijon Salbatierra. San Adrian azpiko metaliturriñ ure eraten ai zala, kaltzipurditi eldu ta au esanez airen jaso mentzon Barriolak, Ara emen gue Joan txiki.

–Zer dallek emen? galdetu mentzion.

Errenta dirue nausiri eamatea zijola. Aurrekon nausiri eman bearreko dirue jokun galdu zola ta.

Barriolak dirue eskau zion, onek poltxikoti etâ ta ematea beste erremedioik etzon euki.

Barriolak gerrikon gorde zon Joan txikiñ ontzakoa.

Aratz azpia eaman tzon, an tzion Barriolan koadrillea.

Batzuk armak garbitzen ai zien, beste 'atzuk lapikok egosten da irakiñ alditan lapiko tapea altxaitzen tzanen, umen atzaparrak ikus tzitun lapikon egosten Joan txikik.

Joan txiki ondo tratatzeko eskau zion koadrillei Barriolak.

Urrengo goizen Barriolak Joan Txikiri esan tzion: –Jun ai Zeama aldea ta biden iñor ikusten bek esaiok emen ez tiala iñor ikusi.

–To, esanez, aurreko eunen kendu zion ontzakoa eman tzion da beste ontzako 'at gañea.

Joan txiki korrikan abiau zan da laister billau zon Zeama aldeti zetorren jendea, mandok kargauta zetozen.

Ia iñor ikus tzon galdetu zion Joan txikiri jende onek, erregen dirukin zetotzen nunbait.

Joan txikik ezetz, etzola iñor ikusi.

Zamal jabek kuebea pasau bezin laister, tirok asi mentzien baño orduako Joan txiki urruti zan.

*Migel Urbizuri*
*1980-3-8an jasoa.*

**Barriola (V)**

Barriola San Adriango Portu gañen ibiltzen tzan ikazkintzan.

Gipuzkoati Araba zeillen jendek, San Adriango kueban tzion kantinan dirue jokatze mentzuen.

Jende asko errenta diruk galdu ta errentak pau bê geaitzen tzan.

Barriolak arbolatan izkutauta jartzen tzitun gizonak, kaltzaden ingurun.

Jendea zetorrenen danba ta gañea salto eiten tzien.

Batzuai dirue kendu ta etzeukenai eman da ola ibiltze mentzan.

Artzaiai ardik eo arkumak e arrapaitzen tzien.

Bein San Adriana zijola, Asurmendi Muñoko amona txikie jatekoa eiten ai mentzan da Barriola andi pasatzea suertau.

Amona txikik labeti etâ opea ta pusketa 'at eskeñi zion Barriolai.

Ontan izketan asi zien.

–Amona, ze berri do?

–Ze berri don esaten diezu? Jende guztie or dalle, Barriola gora ta Barriola bêra, bati dirue kendu diola, bestei ardie arrapau diola, ok die emengo kontuk.

Amona txiki ori laben tzeren ogiai bueltea ematen asi zan, ogik oaindio alde 'at erreta ta bestea oretan tzeuken.

–Nik, esan tzon, gizon ori al banoke, ogi au bezelaxe laben sartuko noke.

–Zuri kalte aundik eiñ al dizu? galdetu zion Barriolak.

–Nei ez baño beste askoi bai.

Ordun Barriolak oretan laben tzion ogi 'at artu ta andrei gonak jaso ta ipurdiko erretenen ipin tzion.

Ak garraxik!

–Urrengon Barriolakati kontuz itz ein, Barriola ni naiz.

Ala izkutau mentzan gizona.

* * *

Bide asko zaitzen tzitun Barriolak, San Adrian, Zoazarreta ta beste asko.

Zaldi gañen tzijonai arbolati lazoa botatze mentzion.

Ala urkatze mentzon jendea.

*Joxe Mari Zabaletari*
*1975-8-4an jasoa.*

**Barriola (VI)**

Barriola izeneko ikazkin bat San Adrianen bizitzen tzan bê koadrillekiñ.

Lapurretan e motille izan bear tzon.

Zeukenai kendu ta etzeukenai emate mentzion.

Ikazkintzea bukaitzen tzonen, Arabâ jatxi ta an etxe 'aten apopillo eoten tzan.

Beiñ, ikazkiñe menditi jatxi zanen, ama alabak nearrez tzeren.

–Zer dezue? Galdetu zien ikazkiñek.

–Nausie etor tzaku errenta billa ta diruik eztauku.

–Zenbait 'a dirue?

–Ainbeste.

Ikazkiñek eman tzien diru ori. Nun da noiz nausiri pau bear tzien galdetu zien da gauen alako lekutan, kontestau zien.

Ama-alabak nausiri errentea pau bear tzien lekua, Barriola ok baño lênao jun tzan da izugarri 'at tzion bertan.

Barriolak izugarriri trabukoa jarri zion eskutan, bera izkutau ein tzan.

Ama alabak etor tzien, nausie re bai ta diru entregea asi zanen, baztar bateti oju ein tzon Barriolak.

–Alto! Moitzen bek tiau.

Nausik bildurrez lau gorrin Barriolai eman tzion diruk.

Danak etxea bildu zienen, ama alabak arrituta Barriolai gertau zana kontau mentzien.

*Jexux Mazkiarani*
*1976-3-4an jasoa.*

**Barriola (VII)**

Zeamako Artzak Aixkoneta biali zon bein Bitoria diru billa, garai artan gertuaneko bankue Bitorin mentzan.

Aixkoneta au euzkikiñ etxeti irten da euzkikiñ etxea sartze mentzan, Bitoriti jun etorrie ein da gero.

Arabako lanak ein da etxea zetorrela, San Adriango pason, Barriolan bildurrez, diru poltsea pago zulo 'aten gorde zon.

Ontan Barriolakin topo ein tzon.

–Artzan enkargun batekin ibilko aiz? galdetu zion.

–Ez motel, Arabâ jun nauk txerri koxkor bat erostea, jokun asi ta asi banauk asi, diru danak galdu zituat. Emen netorrek ez diru ta ez txerri.

–Bazekiat esan tzion Barriolak Artza nê kontra soldaduk bialtzeko dallela, ba esaiok, nê koadrillekiñ jaixten banauk, eztola nei soldaduk bialtzen lanik izango.

Besteik bê izkutau mentzan ikazkiñe.

Aixkoneta gorde zon poltsea jaso ta laixter mentzan Artzanen.

Artzak galdetu mentzion:

–Barriola ikusi al dek?

–Bai.

–Ordun eztek diruik ekarko?

–Emen dirue, ta poltsea mai gañea bota mentzion.

Eman mentzion Barriolan enkargue re, alegie bê koadrillekiñ etortzen bazan Zeamâ etzola ari soldaduik bialtzen lanik izango.

Artzak esa mentzion Aixkonetai:

–Jungo alitzeke beiz San Adriana?

Aixkonetak baietz.

Emaiok Barriolai milla erreal ok eta esaiok ni enallela ari soldaduk biali asmotan.

* * *

Aitzenen beintzet, soldaduk etorri ta arrapau mentzuen Barriolan koadrillea.

Bera laun batekin gorde mentzan.

Barriolan launek, jan billa irten tzon baten, arrapau ein tzuen, da au beartuz Barriolan gordelekua soldaduk alliau zien.

Eskuk eta ankak lotu ta erretzen tzion karobi 'atea bota mentzuen gizajoa.

Zeukenai kendu ta etzeukenai ematen tzionan istorik ola akabau mentzien.

*Jexux Mazkiarani*
*1980-3-6an jasoa.*

**Amiñagone**

Gau baten Amiñagoneko txakurre zaunkaka asi mentzan.

Atea zabaldu zuenen, seme gaztea bê billa etor tzien bi launekin jun mentzan etxeti.

Urrengo eunen San Adriandi erregiñek pasau bear tzon.

Gau guztiñ, iru motillek erregiñei urrengo eunen bidea irtetzeko prantaitzen aitu zien.

Espitu Santuti San Adriana dijon biden trabukoa disparau ta erregiñei belarri at eama mentzion tirok.

Laixter iru motil orik arrapau zituen da bat Artagosen, bestea Musason da irugarrena Murgizelaien urkau mentzituen.

Amiñagonekoa, Musasokoa ta Mendaldekoa mentzien iru motil orik.

Arrazkio Zeamako goialden, txakurre zaunkaka asten danen, gaue bâ, ateik eztala zabaldu bear esan oi da.

*Jexux Mazkiarani*
*1980-7-7an jasoa.*

**Landatako zazpi anaiak**

Landatan zazpi anai bizi mentzien da zein baño zeiñ indartsugok zazpirek. San Adriandi zetozen mandazaiei, Landata parea alliaitzen tzienen, bidea irtetze mentzuen motil ok itai bana eskutan tzuela.

Mandoai lazok moztu, zâgik eo gari zakuk besazpiñ artu ta etxea eamate mentzituen.

Mandazai bat, Landatako anaiekin burutu ezin da Mandabideti asi zan karreton, karteron bideti.[1]

(1) Mandabidea, erregearen karteroaren bidea zan.

Mandazaiek ala esa mentzon bein bentan baten: Txakur onekin nik etzeukiat Landatako zazpi anaian bildurrik.

Zazpi anaiek au aitu zuenen esa'mentzuen: Pauko 'ik oaindio.

Zazpi anaietan gaztênak, bera naikoa zala, esa mentzon mandazaiei bildurre sartzeko.

Iturzâla irten mentzion beso 'at ondo trapuz estalita zola.

Mandazaiek Landata ikus zon orduko, txakurre axau ta gañea bota zion.

Txakurrek aua zabaldu zonen, Landatak trapuz estalitako eskue sartu zion auan.

Txakurre zotinka asi zanen kutxilloz il tzon.

Landatak mandazaiei esa mentzion: –Txakurren aitzena nai ezpaek, Landatako anaiekin kontu izan.

*Jexux Mazkiarani*
*1980-4-8an jasoa.*

**Elizako San Martin**

Zeamako Elizan don San Martiñek morroiak lapurretâ bialtze mentzitun San Adriana. Bera re lapurre ta gaiztoa iza'mentzan.

Jendea nola nai iltze mentzon dirukati, baño zeukenai kendu ta etzeukenai ematen e bamentzekiñ.

Zeamako parrokoa oso launa mentzon. Gauen askotan San Martin parrokon etxea kafea artzea jute mentzan.

Eun baten parrokoa trixte mentzion.

San Martiñek zer tzon ba ta parrokok eantzun mentzion: Erri guztie pekatu gorrin dalle, eliztar danak infernua jungo zat eta neu nola salbauko naiz?

–"Ori konponduko deu gizona" esan tzion San Martiñek eta kafea artu ta San Adriana jun tzan.

Urrengo eunen, iganden, goizen goiz San Martin parrokon etxen presentau zan.

Zartain baten ikatza tontorka jarri ta su eman tzion.

"Infernuko sue", eskau zuk tarteka sermoian da ikusko 'ezu jendea nola konbertitzen dan.

San Martin zartañe eskutan tzola Elizako ganbarâ jun da zulo 'aten ondon jarri zan.

Poliki poliki jendea Elizâ etor tzanen abadek mezea asi zon.

Sermoikon ala zion garraxika: –Erri ontako jendea, danok infernua zoazte, pekatari aundi 'atzuk besteik etzâte.

–Jaingoikoa, bota jende oni infernuko sue, zion deadarka.

Parrokok infernuko sue, deabrun kalderak eta beste milla gauza aipau ondon, beiz e ala eite mentzon garraxi: –Jangoikoa, bota jende oni infernuko sue.

San Martiñek txingar danak batea bota zitun zuloti.

Elizan jendea lau gorrin tzion.

Parrokok beiz e: –Bota su geio jende gaizto oni.

San Martiñek ganbarati: jauna, nê suk gastau die.

Jendea orduntxe lasaitu mentzan.

* * *

San Martiñek aitzeneko eunetan Jangoikokiñ e pakek ein nai izan tzitun.

Elizea aunditzeko dirue berak ema'mentzon.

Zeukenai kendu ta etzeukenai eman, Elizako San Martiñek eite mentzon.

Orreati da Zeamako patroia, gero Elizako ataburun jarri zuen.

Eliza dana ez mentzon eiñ, erdi pareti aurreakoa bakarrik.

*Doroteo Otaegiri*
*1980-8-7an jasoa.*

**Euzkitzeko Joane**

Gue atte zanak Joane zon izena, karlistan gerran ibil tzan Euzkitzen[2] asistente. Ba mentzon beste laun bat e Tolosa aldekoa.

Gerra ondon zeozer ein bear da Somorrostroko minatan tolosar onek eta bik lana ein mentzuen.

Txanpon batzuk irâzi zitunen, gue atte Euzkitzen jarri zan ezkonduta.

Eun baten, Arabati zetorrela, San Adriango Portun lapur batek irten tzion bidea.

–Emaiek diruk esa mentzion lapurrek.

–Kontxo, jarri ai emen. Motel, i alako-aiz, lapurrek gue atte ezautu zonen.

–Emen nellek, ezkondu nitzean da familie azitzen ai nauk nola eo ala.

Lapurrek, Somorrostron lana eitek etzola mêzi ta Sanratin lapurretan tzeillela, emen dirue minatan baño errezago irazten tzala ta olako kontuk.

Pañuelokara 'at ontzako urre etâ mentzon poltxikoti.

–Ik e artu zak zeozer esa mentzion.

Gue attek artu nai ez.

Ontzako 'at ema mentzion da Urkiola[3] alden izkutau mentzan.

Laun aren berri geio ez mentzon jakiñ.

Amaika aldiz esan oi zon, ontzako arekiñtxe erosi zola lenengo idiparea.

*Joxe Mari Arakamari*
*1980-8-4an jasoa.*

(2) *Euzkitze.*- Eguzkitze berriko mutil baten izengoitia zen.

Kastillako trozoetan gaztetatik lanean ibilia, erdaraz eta idazten zekiena, gerratean ofizial egin zuten eta besteko (Euzkitze Zaharreko) mutil laguna bere asistente egin zun nunbait.

(3) Urkiola.- Portugañetik eskubira dagoen mendi baten izena.

Oharra.- Ipuin honetan garbi dakusagu, joan zen gizaldiaren aitzenetan oraindik Sanratiñ edo San Adrianen gainean bidaztiak lapurren bildur zirela.

**Tenplarioak**

Zegaman eta batez ere Goialdean jaio ginenok sarri askotan entzun dugu Espiritu Santuko Tenplarioen berri.

Zenbait alditan zaharrei edo artzaiei entzun izan genizkien praile gudari haien judaskeriak.

"Diruagaitik edozein hiltzeko gai zirela, pelegrinoei lapurretarik beltzenak egiten zizkiela, maltzurrak eta gaiztoak zirela", horrelako kontua pranko entzun dugu haurtzaroan eta geroago ere.

Zori onean izkutatu omen ziren noizbait gure mendietatik.

Hain gizon maltzurrak ez zirela benetako praileak ere esan ohi zuten gure zaharrek (praileen maltzurkeriez mintzatzeaz lotsatuta bezala) praileak baino gehiago gudagizonak zirela eta.

**Espiritu santuko tenplarioak nortzuk ziren**

Lehenengo kruzadan sortu zen Ordena hau, Jerusalenen hain zuzen, 1118garren urtean.

Erroma, Santiago Konpostela eta Jerusalenerako bideak zaintzea izan zen beren lehenengo ekintza.

Kruzadek iraun zuten bitartean, Jesusen lurraldeak herek gorde zituzten Arabeei, Turkoei edo Saladino ber-berari hortzak erakutsiaz.

1289ko urtearen eta 1291koaren bitartean Kruzadoek Palestinako lurralde guztiak galtzean, Tenplarioek Europarantz jo zuten bein betiko eta bertan finkatu ziren.

XIVgarren gizaldiaren hasieran Europako erromes bideak hau da Europako bide guztiek bere kontrolpean zeuzkaten eta Frantziako banku gehienak ere bai.

Arrazoi hauek zirela eta gorrotorik beltzenak sortu ziren Ordena honen aurka.

Frantziako Felipe "Ederra" zeritzanak gertatu zuen Tenplarioen hondamendia, Floriango Eskiunen gezur testigutzak oinarritzat hartu eta epaiketa gogorrenak prestatzen hasi ziren erregeren monagilloak beren aurka.

Oinaze eta torturarik zitalenen artean, tenplarioek beren buruen aurkako aitormenak egin behar izan zituzten.

1307an epaiketa lotsagarri batzuen ondoren gaizkiletzat espetxeratu zituzten.

1312an Klemente Vgarrenak bula baten bidez Ordena desegin zuen, Tenpleko buruak eta buruzagiak Parisen erre zituzten.

*«...Lo que más nos choca y nos conmueve en el proceso de los templarios es que, en todos aquellos lugares en que se interrogó a los templarios con toda objetividad y en que pudieron expresarse con el corazón en la mano y sin presión de ninguna*

*clase, estos proclamaron su inocencia.»*[4]

Heriotza, sua eta burnia ez zitzaien nunbait nahikoa tenplarioak zigortzeko beren etsaiei.

Bazter guztietan hiltzaile, lapur gizon gaiztoen sona zabaldu zitzaien eta izen garbia kendu.

Gezurra badirudi ere Zegaman, tenplarioen prozesutik 684 urtetara, orduan ezarri zitzaien fama txarrak irauten die oraindik.

Ikusi bestela ondorengo ipuinak.

**San Adriango lapurra**

San Adriandi zear mandazai bat mentzijon mandoa urrez kargauta zola.

Atzeti norbeitek seitzen tziola konturau zan baño aurrea seitu zon.

Alakon baten Opakua gañea alliau zanen, seitzen tzetorkionak "alto" bota zion mandazaiei da diruk eskau.

Mandazaiek txoakilloa zaldiri kendu, lapurre jo burun da ill ein tzon.

Lapurre Santi Espirituko frallea izatea gertau zan.

Orduti galdu mentzan Espiritu Santuko konbentue.

*Doroteo Otaegiri*
*1990-5-7an jasoa.*

(4) Bordonove, Georges: *La vida cotidiana de los Templarios*, 348. orr.

**Santi Espirituko prallea**

Aratz azpiñ, oaiñ arrik daren bezela, lênao mea eo burni gai pusketak mentzeren.

Beiñ olagizon bat ai mentzan burnie biltzen.

Espitu Santuko pralle 'atek ori ikus tzonen, aballan arri 'at jarri ta tiau, jo burun da seko utzi mentzon gizona.

Espitu Santuko prallek gizon txarrak mentzien.

*Bernardino Asurmendiri*
*aspaldi entzuna.*

Espitu Santuko prallek bi bolaleku zeuzken eren jolasetako.

Bat Iturzâldi gorago, oaindi ezautzeko modun do.

Bestea askoz ederragoa Aldaolan, emen oain dana piñu do.

Bolaleku otan oaindi denbora gutxi arte ikazkiñek eta artzaiek bolatan eiten tzuen.

*Jose Alustizari*
*1990-3-8an jasoa.*

Jadanik ikusiak ditugu Zegaman ahozko literaturan gorde diren zenbait lapurren ipuin.

Herriaren oroitza, gauza guztiak bezala, mugatua denez, mendi bakarti eta eremu eder haietan ziur nago ezagunak zaizkigunak baino lapur gehiago ibiliko zirela.

Lehen aldiz paperetan aurki-

tzen dugun San Adriango lapurrei buruzko agiria 1450ekoa da.

Urte honetan, abenduaren 19an, Partzoneriko partaideak San Adriango haitzuloan bildu ziren eta lapurren aurkako erabaki gogorrak hartu zituzten bertan.

Jarraian, historiak gorde dizkugun lau lapurreta, gehiago ere egon litezke han-hemenka artxiboetan.

Nik hauek bakarrik bilatzeko aukera izan dut.

*Solíanse acoger los Lacayos de todo el Bascuence a Oñate, a Sancho García de Garibay, y estos, en el puerto de San Adrián, pidieron a un arriero de Hernani, que se decía Juan Zaar, que les hiciese cortesía [=les diese para beber]. Y como no les daba le quitaron de su dinero, y después se quejó al Corregidor y a toda la Ptrovincia, los cuales enviaron al Merino maior con mucha gente a Oñate. Y algunos avisaron a Sancho Gracía y sus lacayos, los cuales huyeron a la cueva de Santa Ilia, y allí los cercaron; y esta cueva tiene una puerta quasi media legua de distancia y por allí les proveían de todo lo necesario sus amigos con un criado que se llamaba Zalagarda, y se compuso entonces este cantar:*

Ala Zalagarda
Zalagarda mala
Zalagarda gaisto
Oñaztarra oondaco
Ardao zuri, ardao Madrigalgoa,
Ardao zuria Mendoza gana doa,
Alabana Dandayli gogoa,
Zalagarda Sandaylira doa.

*Este Mendoza era Merino mayor; y el vino que para él iba, cogieron en el camino y se lo llevaron a los cercados de Santa Ilia. Toda la hermana los tuvo cercados algunos días, y al cabo, como no se querían rendir, ataparon la torre de torresnos de tocinos gordos y los asaron, pensando que con aquella manteca y grasa les abrasaran, pero bien seguros estaban. Al fin les dejaron y entonces se compuso este cantar:*

Sanda iliac atzac ditu zizarrez
Nola zizarrez da ala zendalez
Hermandadea arcandoa negarrez
Anso Garcia é gasteluori emunez
Ec envinda estiquicha esan ez.

Lascavarroen y esataco lastorra
Lascavarro costatuan onela
Gavaz ere urtunica obela
Argui izarroc ditugula candela
Ostatuan guera diro igu emenda.

Luis MICHELENAk *Textos Arcaicos Vascos* liburuan aipatua; 92-93. orr.

*El día 20 de Agosto de 1717, D. Lorenzo de Uribarri, Correo de S. M. había travesado el Puerto de San Adrián y bajaba hacia Cegama. Venía de la Corte de Madrid con la valija de S. M. y se dirigía para la Ciudad de Bayona. Le salieron tres hombres: el*

*uno con pistola y descubierta la cara; y los otros dos con escopetas y cubiertas las caras, "el uno con un pañuelo de lienzo blanco, y el otro con pañuelo de color tabaco". Después que vio al primero, quiso apearse con ánimo de defenderse, pero uno de los enmascarados le descargó un golpe terrible que le echó en tierra, le ataron manos y pies y le cubrieron la cabeza con la casaca que traía. Y le registraron calzones y toda la ropa y faldriqueras, y le quitaron 21 doblones de plata de todo género. Y después le ordenaron bajo graves amenazas que no se moviese durante una hora, y que, por si las mosmas, guardó fielmente lo mandado. Y luego encontró ambas valijas en tierra, y la menor cortadas las correas, "de donde llevaron una caja en que llevaba agua en ella para la Reina,*[5] *Viuda de la dicha ciudad de Bayona, y que reparó en el ínterin que estuvo echado, que luego que agarraron dicha caja, dijo el uno de ellos a los otros, que marchasen porque allí estaba, lo que habían menester", "hablando castellano cerrado.* (Prot. 1538. fol. 32).

Fr. José I. Lasak, 1972ko *Arantzazu* aldizkariaren 76. alean aipatua; 78. orr.

(5) Baionako erregina hau, María Ana de Neuburg, Carlos II.aren alarguna zen, eta Aita Manuel Larramendi izan zen urtetan bere aitorle (hartu duenaren oharra).

EL CORREO DEL OBISPO DE REIMS, EMBAJADOR EXTRAORDINARIO.

*El día 6 de Enero de 1748, Francisco Muñoz, "Correo del Ilustrísimo y Rdmo. Sr. Obispo de Reims, Embajador Extraordinario del Reino de Francia", declaró ante Francisco de Arza, Alcalde de Cegama, que habiendo llegado a media noche a Galarreta, donde se hallaba la última posta de Alava, procedente de la Corte de Madrid y para continuar a la Corte de Francia, tomó en este pueblo de compañía a dos hombres, a una con el postillón, todos armados, llamados Francisco López de Gereñu, Miguel Sáez de Araoz y Francisco Martínez de Alegría y salieron hacia el Puerto de San Adrián; que antes de llegar a este punto, les salieron dos ladrones "metiendo entre ambos una bulla que parecían eran más de diez"; que uno de los ladrones con un palo iba a sacudir al postillón, y al mismo tiempo uno de los acompañantes, Francisco Martínez de Alegría, con toda rapidez le tomó el golpe con su escopeta, y en este tiempo el otro compañero le disparó, y "aunque prendió en la "casoleta" (pistón), no penetró el fuego en el cañón". Los tres se abalanzaron sobre el agresor y pudieron quitarle el palo y después de haber luchado con él un buen rato, le mataron a palos y con los cañones y "culatras" de sus escopetas. Durante la refriega el otro ladrón agarró a las bri-*

*das del caballo del Correo y le tiró para abajo. Este "le disparó al mismo tiempo dos pistolas que llevaba, ninguna de ellas le prendió". (...). El segundo ladrón aprovechó la ineficacia de las pistolas del Correo para darle un garrotazo y envolverle con el manto, incapacitándole para toda defensa. Temiendo por la vida, le pidió con lágrimas que no le matase, pues ya le entregaría todo el dinero que tenía, Sacó dos bolsas que llevaba y se las dió, la una con 20 dobloncillos de a 20 reales y la otra con 12 escudos de plata de 20 reales. Declaró el Correo que después que le quitaron los dineros, que se alejó el ladrón, sin duda (añade), "oyó algo de lo que decían en vascuence los hombres y el postillón sobre el primer ladrón muerto".* (Prot. 1545, fol. 1 y 15).

Fr. José I. Lasak, 1972ko *Arantzazu* aldizkariaren 76. alean aipatua; 78-79. orr.

EL CARNICERO DE CEGAMA

*El día 5 de Diciembre de 1768, Martín de Ugarte, abastecedor de carne de Cegama, había salido de Galarreta por el Camino Real de San Adrián con su caballo, cargado de 8 arrobas de sebo y vestido, sin duda, con las mejores prendas que poseía. Antes de llegar a San Adrián vió a dos hombres, de unos 35 años, el uno alto, con una marca debajo del ojo izquierdo, y el otro regordete. A la pregunta ¿qué gente tenemos? Ambos respondieron: "Gentes de paz". Pero apenas habían pronunciado sus palabras se abalanzaron sobre él. El uno le cogió del puño y le colocó sobre el pecho un puñal, con la amenaza de matarle, mientras que el otro sostenía al caballo. Temeroso el carnicero, entregó todo el dinero que llevaba, que eran 42 pesos, incluso "los cuartillos de calderilla". Luego le maniataron y vueltas las manos por la espalda bien ligadas y le desviaron del camino. En tanto que el uno le registraba las cosas que llevaba, el otro le desnudó de los vestidos: de camisas de lienzo de Tarazona, con broches de plata valenciana, de paño de Chinchón, con botones de seda; zapatos con hebillas de plata con tres onzas de peso, etc. etc. Y al mismo tiempo el ladrón se vestía con todas las prendas que le arrebataba, colocándole a él vestidos ajados que traía. Y luego le derribaron, vueltas las manos atadas y ligadas hacia atrás, y le ataron el pie izquierdo a las manos, tirándole con mucha fuerza, tapándole la cara con una capa. Y se despidieron amablemente con el saludo: "Agur, paisano". Aquí le dejamos el caballo para que mañana pueda ir a su casa". Pero el agredido no vió más el caballo.* (Prot. 1550, fol. 119).

Fr. José I. Lasak, 1972ko *Arantzazu* aldizkariaren 76. alean aipatua; 79. orr.

# KAJA URREAREN IPUINAK

### Egurtzeko Joane (I)

Karobie eiten aitu mentzan eun guztiñ Egurtzeko Joane.

Gauen arrebai esa'mentzion.

Neska, geio lanik ein beharrik etzeukiñau. Kaja urrea billau'ñat.

Eztek egie izango!

Bai, Txaparrin billau'ñat eta bertati Aizkorriko Kûtzea ikusten'en.

Urrengo eunen Joane, bê launekiñ, karobie eitea jun tzan.

Karobiñ arkue ezin tzion eiñ argiñek eta Joane pikotxen jarri mentzan arkui eusteko. Giltzarrie jartzeko momentun, arkue eroi arrik azpiñ artu zuen Joane, ta bertan lertu ta il tzan, bê amets ta guzti.

Jendea gauen illargitan askotan ibil menda urre billa Txaparriñ.

Iñok ezto ezer billau oaiñ arte.

*Bernardino Azurmendiri askotan entzuna.*

### Kaja urrea (II)

Aizkorriñ ardik larren diamantea zapalduz mendailtze.

Artzaiek, aleiñek eiñ ati ez tue diamante ori billaitzen.

Bedaiok Aizkorrondon urrea billau mentzon baño jasotzea juteako il ein mentzan.

Bedaion urrea Urtzelaitati ikuste'menda.

*Jose Alustizari*
*1991-7-5ean jasoa.*

### Kaja urrea (III)

Arrabiolako paren kamiñon, eun baten gizon bat geau mentzan kamiño baztarren.

Poltxikoti papel bat etâ ta denboratan kontuk eiten eon mentzan.

Alako ordutan da lekutan da eunetan, euzkik jotzen tzon lekun beitu zon da kaja urrea billau ta jun mentzan.

Jendea arrituta utzi zon.

*Inazio Urbizuri*
*1980-8-3an jasoa.*

### Kaja urrea (IV)

Zumitz Urkullu gañen do Ojaola. Beiñ Ojaolati bêra zetotzen Antzaza ta Goiene.

Goienek Antzazai Frantzin tzeilleneko gertakizun au kontau mentzion.

Ni Frantzin neillela gizon bat billau nian sekulako premiñ. Erreal bateati sekreto 'at aindu zerean. Ara ze esan tzien. Ojaolako zulon kaja urrea ziola. Alkazi 'at ikusko nola espartsu soka 'at bueltan lotuta zeukena. Arbolen azpiñ aurreaxio losa 'at, losa orren azpin kaja urrea ziola.

Beida jarri zien da alkaziñ espartsu sokea ikus tzuen da aurreaxio losea re bai.

Bi gizonak losea jasotzen asi zien ta Antzaza gerrin zartarea ein tzikola ta lurrea eroi zan.

Goienek Antzaza etxea eamanda utzi zon.

Urrengo goizen jun tzikon Goiene Antzazai, Ojaola jun bear tzuela ta, baño Antzazak gauze etzan papela ein tzion.

Aitzenen, astelenen goizen goiz Ojaola jun tzieneako, Antzazak eta Osintak kaja urrea billau ta jasota zeuken.

Goiene aua bete ortzekiñ utzi zuen.

*Inazio Urbizuri*
*1981-4-7an jasoa.*

## MUSASO ZAHARRA ZEGAMAN

Zegamako ipuietan, erriko etxeik zârrana Musaso izan tzala dirudi.

Musasoko lênengo biztanlek jentillek emen tzien.

Dilubion ondoren, jentillek eren etxebizitzak menditan ein tzituen dilubion bat ba letorke re, Musason, Sâdarren da Espiritu Santun.

Espiritu Santuko Jentillek eta Sâdargôk asarratzen tzienen, mendi 'ateti bestea alkarri arrika aitze' men tzien.

Espiritu Santun men dare enterrauta Jentillek.

Jentillek sarri aitzen tzien pelotan, Aizkorri frontoitzat eta Arri Aundi pelotatzat artuz.

Jentilak gastau zienen Musason abadea jarri zan bizitzen.

Gaur Zeaman Elizea don lekun, garai artan altzak eta txarak bakarrik tzeren.

Musasoko abadek mezea Andutzako Elizan ematen tzon.

Abadea mezea ematea eskopetekin da guardikin juten tzan.

Zeaman garai artan otso asko zion da basoz estalita zeren mendik.

*Eduardo Irastortzari*
*1980-6-9an jasoa.*

### Musasoko abadea (I)

Musasoko abadek kalendarioik ez ta jaie noiz tzan jakiteko, eunen saski 'at eite mentzon.

Seigarren saskie eiten tzonen, urrengo eune jaie zala bazekin da Andutzâ mezea ematea juten tzan.

Garai artan Zeaman baso aundik zeren da otso asko ta

bâzpare goardie ta eskopetea eamaten tzitun.

*Eduardo Irastortzari*
*1980-6-9an jasoa.*

**Musasoko abadea (II)**

Musasoko abaden sakristaue, eun baten, Maiñamendia jun mentzan egurretâ.

Abadek galdetu mentzion.

Nun izan aiz?

Maiñamendiñ otaka 'atzuan billa, labe sue eiteko.

Aizu, esa'mentzion sakristauek abadei, sâtsa loran do ta Garizumea ez teu urruti.

Garizumea ba ote diau ba? Jun ai Tolosa aldea, or jendea gu baño aurreago ibiltze"ek, jakin tzak Garizuman noiz sartzen gân.

Sakristaue Tolosâ alliau zanen, orduntxe ai mentzien aste santuko prosesioa eiten.

Sakristaue Zeamâ bueltau zan da abadei ikus tzonan kontu eman tzion.

Abadek esa'mentzion: Motel aurtengoa jun dala kontu, guk datorren urten ein bearko diau Garizumea.

*Eduardo Irastortzari*
*1980-6-9an jasoa.*

**Musasoko abadea (III)**

Musasoko abadea asto gañen jun mentzan beiñ Andutzâ mezea ematea ta abadea mezea ematen ai zan bitarten, astoa Dînti aldea larren jun tzikon.

Asto ori azalduko zala ta oñez jun mentzan etxea.

Bitarten astoi otsoa azaldu zikon.

Jan ein bear aut esan tzion otsok astoi.

Itxoizak pixka 'aten, Andutzan mezea entzuten utziek ondo iltzeko astok otsoi.

Astok mezea entzuteko permisoa artu zonen, Andutzako Elizan sartu ta atzeko bi ankakin jo ta Elizako atea itxi zion otsoi.

Elizati astok otsoi ola kantatze mentzion.

Otso zârra gazie,
gaztetan gaizki azie.
Gero jango banauk ere
Seguro diat bizie.

Otsok astoi.

Asto zârra mukizu,
sobre ta geio dakizu.
Urrena ikusten tzaituanen
mezaik entzungo ez dezu.

*Eduardo Irastortzari*
*1980-6-9an jasoa.*

**Musasoko abadea (IV)**

Musasoko abadek, esan deun bezela, sei saski eiten tzitunen jakiten tzon jaie noiz tzan.

Beiñ aste barrun, neskamek saski 'at arrapau zion ixilka saltzeko.

Aste artan jaiko partez, astelenen jun mentzan Musasoko abadea Andutzâ mezea ematea.

*Eduardo Irastortzari*
*1980-6-9an jasoa.*

# IPUIN FILOSOFIKOAK

### Lurren lanak

Jangoikok mundue ein tzonen, lurrei ala esa'mentzion.

Landarak, aberek eta gizonak i ao mantendu bearren.

Lurrek lan ori bêtako geiegi zala esan tzion.

Jangoikok kontestau mentzion.

–Bai ori dana lan aundie dek baño aitzenen danak eorrek jango ituk.

*Inazio Urbizuri*
*1981-9-5ean jasoa.*

### Mundua nola egin zen

Jangoikok mundue ein tzonen, abadea, prallea ta baserritarra ein tzitun.

Abadea jun tzikon lênbizi eskabidekiñ.

–Ze nai dek? Galdetu zion Jangoikok.

–Bizimodu ona.

–Artu zak ba, iñok oaindio etziek eskau ta.

Laixter prallea re an etor mentzikon gizajoa, Jangoikoi bizimodu ona eskatuz.

–Bizimodu ona abadek eaman dik, esan tzion Jangoikok, ik pazientzikin konformau bearko 'ek. Pazientzikin naikoa trixte erretirau zan prallea konbentua.

Aitzenen Baserritarra etor tzikon Jangoikoi bizimodu onan billa.

Jangoikok esan tzion.

–Abadek eaman dik.

Baserritarrak ordun pazientzie eskau zion.

–Pazientzie, esan tzion Jangoikok. Prallek eaman dik. Iri lana emango diat bi alper orik mantentzeko.

Au dala ta baserritarrak ainbeste lan ein bear izate mendo.

*Jesus Mazkiarani*
*1981-2-8an jasoa.*

### Gizona, astoa eta txakurra

Jangoikok mundue ein tzonen, lendabizi gizona, astoa ta txakurre ein mentzitun.

Bakoitzei berrogeiña urteko bizie eman tzien.

Astok, asto izatekotan ogei naikok zitula esan tzon.

Gizonak astok nai etzitun urtek eskau zion Jangoikoi ta onek eman ein tzion.

Txakurrek ê ogei naikok zitula txakur izateko ta beste ogei urtek nai zitunandako utzi zitun.

Ogei urte orik ê gizonak Jangoikoi eskau ta onek eman ein tzion.

Orreati gizonak, lênengo berrogei urtek ditu gizonanak. Berrogeiti irurogeira familie kolokauko bô sekula baño lan geio ein bear izaten do ta urte orik astonak eo astoi artutakok menditu.

Irurogeiti larogeira, gizona gizatxartuta ta eozer gauzakati armonin da muturka ibiltzen dalako, urte ok txakurrei artuk diela esaten da.

*Estanislao Agirreri*
*1991-5-6ean jasoa.*

**Zapoaren eta satorraren tratua**

Oaiñ urte asko, zapok begik ez mentzeuken da buztan luzea narrasen tzola ibiltze mentzan.

Satorra beiz, sekula argik ikus bê ta lur zamarrak begitati etâ ezinda zeillen lurpen.

Bein bik tratu 'at ein tzuen.

Satorrak zapoi lurpen bear etzitun begik eman tzion da zapok berak bear etzon buztana satorrai.

Tratukin bi animalik gustora geau mentzien.

*Eduardo Irastorzari*
*1981-9-5ean jasoa.*

# ITZULPENAK



# ERREALITATEAREN ERASOA

CARLOS BOUSOÑO

I

Eta hor zaitut egitate
Utz nazazu ukitzen
Zure larrua haizeei
muga ezartzen diozun gunea.

Bizidun izateko zure doaia
eta egitatea aski dezadala.
Utz nazazue bere izakia
haztatzen. Bai, utz nazazue!

II

Utz nazazue. Ez ditut nahi
laino setatiak.
Kearen gibeletik ibarrak
marrazten izaki iluna.

Han, gortina ez-ziurren ostean,
sahats berdeak daude,
belardi bat lore
tipi eta emeez.

Gau ikaragarrian
irudi bat amesten nuen.
Hona bat. Koloreak dira:
zuriak, berdeak, gorriminak.

III

Utz nazazue gauzekin ere.
Une bakoitzera sartzen diren
egitate bat-batekoak dira.

Tinkotasun basatiaz
jalgitzen dira.
Bere egonaz
laket dira.
Diote:"Har ezazu, atsegin
izan ezazu!".

IV

Atsegin izan ezazu. Beha
harria, ortzea, airea.
Argi tartean arnasa hartu.
Uherketeraino jaitsi.

Uki harria, Beha.
Arnasak usaina. Hase zaitez.
Dasta, beha, proba,
min, nigar egizu. Badaki.

Egunabarrez zabal zaitez.
Eguerdian zabal zaitez.
Arratsarengana igo zaitez beha
berarengan zabaltzen.

V

Ederra da azkeneko
paisaia. Eta dena su da
azkenik gabeko gune irekian.

Harria kiskaltzen
emetasun bareaz, bereturik.
Irazekiz jaiotzen dira
laino xumeak.

Gizonengana irekita
ortze urdinean isladatzen diren
ibai bareen urak
ia irazekita.

Zuhaitzak, begetazio oparoa,
belardi zabalak, handiak,
gorenak.

Baita uhinezko mendiak
eta lautada bareak.
Dena irazekitzen.

## GAUZAKIAK

Zuek gauzakiak, gogor eta egiatiak,
argian eta iraupen sotilean eskandalu zarete.
Sakona da iturburu freskoen egon geldiaren
zuen jakitatea.

Txorrota birjinetatik sortzen zarete,
eta heredentziazko bizi sakona jasotzen duzue.
Isur, isur zaitezte, ilezkor isilduak,
isur zaitezte eta emaidazue
izakia, maitasuna, egona!

Isur zaitezte harri isila, mendi urdina,
maitasun-gandor bapatekoa,
argi handizko sakonaldea.

Emaidazue izakia, basatasun sakona
edan dezakedan erraia; gau galant-ilunaren aurka
nahasi guztizkoa asaldatzen duen egitatea.

## HITZOK

Hitzok herioarekiko saminagatik dira.
Neri zure zeinua marraztea, astiro egunabartzea,
sokak atontzea, egun sentia suntsitzea,
ametsetan isil dudana geldiro kantatzea dagokit.

Hitzok zure saminagatik
nire aberriaren murruak, izozturik, astintzean;
lore baita usaindun, agintza bero eta makila
[makurtuak dituzten
uzta zurbilengatik.

Hitzok zuhaitza bezain egiati
helduriko bakardade izugarri eta zaluagatik.
Hitzok lore horiengatik, egun haiengatik,
aire hil eta beso bizidunengatik.

Hitzok biziaren ederragatik eta
nahi gabe eta zabal arnasten den egunagatik,
ortzea arintzen edo eta abrego oroitzen duen
gogorapena egia den jakin gabe.

Hori guztiagatik ekaitz gogorrean
untzia gisa ezarritakoak dira hitzok.
Oihala etenda dago, haizeak hasperen du
gauaren alboan. Nik ez dakit. Entzun ezazue.

(*Errealitatearen erasoa* liburutik)

## BAINA NOLA ESAN ZURI

Baina nola esango zuri
lore bat bezain xume eta isila bazara.
Nola esango
ur,
iturri, iturburu, irribarre,
galburu, haize,
aire, maitasun zarelarik.

Nola esango dizut,
tximist gazte,
argi goiztar, egunabar, zaren hori,
egun batez
ezer ez baizinan,
hilko zarela.

Zure kera betierekoak,
argiak eta itsasoak bezala, agian,
materiaren maiestate iraunkorra
eskatzen du. Zure haragia lorea baino
hutsalagoa da arratsaren aitzinean
ozeanoaren egona bezain ederra izan arren.
Baina argiarekin erkatzen bazara
argia zara,
mintzo den argia,
"maite zaitut" dioen argia.
Jardinean, beste behin,
arrosak jaiotzen ikustean
egarria, begiak, nekea
eta nigarrez egiteko
gurari ezkengabea duen
argia zara.

(*Oda en la ceniza* liburutik)

*Luis Mari Mujika*

# AZKEN AGURRA

IGNACIO ALDECOA

Paisaia zinematikoak ,Departamenduko ateetako kristalen eta pasiloko leihoaren zehar, begiradak zeharkatu ezin zuen gisako itxura zuen; abiadurak sakonduraren perspektika soiltzen zuen. Gariz ereindako soro horiak , mahastien berdetasun urtsuan lotzen ziren monotonoki traketeo baten gisan.

Udako siestatzar hartan, bidaiariek apenas jaurtikitzen zioten elkarri bi hitz. Eguzkiak galga-galga jotzen zuen departamenduko leihatilan eta hulezko gortina jarrita zegoen.

Martxaren dandarrak denbora xehakatu eta oratzen zuen; erloju bat eta salmodia bat biak batera. Bidaiariek elkarri begira zihartuten baina kuriositaterik gabe eta asperdura nekagarriaz bidal-lagunengandik urrutiko pertsonak bailiran. Mugimenduak ere lasaka familiarrak, baina haietan ere hermetismoa eta urrutitasuna nabari zen.

Trenaren abiadura gutxitzen hasi heinean, lehiatila ondoan, norabide aldera eseritako neskatila altxa zen, gona berdindu eta mugimendu arin batez faja orekatu zuen, balantza eginaz eta gero bere esna-berri kalparra, lardaskatua, mate eta beldurgarria, txukundu zuen.

—Zein geltoki da hau, zu? —galdegin zuen.

Departamenduko hiru gizonezkoetatik batek, aurrean eserita emakumeak ihardesteko denbora izan baino lehen erantzun zion.

—Ba al dago kantinarik?

—Ez, andereño. Hurrengoan bai.

Gazteak, keinu bat egin zuen, nahigabezko edota lausenguzkoa agian, zeren segidan irri egin bait zion informazioa emandako gizonari. Andre helduenak irri hura gaitzetsi zuen bere eskuina bularralde

gorrira, kasi ubeldura eramanaz eta bere paparra borobildu egin zen ezpainak zorroztu eta betileetako ile luze eta erantsiak itzulikatu zituen.

—Egarri al zara? Nahi al duzu ardo tragoxka bat? —galdegin zuen gizonak.

—Itolarria emango dizu —erantzun zuen andre helduenak— eta ez dizu kenduko egarririk.

—Zera, andre. Ardoa ere, neurrian, ona da.

Gizasemeak zahatoa zamalekutik eratsi eta neskari eskaini zion.

—Erne, ez zikindu —ohar eginaz.

Andre helduenak bere poltsa lardaskatu eta serbileta bezain zapi haundi bat atera zuen.

—Jarri hauxe —aginduaz— Jantzia honda dezakezu.

Departamenduko hiru gizonak, neskaren tragoaren begira egon ziren. Hirurak irri eginaz maltzurki eta baboki; hiruak beren laborari esku puskak, belaunburuetan ezarrita zeuzkaten nola edo hala. Beren ikusmina teatro gisakoa zen, aurrez iragarritako zerbait irrigarri gertatzear bailegoen.

Baina ez zen ezer gertatu, eta neskaren hokotzetik eztarrian behera udako muga eginaz, bere bularretan zenefa zurbil batez inguraturik eta tabako koloreko larru-azal eguzkitutako eskotera heltzear zetorkion tantana lehortu zuen.

Gizonezkoek, zeremoniaz eta errespetuz edateko prestatu ziren, trenaren trakata soinua eta bidaiko martxaren doinu kalderoia, zabalagoa , bortitzagoa egin zenean. Zahato jabeak arretaz sostengatu zuen, bertan animali bizia baitlegoen eta begirunez ferekatsu.

—Iritsi gara —esan zuen.

—Zenbat denbora geratzen da hemen? —galdegin zuen andre helduenak.

—Merkantzia jaitsiko dute eta, ez jakin. Geraldia hiru minututakoa da.

—Hau beroa! —kexatu zen andre helduena, zinema aldizkari baten bidez aireztatuaz—. Hau beroa eta hauek aulkiak! Trenetik ohera...

—Lehen okerragoa zen —adierazi zuen ate ondoan jarritako gizonak—. Lehen aulkiak egurrezkoak ziren eta pintura bigundu egiten zen. Lehen lau ordu ere behar izaten ziren hiriburura iristeko, atzera-

penik ez zuenean. Lehen, agian ez zenuen aulkirik ere topatzen eta hor geratu beharra izaten zuen batek pasillotan bere otarre eta guzti. Zorionez, gauzak aldatu egin dira. Eta gerran... Ikusi egin behar zen gerra garaian tren hau. Leku bakoitzean geraldia egn behar izaten zuen eta denak behera jaitsi. Gerran...

Une batean isilik geratu zen. Trenaren frenoak txirriatu zuten eta elkarren tunpaka gertatu ziren.

—Hau beroa! —andre helduenak.

—Orain edan daiteke —baieztatu zuen zahatoaren gizonak.

—Ekatzu —esan zion leunki eta mesede eske gerra kontuak esan zituenak—. Kedarra kendu behar da. Ez al duzu nahi, andere? —andre helduenari eskainiaz.

—Ez, eskerrik asko. Ez nago ohituta.

—Hontara erraz ohitzen da edozein.

Andre helduenak betartea zimurtu zuen eta isil-misilka zuzendu zitzaion neska gazteari; Solas txutxumutxu hark, departamenduko gizonentzat mespretxu itxura zuen elkarrekin isilpean aritzean.Gizasemeak zahatoarekin ari ziren eta momentuz elkarren hurbil sentitu ziren. Andre helduenak ostera eragin zion aldizkariari airea eraginaz.

—Esan nizun fruta piska bat ekarri behar genuela —esan zuen neska gazteak—. Ez zuen gutxi esan Enkarnak; baina zuk, zure maniekin...

—Hurrengoan, kantina bat dago, aizu.

—Entzun dut.

Emakume helduenaren ezpainetako kolorea itzalia zegoen eta ezpain lerroetatik joana. Bere besoek ez zuten galtzarbeko izerdi muga, brusaren tintez hornitua, ezkutatzen.

Neska gazteak hulezko gortina altxa zuen. Geltotiko etxapea zaharra zen eta kuartel baten gisako utzikeri tristea zerion. Bere aurre zikinduan, kolore oldar baten gisako leiho loratu bat ikus zitekeen, lorontziz eta landarez betetako potez gainezka. Teilatu nabarreko hegaletatik zintzilik egur ilun, puskatu eta pitzatuak. Albo batera komunak eta bestera, merkantziak metatzeko erabiltzen zen teilapea. Estazio-burua, andenean zehar zebilen; oilar baten gisan zaindu eta menderatuaz eta bere txano gorriak, txanoen, txapel eta zapi beltzen artean gandor hasarretua zirudien.

Herria geltotitik urruti zegoen, lareun-bostehun bat metrotara. He-

rria, lurra lokazten duen zaborraren gisakoa eta baldarki muinoaren gizendura arinera arte luzatzen zen. Eliz-dorrea —hondakin zutitua, itxaropenik gabako iraundura— bere goiduraz zeruari mehatxuka. Bide xehakatuak, hutsa eta bere ezdeusean urrutian galduak, alor bakartiak elkartzen zituen.

Departamenduko lagunek, beren buruak itzuli zituzten. Gizon bat atean, arnasestuka indarka ari zen. Estutasuna areagotu zitzaion. Departamenduko bi gizonek saskia eta soka batez loturiko kartoizko maleta ateratzen lagundu zioten. Gizasemeak, ertzean kokatu eta bidaiariak kontenplatu zituen. Begirada geldoa berea, pentsakorra, galdekaria. Bere begiak, bustiak eta beltzak bare baten gisakoak, zamalekuan jarritako bere saski eta maletara jo zuten eta, hitzegin aurretik, lagunen betartera eta itxaroaldira jaitsi ziren. Ondoren txanotxoa erantzi eta esku libreaz bere brusa astindu zuen.

—Jainkoak lagun zaitzatela —esan eta pausaldia egin zuen—. Edadeak ez du barkatzen eta bat ez dago bidaietan ibiltzeko.

Lehiatilara hurbiltzeko baimena eskatu zuen eta denek beren zangoak kizkurtu zituzten. Andere helduenak asperen protesta jaurti zuen eta berriro egokitzean, papo-papo luzatu zituen zangoak.

—Barkatu , anderea.

Lehiatilapean, andenean, amona bat zegoen uzkurtuta,desasosegoz erne. Bere betarteak, zimurduraz zizelkatuak, aurpegia lurruntzen zuten, begi zorrotzak eta larrututako esku egonezinak nabarmendurik.

—Maria —garraisiz gizonak— andreak esku bat arin kopetara eraman zuen zapia txukuntzeko, izerdiaren estualdia nabariitzeko, eta bururakizunak sosegatzeko.

—Eser zaitez, gizona.

—Ez da oraindik jaitsiko.

—Ez zaizu zutik egotea komeni.

—Oraindik ere gauza naiz. Zuk bai, hobe zenuke...

—Joaten denean...

—Iritsi bezain pronto, Kandido agurtzera joango naiz. Bihar lana ematen badidate, hobe.

—Egin dezala ahal duena. Esaiozu dena, ez utzi ezer esan gabe.

—Ondo da, emakumea.

—Jarri zaitez, Jon.

—Zama jaistea falta da. Manuelen semea ikusten duzunean, esaiozu hirian nagoela adierazteko aitari. Ez esan zergatik.

—Enteratuko da, bai.

—Zaindu zaitez, Maria. Jan egin behar duzu.

—Egon lasai. Orain eseri. Idatzi esaten dizuenarekin. Norbaitek irakurriko dit gutuna.

—Bai, bai. Dena ondo ertengo da, ikusiko duzu.

Andre-gizonak, elkar begiratu zuten isilik. Andreak aurpegia eskuaz estali zuen. Lokomotorak txistu jo zuen. Estazioko kanpaiak jo. Frenuak askatzean egindako kirrinkadak trena osoki hartu, eta perezatik ernaldu zuela esan zitekeen abiada hartu baino lehen.

—Ez nigarrik, Maria —garraisika gizonak—. Dena nahi bezala ertengo da.

—Eseri Jon —esan zuen andreak malko haiekin kupituta—. Eseri zaitez Jon —eta bere ahotsaren harian, samurtasuna, maitasuna, beldurra eta bakardadea isladatu ziren.

—Ongi izan, Maria.

Emakumearen eskuak agurrari erantzuten zioten , gainerantzeko guztia isiltasunik trinkoenan zegoen bitartean. Gizona itzuli zen. Trena, almazenetako estalpea zeharkatu eta landetan barna sartu zen.

—Jarri hemen, aitona —esan zion zahatoa zeraman gizonak, altxatuaz.

Andre helduenak hankak luzatu zituen. Neska gazteak, hulezko gortinak jeitsi. Gudaz mintzatutako gizonak, petaka ilun, haundi, puztua eta errape bat bezain leuna atera zuen.

—Tori, aitona.

Andre helduenak, berriro zinema aldizkariarekin aireztatu zuen burua eta ziurtasunik gabe galdetu:

—Uzta ona al dugu aurten?

Emakumeekin hitzegin ez zuen gizonak, ardo gonbidapenean eta soro kontutan bakarrik parte hartu zuenak, adi begiratu zion aitonari eta bere begirada adiskidantzaz eta anaitasunez beterikoa zen. Neska gazteak, familiartasun baterakoiaren aintzin-solasa eman zuen.

—Operatzera al zoaz!

Aitona, orduan, trago bat edan, tabakoa onartu eta hitzegiten hasi zen. Bere hitzak alorren lagunmin ziren.

—Gaisotasuna... lana..., lurra..., diru eza..., lana... gaisotasuna... Lehenengo aldiz, lehenengoa, Maria eta biok urruntzen garena...

Bere urteak trenaren binbilika bezain monotonoak, haiek bezala-xe elkar-lotzen ziren.

*Gillermo Etxeberria*



# ADABAKIAK

# LUR hiztegi enziklopediaz

Gogoratzen naiz, eskola frantsesa edo beste zernahi hizkuntza ikasi behar genuelarik haur bikote arketipoko bat, izen arketipoz bataiatua eta ohitura arketipoak zituena jartzen zigutela liburuetan, eta haien balentria xume egunerokoekin ikasten genuela hizkuntza. Bikotea osatzen zuten Jacques-ek eta Chantal-ek. Euskaraz izen arketipoak bilatu bagenitu bikote baterako, demagun Xabier eta Miren liratekeela izen horiek. Bada, Xabierrek eta Mirenek 1983an, ez zuten tresna egokirik eskolan, munduko jakintza orokorrari buruz jakinmin arketipokoa asetzeko. Albo erderen morrontzan zebiltzan uneoro monografia bat idatzi behar zutenean esaterako, uneoro beharrean —desegoki itzuli, gainera, inork itzultzen irakatsi gabez— eta beste gauzetan jarri behar zuten adorea alferrik galtzen.

Haiekin pentsatuta bildu zen LUR argitaletxean lan talde bat, delako tresna egoki hori eskaintzeko asmoz. Eta lanean ere hasi ziren asmo hura gauzatze aldera. Argitaletxeko arduradunak berehala ohartu ziren, ordea, proiektua Jaurlaritzako laguntza politikoetatik kanpo egoteaz gain, merkatuak berak ezin ziola erronkari eutsi. Horregatik bertan behera gelditu zen proiektua, horregatik Xabier eta Miren, Miren eta Xabier tresna egokirik gabe gelditu beharrak ziren pixka baterako.

Denbora aurrera joan zen, hala ere, eta, hor, 1988 urte inguruan, berriro bildu zen aurreagoko talde hura, berriz ere LUR argitaletxearen inguruan. Eta Xabier eta Miren zahartu ez zirenez, haientzako tresna itxurosoa antolatzeko lanari ekin zioten. Proiektua aztertu zuten berriz, eta konturatu ziren egoera aldatua zela arras. Oraindik ere, Jaurlaritzaren laguntza politikoak kanpo egon arren, bazen merkatu bat erronkari nolabait eusteko modukoa. Eta ez hori bakarrik, hizkuntzak berak aurrera egin zuen urte bitarte horretan. Jende gehiago zegoen prestatua, eta tresna egokiagoak zeuden Hiztegi Enziklopediko bat egosteko, eta egoste puntu doia bilatzeko. Hor zeuden, bes-

teak beste, Ibon Sarasolaren *Hauta Lanerako Hiztegia* eta Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegia*.

Horrekin batera, esan beharra dago hizkuntza eredu bat krisian sartua zela ordurako. Itzulpen txarrak, baliapide okerrez edo desegokiez egindako itzulpen oso nolabaitekoak —ezinbestez, beharbada— ugari zebiltzan han-hemenka. Bien bitartean, bai Xabierrek eta bai Mirenek, eta baita bion irakasleak ere, segitzen zuten beren aldetik egin behar zituzten itzulpenak egiten, zerbait euskaraz ikasiko bazuten. Aldi berean, jakintza alor guztiei eta koherentziaz erantzun behar zaienean, areagotu egiten da krisia, eta baliapide okerrez arituz gero, interferentzien mamu ankerra agertzen da nonnahi.

LURen inguruan bildu zen lan taldeak Xabier eta Miren asko ezagutzen zuten, eta Xabierren eta Mirenen irakaskeak ere bai, beraiek ere Xabier eta Miren eta Xabierren eta Mirenen irakasle izanak zirelako, besteak beste.

Beraz, taldea lanean hasi zen, irizpideak finkatuz eta zailtasunak aztertuz. LUR taldeak informazio multzo orekatu bat osatzea zuen asmoa, bi alderditik orekatua: hizkuntzaren alderditik, eta ikuspegiarenetik. Izan ere, kanpoko informazio iturriak erabiltzera derrigortuak baitziren, gaztelaniaz, frentsesez, ingelesez edo bestez. Baina haien ikuspegiak ez ziren gureen berberak («gureak» diot, hemendik aurrera lerro hauen egilea lan taldearen barruan sartzen baita). Euskal Enziklopedia batek fokoa Euskal Herrian behar zuen, hemengo leihotik begiratu behar zitzaien munduko gauzei, eta hemengo gauzei —inoren begitik ikusita hain arrotz izan baititugu geureak, hain luzaro— garrantzia emanez. Espainiako leihotik ikusita, Annual-eko hondamendia, edo Frantziakotik Dien-Bien-Fu-koa hondamendi izan baziren ere, Xabierrek eta Mirenek Euskal Herriko leihotik begietan zuten galdera: norentzat izan zen hondamendi, eta norentzat garaipen? Victor Hugok gauza asko egin zuen bere bizitzan, liburu asko idatzi zituen, eta horiek guztiak azaldu beharrekoak dira, zalantzarik gabe. Baina, Euskal Herriko leihotik, esan behar zen Pasai Donibanen bizi izan zela, Euskal Herriari buruz iritzi asko azaldu zituela, eta euskaraz zertxobait moldatzera ere iritsi zela. Gainera, kontrakoa badirudi ere, herri txikiaren leihotik irazi beharrak morrontzetatik askatu egiten gaitu, eta lanari unibertsaltasun handiagoa erasten dio. Herri txikiak leihoak zabal baititu.

Hizkuntzaren aldetik, bestalde, jakintza alor guztiei batera, eta era koherente batean, erantzun beharrak ekarri zizkigun arazo larrienak, hizkuntza idatziaren bidetik, ezer asmatu gabe dela, ibili beharretik

etorri zitzaigun, Gainera, kanpoko iturburuekiko mendekotasunak eragiten dituen interferentzietatik askatuta behar genuen jokatu. Aise ulergarri, doi eta zehatz hala ere. Eta ez euskara erraza erabiliz, bai garbia eta gardena, ordea, Leizarragaren —eta orain artekoen— harako *usatu gabe*ko esparruetan ere. Arazo horrek bultzatu gaitu zenbaitetan hainbat proposamen plazaratzera, eztabaidagarriak beharbada, baina ezinbestekoak edozein kasutan ere. Gure helburuen artean beti egon da bat urrezko letraz josia, alegia, Xabierrek eta Mirenek gure obraren beharrean aurkitu eta, begiratzeko proporzioa dutenean, beste inolako oztoporik ez aurkitzea, gaiak berak dakartzan ulergarritasunerako oztopoez gainera. Hizkuntzarenik ez behintzat.

LUR-eko Hiztegi Enziklopedikoa, lehena izatea tokatu baitzaio, ez da ausaz perfektoa izango, izango ditu, seguruena, akatsak, hutsuneak eta mugak; baina proiektua haragonahia da. Zuzentzeko tenorean gaude, eta arian-arian sortu den lan talde berdindua eta gure lanean uste osoa jarri duten hamaika mila harpidedunak (guztiak Xabier eta Miren) dira egin dena zuzentzeko nahikoa berme.

*Inazio Mujika Iraola*

# Donostiako Uda Ikastaroak

Euskal Herriko Unibertsitateak 1982tik aurrera antolatu ditu Donostiako Uda Ikastaroak eta 1983ko emanalditik aurrera Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundi eta Donostiako Udalaren babesa izan dute Ikastaro hauek.

Donostiako Uda Ikastaroen lehen edizioak esperimentalak izan ziren, ikastaro kopurua mugatua eta ikaslegoa ia bere osotasunean bertakoa zelarik. Hirugarren ediziotik aurrera ikastaroek zabalera handiagoa lortu zuten, bai jarduerari (ikastaro kopuruari) bai ikaslegoari dagokienean. Ikaslegoaren jatorria Euskadi osokoa izatera hedatu zen.

Prozesu honetan, V., VI. eta VII. edizioek hirugarren etapa osatu zuten: ikastaroek Estatu osotiko ikaslegoa erakarri zuten, 3.000 ikasle ingurura iritsiz eta sektore pribatuaren babesa jasotzen hasi zirelarik.

Zazpi edizio hauetan zehar jarduera hau sendotuz joan zen eta Europan integratzea zela eta, markoa zabaltzeko aukera profitatuz, ikastaroen eredu berria planteatu zen, Europari begirako nazioartekotzea kontuta hartuz eta Europako Unibertsitate ezberdinetako irakasle ospetsuei gure ekitaldietan ikastaroak zuzentzeko aukera emanez: honela, beste esperientzi batzuk gureganatzeko aukerak ugaritu dira.

Nazioartekotze hau Uda Ikastaroen helburu iraunkorren (Unibertsitate Hedakuntza, Unibertsitateen arteko harremanak, egungo arazoei buruzko gogoeta) eskaera bat izan zen. Hori zela eta, Uda Ikastaroen VIII. edizioarekin batera Uda Ikastaro Europarren I. edizioa antolatu zen 1989-ko udan.

Ezarritako formula berria honako hau izan da: Europako Unibertsitateekin komenioak ezarri, UPV/EHUarekiko lankidetzan Donostian Uda Ikastaroak antola ditzaten, beren interesen arabera hautatutako gaien inguruan. Bordele, Toulouse, Trento eta Essex-ko Unibertsitateak izan ziren emanaldi hartan parte hartu zutenak. Lortu zen arrakastaren ondorioz, aurten izan da Uda Ikastaro Europar hauen V. ekitaldia eta partaideen kopurua urtez urte ugaritu da.

Aurreko edizioak Donostiako hainbat kultur aretotan garatu ziren. Zortzigarren ediziotik aurrera Miramar Jauregiko ekialdean (Printze eta Zerbitzu pabiloietan) lekutu dira bere osotasunean. Marko berri honi esker jardueren integrazio hobea lortu da ikasleen arten, irakasle eta ikasleen arteko harreman aberatsagoak bideratuz. Honez gainera, marko pribilegiatu batetan kokatu dira, ospe are hadiagoa eman dielarik.

Donostiako Uda Ikastaro hauek urtez urte gainditzen ari dira biltzen duten ikasle kopurua gogoan izaten badugu. Aurtengo ekitaldian 4.926: kopuru adierazgarria eta berez ekitaldi honen arrakasta azaltzen duena, bertan Euskadi, Estatu Espainarreko gainontzeko Herrialde eta atzerritik etorritako ikasleak izaten bait dira.

Hainbat bertaratu izanaren arrazoietako bat, urtetik urtera Donostiako Uda Ikastaroek lortutako ospeaz gain, Uztailetik Irailera bitartean garatzen diren ikastaroetan planteatutako edukin-aniztasun handia izan da: Ekonomia, Hizkuntza eta Literatura, Psikologia, Pedagogia, Zuzenbidea, Historia, Arkitektura, Medikuntza, Elikadura,...

Ekitaldi honetan halaber indar bereziz eta oso emaitza emankorrekin Uda Ikastaroen eta gure Herrialdeko beste erakunde eta organismo publiko nahiz pribatuen arteko lankidetza izan da, etengabeko ekimena izan dena ikastaroen XIII urtetan zehar. Horrela, zenbait ikastaro antolatu da UZEI, EMAKUNDE, Europako zenbait Unibertsitate, Bilbao Vizcaya Fundazioa, Euskal Herriko eta Nafarroako Aurrezki Kutxen Federakuntza, Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusia, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Eusko Ikaskuntza, Kazetari Europarren Elkartea, Osakidetza,... etabar luze baten lankidetzan. Honela, Uda Ikastaroak foro irekiago bat bihurtzen ari dira alde batetik eta bestetik Unibertsitate eta beste gizarte eta kultur agenteen arteko harremanak estuagoak.

Ikastaroetara Unibertsitate munduko edo beren gaietan jakitunak diren irakasle mordoa bertaratzen da, zeinen izenek EHUko Uda ikastaroek lortutako ospea adierazten dute.

Donostiako Uda Ikastaroak kultur topagune berezi bat bihurtzen ari dira eta beraiei eskerrak, urtero ia hiru hilabetetan zehar Euskadiren izena akademi-iharduera erakargarri, anitz eta jatorri ugaria duen irakasle eta ikasle kopuru aipagarri bat bertaratzeko gai denarekin lotzen da. Euskadiren gaurko errealitatea elkarrekin bizi, ezagutu eta gozatzeko aukera ezin hobea eman nahi dute ikastaro hauek.

Donostiako Uda Ikastaroek badute beste atal aipagarri bat: hiru-

rogeitamar titulutik gora argitaratu dituztelarik urte hauetan zehar, fondo editorial garrantzitsua osatzen dute.

Etorkizun baikor bat dute Ikastaro hauek. Hori horrela izanik, Euskal Herriko Unibertsitateak bultzada onuragarri bat eman nahi die Fundazio berezi bat osatuz: bide honetatik azpiegitura eta funtzionamendu bizkorragoa lortuko da eta nahi duten kultur suspertzaile guztiei parte hartzeko aukera emango zaie. Uda Ikastaroetako Fundazioaren Batzarre Nagusian bai Unibertsitateko eta bai gure Kultur Munduko pertsonalitate ospetsuek hartzen dute parte, bertako buru UPV/EHUko Errektore Jaun Txit Gorena delarik.

*Pello Ellakuria*
(Zuzendaria)

# ELHUYAR: Historia eta egitasmoak

ELHUYAR taldea 1972an jaio zen, Donostiako Injineru Eskolako ikasle-talde bat eta beren ikasketak amaitu berriak zituzten injineru batzuk euskara ezagutza zientifikoaren eremuan erabilkeko egokitzea helburutzat harturik, Donostiako Circulo San Ignacion biltzen hasi zirenean.

Taldearen xedeei zegokienez, bere ibilbidearen lehen urteak termino zientifikoak lantzen eta batxilergorako Fisikako testuliburu bat sortzen eman ziren. Aipagarria da halaber, ELHUYAR taldeak urte haietan Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) sortzeko eta finkatzeko egin zuen lana.

Geroago, 1974ean, taldea ELHUYAR aldizkaria argitaratzen hasi zen: zientzi gaiei buruz erabat euskaraz idatzitako lehen aldizkaria, hain zuzen. Aldizkari hau taldearen bozeramaile eta bilgarri izan zen hurrengo urteetan, baita zientzi ezagutzaren eremu guztietatik zetozen lankide berrien erakargarri ere. Lankide berri hauei esker hasierako injineru-talde hura Zientziaren adar desberdinetako doktore-, lizentziatu- eta ikasle-talde bihurtu zen, denak elkartzen zituen helburu bat zutelarik: zientzia euskaraz egitea.

Urteak joan ahala. taldearen barrutia hedatu egin zen, euskara komunikazio zientifikorako hizkuntza gisa erabiltzearekin zerikusia zuten beste arlo batzuetara.

1984ean Eusko Jaurlaritzak ONURA PUBLIKOko elkarte izendatu zuen (E.H.A.A.ko ekainaren 12ko 190/1984 dekretua).

Gaur egun ELHUYAR taldearen lan espektroa oso zabala da. Alderdirik aipagarrienak honako hauek dira:

- ELHUYAR eta ELHUYAR Zientzia eta Teknika aldizkariak argitaratzea. Lehenengoa seihilabetekaria da eta ikerketa lanak argitaratzen dira bertan. Bigarrena hilabetekaria da eta zientzia eta teknikaren dibulgazioa du helburu. Azken hau, beste

hizkuntza batzuetan argitaratutako antzeko beste aldizkarien ezaugarrietara egokitzen ari da hiletik hilera.

- Euskarazko hezkuntz materiala prestatu, landu eta argitaratzea. Oinarrizko Heziketa Orokorretik hasi eta Unibertsitateraino hezkuntz materiala landu izan du: 150 liburutik gora, 44 bideo zinta (gehienak Britainia Haundiko BBC etxearekin lankidetzan). 25 ordenadore-programa, 3 diaporama eta munduko mapak (atlas, globo ela hormiruditan). Une honetan abiatzen ari den irakaskuntzaren erreformaren erronkari aurre egiteko, lan-talde desberdinak osatu dira behar diren proiektu kurrikular eta materialak sortzeko.

- Orain arte nagusiki hezkuntzarako erabilitako bide horiek eta CD-ROM bezalako teknologia berriagoek hezkuntzari eta, oro har, komunikazioari eskaintzen dizkioten aukera berriak urratuz, multimedien arloa lantzen dihardu. Esandakoaren adibide gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean "Gipuzkoa Ezagutuz" deituriko CD-ROM aipatu behar da, hau abenduan bukatuko delarik.

- Entziklopediagintza. Oinarrizko kontsulta-materialean dagoen hutsuneaz oharturik, 100.000 bat sarrera inguruko datu-basea eraiki da, lexiko arrunt eta berezitu nahiz izen bereziez (Euskal Herriko zein kanpokoez) osatua. Sarreren definizioez gainera, milaka irudi, argazki eta taula osagarriz hornitu da. Aldi berean, datu-base hau etorkizunean etorriko diren beste produktu entziklopedikoen aintzindari izango da eta hizkuntzaren industria deituriko lan-eremu berriaren oinarriak ezarriko ditu.

Lan hau Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailarekin sinaturiko hitzarmenaren bidez garatzen ari da.

- Urtetan irakasleei eta enpresa zein administrazioko langileei euskara teknikozko ikastaroak ematen aritu ondoren, enpresetako hizkuntz gestioaren alderdi guztiak landu eta horiei buruzko informazioa eskaintzea du beste lan-esparru bat. Enpresetan euskararen erabilera areagotzeko mikroplangintzak diseinatzen ari da une honetan. Eusko Jaurlaritza eta Euskal Herriko Autonomi Elkarteko hiru Diputazioekin sinatutako hitzarmenaren babesean.

- Itzulpen teknikoak egin eta hizkuntz aholkularitza eskaintzen die erakunde publiko nahiz pribatuei.

- Ekonomia, Fisika, Kimika, Matematika ela tekknologia bezalako jakintzagai desberdinetako mintegiak ditu.

Oro har, zientziaren dibulgazioarekin zerikusia duten beste ekintza batzuk ere burutzen ditu, hala nola hitzaldiak, irrati-emankizunak, etab... Halaber, hainbat Erakunderekin kolaboratzen du (Udako Euskal Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, UZEI, Ikastolen Federazioak, etab...)

Azkenik esan beharra dago taldeak lortu duen finkapen eta egonkortasunean garrantzi handiia dutela partaide diren edo partaide izan nahi dutenekin egiten diren bilera irekiek, horietan lantzen bait dira etorkizunean urratu beharreko bideen nondik norakoak.

*Joxerra Aizpurua*

# Alberdaniaren dekalogoa

1. Aspaldian gauza gutxi ari zen mugitzen euskal argitaletxeen munduan. Baziren pare bat argitaletxe handi, aspalditik hor daudenak, eta inertziaz zebilen guztia. Gu bezala, argitaletxe txiki batzuk baziren berriz, *Igela, Pamiela, Emak Bakia Baita...* baliabide xumez sortuak, azpiegitura xumez eta argitalpenen ur loak astintzen zituztenak. Gure asmoa, ALBERDANIAren asmoa, urloak harrotzea da. Asmo eragilea du gure proiektuak.

2. Azpiegitura xumea, baliabide xumeak baditugu ere, asmoa ez da xumea, handia baizik. Eta asmo hori garatzeko elkarlanerako prest gaude.

3. ALBERDANIA ez da ezeren, ez inoren kontra sortu: Literaturaren alde baizik.

4. Literatura diogu, izan ere, ALBERDANIA literaturatik eta literaturarako apustu bat baita oso-osorik. Literaturaren esparruan mugituko gara, eta horri nahi diren erantsiak jarriko zaizkio, baina literatura izaten jarraituko du. Diren jenero guztiak izango dute sarrera gurean. Egokiera bilatzea izango da gure lana.

Orain arte lehen labealdian hiru liburu atera ditugu hiru jenerotakoak, eta lerro gauek idazten ari garela, beste lau daude atarian. Heldu literaturan hor ditugu saiakera bat: *Nombrar, enbrujar* (Mikel Azurmendi). Poema liburu bat: *Laino artean zelatari* (Felipe Juaristi), eta Narrazio liburua: *Itzalen itzal* (Juan Garzia Garmendia). Atarian dira, berriz, haur literaturako gure lehen aleak. Oraingoz bi sail: KALAMATXIN saila (8-10 urte): *Egunez parke batean* (Juan Kruz Igerabide); OSTIRAL saila (13 urtetik gora): *Leizezulo* (Jexuxmari Mendizabal). Oraingoz aurreragorako utziko dugu urte bitarte horretarako propio nahi dugun sail berezia. Horiez gain, gure bigarren saiakera daukagu atarian. *Zirkuluaren hutsmina* Iñaki Aldekoarena, eta Aldekoak berak egindako eta antolatutako *Euskal ipuinen antologia bat.*

Liburu horien egileei, mamiari, eta liburuei beraiei erreparatuta bizpahiru erreflexio egin nahi genituzke.

5. Izan ere, ALBERDANIAren apostua kalitatearen aldekoa da. Kalitatea literaturtasunaren aldetik, eta kalitatea objetuaren aldetik ere. Liburu-objetu plazerrezkoak egin nahi ditugu. Eta horretarako, bereziki zaindu ditugu diseinuak, eta irakurgarritasuna (lerro artekoak, kaxak, letra motak). Horren harira, goiko idazle zerrenda horri, beste artista izen bat erantsi behar diogu: Antton Olariaga, aski ezaguna euskal literaturaren eta argitalpengintzaren barruan. Anttonek berak lortu duela uste dugu liburua begietatik sartzea.

6. Bestalde, idazleak ilusionatu nahi ditugu. Eta horretarako ezinbestekoa da lehen aipatu dugun asmo eragilea. Idazleek ilusioa izan dezaten nahi genuke gurekin argitaratzeko. Era bakarra da irakurleak ilusiona arazi nahi baditugu, liburudenda batean sartzen direlarik.

7. Argitaletxeek eskuarki bi funtzio behintzat izaten dute. Ezer egin gabe jasotzen dituen lanak bideratzea da bata, eta bestea, lanak eragitea, langaiak proposatzea, eta idazleak lanean jartzea, nolabait esan behar bada, liburu ideiak sortzea. Bigarren alderdi hori iruditzen zaigu nahiko utzia egon dela gure artean. Gure ahaleginek hortik ere joko dute.

8. Gure argitaletxea, berez, euskal literaturaren esparruan mugitzeko jaioa bada ere, ez dugu aterik itxi nahi, autoreak askatasun osoz, albo erderaren bat erabili nahi izango balu, eta hor dago, lehen liburu horien artean, bat, Mikel Azurmendirena, gaztelaniaz. Hala ere, horretan ere oreka bat mantentzen saiatuko gara, eta euskarazko lanetan bezala, hor ere, kalitatea erabili nahi dugu kriterio bakar.

9. ALBERDANIAren aurkezpena dela eta, askok eta askok galdetu digu, nola bururatu ote zaigun krisi garai hauetan argitaletxe bat martxan jartzea. Baina noizko dira pentsamendu liburuak? Noizko musika? Eta, prosaren plazerra, noizko? Krisi garaietarako ez bada?

10. Literatura baita ALBERDANIAren funtsa ipuintxo bat kontatuko dizuet, ez baita itxurazkoa dekalogoa 9 puntuko hanka motza gerta dadin.

«Diotenez, 1572ko azaroaren 11n, Tycho Brahe astronomoari, zerura begira zegoela eta bere tresneria miresgarriari esker, izar berri bat agertu omen zitzaion, ordura arte ikustezina erabat. Iparraldera zegoen. Hartz Nagusiaren eta Casiopea konstelazioaren arteko ortze zabaldian eta Artizarraren larrean. TYchok haren bilakaera jarraitu zuen 1573ko urtarriletik 1574ko martxoa bitartean, eta 1,4 handi izatetik begibistan, aienatu arteko bide guztia aztertu zuen. Hasieran zuria omen zen, hurrena horitzen joan zen, eta, azkenik, gorritasun sotilez

koloreztatu eta gero, itzali bide zen; izan ere, daniarrak bakarrik ikusi zuen, eta beste inork ez zion begirunerik eskaini. Handik hara, eta orain arte, ezin atzeman zen haren arrastorik zeru mugan. Tycho Brahek, ordea, koordenadak idatzita utzi zituen, eta kronika zaharrei kasu eginez gero, badakigu aurretik izan zela, agi danean, antzeko izar eztandarik 300 bat urteaz behin: 945ean, behintzat, egiaztatutako lehena, eta 1274an, bigarrena.

Larehun urte pasa dira eta 1993ko maiatzean, hala ere, Tycho Braheren behaketa hark bere segida izan du. Hantxe, Casiopearen Wezker alderotuari begira jartzen bazarete, gau izartsu batean, eta marra alegiazko bat egiten baduzue Artizarreraino, eta handik beste alegiazko bat Hartz Nagusiaren gurtezpataraino, mugatua izango duzue haren eremua. Iparraldera daukazue ALBERDANIA. Izar txiki bat da, xuri zurbila, baina elezaharrak dioenez hari begira zenbat eta begi gehiago iltzatu, orduan eta luzaroago iraungo du irazekia, kolore aldaketak gorabehera. Izango ahal du Tycho Braherenak baino bizitza luzeagoa!»

*Inazio Mujika Iraola*

# Eusebio Erkiaga (1912-1993)

Maiatzaren azken egunean joan zitzaigun Eusebio Erkiaga euskaltzaina eta idazlea. Familiartekoek hala eskatuta, Begoñako basilikan, Euskaltzaindiko partaideak, senitartekoak eta agintari batzuk tartean zirela, egin zitzaion azken agurra ekainaren 1ean.

Lekeition jaio zen Eusebio Erkiaga 1912. urtean. Hemezortzi urte zituela hasi zen euskaraz idazten eta geroztik mota guztietako jeneroak jorratu dituela esan behar.

Bere lan ugaria bi eratan eman zuen argitara: aldizkarien bidez eta liburuen bidez. Aldizkariei gagozkiolarik, antzina antzinatik hartu zuen parte. 1930. urtean "Bizkaitarra" aldizkariaren hastapenean eta "Euzkadi" egunkarian ikus ditzakegu bere artikuluak. Horietatik aparte, bere bizitzan zehar "Yakintza", "Ekin", "Euzkerea", "Eguna", "Egan", "Zeruko Argia", "Anaitasuna", "Idatz & Mintz" eta "Zer' aldizkarietan eman dira argitara bere lanak.

Baina gehienbat , kazetari baino ezagunagoa dugu Erkiaga nobelagilea, poeta eta antzerkigilea. Nobela arloan, ezaguna da bere nobela "Arranegi", Zaautzen 1958. urtean argitara emana. "Batetik bestera", "Jaioko dira", "Txurio txoria" eta "Irribarrea galtzen danean".

Poesia asko eta asko landu du Eusebio Erkiagak bere bizian zehar. Denak adieraztea luze eta astun baita horra bere poesia zenbait: "Atzipe", 1934.urtean, "Nekazariarena", 1950. ean, "Azkueren heriotzean", 1951.ean, "Axular handiari", 1956.ean.

Antzerkia izan da Erkiagak luze eta zabal landu duen beste jeneroa. Horra lan batzuek: "Sinesgorra", 1951, "Kanpaien atsekabez", 1960.

Hainbat euskaltzaleren lanaren azterketari ekin zion eta itzulpenen munduan ere murgildu zen.

Bizkaiko euskalkia ondo menderatzen zuen, baina gipuzperaz eta lapurteraz ere idatzi zuen Eusebio Erkiagak.

1963.etik Nazario Oleagaren lekua bete zuen Euskaltzaindian biz-

kaieraren lekuko, 1966.ean diruzain izendatu zuten eta bere sarrera hitzaldia 1973.ean egin zuen bere jaioterrian, Lekeition, "Eusebio María Azkue, gizon eta olerkari" gaiarekin. Hala esan zigun: "Gizona ta olerkia ez dagoela zertan banandu bata bestearengandik: olerkaria, besteentzat bitarteko dala, agertzaille, sarri askotan iragarle; ez gauzen asmatzaille, erakusle baiño... poesia ez dala kanpoko musika soila, barrutikoa dala: arimaren dinamika ta eragiña, izpirituaren dardara ta indarra, ibillian kemena, goratasuna ta goragurea...; mundukoa izan bear dauala olerkariak, bere aldikoa, bere lurrekoa ta arokoa, inguruan jazotzen danaren barri jakin bear dauala" .

Zintzoa, eskuzabala, galanta, protagonismoari uko egiten zion gizona zela Eusebio Erkiaga idazlea esango digute haren ezagutzaileek. Hori dela eta, omenaldi asko et asko jaso zuen bere bizian zehar, iragan urtean bere jaioterrian Bizkaiko Diputazioak "Bizkaiko herri osoaren izenean" eskaini ziona lekuko.

*G.E.*

# Bost kazetari sarituak

Euskalerrian zehar, gaur egun egiten diren herri aldizkarien garaian gaudela aski argi eta garbia da. Hain zuzen, azken urteotan, gure herrietan zehar sortu eta sortzen ari diren herri-aldizkariak itxaropenki ugaldu dira. Horren arabera, eta 1992. urtean Jakin-ek egindako azterketa aipagarria dugu lekuko.

Horren arabera, Jakinek bere alea eskaini zionean Euskalerrian zehar, baziren 72 aldizkari. Hizkuntzari dagokionez,euskara hutsez, gaztelaniaz, euskaraz eta gaztelaniaz, euskaraz eta frantzesez argitaratzen dira. Euskara nabarmentzen da nagusi. Horra zenbakiak nola ematen diren:

Euskara hutsez 35 aldizkari; gaztelaniaz 6, Euskaraz eta gaztelaniaz 22, Euskaraz eta frantzesez, 8, Euskaraz gaztelaniaz eta frantzesez 1. Guztiak Euskalerriko lurralde guztietan banatuak. Ikus *Jakin,* 69 alea.

Gure aipamen hau, halere, Andoaingo herritik abiatuz doa. Hain zuzen, Andoainen ere herri-aldizkari berri bat sortu zen iragan urtean 1992.nean. Bere helburu nagusia, Andoain inguruko herrien adierazpen izatea: Andoain, Sorabilla, Billabona, Asteasu, Larraul, Alkiza.

Inguru hortan bertan eta lekuaren ernaltzearen seinalerik garbienetakoa da, Andoain-en bertan "Rikardo Arregi" izenpean sortutako "Kazetaritza" sariketa. Udala batetik eta Eusko Jaurlaritza bestetik izan dira sari berri honen bideratzaileak. Horregatik, hain zuzen, Udalaren buru egiten duen alkatesa, Pilar Collantes batetik, eta Jaurlaritzako Kultur kontseilari den Joseba Arregi bertan zirelarik eman ziren kazetaritza sari hauek. Aurtengoa "bostgarren edizioa" izan da eta bertan saritutako kazetarien lanak 1992ko maitzaren 15etik 1993. maiatzaren 15era artekoak aztertu zituen. Epai-mahaia, Jesus Etxezarraga, Elisabete Garmendia, Joserra Garzia eta Joxe Aranzabalek osatu zuten , epai mahaiko idazkari Jon Unanue zelarik. Epai mahai gaztea, beraz, eta irabazleak, are eta gazteagoak.

Epa-mahaikoek esan zutenaren arabera, horra eragin eta gogoan

izan zituzten bi alderdiak: " bi faktore dira aurten oso bereziki nabarmendu nahi ditugunak: batetik, gero eta ugariagoa den, eta joriagoa landua, herrietako kazetaritza, eta, bestetik, euskarazko kazetaritzan bere burua sendotzen ari den kazetari belaunaldi berria".

Herrietako kazetaritzari buruz, zera adierazi zuten: "Ez dezagun une bakar batez ere ahaztu herrietako aldizkariak ez direla oro, ezta gutxiagorik ere, bitarteko eta baliabide profesionalez landuak, eta denboraren poderioz zenbaiten kasuan gerta litekeela hasera batetako ontasun eta kalitate mailak behera egitea".

Eta beste kezka hau ere: "Edukiari eta formari dagokionez, beharrezko da euskarazko kazetaritzan hainbat eraldaketa egitea, honela, erreportagintza eta baloraziozko kazetaritza, esate baterako, gehiago landu ahal izateko".

Guzti horren arabera, horra sarituak: "Herrietako aldizkariak" sailean,sariran aurkeztutako 41 lanetatik, *"Goierritarra"* aldizkarian argitarutako "Pagosa okindegia, eguneroko ogia" artikuluari. Bere egileak Jon Mikel Arano eta Mikel Albisu.

Erabakia, Jon Unanue idazkariaren hitzetan, honetan oinarritu zen: "azpimarratzekoa da gaiaren mamia landu eta eskaintzen kazetariek egin duten lana".

"Sekzioa" atalean saritutako lana "Nire butakatxotik" izeneko artikulu bilduma eta bere egilea Mikel Elortza *Euskaldunon egunkarian* argitara emanak. Frantziako Tur-ari buruzko artikulu bilduma bera. Mahaikoen eritziz "mundu osoko kirolzaleen arreta biziki bereganatzen duen ikuskizun baten gaineko oso ikutu pertsonaleko sekzioa osatu dute" esan zuen.

"Baloraziozko kazetaritza" deituriko arloan, saritua Hasier Etxeberria eta lanaren izena "Kristalik gabeko leihoa" izenekoa, *Jakin* aldizkarian argitara emana.

Horra, beraz, bost kazetari gazte sarituak, eta euskaldunon artean Hiriart Urruti ifarraldean XIX. mende amaieran hasera emandako ondorenak. Etorkizun oparo baten zumitz gazteak. Zorionak guztiei.

*G.E.*

# Euskaltzaindian ohorezko bost euskaltzain oso berri

Urte hontako ekainaren 25ean, Euskaltzaindiak bere ohizko biltzarrean, bost ohorezko euskaltzain oso berri izendatu zituen: Bernardo Estornes Lasa, Martin Ugalde, Agustin Zubikaray, Carlos Santamaría eta Jean Baptiste Etcheberry.

Bostak pertsona guztiz ezagunak gure artean. Bernardo Estornes Lasa, bere lan ugariei esker, eta batipat, *Enciclopedia Auñamendi* erraldoiaren zuzendari, bultzatzaile eta eragile gisan.

Martin Ugalde ( 1920) zer esanik ez. Gaztelaniaz egindako liburuez gain, Euskaraz argitara emandako kontakizun, eta nobela ugariren egile gisan.

Agustin Zubikaray( 1914) , bere poesia, nobela eta ipuinengatik. Baina batipat egin dituen antzerki ugariengatik.

Carlos Santamaria( 1910) jaunaren euskal ildoa ere guztiz ezaguna da gure artean.

Baita ere Jean Baptiste Etcheberry (1903), gehienbat artikulugile bezala.

Ekitaldia Diputazioko Errege Aretoan ospatu zen, Euskantzaindiako egungo buru den Jean Haritschelhar buru zelarik. Akademiko berriei diploma eta ohorezko akademiko adierazpenaren domina eman zitzaien. Izendapen hau egiteko erabakia maiatzean hartu zuen Euskaltzaindiak bertan ospatu zen VIII. ihardunaldian.

Martin Ugalde izan zen bosten izenean, bere eskerrona adierazteko hitza hartu zuena. Hitz sentituak esandakoak, Euskaltzaindi honen garrantzia azpimarratuaz.

Bertan izan zen Elis Thomas, Galesko Alderdi Abertzaleko partaidea bera, gonbidatu gisan. Bere hitzak, minorizatutako hizkuntzei zor zaien garrantziaz eta lekuaz izan ziren. Euskaltzaindiak bere aldetik, zenbait libururen eskaintza egin zion bere eskerrona azalduaz.

Gure zorionak bostei.

*G.E.*

# Xabier Kintana, Euskaltzain Oso

Urriaren 29an Bilbon bildu zen Euskaltzaindia Eusebio Erkiaga jaunak bere heriotzarekin hutsik utzitako "Euskaltzain Oso" aulkia betetzeko. Partaide berriak bizkaitarra izan behar zuenez, bi kandidatu izan ziren aurretik hautatuak postu hortarako: Gandiaga poeta eta Xabier Kintana idazlea. Gandiaga aurkeztu zutenak, San Martin, Lekuona, Iratzeder eta Villasante izan ziren. Xabier Kintana, aldiz, Salaburu, Arana Martija eta Xarritonek. Lehenengoak ez zuen, halere, aurretiko bere adierazpenean postu hortarako ilusio berezirik agertu, baietza bera ere, nolabait esanda, "deskuido" bat edo antzekoa izan zela baieztatu bait zuen.

Kintana, aldiz, beti egon da prest Euskaltzaindian bere kolaborazioa eskaintzeko. Hain zuzen bertako "urgalea" zen 1966. geroztik, hau da, 20 urte besterik ez zituenetik.

Hiru botazio egin ondoren, azkenean, 12 botu bere alde eta 10 Gandiagaren alde, bera izan zen Euskaltzain Oso hautatua.

Xabier Kintana, bilbotarra da, bertan 1946. urtean jaioa. Etxean ikasi ez zuen euskara, oso gazterik eskuratu zuen. Euskaldunberria da, beraz, eta gaur egun, euskalduntzen ari den bilbotar askorentzat eredurik biziena.

Gazte gaztetandik hasi zen euskarazko lanak egiten. Hemeretzi urte zituenean argitaratu zuen EDILI-n Oñatibiak egindako metodo baten bizkaierazko moldaketa bat: *Método de Euskera radiofónico*. Zenbait sari ere eskuratu ditu Kintanak, haranola 1968. urtean Deuston ipuin lehiaketa bat *"...eta jentilen izpiritua datorke"* ipuinarekin. *"Lekukoak hitzegiterik ez"*, Getxoko Udalak antolaturiko Juan Gorostiaga saria. Ipuin gehiago ere eman ditu argitara: *"Behin batean"*, 1972. urtean. Zenbait nobela ere, "Beste izakia", 1969. urtean. 1983. urtean *"Ta Marbuta"* nobelarekin Iruineako Kafetegia saria.

Arestiren laguna gaztetandik, berarekin argitaratu zuen *"Batasu-*

*naren kutxa"*. Bere lanik ezagunena berak beste askorekin batera argitara emandako "Euskal hiztegi modernoa", 1977. urtean. Geroztik hiztegi honek argitalpen gehiago izan ditu. Baditu hiztegi gehiago ere eginak: *"Merkatal hiztegia"*, *"Hostalaritza hiztegia"*.

Ogibideaz, irakaslea da. Gaur egun unibertsitateko irakasle dugu eta Euskal Gabinete teknikoan ari da lanean. Ezagunak dira, berak egunkarietan emandako eritzi artikuluak *"Euskara hobean hobe"* izeneko sekzioa eta *"Gure Euskara hobetzeko"*.

Kintanak, barrutik ezagutzen du Euskaltzaindia. Hain zuzen, 1970. urtean aditz baturako komisioko partaide izan zen. Gaur egun beste bi komisioetan ari da lanean: "Jagon" izenekoan, eta onomastikakoan. Bizkaierarekin arduratua dago eta honen presentzia gehiago behar duela uste du Euskaltzaindiaren barnean eta Euskara batuan, zer esanik ez.

Ez dugu dudarik, Kintanaren presentzia zuzena Euskaltzaindian guztiz onuragarria izango dela, bere Euskararen ezagutza sakonarengatik eta Euskaltzaindiaren berri aspalditik ezagutzen duelako. Zorionak, beraz, Xabier.

*G.E.*

# Euskaldunen aztarrenak Mexikon

Aurtengo irailean "Euskalerriko Adiskideen Elkarteak" bere Historia IV. Mintegia Mexikon ospatu du. Mintegi honetan XVII.mendean Elkartearen partaide eta Mexikoren garapenean parte hartu zuten zenbait pertsonen lanak azaldu ziren, Mexikoko "Unibertsitate Iberoamerikarra" eta "El Colégio de las Vizcainas" konferentzia-gune zirela.

"Euskalerriko Adiskideen Elkartearen" espedizioa 1993ko irailaren 1ean iritsi zen Mexiko hiriburura, bertan "Zerbitzu kultural eta Errekreatiboen Elkarte Internazionaleko" zenbait partaide haien zain zegoela.

Hurrengo goizean espedizioaren partaide bakoitzaren eta euskal presentzia nabarmena duten Mexikoko erdialdeko zenbait herrietan zehar egingo zen bidaiaren aurkezpenari ekin zioten.

Egun berean hiriburutik 220 kilometrotara dagoen *Querétaro* hirira abiatu ziren. Hiri honek 370.000 biztanle ditu eta bertan Santa Cruz monjetxea miretsi ahal izan zuten. Monjetxe hau aintzinean chichimeca eta espainolekin iritsitako beste indioen arteko tirabirak izan zireneko lurralde gainean eraikia zen. Bera izan zen iparraldeko lurren kristau fedearen zabalkunde-gune. Hiri honen kale, izkin eta arkitektuak espedizioan utzi zuten aztarna eta inpresioa ezinobea izan zen.

Bazkalostean 300 kilometrotara dagoen *San Luis de Potosí*-rako bidaia hasi zuten, han ekintza akademiko bat izan zutela bertako Artxibo Historikoan. Artxiboaren zuzendariak eta espedizioko Jose Ignacio Telletxeak, Elkartearen eta *San Juan de Potosí*-ko zenbait biztanleren artean egondako harremanei buruzko hitzaldi bat eman zuten.

Hurrengo egunean hiriko zoko nabarmenenak ikuskatu ahal izan zituzten, haien artean Carmeneko Santutegia, Arantzazuko Kapera eta hiriko plaza. Ondoren *Zakatekas*-ko bidea hasi zuten. Bertan katedrala, VII eta VIII. mendetan ustiratutako zilar meatzeak, Pedro Coronelen museoa, Justizi Jauregia (aintzinean Manuel de Rétegui-ren etxea), Bufaren muinoa eta Patrozinioko Amabirjinaren eliza mirestu ahal izan

zituzten. Espedizioari Udaletxean talde munizipalak ongietorria eman zion. Ekitaldia amaitzean hiriko ospite berezi izendatu zituzten. Hiri honetan ere euskal aztarrenak ugariak ziren. Oñate, Tolosa eta Ansa euskaldunenak nabari.

Irailaren 4ean 130 kilometrotara dagoen *Aguascalientes*-en epe labur bat egon ondoren, *Zacatecas*-ekin batera Mexiko erdi-iparraldean dagoen meatzgune garrantzitsuenera iritsi ziren, *Guanajato*-ra alegia. Meatzeak ikusteaz aparte, mexikar barrokoaren adibide garbia den elizak txundituta utzi zituen.

Ikuskatu ahal izan zuten hurrengo hiria *San Miguel Allende* izan zen. Hiri honetan, Mexikoko independentzian parte nabaria izan zuen jatorrizko euskalduna dugun Ignacio Allende jaio zen etxean egon ziren, gaur egun museo bihurtuta dagoena. Hirian dauden beste eraikuntza garrantzitsuak ere bisitatu zituzten, esate baterako, Allende Institutua, "La Canal", Inkisidorearen Etxea eta Udaletxe Jauregia. Azken honetan talde munizipal osoak ongietorria eman zien.

Euskal aztarrena ugari dagoen hiri guzti hauek mirestu ahal ondoren, Mexiko hiriburura itzuli ziren irailaren 6an. Egun berean Euskal Parlamentuaren Lehendakaria eta zenbait partaide gehitu ziren, hala nola, Eusko Jaurlaritzako Kultura Kontseilaria den Joseba Arregi. Guztiak batera *Puebla* ikustera joan ziren, bertan katedrala eta Errosarioko Kaperaren edertasuna ikusi ahal izan zutela. Egun horretan ikuskatu zuten azken hiria *Tlaxcala* izan zen. Hiri honetan Elkartearen partaide nabaria eta Bergarako Mintegiaren zuzendaria izaniko Lardizabal jaio zen.

Irailaren 7an, dagoeneko Mexiko hiriburuan, Historiako IV. Mintegiari hasiera eman zioten Joseba Leizaolak, Euskal Parlamentuaren Lehendakariak, Joseba Arregi Kontseilariak, "Euskalerriko Adiskideen Elkarteko" zuzendaria den Miguel de Unzuetak, Espainiako Enbaxadan kultura gaietan arduraduna den F. Corugedok, Unibertsitate Iberoamerikarraren Errektorearen errepresentazioan Guillermo Martinez del Camposek, eta abarrek.

Egun horretatik irailak 9ra bitarte, zenbait hitzaldi eman zen. Hauetan Mexikon Elkartearen parte ziren meatzari, merkatari eta lurjabe euskaldunak gai. Besteen artean, Manuel Jesús González, Gonzalo Anes, Monserrat Garate, Elías Trahulse, Jose Ignacio Telletxea, Eduardo Flores, José Ruiz de Esparza, Emilio de Felipe, Rebeca de Gortari, Idoia Arrieta, Juan Bautista Olaetxea, Roberto Moreno, Maria

Lourdes Ibarra, Pedro Ramos, Juan Vidal Abarca, Alberto Saladino, Gillermo Etxeberria eta Luis Mari Mujika izan ziren hizlari.

Irailaren 9an mintegiari amaiera eman zitzaion. Mintegiak iraun zuen bitartean ugariak izan ziren ekitaldi ofizialak. Euskal Herrira itzultzeko garaia iristean denek euskal kultura gehiago ezagutarazi eta zabaldu zutenaren sentsazioa zuten.

Dena dela, nahiz eta garbi egon euskal presentzia Ameriketan ugaria dela, garbi utzi behar da euskaldun haiek lur haien menderatzaile agertu zirela; ez ziren morroi bezala joan, baizik eta nagusi bezala; ez ziren indio kulturaren alde jarri, baizik eta krioilo gisa afinkatu ziren han, honela kolonialismoa indartuz. Euskal kulturaren aintzindari den euskarari buruz esan behar da, gainera, lehen generaziotan mantendu zela hizkuntza, baina gero zeharo galdu zutela. Beraz euskal presentzia nabaria Mexikon, baina ez pentsatzen den bezain positiboa.

Bistan da bidai honek bi herri gehiago hurbiltzeko balio izan duela, azken finean, gure kultura euskalduna aberastuz eta ezagutaraziz; beraz, espedizioaren helburua bete da.

*Nerea Mujika Aranda*

# Zer da EUSENOR?

**Euskal Kulturak Entziklopedigintzaren premia larria du**

Edozein kultur komunitatek ezagutza unibertsalaren ikuspegi propioa lantzeko tresna eta ezagutza horren bilduma diren erreferentzi obrak (entziklopediak, atlasak, hiztegiak, etab.) lantzea helburu nagusitzat hartzen du.

Langintza horrek eskakizun berezi-bereziak ditu:

- Baliabide handiak behar dira: pertsonak, teknologia, dirua.
- Helburua ez da obrak argitaratzea bakarrik. Ezagutza-bilduma etengabe aberastu eta eguneratu behar da.
- Gaur egun teknologia berrietan oinarritutako produktuak landu behar dira, urte gutxi barru erabat ohizkoak izango direlako.

Eskakizun berdin-berdinak ditu edozein kultur komunitaterentzat langintza honek. Horregatik, Euskal Kulturarentzat behar-beharrezkoa da, baina erronka handia ere bai.

**Eusenor proiektuaren jaiotza eta garapena**

*1989*

Honako hiru erakunde hauek elkarturik proiektua prestatzea erabakitzen dute:

—Elhuyar Kultur Elkartea. 1972az gerotik zientzi eta teknika-gaiak euskaraz lantzen ditu liburu, aldizkari, bideo eta softwaretan. Ez du irabazasmorik eta baliagarritasun publikoaren aitorpena du.

—Elkar, S. A. Eskal liburu eta diskoen argitaletxerik handiena da.

—UZEI. 1977an sortutako Kultur Elkartea. Eusko Jaurlaritzaren Babespeko Ikerketa-Zentrua Euskal Corpusaren Normalizaziorako. Terminologi eta lexikografi lanetan dihardu. Berrogei hiztegi tekniko inguru argitaratuak ditu, Euskalterm terminologi bankuaren kontsulta telematikoa eskaintzen du eta euskararen banku lexikografikoa eratua du Orotariko Euskal Hiztegia prestatzeko erabili den corpusarekin eta

XX. mendeko euskara idatziaren corpusarekin. Ez du irabazasmorik eta baliagarritasun publikoaren aitorpena du.

Proiektua aurrera zihola, aurreko hiru erakundeoi Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa batu zitzaien, irakaskuntzan proiektu honek izango duen garrantzia ikusirik, batez ere Erreformak eskatzen duen material-mota prestatzeko.

*1991ko maiatza*

Hainbat espezialistaren iritziak entzun eta entziklopedigintza-arloan munduan diren argitaletxe handienak bisitatu ondoren proiektua ontzat ematen da. Hau gizarteari azaltzeko eta argitalpen-programaren lehen emaitzak bideratzeko Eusenor, S. A. enpresa sortzea erabakitzen da.

*1991ko abendua*

Eusenor, S.A. eratzen da, aipatu lau erakundeak bazkide direla. Alderdi politiko, Herri-erakunde, finantz erakunde, kultur erakunde eta abarri proiektuaren berri ematen hasten da berariaz izendatutako arduradun bat.

*1992ko ekaina*

Eusko Jaurlaritzaren Lehendakari Jaunak proiektuaren aitzindaritza bere eskuetan hartu zuen eta erakunde publiko eta pribatuen ahalik eta partaidetza zabalena lortzeko formula juridiko egokiena zein izan zitekeen aztertzeko agindua eman zien Jaurlaritzako legelariei.

**Eusenor proiektua erakundetzeko irizpideak**

Legelariok, agindu horrekin batera, bai Lehendakariak eta bai proiektua bultzatzen zuten erakundeek gogoan izan beharrezkotzat zeukaten zenbait irizpide jaso zuten:

—Partaidetza ahalik eta zabalena izateko aukera behar da: Euskal Herri osokoak, erakunde publiko nahiz pribatuak, etab.

—Sortuko den ondarearen onura gizarte osoak jaso behar du.

—Produktuen salmentatik ateratako irabaziak proiektuaren garapenean erabiliko direla bermatu behar da.

Dagoeneko prestatuak daude Eusenor Fundazioaren estatutuak, hau izan baita legelarien ustez irizpide hauek kontuan izateko biderik egokiena.

**Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren deialdia**

Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzak, euskara erabiltzen den herrialdeak administratzen dituzten beste gobernuak (Nafarroa eta Akitania) Euskal Autonomi Elkarteko Lurralde Historikoetako Diputazioak, finantz erakundeak, etab. partaide izatera gonbidatu ditu.

**Banku entziklopediko informatizatu multimedia**

Teknologia berriei esker posible da gaur egun:

—Informazio-masa handiak gordetzea.

—Informazioa etengabe eguneratzea.

—Testuak, grafikoak, argazkiak, animazioa, musika eta bideoak gordetzea.

—Liburuak eta disko optikoak argitaratzea.

—Telematikaz baliatuz, urruneko terminalen bidez, edo telefonoz kontsultak erantzuteko sistemak jartzea.

Horregatik banku entziklopediko multimedia da proiektuaren bihotza; goian aipatu diren bezalako gauzak egiteko gaitasuna duen sistema informatiko bat, alegia.

**Argitalpen-programa**

Datozen urteetan zehar hainbat obra emango dira argitara:

—Gazteen Entziklopedia. 8 tomoko entziklopedia tematiko alfabetikoa. Oinarrizko Hezkuntza eta Irakasmaila Ertainetan Erreformaren bidetik ikasleak lanean jartzeko tresna aproposa. 1993an zehar kaleratzen ari da.

—Oinarrizko Hiztegi Entziklopedikoa. 8 tomoko hiztegi entziklopedikoa. 1994etik aurrera kaleratuko da.

Euskal Herriko Entziklopedia Orokorra. 10 tomokoa. 1996tik aurrera kaleratuko da.

—EUSENA. Euskal Entziklopedia Nagusia. 24 tomokoa. Lehen lau tomoak 1997an argitaratuko dira, 1998an hurrengo biak eta urtero hiruna handik aurrera.

**Eusenor proiektua Hizkuntz Industrien bultzatzaile**

Gure egunotan iraultza handi bat gertatzen ari da, adituek diotenez inprimategiaren sorrerak baino eragin handiagoa izango duena, informatika eta hizkuntzalaritza elkartzearen ondorioz. Ordenadoreak

testuak ahoskatzen, ahoz esandakoa testu bihurtzen, itzulpen automatikoa egiten, etab. hasiak dira. Datozen urteetan aldaketa handiak izango dira. Hizkuntza txikientzat, eta ez hain txikientzat, mehatxu handia izango da iraultza hau, ez badute eguneratzeko ahaleginik egiten. Alabaina, garaiz prestatuz gero sekulako laguntza izan daiteke.

Eusenor proiektuak baliabide horiek erabiliko ditu eta Euskal Herriko Hizkuntz Industrien bultzatzaile izango da.

**Laburbilduz**

Eusenor euskal kulturari entziklopedigintza modernoaren ateak zabalduko dizkion proiektu nazionala da. Proiektuaren sustatzaileak Elhuyer Kultur Elkartea, Elkar Argitaletxea, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa eta UZEI Kultur Elkartea izan dira. Hauek Eusenor, S.A. izeneko enpresa bat eratu zuten gizarteari proiektua azaltzeko eta argitalpen- programa gauzatzen hasteko behar zen azpiegituraren sostengu gisa. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariak hartu zuen 1992ko ekainean proiektuaren aitzindaritza eta legelariei forma juridiko egoki bat pentsa zezatela eskatu zien. Dagoeneko Fundazio baten estatutuak proposatuta daude eta Lehendakaritzak egina die gonbitea Euskal Herri osoko erakunde publikoei proiektuan partaide izan daitezen. Euskal lurralde guztietako erakunde publiko nahiz pribatu guztiek izango dute aukera bertan parte hartzeko. Sortzen diren mozkinak inoiz ez dira esku pribatuetara joango. Teknologia modernoaren baliabideak erabiliko dira lanerako eta kulturaren zabalkunderako. Euskararen normalizaziorako funtsezko tresnak sortuko dira eta Hizkuntz Industrien iraultza euskararen aldekoa gerta dadin, arlo horretako ikerketa eta garapena bultzatuko dira.

*Andoni Sagarna*

# Gazteen Entziklopedia

**Fitxa teknikoa**

Hona hemen laburbilduta Gazteen Entziklopediaren ezaugarriak:

- Zortzi tomo kolore orotara eta dotore enkoadernatuta
- 850 orrialde 26,5x30,3 cm-ko
- Orrialde bakoitza gai bati dagokio eta gaiak alfabetoaren arabera ordenatuak ditu.
- Orrialde guztiek egitura bera dute:
  - —Artikulu sakona: 2.500 karaktere ingurukoa
  - —Gaiaren sintesia: 500 karaktere ingurukoa.
  - —Orriaren %43 inguru marrazki eta argazkiek hartzen dute.
  - —Azalpen osagarriak: 1.000 karaktere inguru
  - —Erreferentzia gurutzatuak
- Bukaeran hiztegi bat du definizioekin eta artikuletara bidaltzen duten oharrekin.

Une honetan oinarrizko heziketan eta irakasmaila ertainetan diharduten ikasleek, hauen guraso eta irakasleek behar-beharrezkoa duten kontsulta-liburua da.

*Andoni Sagarna*

# KRITIKAK ETA ERRESEINAK

# Kritikak eta erreseinak

LLAMAZARES, Julio. *La lluvia amarilla*. Autores de Lengua Española, RBA 24. 155 or.

RBA editore-taldeak 1933an eginiko eleberri honen birredizioa irakurtzeko parada izan dugu. Julio Llamazares idazle leondarrak, besteen artean, dagoeneko *Memoria de la nieve*, *Luna de lobos* eta, batez ere, *El río del olvido* argitaratu ditu. Ez dira ahaztekoak *El entierro de Genarín* eta *En babia* ere.

Gure autorea eleberri eta entseguetan barreiatu da, eta bere prosa poesiaren ildotan sartzen dela esan daiteke, bereziki, bidaietako literatura lantzen duenean.

Julio Llamazaresen *La lluvia amarilla* eleberriak gure hurbilean ere, Araban eta Nafarroan bereziki, ematen den fenomeno sozial baten islada garratza, hau da, zeharo despopulatuta geldituriko herrisken drama eskaintzen digu. Nafarroan erabat husturiko herriak ez dira hain urriak, eta populazioa serioski murriztua dutenak, berriz, ehundaka. Aski dugu, Nafarroan, Agoitz inguruko herritxoetara hurbiltzea. Artzibarrek 20 bat herrisketan, adibidez, 200 inguruko demografia du. Berdin Urruaul Goitikoak 130 bat bizilagunez hamasei bat herrisketan; bestainbeste Longida, Lizoain, Egues, Arriasgoiti eta Esteribar ibarretan.

*La lluvia amarilla* eleberrian herri protagonista *Ainielle* deitzen da, eta Goi Aragoeko Pirene Mendien arraian kokatzen da.

Bertan azaltzen denez, Ainielletik populazio gehienak, protagonista eta baten batzuk ezik, alde egiten du, giro hotza eta komunikabidean isolamenduagatik. Autoreak dionez, eleberriaren protagonista asmatu izen arren, ikuspegiak errealismo errural baten urrats negargarriak ispiltazen dizkigu.

Julio Llamazaresen *El río del olvido* ezagutzen duenarentzat nabaria autoreak giro errural eta aldarte bitxien deskribapenerako duen joera. Idazkera xumeaz zertzelada umil eta inozoak eskaintzen dizkigu, beti hari poetiko baten ildoan emanak.

Ainielle herri despopulatuaren drama beste lekutan ere gerta daiteke. Adibidez, Nafarroan Garestik hurbil dagoen Sorakoitz herriska datorkigu burura. Sorakoitzek hutsik, gutienez, hogeita hamar urte daramatza, etxeteriaren bakardadea oraindik kanpandorre zutiak hieratikoki babesten duelarik.

Julio Llamazaresek herrian bakarrik geldituriko protagonistaren zehar aldian aldiko pasarteak, malurak eta asperraren tragedia maisuki isladatzen dizkigu. Bakardadeak, huntzak eta lizunak bezala, giza errealitatea itotzen du.

Isilunea, zuhaitzetan huntza gisa nagusitzen da. Gizona hondamendi piskologikoan dager, eta hondamendiak pasarteak ditu nobelan. Pasarte adierazgarrienetakoetan protagonistak emaztea sokatan hurkatua aurkitzen duenekoa. Berdin Andres semeak, etxetik Alemaniarantz partitzean, aitaren aldetik aurkitzen duen ukazioa. Aitak ez dio agurrik ere luzatzen, herria abandonatu duelako, gurasoen ondarea ezetsiz. Protagonistari aitaren eta aitonaren hilkutxak ere ikuiluan eginbeharra suertatzen zaio, Ainiellen, dagoeneko, zurginik gelditzen ez delako. Lurperatzailea ere protagonista bera da, noski. Pertsonaia nagusiak, bada, itzulezinezko drama bizi du, baranoan oro ezkutatzen eta itzaltzen nabaritzean baitu.

Drama, beti, lirismo sakon batean biltzen da, erruralitateak bere inozotasunean duen poetika dastatuz.

Eleberriak plataforma datual urri dauka, herriskaren eszenategia, berez, murritza delako. Denetan aipagarri eleberriaren zehar azaltzen den irrealismozko tindu zenbait, beti naturaltasun xarmantaz isuria. Horien artean protagonista ama zenduarekin sukaldean, besterik gabe, eleketan jardutea. Berdin emazte hilaren kasuan. Beste munduko pertsonen agerpenak arrazionalitate-izpirik gabe aurkezten zaizkigu, eta autorea ez da saiatzen ere irrealismo horren argudiorik eskaintzen. Pasarte irrealak aipatzen eta deskribatzen dira, eta kitto.

Eleberriari akatsaren bat egoztekotan, agian, orri batzuen aspergarritasun-kea da, hau da, herioaren bilbeak berarekin duen errepika (hondamendizko ingurunean), behin eta berriz, kokatzea (adibidez, teilatu, harresi, horma hautsi eta sukaldearen aipamenean). Hori dena aski aurresusmatua dago, hainbestetan inpresio berdinetara etorri gabe. Hauxe da nobelaren eszenategi urriak berarekin duen arriskua.

Asperdurazko orri horiek albora utzita, eleberriak bere xarman

biltzen du irakurlea, despopulaketatik sorturiko drama, beti, sotiltasunez eta poesiaz eskaintzen baita. Dudarik gabe, Goi Aragoeko herriskaren malurak parekide anitz Euskal Herri industrializatuan. Autorearen meritua hutsune horren ildoa irakurleari psikologikoki isladatu eta sentiaraztea izan da.

*Luis Mari Mujika.*

OVIEDO, Jose Miguel. *Antología crítica del cuento hispanoamericano del siglo XX (1920-1980). Alianza Editorial, 2 ale, 699 or.*

Hemen azterkizun dugun antologia Alianza Editorial argitaletxeak 1992an argitara emana da. Denok dakigu zenbateko garrantzia eduki duen mundu osoan Hego eta Ertameriketako literaturan narraziogintzak, bereziki, eleberriaren alorrean. Aski da, gogoratzea Rulfo, Fuentes, Asturias, Carpentier, Garcia Márquez, Onetti gisako autoreak.

Esan daiteke ospe hori gehiago lotzen dela eleberriari, produzio horrek duen interesa eta hedaduragatik. Hala ere, narrazio laburra edo ipuingintza ere aitormen horretan sartu beharrekoa da.

Hemengo bi liburukiek Hego eta Ertamerikako ipuingintzaren itzala eta hedadura argitan uzten digute. Antologiako lehen liburukiak "fundadores e innovadores" azpititulua darama, eta bertan hurrengo idazleen izenak: César Vallejo, J. M. Arguedas, Manuel Rojas, Mario Benedetti, Pablo Palacio, Jorge Luis Borges, Juan José Arreola eta Augusto Monterroso, besteen artean.

Bigarren liburukian, berriz, "La gran síntesis y después" azpititulua duelarik, hurrengo autoreen andana: Miguel A. Asturias. A. Carpentier, J.L. Lezama, Juan C. Onetti, Julio Cortazar, Juan Rulfo, J. Donoso, C. Fuentes, G. Garcia Márquez, M. Vargas Llosa, José E. Pacheco, A. Mutis, etabar.

Narraziogileen zerrenda ikusita, berehala ohartzen gara bi liburukietako ipuinen balioaz. Aski litzateke, euren artean, Rulfo, Arreola edo Garcia Márquez baten izena antologiaren garrantziaz jabetzeko.

Jakina denez, antologia oro gertatzen da erlatiboa, mugak ongi ezartzea (autore hau sartuz, eta bestea alboratuz) gaitza delako. Hemen ere autore on zenbait at gelditu da, noski.

Liburukien edukiari behatuz, ipuingintza Hego eta Ertameriketan 1920 urte aldera garatzen hasi zen. Erromantizismoa kriolis-

moarekin saretzean, fruituak mardulagoak izan ziren. Hasi-masiak, ordea, 1820 aldean jarri behar dira. Ipuingintzan kriolismoaren garrantzia nabarmena da, geroko modernismoarena bezala. Abangoardismoen testigutza ere sartzekoa zen antologietan.

Poesiako Huidobroren kreazionismoak bere ordainak izan zituen narraziogintzan, oldearen uhinak Europa aldera ere hedatuz. Urte askotan nabarmen azpikriolismoaren eragina, surrealismoaren andana ahantzi gabe. Ameriketako gertakizun politikoak, maiz, autoreen irudimeniturri eta idatz-aitzaki suertatu ziren; adibidez, Mexikoko iraultza. Mugimendu politiko batzuen xarma narraziora igaro zen, noski, kera aski sugerikorrez.

Burgesiaren erreakzioak ere ukan zuen oihartzuna, beste faktore askori lotuta. Esan daiteke narrazioetan iraultza politikoa eta literarioa biziki saretu zirela. Korrontetan Europako surrealismoa Ameriketan oparotasunez bilbatzen da, bertako gertaera sozial eta politikoen errotan ehotuz. Ez da ahaztekoa, ordea, anakronismoak ere antzeman daitezkeela, oro bertako ideosinkrasian oratu eta nahastuta.

Aipu berezia merezi du, antologia irakurrita, literatura fantastikoak edo errealismo magikori atxikitako produzioak. Hemengo ipuin zenbait olde literario horretan sartzen da, batez ere, Rulfo eta Garcia Márquez gisakoetan. Olde hori, nolabait, surrealismoak eskaintzen zuen askatasunetik dator. Aipagarri ere Arreola, Piñera, Palacio eta, baitipat, Borges. Indigenismoaren oldea, bestalde, abangoardiekin gurutzatu zen, xarma handizko emaitzak eskainiz. "Boom" famatuaren distira korronte horiekin uztartzen da.

Beste urratsa neorralismoarena magiarekin lotzean, indigenismotik zetorren uhin aberatsa profilatuz.

1960 aldera sintesi handiak egiten dira. Une horretan aipatzekoak erruralismoaren ildotik datozen sorkuntzak. Aski da Rulforen tentua erruralismoa horretatik neurtzea; jarrera magikoz, aspaldiko indigenismoarekin saretutako gauza txokanteak adierazpen literario sotil bihurtzen dira.

Guretik hurbilago diren beste autore esperimentalista eta modernoagoen hurratsak ere present antologian, beti sintesia on bat lortuz.

Antologia honetan ematen zaigun hautapena serioa eta zabala dela baiezta daiteke, korronteen aldetik ongi lortua. Bestalde, autore bakoitzari bibliografia aproposa erasten zaio, eta testuko ipuin zehatzei ere komentarioa egiten zaio.

*Luis Mari Mujika*

ZUBIAGA, Felix. *Oi Emmanuel!* Ibaizabal Argit. 98 or.

Zubiaga olerkariak poema-liburu honekin 1991 urteko *Lizardi* saria irabazi zuen. Autoreak, euskal letren alorrean, orain arte fruitu ugari eman du, ipuingintza eta eleberriak ahantzi gabe. Ipuinetan, besteak beste, *Karramarroen aurreskua* 1982, *Kuku pasota* 1984, *Halabeharrez mediku* 1986. Eleberrietan, berriz, *Babilandia* Agora saria 1963an, *Kalea andre* Bizkai- Foru saria 1988an saria eta *Lekuan lekuan maloa* (1989eko erakunde berean).

Hala ere, Zubiaga olerkietan dugu, ausaz, iaio eta estimagarriena. *Zure argi kliskak* Arrese Beitia saria 1986an, *Uraren ohikuna* 1989an, *Harri eta oihartzun*, 1990an *Deslirurapen parabolak* 1990an, eta hemengo *Oi Emmanuel* horren proba.

Gezurra badirudi ere, idazle oparo zenbait merezi lukeen oihartzunik gabe gelditzen da, eta hori izan da Felix Zubiagaren kasua, tamalez. Idazlearen produzio ugariari beste oihartzun gotorragoa zor zaio.

*Oi Emmanuel* poemarioan Zubiagak eguberritako giroaren hurbilketa sotila eskaintzen digu. Liburua larogeita hamabi olerkimultzotan banatzen da, liturgiaren urratsetatik hurre.

Olerkietan present, bestalde, egungo gizonak bere egoeran duen aldarte, dolu, zorabio eta besterik, beti fedearen baitan bilduta. Funtsean, poetika erlijiosoa luzatzen zaigu, gaztelaniaren eremuan, geroz eta gehiago, autonomiaz ezagutzen den poesia erlijiosoaren urratsetako sorkuntza.

Zubiaga olerkariak euskal erritmoaren segeretuak ezagutzen eta maitetzen ditu. Bere poesia ez da zabarki, edo eta jauzi kamuts eta ahoskabeetatik ibiltzen, ur sotil eta xumeen bidetik baino, erritmoa eta neurria landuz. Neurriari atxikitako poesigintza honek erraz gainditzen du euskal alorrean, maiz, erdibidean gelditzen den poesia zenbait, hau da, ez poesia ez eta bertsogintza den sorkuntza.

Muga horiek ongi gainditzen ditu Zubiagak hizkera aski sotilez, Lizardiren bide hertsatuegiak albora utzita. Autoreak menderatzen du euskara, eta bizkaieraren baliabidetaz ere zerbitzatzen da, batez ere, puntuak lortzeko euskalki horren bideak probetxugarri direnean. Olerkiaren alorrean, behintzat, euskara batua eta bizkaieraren sinkretismo hori, puntuaren mesedetan, zilegia iruditzen zaigu.

Poema-liburuan, formaren aldetik, gehien atentzio eman digun a autoreak ahapaldi eta puntuen erabilean azaltzen duen nabaritasuna. 8a, 8a, 5b, 5b, 8a, 8a

gisako neurriak zalu eta atseginak gertatzen dira. Beste ahapaldikera anitz oraindik olerkariak. Gehienetan, neurri arinak ditu, ohizko zortziko handia eta txikiaren formetatik haruntz (nahiz eta azken hauek ere erabili). Hona beste zenbait forma: 5a, 5a, 8b, 5c, 5c, 8b. Erritmo arras zalua 6a, 6a, 7-, 6a delakoan ere "Gau erdia ei zan/ edo egunsentian/ eguzkien eguzkia/ agertu zanean").

Eta segidan besteok: *a*) 10a, 3b, 10a, 3b, 10a, 3b, 10a, 3b, 10a, 3b, 10a, 3b. *b*) 8-, 4a, 8-, 4a. *c*) 8-, 8a, 8-, 8a. *d* 5a, 5a, 5-, 3a "Ta jai Belenen/ ta da jai hemen,/ heldu bai jaku/ salbamen". *e*) 7-, 7a, 7-, 6a, 4c, 7-, 4c, *f* 5-, 4a, 5-, 4a, "Begien ziur/ hau soinkera!/ Gizakiak dau/ jo Jainkora!" *g* 6a, 8a, 8-, 6a, "Urte barrikari,/ daukana ez daukanari,/ guk eukien mundukoek/ ez eukienari" h) 6-, 3a, 6-, 3a, 6-, 3a, etabar.

Poemategian, jauzika, kantatzeko aproposak den beste ahapaldi asko. Olerkien muina eguberritako liturgiaren hurbiletik doa, gehienbat, esan dugunez. Denetan sentipen lirikoa nagusi. Pasarte batzutan, dena den, goidura apur bat apaldu egiten da, errepiketara joanez. Gure ustetan, egungo euskal poesiaren egoeran, neurriaren disziplina estetikoa (poesia librearen itsaso zabalaren ondoen) mesedegarria da, artea deleko. Euskal baratzean neurria ez da ederraren oztopagarri, mesedegarri baino, gutienez, neurria menderatzen denean. Gazteek badute zertan ikasi.

*Luis Mari Mujika.*

JUARISTI FELIPE. *Lainoaren erresuma ugaria*

Bi poemario *Denbora, nostalgia* (Baroja, 1985) eta *Hiriaren melankolia* (Baroja, 1987), eta hitz lauzko bi lan *Intsentsua lurrean bezala* kontakizuna (Baroja, 1988) eta *Arinago duk haizea, Absalon* eleberria (Erein, 1990) idatzi ondoren, Felipe Juaristik (Azkoitia, 1957) berriro ere beste poema-liburu bat argitaratu du, Alberdania argitaletxe sortu berriaren eskutik: *Laino artean zelatari.*

Aurrekoen haritik datorren bere bostgarren emaitza literario honetan, egilea, irakurlea gogoan, liburuaren azalean eta atzeko aldean pista batzuk aletuz joango da detektibe profesional baten trebeziaz, nondik norakoa edo nondik norakorik bakoa pixkanaka pixkanaka zizelkatuz. Izenburuaren lehenengo hitza "lainoa" da. Baina zer da lainoa? Zerbait urruna eta mugagabea, nostalgia eta melankolia bezala-

ko zauri lebeen gainean pausatzen den hodei kotoitsua. Intsentsuaren eta haizearen modura harrapaezina, ihesian doana, baina dagoena, egunerokotasuna misterioz janzten duena, egoerak eta ikuspegiak antzaldatzeko, errealitatea fikzioarekin nahasteko gaia. "Maltako aztorea" pelikulan bezala, non batek beste bati esaten dion zerez eginda dagoen estatua bat. Eta honek erantzuten dio ametsak egiten diren gai berberaz eginda dagoela. Banitatearen eta goiaren eiterik ere badu, inork izendatu ez duen errege baten koroiarena. Bigarren hitza "artean" da. Ez da bizitzatik kanpo geldituko, bizitzaren metaforatzat jo daitekeen lainoan sartuko da egilea, laino artean zelatari. Bizitzan barrenean murgilduko da poeta, zelatari papera betez beraz, leku batetik bestera erratu eta arrotz baten gisa ibiliko da, gabardinaren bakardadean enfundatua eta lainoa imitatu nahirik zigarro batetik berak sortzen duen kean bildua, distantzia puntu batez eta eskularruz berarenak ez ezik besteen izkutukoak ere interpretatuz, larru askotako izkutukoak.

Kontraportadan laino artean begi bakoitz haundi baten agerpenaz oharterazten zaigu. Begi hori ez dela Jainkoarena, baizik poetarena aldez aurretik jakin eraziko zaigu, baina nahiz eta poetarena izan, ez duela gardentasunez ikusten, apaldu egiten duen laino artean dagoelako. Begiaren irudia jakinduriaren iturriarekin lotu ohi da, eta are gehiago begi bakar bat bada, kopeta erdian kokatua eta ahalguztidunaren sinboloa. *Laino artean zelatari-k*, bada, jakintzaren ildotik joko duelako susmoak hartuak gara dagoeneko. Gero banitatearen aipua dator "banitatearen lanbrotan"? dio, zeinaren barnean poetaren ni-a difuminatzen den bikoizterakoan. Bikoiztasuna bakoitzaren baitan dautzan eremu ezaguna eta ezezaguna azaltzeko, ulertzeko, arakatzeko. Hurrengo eta azken esaldian arbola bat, metropolia eta amodio modernoa aurkitzen dira. Arbola iruntzitara jarrita agertzen da, irudi surrealista baten bidez erreferentzi-puntu urrunago batera garamatzalarik, lainoa beste aldekoa den bezala. Metropolia plurala eta anbiguoa da, gurutzebidez josia eta hedagarrria, lainoaren antzera. Amodio modernoak erotismoarekin kontaktatzen gaitu, galtzeko eta babesteko diseinatu den erreinu lainotsuarekin.

Hitz klabeok baliotsuak izango zaizkigu aurrerantzerako, izenburuaren ereduari jarraikiz hitz doituez egina den liburu barrukaldearen ulermenerako. *Laino artean zelatari* osotasunaren bila zuzendutako poemarioa da, hausnartua, egitaratua (hamar zatitan banatua, atal bakoitza hiru poemaz borobildua). Esaldi batetik bestera dagokion jauzi

akonpasatua eman baino lehen hitzek ibilbide luzea jorratu eta korrituko dute, pentsamendua jolas bihurturik sortutako silogismoa eta simetria hitzen artekoa ez ezik ideien artekoa ere delarik. Poemario honek duen tonu neurtua egileak haztatutako distantziagaitik datorkio. Hirugarren plano batean jartzen da, lainoaren dimentsioan eta zehaztasunaren abiapuntua eta batzutan enumeratuta botatzen ditu errefrau kutsurik daramaten bertso tinko eta luzeok, ahots larrutuaz, experientziaren ahotsaz irakurtzekoak diren bertsook. Asepsia eta ironia dira mingarria zaiona deskribatzeko darabiltzan armak. Tonu distante hau melankoliaren eta nostalgiaren geruzetan estalita dago, amaiera orok duen tristuraz lausotua, hasiera orok aurresentitzen duen bere bukaeraz, hondamendiari buruzko poesiasaiotzat har daitekeelako, galdera itxuraz botatzen duen azken esaldia lekuko: "Hurrengo goizalba bihurtuko ote arrastegi?" (72 orr.). Amaiera ez da ordea irudi bortitzez haragitua agertzen, fustrazio-hondarren artean, zigarroerrautsen artean aienatua baino. Amaiera geldi eta lasaia, gizakorragoa. Oroimenari arinki lotua, orainaz horditua, etorkizunaz gabetua eta bere herriaz abaildua eta mindua ("Gu ez gara jadanik gu, besteak baino. Txori hilak hegan egiterik ez") (39 orr.) sentitzen da egilea.

Urruntasun tankerako poema hauen kolorea grisa da. Ez ditu muturreko jarrerak gustoko, nahiago du sintonia tolerante baten barruan jakinduriaren eta erreflexioaren uretan bustitzea, erdialdeko matizazio anitzetan galtzea, mundu zabaleko beste idazleekin hitz egitea eta harremanak izatea atsegin zaion pentsamolde eta esku zabaleko poeta honek. Nahiago du zalantza eta galdera ere den lainoaren baitan nabigatzea, inongoa ez den bere begirada pausatua hedatzea munduko mugen luze-zabalean gaindi, mapa kartografikoak besalagun. Grisa, kontraesanetan aberastutako teoriekin teorizatzea gustokoa zaion poeta honen ezeztapenak eta baieztapenak ez direlako erabatekoak, ez direlako ertz, baizik eta ibai; bizitza den historia luzetik ateratako perpausok ez direlako lurrean tinko iltzatzekoak, baizik eta lainoan meheki multiplikatzekoak, ez direlako enbor, baizik eta abar.

Grisa egunerokotasunaren eta gizakiaren kolorea aukeratzen badu, musikaren doinua estridentzia bakoa izango da, berez doana ibai apal baten antzo. Eta ibai apal batek bezala, kanpoko erritmora baino barnekora begiratuko diote lerro-uhainok. Barneko musikalitate hau, hitzen arteko jolas musikatua, oihartzunezkoa izango da, egileak bertsolaritzatik, esaldi eginetatik, herri-erre-

frauetatik eta otoitzetatik zenbait egitura eta doinu berreskuratu eta egokitu bait ditu.

Gizakiak asmatutako ortzemugak infinitoraino teinkatu ahal dira eta baita irudimenaren gainean eraikitako mapa mundiak. Era berean, luzatzeari muzin egiten ez dion pentagrama honetan poetak hitza kontexto imajinarioan kokatuko du, zurituz edo zentzuz betez, hornituz edo zentzuz biluztuz, auskalo. Ideiak metaforetatik zintzilik daude, metaforak bait dira Felipe Juaristi, ikuspegi pertsonal batez sinatuta, ehotzen ari den unibertso poetikoaren ardatzak, errealitatea irudikatzeko ispilu bigun eta moldakorrak. Eta metaforen eskutik surrealismoak egingo digu bisita, ilojikotasunaren lojika erakutsiz, edo hobe esanda, itxuraz ilojikoa dirudienak bere lojika ere baduela azaldu nahiz. Surrealismoak bere bitxitasunaz erakarriko gaitu, bere majikotasunaz liluratuko, hankaz gorako irudi eta irudimen puxkak han hemenka tartekatuz eta testu poetiko zatikatu hau etengabe itxuraldatuz.

Surrealismoa joera aski hedatua den bitartean, batez ere, poesia arloan, arduratuko naizen hurrengo hitza "malenkonia", Felipe Juaristiren literaturgintzan tindatu pertsonalez barnizatutako konzeptoa dugu. Zer da, bada, malenkonia? Ba al dago definitzerik? Egileak berak *Pergola* aldizkari bilbotarrean Donostiari buruzko idazlan batean orain dela bost urte edo honako hau idatzi zuen: "Hiri melankolikoa da hau. Melankolia azken finean tristezia egoera etengabea bait da, lainotu eta zehazkabea. Eguna joan eta eguna etorri goian-behean euria egiten duenean bezala eta ikutzen duen guztia blaitzen duenean, tanto fin eta saminez. Gizona anfora bat bilakatzen denean, behin ere asetzen ez dena" (44 orr.). Tristuraren teoriari buruzko ipuin bat ere idatzia dauka. Melankolia ez da, beraz, tonu kontu soila. Zerbait gehiago da. Melankolia eta melankoliaren ahizpa bikia den nostalgia idazle honen lanetan hitz-estazioak dira, egoteko eta izateko era bat, bizitza eta mundua azaltzeko jarrera, hortik bait datozkio hortz eta behatz artean armiarmasaretuko zaizkion filosofia guztiak. Niri Pio Baroja eleberri egilea eta Mikel Lasa poeta gogoratzen dit, agian, hiruron malenkoniaz bustitako idazkiak itsaso berberaren, Kantauri itsasoaren lainoaz gandutuak direlako.

Eta melankoliatik erotismora eta erotismoaren estetikara. Amodioz eta desioz eginiko zubi etzana da erotismoa, bizitzaren mina eta tristura jabaltzeko poetak beharrezkotzat eta aterbetzat duen estetika mota bat. Poetaren begiak, zubibegiaren behatu ernearen antzo, ingurua samurtasunaz eta edertasunaz blaituko du. Begia maitasunaren sinboloa, maitemina begien bidezkoa bait

da. Begia bizitzaren zikloaren hasiera eta amaiera borobiltzen duena. Erotismoan muga batek beste bati egiten dio bide "kartografoak" marraztu zuen / Gorputzaren eta arimaren mapan" (30 orr.), mugagabea delarik.

Bizitza eta literatura bat eginik daude *Laino artean zelatari*-n. Bizitzaren eta literaturaren arteko muga lainotsuak marrazten eta eskaintzen dizkigu Felipe Juaristik, galderak jeiki eta erantzunak etzaten diren erresuma honetan. Liburuaren izenburuan bezala liburuan zehar ere, egileak poetari buruzko eritzia ematen du eta literaturaren zereginari buruzkoa: poeta umil eta erdi ezkutatuaren eskutik bizitzaren azal misteriotsua aurreritzirik gabe interpretatzearena.

*Amaia Iturbide Mendinueta*

GARZIA GARMENDIA, Juan: *Itzalen itzal.* Ed. Alberdania, Irun, 1993. Narrazioak.

**Kontakizun dotore eta neurriz ondua**

Liburuan aurrena nabarmentzen den gauza da erakusten digun kontakizun-estilo hain irazi eta orekatua; eite unibertsalekoa, garaiei egokitua eta bitxikeria lokalistetatik urrundua, herrikoitasunaren eta klasikotasunaren arteko sintesi ederra dela medio. Egileak esperientzia luzea du, literatur testuak itzultzen eta testu azterketan, eta bere lehen narrazio-liburua (*Akaso*) 1987an argitaratu zuen.

**Itzal-inguruka, edo langintza intelektual arduratsua**

Liburuan zehar, zorroztasun intelektualez osaturiko paradigmaren aurrean aurkitzen da irakurlea, eta aldi berean ia-ia *divertimento* hutsaren aurrean; azpitik, egilearen irribarre arinak, erdiagertuan, ironiaz eta sumurtasunez, zinismoz eta konplizitatez begiratzen digu. Jarrera horrek tenka sortzen du, orain zurrunxeago, orain lasaxeago, kontakizun osoan horrela eutsiz, era zorrotz bezain harrigarrian; zirika ari dela igartzen da, neurriz baina etengabe, puntu jakin batean hondoraturiko labana baten antzera: atera ez, baina hiltzeraino sartu ere ez.

Liburu osoa itxura-egite bat besterik ez da, artearen hainbat arlotan intelektualki murgiltzearena, hain zuzen. Errealitate birtuala osatzen da, arteari buruzko zenbait gai era berezian uztartuz, eta ebokazio artistikoan zedarri diren adabaki geografiko zein historikoak josiz. Itzal artean itzal-inguruka: ezagutzara hurbiltzeko

bide atzekoz-aurrerakoa, gezurrezkotik itzal-arrastoak eginez, horrela artearen argi-ilunak usnatzera irits gaitezen. Bide horretan Juan Garzia zintzo bezain zorrotz ageri da, hasieratik amaieraraino, eta zehatz-mehatz okertuz doan eraikuntza egiten du, lehen kontakizuneko Pisako dorrearen antzekoa.

**Itxuralaria: poetikotasunarekiko hurbilketa**

Pessoak poetak itxuralaritzat jo bazituen, Borges izan da jakintza arlo askotarikoen itxuralari nagusia. Jakin-itxura egite horretan, gai da jakinduriaren edo artearen edozein arlori ekiteko, eta lan horretan Borges-en ikasle azkarra da Juan Garzia; bere maisuari huts egingo ez liokeen ikaslea. Egileak badaki non sartu den, eta noraino araka dezakeen; bere zorroztasuna -zenbaitetan parodiko samarra- ez doa kontrola lezakeena baino harantzago; teknologia aurreratuen arloan irristan pasatzen da naturaltasun osoz; ez du lotsarik arkitekturazko nahiz pinturazko ñabardurak deskribatzerakoan eta beste arlo batzuetan ere gogotik sartzen da; hala nola, musika, literatura eta filologia, edota gastronomian. Hala ere, arlo guztien artean, poesia da etengabe presente dagoena; ez dugu ahaztu behar artearen alorretan egiten dituen sarrera guztiak, hitzaren bidez egiten dituela egileak. Hitz poetikoa da —hala hondo ikustezinean, nola agerian— liburuaren ardatz nagusienetakoa: hortxe daude Shakespeare eta Dante, klasikotasunaren ordezkari; hortxe daude baladak eta trobadoreen erako amodio-kantak, estilo herrikoiaren adierazle; hortxe dago poesia mistiko-franziskotarra; hortxe aitasaindu inkisidorearen poesia goiargitsu eta eskizoidea; hortxe dago oinarri epikoa, obra osoan zehar, idazlearen eginkizun heroikoaren sinbolotzat (obsesioaren eta eromenaren ertzean).

Argi, ordea: poesiaz mintzo denean, poesia baino zerbait zabalago adierazten dihardu egileak; era berean, Italiaz ari zaigunean, erreferentzia geografiko-historiko jakin bat baino zerbait gehiagoz ari zaigu. "Zerbait gehiago" horrek idazkera ireki eta sugerikor baten aurrean jartzen gaitu; badirudi egilea angelu batez ari dela idazten: horren erpinak zorrotz zulatzen du papera, eta beste alde irekitik, berriz, anbiguotasunera zabaltzen da (mugagabe irekiz doazelarik mugak, ikuspegia paperetik jasoz doan heinean).

**Kontalari-ehule: langintza zehatz eta neurtua**

Burutazio intelektualen eta artearen arlo anitzetan eginiko sar-

tu-irtenen gainetik, kontalari ofizioa dago; neurri-neurrian eta esku sendoz eginiko kontakizun-sekuentzien kateaketa. Ez gaude *Decamerone*-aren estiloko obra baten aurreean, non kontakizun ildo bat erabiltzen baita istorioak lotzeko; Juan Garziaren liburuan istorio bakoitza hainbat errekasto desberdinen urez osatuz doan kontakizun-ibaian saretuz doa, urrats zehatzez; ehundu, beharrezkoa bakarrik ehuntzen da, kontakizun-ibai-sare hori eratzen baita sekuentzia bakoitza eta gai bakoitza leku jakin batean kokatzeko, egileak osotasunean eman nahi izan dion eginkizuna bete dezan. Alde horretatik, beharbada, txertaketa arazorik handienak dituen kontakizuna Gubbio-koa da; hain zuzen ere, berezko pisurik handiena erakusten duena delako.

Kontakizun-sekuentzien hurrenkera hainbat erregistroz gauzatzen da, eta horien artean adierazgarrienak gutunestiloa eta artikulugilearena dira -edo gai monografiko bati buruzko hizlari- ponentzia emalearena-; egileak hor egundoko maisutasuna erakusten digu, diskurtsoa aisa menperatuz, ñabardura eta xehetasun aberatsak eskainiz; pertsonaiari, haren hitz potolo eta guzti, istorioari dagokiona esanarazten dio, gehiegikeriarik gabe. Estilo aniztasun horrek gauzatzen du, kontakizun zuzenekiko kontrapuntuan, liburuaren erritmoa, aniztasunean baina tenka eutsian, tonu mardula lortuz.Erritmoa lortzeko beste bidea pertsonaien agerpenak eta desagerpenak jorratzen du; hari gutxi geratzen da lotu gabe, eta irakurleak ondo ezagutzen eta bereizten ditu pertsonaiak, ez haiei buruz egiten diren deskribapen urriengatik (eta zenbaitetan apropos atzeratuengatik), baizik eta hartzen duten jokabideagatik eta diskurtsoan parte-hartzeko estiloagatik.

Gainera, pertsonaien artean ia elkarrizketarik ez izateak ezaugarri berezia eransten dio liburuari, kontakizunaren azalpena antzeseitetik aldenduz. Hala, nagusitzen den tonuak berriketatik ihes egiten du, nola izurritetik. Egileak giro ausnarkorra ezartzen du, hala barne-monologo eran, nola diskurtso erako adierazpen gisan, eta kontatzailea -ironia anbiguoz- pertsonaia guztien gainetik jartzen da agintari, bere nagusitasuna ezarriz, ardura orokorra bere gain hartuz bezala, pertsonaien atzean babesik bilatu gabe.

**Errenazimendua eta Italia: unibertsaltasunaren bila**

Juan Garziaren liburuak bidaia adierazten du, hala ezpazioan, nola denboran. Espazioan Italiako hamaika hiri agertzen zaizkigu, sona handiko gertakizun artistiko zenbaiten kokagune direnak; hiri horien aitzakian kon-

takizun kateak osatzen dira, guztiz ezagun gertatzen zaizkigun gertakizun artistikoei ezusteko interpretazioak, heterodoxoak eta ausartak, emanez. Hamaika hiri agertzen dira, baina ez dira hamaika-hamaika; ezagunegia da gure artean hamaika zenbakiaren esanahi zabalagoa, ugaritasuna adierazteko; horrela, egileak hamaika hirirekin kulturaren mundu zabala adierazi nahi ligukeela dirudi. Denborari dagokionez, berriz, gure garaitik Errenazimendu eta Kontrarreformaren garaira sartu-irtenak egiten dira.

Liburuan egiten den bidaiaren norabideak esanahi nabaria duela dirudi; alegia, arte unibertsaleranzko bidaia izango litzateke, euskal kultura norabide unibertsaletan sartzearen bidaia. Hain zuzen, Errenazimenduaren eta Erreforma-Kontrarreformaren garaian sortzen du (Erreforma aurretik, D'Etxepare; ondoren, Axular; tartean, Leiçarraga).Badago, bestalde, lotura ironikorik euskal literaturaren eta egilearen planteamolde zeharo unibertsalaren artean; hori ikusteko, egilearen keinuak ikusi besterik ez dauka irakurleak, Argentinatik esplizitoki jasotako zenbait euskal deitura direla-eta, Ternua-ren aipamena dela-eta (leku horietan euskaldum ugari gertatu baita), edo, nola ez, Eiko Fujitsuk poemaren (haikuaren?) esanahia argitu nahi duenean, euskaraz idatzia egonik inor ez baitu hizkuntza horren berri kontakizunean; honela dio poemak: "Maite /sekula /gabe".

Begirada zorrotzago batez, gaur egungo euskal literaturaren inguruko irakusketa ere egin daiteke; irakusketa ironikoa, zirkuito literarioaren zati handi batek epelak hartuko bailituzke. Esan genezake, bestetik, artearen alorrei zein espazio-denborazko erreferentziei dagokion eraikuntza unibertsalista horren guztiaren azpian, bizikizun zehatzak gordetzen direla, espazio, denbora eta pertsonaia ezagun eta gaurkogaurkoei dagozkienak; hori da egileak egiten digun azken begikeinua, proposatzen digun paradoxa nagusia.

*Juan Kruz Igerabide*

# EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

JAKIN aldizkariari lagunduz
zeure kulturari
laguntzen diozu

**HARPIDETZA-TXARTELA**

Izen-deiturak .....

Helbidea .....

Herria ..... Posta-kodea .....Tfnoa. .....

Banku edo Aurrezki-kutxa .....

Kontu-zenbakia ..... Sukurtsala .....

Kontuaren jabea .....

Entitate horretako kontuan zordun itzazue JAKINek nire izenean aurkez diezazkizuen ordainagiriak. Agur.

Sinatzailea .....

Helbidea .....

# EGIN EZAZU HARPIDEDUN BERRI BAT

Zenbat eta gehiago izan harpidedunak
orduan eta
eginagoa aterako da JAKIN




# EGAN

Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko BOLETIN-aren euskarazko gehigarria

---

Harpidetu zaitez: Urtean bi ale: ..... 1.300 pezta.
Dendan ale bakoitza: ..... 1.000 pezta.
Atzerrian: ..... 1.600 pezta.

Gainera, aurten harpide egiten direnei, azken lau aleak dohain bidaliko dizkiegu, (aleak agortu arte).

---

Informazio gehiago nahi baduzu, eskatu konpromisorik gabe, eta ale bat bidaliko dizugu dohain.

Gure helbidea: **EGAN**
Euskalerriaren Adiskideen Elkartea
Pº Ramón Mª Lili, 6-4ª-C
Postakutxatilla 992 – 20080 - DONOSTIA

✂ .....

**HARPIDE TXARTELA**

Izen deiturak _____

Helbidea _____

Herria _____ Posta-kodea _____ tel. _____

Banku edo Kutxa _____

Kontu zkia.: _____

*Oharra: Harpidedun naizenez gero, igor iezazkidazu dohain, azken lau aleak.*

Urteko harpide saria: 1.300 pezta (2 ale) (1.600 atzerrian)
Dendan ale bakoitzaren prezioa: 1.000 pezta.

# ELHUYAR

# ZIENTZIA ETA TEKNIKA

EZ GELDITU

AZALEAN

ZATOZ MUINERA

**Elhuyar. Zientzia eta Teknika** aldizkaria jaso nahi dut. Urtean honen hamaika ale jasoko ditut eta gainera doan **Elhuyar** aldizkariaren bi ale.

Izena _____

Helbidea _____ Lanbidea _____

Hiria _____ Telefonoa _____

Ordainketa:

Kontu korronteraren zenbakia: _____

Bankua: _____

Sukurtsala: _____

- ☐ 1993.erako 5.000 pta. Euskal Herria, Espainia eta Frantzia.
- ☐ Bi urterako 9.300 pta.
- ☐ Hiru urterako 14.000 pta.
- ☐ 1993.erako 6.200 pta. beste herrietan.

hilero zure eskutan

Harpidetza-txartela: ELHUYAR KULTUR ELKARTEA. Asteasuain poligonoa. 14. pabilioia. Txikierdi auzoa. 20170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tel. (943) 363040 (943) 363041; Fax-zk.: (943) 363144.

Xabier Kintana, Euskaltzain Oso ..... 206
Euskaldunen aztarrenak Mexikon ..... 208
Zer da EUSENOR? ..... 211
Gazteen Entziklopedia ..... 215

**KRITIKAK ETA ERRESEINAK**

LLAMAZARES, JULIO. La lluvia amarilla. (Luis Mª Mujika) ..... 219
OVIEDO, JOSE MIGUEL. Antología crítica del cuento hispanoamericano del s. XX (1920-1980). (Luis Mª Mujika) ..... 221
ZUBIAGA, FELIX. Oi Emmanuel! (Luis Mª Mujika) ..... 223
JUARISTI FELIPE. Lainoaren erresuma ugaria. (Amaia Iturbide Mendinueta) ..... 224
GARZIA GARMENDIA, JUAN: Itzalen itzal. (Juan Kruz Igerabide) ..... 228

EGAN

Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko
*BOLETIN*-aren euskarazko gehigarria

Urteko harpidetza ..... 1.300 pta.
Atzerrian ..... 1.600 pta.
Ale atzeratuak ..... 1.000 pta.

BOLETIN

De la Real Sociedad Bascongada
de los Amigos del País

Suscripción anual ..... 3.000 ptas.
Número suelto ..... 2.000 ptas.
Número atrasado ..... 2.200 ptas.

EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO
"BOLETIN"-AREN EUSKARAZKO GEHIGARRIA

Idazkaritza: Euskalerriaren Adiskideen Elkartea. Gipuzkoako Saila
992 Postakutxatila — DONOSTIA